

6/2005 FORU ARAUA, OTSAILAREN 28KOA, ARABAKO ZERGA OROKORRARI BURUZKOA

(ALHAO, 30. zk., 05-3-11koa, gehigarria)

ZIOEN AZALPENA

Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra duela hogeita hiru urte onetsi zen. Aldi horretan hainbat aldaketa izan ditu Foru Arauak, eta batzuk oso garrantzitsuak, gainera. Hala ere, gizarteak eta, jakina, Arabak izan duten bilakaera dela eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokor berria onestea komeni da, gainerako zerga-arautegiaren oinarria baita.

Duela hogeita hiru urtekoaren aldean, gaur egungo teknologiaren egoera oso bestelakoa da; horren erakusgarria da zergen kudeaketan eta zergapekoen eta Administrazioaren arteko harremanetan izan den aldaketa. Hain zuzen ere, autolikidazio-sistema erruz erabiltzen da, konturako ordainketak geroago eta garrantzitsuagoak dira eta azken aldi honetan aurrerapen handiak izan dira informazioaren gizartea deritzon horretan, besteak beste; horregatik guztiatik Zergei buruzko Foru Orokor berria behar da, egungo egoerara moldatua.

Beraz, oraintxe dugu aukera Zergei buruzko Foru Arau Orokor modernoa onesteko, zerga-arautegia gaur egungo kudeaketa-moduetara moldatu eta kudeaketa eraginkorra izatea ahalbidetuko duen eta iruzurraren aurkako borroka hobetuko duen sistema arina ezarriko duen Foru Araua. Jakina, eraberritze honetan kontuan izan behar dira herritarren eskubideak eta bermeak eta zerga-prozedurak erraztu behar dira.

Kontzertu Ekonomikoak lurralde historikoetako erakunde eskudunei eman die euren lurraldeko zerga-erregimena mantendu, ezarri eta arautzeko eskumena. Gainera, ezarri du erakundeok zergei buruzko arautegia prestatzean Zerga Lege Orokorrera terminoetan eta kontzeptuetan baizik ez direla egokitu behar.

Foru arau berria aurrekoa baino didaktikoagoa da eta hobeto egituratuta dago, eta erabat aurreratu du zergen arloko zuzenbide orokorraren sistematizazioa. Horrez gainera, orain arte foru esparruan araututa egon ez diren gai batzuk arautu ditu.

Arauak bost titulu ditu, hona: Zerga-ordenamenduaren xedapen orokorrak; tributuak; tributuen aplikazioa; zehatzeko ahala; administrazio-bideko berrikuspena.

I. tituluan ("Zerga-ordenamenduaren xedapen orokorrak"), Arabako zerga-sistemaren printzipio orokorrak ezartzeaz gainera, iturrien sistema, foru araua eman behar den kasuak eta zerga-arauak interpretatzeko, kalifikatzeko eta aplikatzeko sistema zehaztu dira. Hori dela eta, aipatu behar da itzurpenaren aurkako klausula sartu dela lege-iruzurrari buruzko erregulazioaren ordean, aplikatzean arazo batzuk eman ditu eta.

II. tituluan ("Tributuak") zerga-betebeharraren inguruko kontzeptu klasikoak zehaztu dira (zergak, tasak eta kontribuzio bereziak, zerga-egitatea, salbuespena, sortzapena, zerga-oinarria, karga-tasa, etab.) eta zerga-betebehar motak bereiztu dira: batetik zerga-

betebehar nagusia eta bestetik gaur egun garrantzi handia duten zerga-sistemako beste betebehar batzuk, esaterako konturako ordainketak egin beharra eta zergen zioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak.

Berandutza-interesak direla eta, aipatu beharra dago Administrazioak Foru Arauan ebazpena emateko ezarritako epeak bete ezean ez direla eskatuko. Beste alde batetik, aitorpena errekerimendurik gabe epez kanpo aurkezteagatiko errekarquaren eta betearazpen-aldiko errekarquaren arauetan zerga-betebeharra betetzea sustatu da.

Beste alde batetik, testu berrian ezarri denaren arabera, Administrazioak herritarrei interesak ordaindu behar dizkienean, zerga bakoitzari buruzko arautegiaren araberrako itzulketen ondorioz zein bidegabeko sarrerak itzultzearen ondorioz, berandutza-interesa aplikatuko da, hain zuzen ere Administrazioak berak eskatzen duena zergadunek euren zerga-betebeharretan berandutzen direnean. Are gehiago, berandutza-interesa bermeen kostuak itzultzearekin batera ordainduko da.

III. titulua ("Tributuen aplikazioa") da foru arau honetan berrikuntza gehien duena. Batetik, Administrazioa aurretiaz lotesteko prozedurak arautu dira. Prozedura horietan zerga-ordainketarako proposamenak nabarmendu behar dira; beraien bidez zergapekoen segurtasun juridikoa areagotu nahi da kasu oso konplexuetan edo eragin handikoetan.

Bestetik, II. kapituluari zerga-prozedura guztietan, berariazko arauetan besterik xedatu ezean, aplikatu beharreko arau orokorrak ezarri dira. Halaber, aipatu behar da urtero Zerga Administrazioak iruzurraren aurkako plana prestatuko duela.

Zergen kudeaketari dagokionez, prozedura berriak arautu dira eta, gainera, azken aurrerapenak bildu dira; aipagarriena likidazio-proposamena da. Orobat, oso garrantzitsua da egiaztapen mugatuaren prozedura berria.

Beraren bidez kudeaketa-organoek hainbat egiaztapen-jarduketa egin ahal izango dituzte eta, esaterako, egiaztatu nahi den zergapekoaren merkataritzako kontabilitatearen kopia aztertu ahal izango da.

Ikuskapen-prozeduretan ere aldaketa garrantzitsuak egin dira. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupenari dagokionez, hamabi hilabeteko epea ezarri da, arau orokor gisa. Beste alde batetik, egiaztapen eta ikerketakoaz gainera beste ikuskapen-prozedura batzuk ere ezarri dira, ikuskapen-jarduketen prozedura erabat finkatzeko.

Azkenik, zergen bilketaz denaz bezainbatean, xedapen arautzaileak hobeto sistematizatzeaz gainera, enbargo-agindua malgutu da eta erantzuleen eta beraien oinordekoen aurkako prozedura arautu da.

IV. tituluari zehatzeko ahala arautu da; zehapenak zerga-zorretik bereiz arautu dira, bai alderdi materialak, bai formalak. Zergen arloko arau-haustearen ziozko erantzukizunik izango ez den kasuak zehaztu dira; kasu horietan, zergapekoak bere betebeharrak betetzeko asmoarekin prestu jardun duela noiz pentsatuko den finkatu da.

Zehapen-sistema nahikoa erraztu da; hain zuzen ere, zehapen-kategoria batzuk ezabatu dira, zehapenak mailakatzeko lau irizpide baizik ez dira ezarri eta zergapekoa erregularizazioarekin zein zehapenarekin ados dagoenean %40ko txikipena aplikatu ahal izango da.

Zehapen-prozedura zerga aplikatzeko prozeduratik bereiz burutuko da, oro har. Hala ere, adostasun-aktetan eta zergapekoak eskatzen duen kasuetan, bi prozedurak batera egingo dira, prozesu-ekonomiaren mesederako.

Azkenik, Foru Arauan ezarri da zehapen bat inpugnatuz gero betearazpena besterik gabe etengo dela, hots, ez dela egongo bermerik aurkeztu beharrik administrazio-bidean irmoa izan arte.

V. tituluaren ere berrikuntza garrantzitsuak daude administrazio-bideko berrikuspenari buruz. Batetik, berrikuspeneko prozedura berezien sistema hobetu da eta Administrazioaren egintzen errelokazioaren figura sartu da zerga-arautegian (aparteko inguruabarretan aplikatuko da).

Bestetik, berraztertze errekurtsoaren eta Administrazioarekiko diru-erreklamazioaren prozedura arautu da. Epea hamabost egunetik hilabetera luzatu da bietan.

I. TITULUA

ZERGA-ORDENAMENDUAREN XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA

PRINTZIBIO OROKORRAK

1. artikulua.- (23) Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru arau honek Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemaren printzipio eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu, eta zergen arloko foru administrazioari aplikatuko zaio.

Arabako toki erakundeei ere aplikatuko zaie, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunen arautegian ezarritakoaren arabera.

2. Foru arau honek, halaber, Zerga Administrazioaren jarduna arautzen duten printzipio eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu, Europar Batasuneko estatu kideek elkarri laguntzeari buruzko araudiaren aplikazioa dela bide, edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenen edo nazioarteko beste hitzarmen batzuen esparruan.

Foru arau honen ondorioetarako, elkarren arteko laguntzatzat joko dira laguntza, elkarlana, lankidetzak eta antzeko ekintzak, Zerga Administrazioak Europar Batasunarekin, nazioarteko edo nazioz gaindiko beste erakunde batzuekin eta beste estatu batzuekin batera egiten dituenak, Europar Batasuneko estatu kideen arteko laguntzari buruzko araudiaren babesean edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenen zein nazioarteko beste hitzarmen batzuen baitan. Elkarren arteko laguntzak barruan hartu ahal izango du zergapekoen aurrean jarduketak egitea.

3. [\(46\)](#) Elkarren laguntzari buruzko araudia baliatuz Zerga Administrazioak beste estatu batzuei edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuei ematen dien laguntzak araudi horretan ezartzen diren mugak edukiko ditu.

Hain zuzen ere, Batasuneko estatuen arteko laguntza dela eta, Zerga Administrazioak honako hauetan ezartzen diren betebeharrak prozesalak eta materialak edukiko ditu: 2010/24/EB Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2010eko martxoaren 16koa, zerga, eskubide eta beste neurri batzuei dagozkien kredituen kobrantzaren arloko elkarrekiko laguntzari buruzkoa; 2011/16/EB Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2011ko otsailaren 15koa, fiskalitatearen arloko administrazioen arteko lankidetzari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentaraua aldatzen duena.

2. artikulua.- Zerga-sistemaren antolamenduaren eta aplikazioaren printzipioak.

1. Zerga-sistemaren antolamendua, zergak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoan eta justizia, orokortasun, berdintasun, aurrerakortasun, zerga-zamaren banaketa zuzenaren eta konfiskazio ezaren printzipioetan oinarritzen da.
2. Zerga-sistemaren aplikazioa betebeharrak formalak betetzetik eratorritako zeharkako kostuen proportzionaltasunaren eta eraginkortasunaren eta haiek mugatzearen printzipioetan oinarrituko da; zerga-sistema aplikatzean zergapekoen eskubideak eta bermeak errespetatu behar dira.

3. artikulua.- Zergen arloko ahala.

1. Arabako Biltzar Nagusiek dute lurralde historiko honetako zerga-erregimena zaintzeko, ezartzeko eta arautzeko ahala, betiere Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoarekin bat etorritik.
2. Arabako Lurralde Historikoko toki-entitateek zergak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte, ordenamendu juridikoaren arabera.
3. Zuzenbide publikoko gainerako erakundeek ere zergak eskatu ahal izango dituzte, foru arau batek hala zehaztuz gero.

4. artikulua.- Arauak emateko ahala.

1. Foru Aldundiak du zergei buruzko arauak emateko ahala; nolahi ere, toki-entitateek toki-zergak arautzen dituzten zerga-ordenantzak eman ahal dituzte.
2. Foru arau batek, edo araudi batek, berariaz xedatzen duenean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zergen arloko xedapenak eman ahal izango ditu.

5. artikulua.- Zerga Administrazioa.

1. [\(29\)](#) Foru arau honen ondoretarako, III., IV., V., VI. eta VII. tituluetan araututako eginkizunak dituzten organoek osatuko dute Zerga Administrazioa.

2. Foru Aldundiaren eskumenen eremuan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari dagokio zergak aplikatzeko eta zehatzeko ahal, baldin eta foru arau bidez zuzenbide publikoko beste organo edo erakunde bati berariaz eratziki ez bazaio.
3. Foru Aldundiak Estatu osoan baliarazi ahal izango ditu zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko eskumenak, betiere Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoari lotuta.

[\(23\)](#) Halaber, Kontzertu Ekonomikoan xedatutakoaren arabera Foru Aldundiak zergak aplikatzeko dituen eskumenen eremuko zergapekoei dagokienez, Foru Aldundiari dagokio elkarren arteko laguntzari buruzko araudiak zergak aplikatzeko emandako eskumenak edo araudi horren ondoriozkoak erabiltzea.

4. Toki-entitateek zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko eskumenak baliarazi ahal izango dituzte, baina iturri-sistemaren arabera aplikatu beharreko arautegian aurreikusten den irismenarekin eta bertan ezarritakoarekin bat etorritik.
5. Foru Aldundia gainerako zerga administrazioekin lankidetzan arituko da zergak ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera aplikatzeko.

Halaber, toki-entitateen arteko eta hauen eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzarako bideak ezarri ahal izango dira zergak aplikatzeko.

II. KAPITULUA

ZERGEI BURUZKO ARAUAK

1. ATALA

ARAU-ITURRIAK

6. artikulua.- Zerga-ordenamenduaren iturriak.

1. Zergetan, izaera gorabehera, jarraian adieraziko direnak izango dira aginduzko:
 - a) Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta Kontzertu Ekonomikoa.
 - b) Lurralde historikoetako erakundeen arteko koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta lankidetzarako Eusko Legebiltzarrak ematen dituen arauak.
 - c) Foru arau hau, zerga bakoitza arautzen duten foru arauak eta zergen arloko xedapenak dituzten gainerako foru arauak.

- d) Aurrekoak garatzeko asmoarekin, eta bereziki toki-zergen esparruan, ematen diren arauzko xedapenak eta bidezko zerga-ordenantzak.
- 2. Zergei buruzko klausularen bat duten nazioarteko tratatuak edo hitzarmenak aplikatuko dira eta, batez ere, zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenak, barruko ordenamendu juridikokoak badira.
- 3. Europako Batasunak eta zergen esparruko eskumenak dituzten nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuek ematen dituzten arauak aplikatuko dira.
- 4. Bestalde, Administrazio Zuzenbideko xedapen orokorrak eta Zuzenbide Erkideko manuak ordezkokoak izango dira.

7. artikulua.- Zergei buruzko foru araua noiz eman.

Foru arau bidez arautuko dira:

- a) Zerga-egitatearen, sortzapenaren, zerga-oinarriaren eta likidazio-oinarriaren mugaketa, karga-tasaren eta zerga-zorraren zenbatekoan zuzeneko eragileak diren gainerako elementuen finkapena (konturako ordainketen zenbatekoa izan ezik), eta aurkako frogarik onartzen ez duten presuntzioen ezarpena.
- b) Zergen arloan konturako ordainketak egin beharra sortzen duten kasuak.
- c) Foru arau honetako 35. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako zergapekoen eta erantzuleen zehaztapena.
- d) Salbuespenen, txikipenen, hobarien, kenkarien eta gainerako zerga-onura eta zerga-pizgarrien ezarpena, aldaketa, ezabatzea eta luzamendua.
- e) Errekarguen eta berandutza-interesak ordaindu beharraren ezarpena eta aldaketa.
- f) Preskripzio eta iraungitasun epeen eta epe horien zenbaketa eteteko kausen ezarpena eta aldaketa.
- g) Zergen arloko arau-hausteen eta zehapenen ezarpena eta aldaketa.
- h) Zerga-betebehar nagusiak eta konturako ordainketak betetzeari buruzko aitorpenak eta autolikidazioak aurkeztu beharra.
- i) Zerga-betebeharrak ez betetzeak egintza edo negozio juridikoen eraginkortasunean izan ditzakeen ondorioak.
- j) Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak.
- k) [\(29\)](#) Zerga zorren eta zigorren barkamena eta luzamendu eta kiten emakida orokorra.
- l) Administrazioarekiko diru-erreklamazioa eragin dezaketen egintzen zehaztapena.
- m) Zergen arloko esku-hartze iraunkorrak ezartzea dakarten kasuak.

8. artikulua.- Zerga-presako dekretu arauemailea.

1. Presa dela eta, Diputatu Nagusiak edo Foru Aldundiak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, foru arau mailako xedapen orokorrak eman ahal izango dituzte zerga-arauak ezartzeko edo egokitzeko.
2. Aurreko idatz-zatian aipatutako xedapen orokorrak zerga-presako dekretu arauemaileak izango dira; dekretuok Biltzar nagusiei aurkeztuko zaizkie, indarreko arautegiarekin bat etorritik baiets edo ezets ditzaten.

2. ATALA

ZERGEI BURUZKO ARAUEN APLIKAZIOA

9. artikulua.- Zergei buruzko arauen denbora-eremua.

1. Zergei buruzko arauak Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratzen direnetik egutegiko hogeiei egun pasatutakoan jarriko dira indarrean (besterik xedatu ezean) eta epe jakina ezarri ezean ez dute izango mugaegunik.
2. Besterik xedatu ezean, zergei buruzko arauak ez dute atzeraeraginik izango eta arauak indarrean jartzen direnetik sortutako zergei (edozein zergalditakoei) eta orduan hasten den zergaldiko gainerako zergei aplikatuko zaizkie.

Nolanahi ere, zergen arloko arau-hausteen eta zehapenen erregimena eta errekaraguen erregimena arautzen dituzten arauak atzeraeragina izango dute irimo ez diren egintzetan, baldin eta haien aplikazioa interesdunaren onurarako bada.

3. Xedapen orokorrak baliogabetzeak eta, bere kasuan, baliogabetze horren ondorioz onesten diren xedapenen aplikatzeak, betiere sortutako egitate zergapegarrietan eragina badute, ez du kontrako eraginik izango derrigorrezko zergadunentzat irizpide konstituzionaletan eragina dutenean.

10. artikulua.- Zergei buruzko arauak aplikatzeko irizpideak.

Foru arau bidez kasu bakoitzerako egoitzari edo lurraldetasunari buruz ezartzen diren irizpideak aintzat hartuta aplikatuko dira zergak. Bestela, zerga pertsonalak egoitza irizpide hartuta eskatuko dira eta gainerako zergak kargatutako gaiaren izaerarako egokiena den lurraldetasun-irizpidearen arabera.

3. ATALA

INTERPRETAZIOA, KALIFIKAZIOA ETA INTEGRAZIOA

11. artikulua.- Zergei buruzko arauen interpretazioa.

1. Zergei buruzko arauak Kode Zibileko 3. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.
2. Zerga-arauegian zehazten ez diren heinean, bertako arauetan erabiltzen diren terminoak euren adiera juridikoan, teknikoan edo ohikoan (kasuan kasukoan) ulertu behar dira.
3. [\(29\)](#) Foru Aldundiaren eskumenen eremuan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak eta Ogasuneko zuzendariak soilik eman ditzakete zergen arloko foru arauak eta gainerako xedapenak interpretatu edo argitzeko xedapenak.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak emandako interpretazio eta argibide xedapenak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta Zerga Administrazioaren organo guztiek bete beharko dituzte.

Ogasuneko zuzendariak emandako interpretazio eta argibide xedapenak ondorioak izango dituzte zergen eta zehapen ahalaren aplikazioaz arduratzen diren Zerga Administrazioako organo eta erakundeentzat.

12. artikulua.- Kalifikazioa.

Zerga-betebeharrak egindako egitatearen, egintzaren edo negozioaren izaera juridikoaren arabera eskatuko dira, interesdunek eman dioten itxura edo izena kontuan hartu gabe. Horren baliozkotasuna uki dezaketen akatsak alde batera utziko dira.

13. artikulua.- Analogiaz jokatzeari debekatuta dago.

Ez da onartuko analogia zerga-egitatearen, zerga-salbuespenaren eta gainerako zerga-onuren eta -pizgarrien eremua muga zehatzetatik haratago hedatzeko.

14. artikulua.- Itzurpenaren aurkako klausula.

1. Artikulu honetan arautzen den itzurpenaren aurkako klausula zerga-egitate osoa edo beraren zati bat ekiditen denean edo zerga-oinarria nahiz zerga-zorra ondoko bi inguruabarrak betetzen dituzten egintza edo negozioen bidez gutxitzen denean aplikatu ahal izango da. Hona inguruabarrak:
 - a) Banaka nahiz taldeka kontuan hartuta, izan den emaitza lortzeko artifizio handikoak edo desegokiak izatea.

- b) Horien erabilerak zerga-aurrezkia eta ohiko edo norberaren egintzek zein negozioek sortutako ondoreak ez beste ondorio juridiko edo ekonomiko garrantzitsurik ez izatea.
2. Zerga Administrazioak aurreko idatz-zatian arautzen den kasua gertatu dela adierazteko, foru arau honetako 163. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar da.
 3. [\(29\)](#) Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren likidazioetan zergak eskatzeko, ohiko edo norberaren egintza zein negozioei dagokien araua aplikatuko da edo lortutako zerga onurak ezabatuko dira, eta berandutza interesak likidatuko dira.

15. artikulua.- Simulazioa.

1. Simulazioa gertatzen den egintzetan edo negozioetan, alderdiek benetan egindako zerga-egitatea kargatuko da.
2. Simulazioa gertatu dela Zerga Administrazioak adieraziko du likidazio-egintzan; nolanahi ere, kalifikazio horrek zergen arloan baizik ez ditu izango ondoreak.
3. Simulazioaren ondorioz egin beharreko erregularizazioan berandutza-interesak eskatuko dira, eta bidezkoa denean zehapena ere bai.

II. TITULUA

TRIBUTUAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ATALA

ZERGEN KONTZEPTUA, XEDEAK ETA MOTAK

16. artikulua.- Kontzeptuak, xedeak eta motak.

1. Tributuak sarrera publikoak dira, hain zuzen ere herri administrazioek foru arau batek zergak ordaindu beharrarekin lotzen duen zerga-egitate bat egiteagatik eskatzen dituzten diru-prestazioak; beraien helburu nagusia gastu publikoei eusteko beharrezkoak diren kopuruak lortzea da.

Horrez gainera, tributuak politika ekonomiko orokorreko bitarteko gisa erabili ahal dira, gizarte egonkorra eta aurreratua lortzeko eta errenta ahalik eta modurik egokienean banatzeko.

2. Tributuak, zeinahi ere den beraien izena, honela sailkatzen dira: tasak, kontribuzio bereziak eta zergak.
 - a) Tasak tributuak dira eta beraien zerga-egitateak hauexek dira: herri jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egitea eta zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea Zuzenbide Publikoko erregimenean, hain zuzen ere zergapekoei dagozkienak, haiek ukitzen dituztenak edo haiei onura ekartzen dietenak, baldin eta zerbitzu edo jarduera hauek ez badituzte zergapekoek eskatzen edo ez badituzte euren borondatez jasotzen eta ez badituzte egiten sektore pribatukoek.

[\(15\)](#)

- b) Kontribuzio bereziak zerga-egitate hau duten tributuak dira: herri lanak egitearen edo zerbitzu publikoak ezarri nahiz zabaltzearen ondorioz zergapekoak mozkina izatea edo beraren ondasunen balioa gehitzea.
 - c) Zergak kontraprestaziorik gabe eskatzen diren tributuak dira eta beraien zerga-egitatea zergadunaren ahalmen ekonomikoa islatzen duten negozioak, egintzak edo egitateak dira.

2. ATALA

LEGEEN ETA ZERGEN ARTEKO HARREMANAK

17. artikulua.- Legeen eta zergen arteko harremanak.

1. Zergak aplikatzean sortzen diren betebeharrak eta eginbeharrak, eskubideek eta ahalek osatzen dituzte legeen eta zergen arteko harremanak.
2. Legeen eta zergen arteko harreman horiek betebeharrak materialak eta formalak ekarri ahal dizkiete zergapekoei eta Administrazioari; halaber, haietako bat bete ezean, zerga-zehapenak ezarriko zaizkie.
3. Zerga-betebeharrak materialak dira betebeharrak nagusiak, konturako ordainketak egin beharra, zergaren ondorioz norbanakoen artean ezarritakoak eta osagarriak.
4. Zerga-betebeharrak formalak dira zerga-arautegiak zergapekoei (zergaren zordunak izan zein ez) ezartzen dizkien diruzkoak ez bestelakoak, hain zuzen ere zergen arloko jarduketan edo prozeduren garapenarekin lotuta daudenak.
5. Zerga-betebeharren elementuak ezin dira aldatu norbanakoen egintza edo hitzarmenen bidez, hauek ez baitute Administrazioan eraginik izango. Hala ere, ondorio juridiko-pribatuak izan ditzakete.

18. artikulua. - Zerga-kreditua ezin erabili izatea.

Zerga-kreditua ezin da erabili, foru arau batek besterik ezartzen ez badu.

3. ATALA

ZERGA-BETEBEHARRAK

1. AZPIATALA

ZERGA-BETEBEHAR NAGUSIA

19. artikulua. - Zerga-betebehar nagusia.

Zerga-betebehar nagusiaren helburua zerga-kuota ordaintzea da.

20. artikulua. - Zerga-egitatea.

1. Zerga-egitatea zergari buruzko foru arauak finkatzen duen egitatea da; hori burutzeak zerga-betebehar nagusia sortzen du.
2. Zerga-egitatea foru arau bidez muga daiteke, hain zuzen ere zergapean ez dauden kasuak azalduta.

21. artikulua. - Salbuespenak.

Salbuespen izango dira zerga-egitatea egin arren foru arau bidez zerga-betebehar nagusitik kanpo (osorik edo zati batean) uzten diren kasuak.

22. artikulua. - Sortzapena eta galdagarritasuna.

1. Zergaren sortzapena zerga-egitatea gauzatzen eta zerga-betebehar nagusia sortzen denean gertatzen da, zerga bakoitzari buruzko foru arauak beste uneren batean gertatzen dela ezarri ezean.

Sortzapen egunak zehazten ditu zerga-betebeharra eratzeke kontuan hartu beharreko inguruabarrak, zerga bakoitzari buruzko foru arauak besterik ezarri ezean.

2. Zerga bakoitzaren arautegiak sartu beharreko kuota edo kopurua (edo zati bat) zerga sortzen den unean ez beste batean eskatuko dela ezarri ahal izango du.

2. AZPIATALA

KONTURAKO ORDAINKETAK EGIN BEHARRA

23. artikulua.- Konturako ordainketak egin beharra.

1. Zerga-betebehar nagusiaren kontura ordainketak egin beharra hauxe da: zatikako ordainketak egin behar dituenak, atxikitzaileak edo konturako sarrerak egin behar dituenak Zerga Administrazioari kopuru jakin bat ordaintzea.

Zerga-betebehar hau autonomia da zerga-betebehar nagusiarekiko.

2. Zergadunak zerga-betebehar nagusitik kendu ahal izango du jasan dituen konturako ordainketen zenbatekoa, zerga bakoitzari buruzko foru arauak beste zenbateko bat ken dezakeela ezarri ezean.

3. AZPIATALA

ZERGAREN ONDORIOZ NORBANAKOEN ARTEAN SORTZEN DIREN BETEBEHARRAK

24. artikulua.- Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak.

1. Norbanakoen artean zergen ondorioz sortzen diren betebeharrak zergapekoek zerga-prestazioak direla eta elkarri eskatu ahal dizkietenak dira.
2. Mota honetako betebeharrak dira, besteak beste, zerga-arautegian ezarritako jasanarazpenen, atxikipenen edo konturako sarreren ondorioz sortzen direnak.

4. AZPIATALA

ZERGA-BETEBEHAR OSAGARRIAK

25. artikulua.- Zerga-betebehar osagarriak.

1. Atal honetan azaltzen direnak ez beste zerga-betebeharrak osagarriak dira. Zerga Administrazioari eman beharreko diru-prestazioak dira eta beste zerga-betebehar batekin lotuta eskatzen dira.

Zerga-betebehar osagarriak dira berandutza-interesak ordaindu beharra, epez kanpo aurkeztutako aitorpenen gaineko errekarquak ordaindu beharra eta betearazpen-aldiko

errekarguak ordaindu beharra, baita foru arau bidez ezartzen diren gainerako guztiak ere.

2. Zerga-zehapenak ez dira betebehar osagarriak.

26. artikulua.- Berandutza-interesa.

1. Berandutza-interesa prestazio osagarria da, zergapekoei eta arau-hausleei eskatzen zaiena ordainketa bat epez kanpo egiteagatik, kopuru bat sartu beharra dakarren autolikidazio edo aitorten bat zerga-arautegian ezarritako epeaz kanpo aurkezteagatik, bidegabeko itzulketa bat kobratzeagatik edo foru arau bidez ezarritako gainerako arrazoiengatik.

Zergen berandutza-interesa eskatzeko ez da beharrezkoa izango aurretiaz Administrazioak eskatzea, ezta ordaintzera behartuta dagoenak erruzko atzerapena edukitzea ere.

2. Berandutza-interesa ondoko kasuetan eskatuko da, besteak beste:

- a) Administrazioak egindako likidazio baten emaitzako zor bat edo zehapen baten zenbatekoa norberaren borondatez ordaintzeko aldia ordaintzen ez denean.
- b) Autolikidazio edo aitorten bat ezarritako epean aurkezten ez denean edo oker aurkezten denean; honetatik salbu dago foru arau honetako 27. artikuluko 2. idatz-zatian aitortenak errekerimendurik egin gabe epez kanpo aurkezteaz xedatutakoa.
- c) Zerga-egoera erregularizatzeko likidazioa egiten denean, hain zuzen ere ordainketa borondatez egiteko aldia amaitu denetik likidazioa egin arteko aldiari dagokiona.
- d) Egintzaren betearazpena eteten denean; honetatik salbu daude errekurtsioak eta erreklamazioak, administrazio-bidea agortzen duen ebazpenaren jakinarazpenak abiarazitako borondatez ordaintzeko aldia amaitu arte.
- e) [\(23\)](#) Beste estatu batzuen edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakunde batzuen titulartasuneko zorrak kobratzeko eskaera jasotzen denean elkarren arteko laguntzari buruzko araudiaren babesean, betiere araudi horrek besterik adierazi ezean.
- f) [\(23\)](#) Betearazpen-aldia hasten denean; honetatik salbu dago foru arau honetako 28. artikuluko 5. idatz-zatian berandutza-interesez xedatutakoa, betearazpideko errekargua edo premiamendu-errekargu gutxitua eska daitekeenean.
- g) [\(23\)](#) Zergapekoak bidegabeko itzulketa lortzen duenean.

3. Berandutza-interesa epean sartu gabeko zenbatekoaren edo bidegabe kobratutako itzulketaren zenbatekoaren gainean kalkulatu da eta zergapekoa atzeratzen den aldi osoan eskatu ahal izango da, hurrengo idatz-zatian xedatutako salbuespenarekin.
4. Zerga Administrazioak, berari egotz dakioken kausa bategatik, foru arau honetan ebazpena emateko ezarritako epeetako bat betetzen ez duenetik ebazpena eman arte

edo haren aurka errekurtoa aurkeztu arte igarotzen den denboran ez da berandutza-interesik eskatuko. Beste kasu batzuetan, konpentsazio-eskaeren ebazpena, likidazio-egintza edo administrazio-errekurtsoen ebazpena jakinarazteko gehieneko epeak betetzen ez direnetik ez da berandutza-interesik eskatuko; nolana ere, administrazio-errekurtsoen kasuan aurrekoa aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da errekurritutako egintza etetea erabaki izana.

Idatz-zati honetan xedatutakoa ez da aplikatuko ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaerak ebazteko epea betetzen ez denean.

5. Administrazioaren edo epailearen ebazpen baten bidez likidazioa deuseztatu bada eta, ondorioz, likidazio berria egin behar bada, deuseztapenaren arrazoiak ukitzen ez dituen egintzak eta izapideak oso-osoan gordeko dira (baita edukia ere). Halaber, likidazio berriaren zenbatekoaren gaineko berandutza-interesa eskatuko da.

Honelako kasuetan, berandutza-interesa artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera deuseztatutako likidazioarena hasiko zen egun berean hasiko da konputatzen, eta likidazio berria egiteko erabakia hartu arte sortuko da. Nolanahi ere, konputua ebazpena betearazteko gehieneko epea amaitu baino lehen amaitu behar da eta aurreko 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatu behar da.

Errekurtsoak eta erreklamazioak osorik ezesten badira, ezespren-erabakia eman arteko berandutza-interesak eskatuko dira.

6. Berandutza-interesa, eska daitekeen aldian indarrean dagoen diruaren legezko interesa izango da, %25 gehituta, besterik ezarri ezean.

Dena dela, zatikako atzerapenaren kasuan edo kreditu entitatearen edo bata bestearekiko bermeko sozietatearen baten abal solidario bidez edo kauzio-aseguru bidez edo Administrazioak nahikoa jotzen duen beste edozein berme-mota bidez bermatutako zorrak bertan behera uzten direnean, eskatu daitekeen berandutza-interesa legezko interesa izango da.

[\(47.1\)](#)

27. artikulua.- Aitorpena aurretiazko errekerimendurik gabe epez kanpo aurkezteagatik errekaruak.

1. [\(22\)](#) Aitorpena epez kanpo aurkezteagatik errekaruak prestazio osagarriak dira, zergapekoak autolikidazioak edo aitorpenak Zerga Administrazioak aurretiaz errekerimendurik bidali gabe epez kanpo aurkezteagatik ordaindu behar dituztenak.

Artikulu honen ondoreetarako, aurretiazko errekerimendutzat hartuko dira Administrazioak, zergapekoari formalki jakinarazita, zerga-zorra aintzatesteko, erregularizatzeko, ikuskatzeko, finkatzeko edo likidatzeko egiten dituen jarduketak guztiak. Hain zuzen ere, aurretiazko errekerimendutzat hartuko da zergapekoentzako edo haien ordezkarietarako zitazioak argitaratzea bertaratuta jakinarazteko, behin bakarrik interesdun bakoitzeko, foru arau honetako 108. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako baliabideak erabilita.

2. Aitorpena epez kanpo aurkezteagatiko erreargua honelakoa izango da:

- a) %5ekoa, berandutza-interesak eta beste kasu batean eska litezkeen zehapenak bazter utzita, baldin eta autolikidazioa edo aitorpena borondatez aurkeztu eta sartzeko epea amaitu eta hurrengo sei hiletan aurkezten bada.

[\(47.1\)](#)

- b) %5ekoa, beste kasu batean eska litezkeen zehapenak bazter utzita baina berandutza-interesak barne direla, baldin eta autolikidazioa edo aitorpena borondatez aurkeztu eta sartzeko epea amaitu eta ondoko zazpigarren hiletik hamabigarren hileraren bitarteko aldian aurkezten bada.

Horrelako kasuetan, autolikidazioa edo aitorpena aurkezteko epea mugaeguneratu ondoko sei hileko aldia amaitu eta hurrengo egunetik hura aurkeztu arte pasatzen den denborari dagozkion berandutza-interesak eskatuko dira.

- c) %10ekoa, beste kasu batean eska litezkeen zehapenak bazter utzita baina berandutza-interesak barne direla, baldin eta autolikidazioa edo aitorpena borondatez aurkeztu eta sartzeko epea mugaeguneratu eta hamabi hilabete baino gehiago pasatuta aurkezten bada.

Horrelako kasuetan, autolikidazioa edo aitorpena aurkezteko epea mugaeguneratu ondoko hamabi hileko aldia amaitu eta hurrengo egunetik hura aurkeztu arte pasatzen den denborari dagozkion berandutza-interesak eskatuko dira.

Errekargu hau autolikidazioaren ondorioz sartu beharreko zenbatekoa edo epez kanpoko aitorpenaren likidazioaren emaitzako zenbatekoa oinarritzat hartuta kalkulatu da.

Aurretiaz errekerimendurik egin gabe epez kanpo aurkeztutako aitorpenen likidazioetan ez da eskatuko aitorpena aurkeztu denetik likidazioaren emaitzako kopurua borondatez ordaintzeko aldia amaitu arte pasatutako denboraren ziozko berandutza-interesik; hala ere, aitorpena epez kanpo aurkezteagatiko errearguak eta interesak ordaindu beharko dira.

3. Zergapekoek autolikidazioa epez kanpo aurkeztearekin batera ez badute zorra sartzeko, ez ordainketa geroratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskaerarik aurkezten, epez kanpo aurkezteagatik aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera Administrazioak egin beharreko errearguen eta berandutza-interesen likidazioak ez du eragotziko autolikidazioaren zenbatekoaren betearazpen-aldiko errearguak eta berandutza-interesak eskatzea.
4. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatu ahal izateko, epez kanpoko autolikidazioetan berariaz identifikatu behar da likidatutako zergaldia eta aldi horretako datuak baizik ez dira agertu beharko.

28. artikulua.- Betearazpen-aldiko errearguak.

1. Betearazpen-aldiko errekarquak aldi hori hasten denean sortzen dira, foru arau honetako 165. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Betearazpen-aldiko hiru errekarqu mota daude: betearazpideko errekarqua, premiamendu-errekarqu gutxitua eta premiamendu-errekarqu arrunta.

Errekarquok bateraezinak dira eta betearazpen-aldian sartu gabeko zor osoa oinarri hartuta kalkulatzten dira.

2. Betearazpideko errekarqua %5ekoa izango da; betearazpenaldian sartu gabeko zor osoa premiamendu-probidentzia jakinarazi baino lehen ordaintzen denean aplikatuko da.
3. Premiamendu-errekarqu gutxitua %10ekoa izango da; betearazpen-aldian sartu gabeko zor osoa eta errekarqua bera premiamenduaren xede den zorra ordaintzeko foru arau honetako 61. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritako epea amaitu baino lehen ordaintzen direnean aplikatuko da.
4. Premiamendu-errekarqu arrunta %20koa izango da; artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan aipatutako inguruabarrak gertatzen ez direnean aplikatuko da.
5. Premiamendu-errekarqu arrunta berandutza-interesekin bateragarria da. Betearazpideko errekarqua edo premiamendu-errekarqu gutxitua eskatu ahal bada, ez dira eskatuko betearazpen-aldia hasi denetik sortutako berandutza-interesak.
6. [\(23\)](#) Ez da betearazpen aldiko errekarqurik sortuko beste estatu batzuen edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuen titulartasuneko zorren kasuan, elkarren arteko laguntzaren esparruan zerga bilketan jarduten dutenean, betiere laguntza horri buruzko araudian besterik adierazi ezean.

5. AZPIATALA

ZERGA-BETEBEHAR FORMALAK

29. artikulua. - Zerga-betebehar formalak.

1. Zerga-betebehar formalak foru arau honetako 17. artikuluko 4. idatz-zatian definitu dira.
2. Ezartzen direnez gainera, zergapekoek betebehar hauek dituzte:
 - a) Enpresa- edo lanbide-jarduerak egiten dituzten edo egingo dituzten pertsonak eta erakundeek eta atxikipena aplikatu beharreko etekinak ordaintzen dituztenek zentsu-aitorpenak aurkeztu behar dituzte.
 - b) Identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu behar dute eta zerga-harremanetan edo zerga-ordainketan eragina duten harremanetan erabili behar dute.

c) Aitorpenak eta autolikidazioak aurkeztu behar dituzte.

d) Kontabilitate liburuak eta erregistroak eduki eta artatu behar dituzte, bai eta haien euskarri diren programa, fitxategi eta artxibo informatikoak eta, betebeharra sistema informatikoak erabiliz betetzen denean, datuak interpretatzeko kodeketa sistemak ere. Datuak enkriptatuta edo kodetuta badaude eta ezin badira irakurri edo interpretatu, irakurtzeko moduko formatu batera bihurtzeko aukera eman behar da.

Nolanahi ere, autolikidazioak edo aitorpenak bitarteko telematikoen bidez aurkeztu behar dituzten zergapekoek aurkeztutako kontabilitate orrien eta autolikidazioen edo aitorpenen jatorrizko datuak gordeta dauden programen, fitxategien eta artxiboen kopiak gorde behar dituzte.

e) Fakturak edo ordezeko agiriak egin eta eman behar dituzte, eta euren zerga-betebeharrekin lotutako fakturak, agiriak eta frogagiriak gorde behar dituzte.

f) Zerga Administrazioari, berak eskatuta edo aldizkako aitorpenetan, ondokoa eman behar dizkiote: euren eta gainontzekoen zerga betebeharrak betetzearekin lotuta daudelako gorde behar dituzten liburuak, erregistroak, agiriak eta informazioa, eta zergen arloan garrantzia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak. Eman beharreko informazioa euskarri informatikoan badago, bertan aurkeztu behar da, hala eskatuz gero.

g) Administrazioari ikuskatzeak eta egiaztapenak egiten lagundu behar diote.

h) Atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharreko errentak jasotzen dituzten zergapekoei egindako atxikipenen eta konturako sarreren ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte.

i) [\(35\)](#) Fakturak gailu edo baliabide jakin batzuez egitea eta fakturak arautegian ezartzen den epealdiaren barruan bidaltzea Administrazioari.

Halaber, arautegian zehaztuko dira letra honetan aipatzen den betebeharreko baliabideak, gailuak, ezaugarriak eta gainerako inguruabar guztiak.

3. [\(29\)](#) Artikulu honetan xedatutakoa garatzeko ematen diren erregelamenduzko xedapenetan zerga betebeharrak formalak betetzearen inguruabarrak arautu ahal izango dira.

Zehazki, erregistro liburuaren ekarpena aldian behin eta baliabide telematikoen bidez egin beharreko kasuak zehaztuko dira.

[\(23\)](#) 6. AZPIATALA

ZERGA BETEBEHARRAK ELKARREN ARTEKO LAGUNTZAREN ESPARRUAN

29 bis artikulua. - [\(23\)](#) Zerga betebeharrak elkarren arteko laguntzaren esparruan.

Zerga betebeharrak dira elkarren arteko laguntzari buruzko arauditik sortzen direnak. Zergapekoek betebeharrak horiek betetzen ez badituzte, araudi aplikagarrian ezarritako zerga arloko zehapenak jarri ahal izango dira.

4. ATALA

ZERGA ADMINISTRAZIOAREN BETEBEHARRAK ETA EGINBEHARRAK

30. artikulua.- Zerga Administrazioaren betebeharrak eta eginbeharrak.

1. Zerga Administrazioak foru arau honetan ezarritako betebeharrak ekonomikoak bete behar ditu. Betebeharrak ekonomikoak dira zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren ondorioz itzulketak egin beharra, bidegabe sartutako kopuruak itzuli beharra, bermeen kostuak itzuli beharra eta berandutza-interesak ordaindu beharra.
2. Horrez gain, foru arau honetan zerga-prozedurez ezarritako eginbeharrak eta ordenamendu juridikoan ezarritakoak ere bete behar baditu Zerga Administrazioak.

31. artikulua.- Zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak.

1. Zerga Administrazioak zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren arabera bidezkoak diren zenbatekoak itzuliko ditu.

Zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak dira zerga aplikatzean behar bezala sartu edo ordaindutako zenbatekoei dagozkienak.

2. Zerga bakoitzaren arautegian ezarritako epean, eta gehienez ere sei hilabeteko epean, itzulketa egiteko agindu ez bada eta horren kausa Zerga Administrazioari egotzi ahal bazaio, honek foru arau honetako 26. artikuluan araututako berandutza-interesa ordaindu beharko du. Zergapekoak ez du eskatu beharrik izango. Honen ondoretarako, berandutza-interesa epe hori mugaeguneratzen denetik ordainketa agindu arte sortuko da.

32. artikulua.- Bidegabe sartutako kopuruen itzulketa.

1. Zerga Administrazioak zergapekoei, arau-hausleei edo batzuen zein besteen oinordekoei zerga-betebeharrak betetzeko edo zehapenak ordaintzeko Herri Ogasunari bidegabe sartutako kopuruak itzuliko dizkie, foru arau honetako 228. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
2. Bidegabeko sarrerak itzultzearekin batera, Zerga Administrazioak foru arau honetako 26. artikuluan araututako berandutza-interesa ordainduko du. Zergapekoak ez du eskatu beharrik izango. Ondore hara, berandutza-interesa bidegabeko sarrera egin denetik itzulketa egiteko agindua eman arte sortuko da.

Interesdunari egotzi dakioken arrazoren bat dela medio prozeduran gertatzen diren luzapenak ez dira kontuan hartuko aurreko paragrafoan aipatutako aldia zenbatzeko.

3. Hainbat epetan sartutako autolikidazio baten ondorioz bidegabe sartutako kopuru bat itzultzen denean, itzulitako zenbatekoa azken epean sartu dela ulertuko da; zenbateko hori nahikoa ez bada, diferentzia aurre-aurreko epeetan ordaindu dela ulertuko da.

33. artikulua.- Bermeen kostuen itzulketa.

1. (35) Epai edo administrazio-ebazpen irmo batek egintza edo zor bat bidegabekotzat jotzen badu, Zerga Administrazioak haren betearazpena eteteko edo ordainketa geroratzeko nahiz zatikatzeko eman diren bermeen kostua itzuliko du, zenbatekoa behar bezala egiaztatu ondoren. Egintza edo zorra zati batean bidegabekoa dela adierazten bada, bermeen kostutik zati horri dagokion kopurua itzuliko da.

Itzultzeko prozedura eta bermeen kostua zehazteko modua arau bidez arautuko dira.

Posible den aldiro, Administrazioaren esku dagoen informazioaren arabera, itzulketa ofizioz egingo da.

2. Bermeen kostuak itzultzearekin batera, Zerga Administrazioak indarreko berandutza-interesa ordainduko du sortzen den aldi osoan. Zergapekoak ez du eskatu beharrik izango. Ondore hauetarako, berandutza-interesa kostuak sortu direnetik (frogatu egin behar da) ordainketa egiteko agindua eman arte sortuko da.
3. Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko zerga bakoitzaren arautegian zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko ezartzen diren bermeei.

5. ATALA

ZERGAPEKOEN ESKUBIDEAK

34. artikulua.- Zergapekoen eskubideak.

Hauexek dira zergapekoen eskubideak, besteak beste:

- a) Zerga Administrazioak euren eskubideez eta zerga betebeharrak betetzeaz informazioa eta laguntza emateko eskubidea.
- b) Foru arau honetan ezarritakoarekin bat etorritz, zerga bakoitzaren ondoriozko itzulketak eta bidegabe sartutako kopuruen itzulketak jasotzeko eskubidea, eta haiekin batera foru arau honetako 26. artikuluan ezarritako berandutza-interesa eskaerarik aurkeztu gabe jasotzeko eskubidea.
- c) Foru arau honetan ezarritakoari lotuta, egintza baten betearazpena eteteko edo zor baten ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko aurkeztutako abalen eta bestelako bermeen kostua itzultzeko eskubidea, aipatu egintza edo zorra epai edo administrazio-

ebazpen irmoaren bidez bidegabekotzat jo bada. Horrez gainera, berandutza-interesa ere jaso ahal izango dute eskaerarik aurkeztu gabe, eta jarritako errekurtoa edo erreklamazio zati batean baiesten bada, aurkeztutako bermea proportzioan murriztu beharko zaie.

- d) Zerga Administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, ordenamendu juridikoan ezarri denarekin bat etorritz.
- e) Interesdunak badira, edozein unetan jakin dezakete prozeduren izapideak zertan diren.
- f) Interesdun diren zergen arloko jarduketak eta prozedurak izapidetzen dituzten Zerga Administrazioako agintariak eta langileak zein diren jakiteko eskubidea.
- g) Aurkeztutako aitortzen ziurtagiriak eta haien kopiak eskatzeko eskubidea, Administrazioari aurkeztutako agirien kopia zigilatua lortzeko eskubidea, baldin eta jatorrizkoekin batera aurkezten badituzte, erkatzeko, eta jatorrizko agiriak itzultzeko eskubidea, espedientean egon behar ez badira.
- h) Administrazio jarduleak lehendik ere badituen agiriak ez aurkezteko eskubidea, baldin eta aurkeztu diren eguna eta prozedura aurkezten badituzte.
- i) Zerga Administrazioak biltzen dituen datuak, txostenak eta aurrekariak isilpean edukitzeko eskubidea, lege ezarritakoari lotuta. Horiek guztiak, Zerga Administrazioak kudeatu behar dituen tributuak edo baliabideak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko baizik ezin ditu erabili; gainontzekoei ezin dizkie ez laga ez jakinarazi, arautegian ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik.
- j) Zerga Administrazioako agintariak eta haren zerbitzuko langileak begirunearekin eta errespetuarekin hartzeko eta tratatzeko eskubidea, eta tratu pertsonala eta banakakoa jasotzeko eskubidea.
- k) Zerga Administrazioak zergapekoek esku hartuta egin beharreko jarduketak ahalik eta kosturik txikienarekin egiteko eskubidea, betiere, zerga betebeharrak betetzea eragotzi gabe.
- l) Alegazioak egiteko eta agiriak aurkezteko eskubidea, organo eskudunek kontuan izan ditzaten, zerga arautegian ezarritakoaren arabera.
- m) Entzunaldi izapidean nahi dutena adierazteko eskubidea, foru arau honetan ezarritakoaren arabera.
- n) Eskuratu edo eskualdatuko diren ondasun higiezinaren balioaren berri jakiteko eskubidea, zerga-arautegian ezarritakoaren arabera.
- ñ) Zerga-arautegian ezarritakoaren arabera, egiaztapen edo ikuskapen jarduketak hastean haien izaeraren eta hedaduraren berri jakiteko eta jarduketetan izango dituzten eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko eskubidea eta jarduketok foru arau honetan ezarritako epeetan burutzeko eskubidea.
- o) Aplikatu dakizkiekeen zerga-onurak edo -erregimenak aintzatesteko eskubidea.

- p) Zerga Administrazioaren funtzionamenduaren inguruan kexuak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.
- q) Egiten dituzten adierazpenek zerga-ordainketan eragina badute, adierazpenok zerga-prozeduretan egindako eginbideetan biltzeko eskubidea.
- r) Zerga Administrazioari zerga-prozedurak ebazteko kontuan eduki beharreko agiriak eskatzeko eskubidea.
- s) Administrazio-espeditetako agirien kopiak ordainduta eskuratzeko eskubidea, zerga-arautegian ezarritakoaren arabera.
- t) Fede onez jokatu dutelako presuntziorako eskubidea.
- u) Biltzen diren zergak zertan erabiliko diren jakiteko eskubidea, zerga-arautegian ezarritakoaren arabera.
- v) Zerga Administrazioak objektibotasunarekin jarduteko eskubidea.

II. KAPITULUA

ZERGAPEKOAK

1. ATALA

ZERGAPEKO MOTAK

35. artikulua.- Zergapekoak.

1. Zergapekoak dira zerga-arautegiaren arabera zerga-betebeharrak (materialak nahiz formalak) dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak eta erakundeak.
2. Besteak beste, hauexek dira zergapekoak:
 - a) Subjektu pasiboak.
 - b) Konturako ordainketak egin behar dituztenak.
 - c) Zergen ondorioz norbanakoen arteko betebeharrak dituztenak.
 - d) Oinordekoak.
 - e) Zergen arloko salbuespenen, itzulketen edo hobarien onuradunak, subjektu pasiboak ez badira.

3. Berariaz ezartzen den foru arauetan, zergapekoak izango dira jaraunspen banatu gabeak, ondasun erkidegoak eta, nortasun juridikorik ez izan arren, zergapeko ekonomi batasuna edo ondare bereizia diren gainerako erakundeak.
4. Halaber, foru arau honetako 41. artikuluan aipatutako erantzuleak ere zergapekoak dira.
5. [\(23\)](#) Zergapekotzat joko dira, halaber, elkarren arteko laguntzari buruzko araudiari jarraituz zerga betebeharrak ezarri ahal zaizkien guztiak.
6. [\(31\)](#) Orobat, zerga honen zergadunak ere izango dira testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak. Kasu horietan, zerga betebeharrak materialak eta formalak betetzea herentziaren administratzaileari edo gozamendun ahaldunari egokituko zaio, hurrenez hurren.
7. [\(23\)](#) Betebehar batean zergapeko bat baino gehiago badago, Zerga Administrazioari prestazio guztiak solidario gisa ordaindu beharko dizkiote, foru arau batek berariaz besterik xedatu ezean.

Foru arau bidez aurreko paragrafoan aurreikusitakoez gainerako beste solidaritate-kasu batzuk ezarri ahal izango dira.

8. [\(47.1\)](#)

36. artikulua.- Subjektu pasiboak: zergaduna eta zergadunaren ordezkoa.

1. Subjektu pasiboa zerga-betebehar nagusia eta hari datxezkion betebehar formalak zergadun gisa nahiz haren ordezkari gisa bete behar dituen zergapekoa da. Zerga-kuota beste zergapeko bati jasanarazi behar diotenak ere subjektu pasibo izango dira, zergari buruzko foru arauan besterik ezarri ezean.
2. Zergaduna zerga-egitatea egiten duen subjektu pasiboa da.
3. Zergadunaren ordezkaria da foru arau batean ezarritakoaren arabera zerga-betebehar nagusia eta hari datxezkion betebehar formalak zergadunaren ordezkari bete behar dituen subjektu pasiboa.

Ordezkoak ordaindutako zerga-betebeharren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari, foru arau bidez besterik ezarri ezean.

37. artikulua.- Konturako ordainketak egin behar dituztenak.

1. Zergadunak zatikako ordainketa egin behar duela esaten da zergari buruzko foru arauaren arabera zerga-betebehar nagusia eskatu baino lehen haren kontura zenbateko jakin batzuk sartu behar baditu.
2. Pertsona edo erakunde bat atxikitzailea dela esaten da zergari buruzko foru arauaren arabera beste zergapeko batzuei egin beharreko ordainketen zenbatekoen zati bat haien zergaren kontura atxiki eta Zerga Administrazioari sartu behar badio.

3. Pertsona edo erakunde batek konturako sarrerak egin behar dituela esaten da gauzazko edo diruzko errentak ordaintzen baditu eta foru arau bidez zergaren baten konturako sarrerak egin behar baditu.

38. artikulua.- Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak dituztenak.

1. Zergak jasanarazi behar dituzte foru arau bidez ezarritakoaren arabera zerga-kuotak beste pertsona edo erakunde batzuei jasanarazi behar dizkieten pertsonak edo erakundeak; foru arauak besterik xedatu ezean, kargatutako eragiketak egin dituenak berak egin behar du jasanarazpena.
2. Aipatu jasanarazpena jasan behar dute foru arau bidez ezarritakoaren arabera zerga-kuota jasanarazi behar zaien pertsonak edo erakundeak; foru arauak besterik xedatu ezean, kargatutako eragiketen hartzaileak berak jasan behar du kuota. Kuota jasanarazten zaionak ez du Zerga Administrazioari ezer ordaindu beharrik, baina subjektu pasiboari jasanarazitako kuotaren zenbatekoa ordaindu behar dio.
3. Atxikipena jasan behar dute foru arauan ezarritakoaren arabera atxikitzaileek zerga-atxikipena aplikatu beharreko zenbatekoak jasotzen dituzten pertsonak edo erakundeak.
4. Pertsonak edo erakundeak jasotzen dituzten gauzazko edo diruzko errenten zioz zergen kontura egindako sarrerak jasan beharra ezarri ahal izango zaie, bai eta, bidezkoa denean, errenta horien ordaintzaileek beraien zenbatekoa jasanarazi beharra ere.

2. ATALA

OINORDEKOAK

39. artikulua.- Pertsona fisikoen oinordekoak.

1. [\(31\)](#) Zergadunak zentzean, ordaintzeko dauden zerga betebeharrak jaraunsleei eskualdatuko zaizkie, betiere legeria zibilak oinordetza eskuratzeari buruz eta, bereziki, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 21. artikulua jasotako erantzukizun mugaketari buruz ezartzen duenari kalterik egin gabe.

Zerga betebeharrak horiek legatudunei eskualdatuko zaizkie jaraunsleentzat ezarritako baldintza berberetan, herentzia legatuen bidez banatzen denean, baldin eta zati alikuotako legatuak ezartzen badira eta jaraunsle gisa titulu partikularrean ezartzen bada herentziaren hiru laurdenetik gorako balioa duen familia ondare edo ondare profesional batean.

Zehapenak ez dira inoiz eskualdatuko. Erantzulearen betebeharra ere ez da besterenduko, zendu aurretik erantzukizuna eratortzeko akordioa jakinarazia izan ezean.

2. Kausatzailea hiltzen denean zerga-zorra likidatu gabe egoteak ez du eragotziko sortutako zerga-betebeharrak oinordekoei eskualdatzea; hala gertatzen denean, jarduketak zeinahi

oinordekorekin egingo dira eta jarduketa horien emaitzako likidazioa espedientean ageri diren interesdun guztiei jakinarazi beharko zaizkie.

3. Jaraunspena banatu gabe dagoen bitartean, kausatzailearen ordezkariak bete beharko ditu haren zerga-betebeharrak.

Administrazioak kausatzailearen zerga-betebeharrak zenbatekotzeko, zehazteko eta likidatzeko egiten dituen jarduketak jaraunspen banatu gabearen ordezkariarekin burutu edo jarraitu beharko dira. Prozedura amaitutakoan oraindik ez badira jaraunseak ezagutzen, likidazioak jaraunspen banatu gabearen izenean egingo dira.

40. artikulua.- Pertsona juridikoen eta nortasunik gabeko erakundeen oinordekoak.

1. [\(23\)](#) [\(35\)](#) Nortasun juridikodun sozietate edo erakunde bat desegiten eta likidatzen bada eta legeriak bazkideen, partaideen edo titularkideen ondasun erantzukizunamugatzan badu, bete gabeko zerga betebeharrak horiei eskualdatuko zaizkie, eta betebeharrak solidarioa izango dute, muga honekin: likidazio kuotan dagokien balioa eta desegin edo konkurtsoa aitortu aurreko lau urteetan jasotako ondare hartukizunak, konkurtsoa lehenago aitortu bada, betebeharrak aurre egiteko dagoen sozietatearen ondarea murrizten dutenak, bazkide, partaide edo titularkide horien erantzukizun kasuetarako foru arau honetan ezarritakoa eragotzi gabe.

Nortasun juridikodun sozietate edo erakunde bat desegiten eta likidatzen bada eta legeriak bazkideen, partaideen edo titularkideen ondasun erantzukizunamugatzan ez badu, bete gabeko zerga betebeharrak guztiak horiei eskualdatuko zaizkie, eta solidarioki bete beharko dituzte.

2. [\(23\)](#) Nortasun juridikodun sozietate edo erakunde bat likidaziorik gabe azkentzen edo desegiten bada, bete gabeko zerga betebeharrak oinordeko pertsona edo erakundeei edo eragiketaren onuradun direnei eskualdatuko zaizkie. Arau hau nortasun juridikodun sozietate edo erakunde baten aktibo eta pasibo osoa lagatzen denean ere aplikatuko da.
3. Fundazio bat desegiten bada, bete gabeko zerga-betebeharrak ondasunen eta eskubideen hartzaileei eskualdatuko zaizkie, haien balioaren mugarekin.
4. Foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren erakundeetako desegiten bada, bete gabeko zerga-betebeharrak guztiak partaideei edo titularkideei eskualdatuko zaizkie.
5. Sozietatea edo erakundea desegiten denean edo haren nortasun juridikoa azkentzen denean zerga-zorra likidatu gabe egoteak ez du eragotziko sortutako zerga-betebeharrak oinordekoei eskualdatzea.
6. [\(23\)](#) Artikulu honetan aipatutako sozietateei eta erakundeei arau hausteengatik ezartzen zaizkien zehapenak beraien oinordekoei eskatu ahal izango zaizkie, aurreko idatz zatietan ezarritakoari lotuta, artikulu honetako 1. idatz zatian xedatutakoaren arabera kalkulaturako balioaren mugarekin.

3. ATALA

ZERGA-ERANTZULEAK

41. artikulua.- Zerga-erantzukizuna.

1. Foru arau bidez ezarrita, zordun nagusiez gainera beste pertsona edo erakunde batzuk ere izan daitezke zerga-zorraren erantzuleak, solidarioak edo subsidiarioak. Ondore hauetarako, foru arau honetako 35. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako zergapekoak dira zordun nagusiak.
2. Kontrako berariazko legezko manurik izan ezean, erantzukizuna beti izango da subsidiarioa.
3. Erantzukizunak borondatezko aldian eskaturiko zerga-zor osoa hartuko du.

Erantzuleak borondatez ordaintzeko ematen zaion aldian sarrera egiten ez badu, betearazpen-aldia hasiko da eta bidezko errekaruak eta interesak eskatuko dira.

4. [\(23\)](#) Erantzukizunean ez dira zehapenak sartuko, foru arau honetan edo beste batean ezartzen diren salbuespenetan izan ezik.

Erantzukizunean zehapenak sartuz gero, baldin eta zordun nagusiak eskubidea eduki badu foru arau honetako 192. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako murrizketa aplikatzeko, zorraren zenbatekoa zordun nagusiari murrizketa aplikatu gabe dagokiona izango da, eta erantzukizuna adierazteko proposamenean adostasun izapidea egingo zaio erantzuleari.

Murrizketa foru arau honetako 192. artikuluko 1. idatz zatian ezarri da; zenbatekoa idatz zati horretako lehenengo paragrafoa edo bigarrenetan ezarritakoa izango da, kasuan kasukoa, batean edo bestean ezarritako baldintzak betetzen diren. Erantzuleak lortzen duen murrizketa beste izapiderik gabe eskatuko zaio erantzukizuna adierazten duen erabakiaren kontrako errekurtsorik edo erreklamaziorik aurkeztuz gero deribazioaren bidezko tasuna edo ondoriozko likidazioak oinarritzat hartuta.

Gainera, baldin eta, foru arau honetako 192. artikuluko 1. idatz zatiko lehenengo paragrafoan xedatutakoa beteta, ordaindu beharreko guztia ordaintzen ez bada, bai zerga zorra, bai zehapena (192. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarri den bezala), aplikatutako murrizketa eskatuko da, hau da, bidezko diru zehapenaren ehuneko 20, eta horretarako izapide bakarra interesdunari jakinaraztea izango da.

Idatz zati honetan ezarritako murrizketak ez dira aplikatuko zorrak ordaintzeagatik erantzukizuna gertatzen denean, foru arau honetako 42. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik.

5. Foru arau bidez besterik xedatu ezean, zerga-zorra eskatzeko eta, behar denean, erantzuleei zehapenak ezartzeko administrazio-jarduna deribatzeke administrazio-egintza beharko da, foru arau honetako 178 181 bitarteko artikuluetan ezarritako prozedurarekin bat etorritik.

Adierazpen horren aurretik Zerga Administrazioak foru arau honetako 78. artikuluan ezarritako kautelazko neurriak aplikatu ahal izango ditu eta, 136. eta 166. artikuluetan ezarritako ahalmenez baliatuta, ikerketa-jarduketak egin ahal izango ditu.

Administrazio-jarduna erantzule subsidiarioetara deribatzeke, aurretik zordun nagusiari eta erantzule solidarioei ezin zaiela kobratu adierazi behar da.

6. Erantzuleek zordun nagusiak dirua itzultzeko eskubidea dute, legeria zibilean ezarritakoaren arabera.

42. artikulua.- Erantzule solidarioak.

1. Ondoko pertsona edo erakunde hauek izango dira zerga-zor osoaren eta, hala denean, zehapenen erantzule solidarioak:
 - a) Zergen arloko arau bat hausten dutenak edo horretan modu aktiboan laguntzen dutenak.
 - b) Aurreko letran xedatutakoa eragotzi gabe, foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeen partaideak edo titularkideak, euren partaidetzen proportzioan, erakundeen zerga-betebehar materialei dagokienez.
2. Halaber, ustiapen edo jarduera ekonomikoen titulartasunean edo jardunean zeinahi kontzepturen zioz oinardeko diren pertsona edo erakundeak aurreko titularrak bere jardunean sortutako zerga-betebeharren eta zehapenen erantzule solidarioak izango dira. Erantzukizunean egindako edo egin beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak ez sartzearen ondoriozko betebeharrak ere sartuko dira.

Hala ere, ustiapen eta jarduera ekonomikoen titulartasuna eskuratu nahi dutenek idatz-zati honetan ezarritako erantzukizuna mugatu ahal izango dute foru arau honetako 180. artikuluko 2. idatz-zatian araututako prozeduraren bidez.

Idatz-zati honetan ezarritako erantzukizuna ezin izango da aplikatu kasu hauetan.

- a) Elementu bakarra eskuratzen denean; salbuespena dago: elementua pertsona edo erakunde batek nahiz batzuek eskuratzea eta horri esker ustiapenak edo jarduerak, edo haren adarretako batek, aurrera egitea.
 - b) Oinordetza heriotzagatik gertatzen denean; honelako kasuetan foru arau honetako 39. artikuluan ezarritakoa izango da aginduzko.
 - c) Zordun konkurtsatu baten ustiapen edo jarduera ekonomikoa eskuratzen denean, baldin eta konkurtsu prozedura batean eskuratzen bada.
3. [\(23\)](#) [\(45\)](#) Halaber, sartu gabeko atxikipenak egin dituzten erakundeen erantzule solidarioak izango dira haien egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak, kapitalean zuzenean zein zeharka gutxienez ehuneko 20ko partaidetza duten bazkideak, erkideak edo partaideak, beraien ezkontideak edo izatezko bikotekideak, bai eta bigarren gradura arteko aurrekoak eta ondorengoak ere. Erantzukizunaren

zenbatekoa atxikipenak direla eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioan aplikatutako kenkariaren zenbatekoa izango da. Atxikitako kopuruen zati bat sartu bada, ordaindu gabeko zorra proportzioanegotziko zaio atxikipenak aplikatu dituen bakoitzari.

Gainera, pertsona juridikoen kontrol efektiboa (osoa edo partziala, zuzenekoa edo zeharkakoa) duten edo haiekin batera zuzentzeko borondatea duten pertsona edo erakundeak, edo, bestela, zergapekoek efektiboki (osorik edo partzialki) kontrolatzen dituzten edo zergapeko horiekin batera zuzentzeko borondatea duten pertsona edo erakundeak, batzuen eta besteen zerga zorren eta zigorren erantzule solidarioak izango dira.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko ezinbestekoa da frogatzea erakunde edo pertsona horiek abusuz edo iruzurrez sortu edo erabili direla Herri Ogasunaren aurreko ondare erantzukizun unibertsala saihesteko.

4. Orobat, ondoren azalduko diren pertsonak edo erakundeak ere zerga-zorren eta, hala denean, zehapenen ordainketaren erantzule solidarioak izango dira, Zerga Administrazioak enbargatu edo besterendu dituen ondasunen eta eskubideen balioaren zenbatekoaren mugarekin:
 - a) Zerga Administrazioaren jarduketa eragozteko asmoarekin, zerga ordaindu behar duenaren ondasunak edo eskubideak ezkutatzen edo eskualdatzen dituztenak edo horretan laguntzen dutenak.
 - b) Erruz edo arduragabekeriak enbargo-aginduak betetzen ez dituztenak.
 - c) Enbargoaren, kautelazko neurriaren edo bermearen eraketaren berri izan arren, enbargatutako ondasunak edo eskubideak, edo kautelazko neurria edo bermea ezarrita duten ondasunak edo eskubideak kentzen laguntzen dutenak, edo hori egitea eragotzi ez dutenak.
 - d) Zordunaren ondasunak gordailatuta dituzten pertsonak edo erakundeak, enbargoaren jakinarazpena jaso ondoren haiek kentzen laguntzen badute edo hori egitea eragotzi ez badute.
- 4 bis. (40) Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 66. artikuluko 3. apartatuko lehenengo paragrafoan xedatutakoaren ondoriozko zerga zorra ordaintzekoerantzule solidarioak izango dira, halaber, artikuluko 2. apartatuan ezarritako erantzukizunpeko adierazpena izenpetu duten administratzaileak, entitateak ez badu bete hartan ezarri bezala bereizkeriarik ez egiteko obligazioa.
5. Foru arau bidez aurreko idatz-zatietan ezarritakoak ez erantzukizun solidarioko beste kasu batzuk ezarri ahal izango dira.
6. Erantzukizun solidarioa adierazteko eta eskatzeko prozedura foru arau honetako 180. artikuluan ezarri da.

43. artikulua.- Erantzule subsidiarioak.

1. Ondoko pertsona edo erakunde hauek izango dira zerga-zorren erantzule subsidiarioak:

- a) Foru arau honetako 42. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran xedatutakoa eragotzi gabe, pertsona juridikoen egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak, baldin eta, haiek zergen arloko arau-haustea egin ondoren, zerga-betebeharrak eta -eginbeharrak betetzeko beharrezko egintzak egiten ez badituzte, ardurapean dituztenei betebeharrak ez betetzen utzi badiete edo arau-haustea ahalbidetzeko erabakia hartu badute. Haien erantzukizunean zehapenak ere sartuko dira.
- b) Jarduerak egiteari utzi dioten pertsona juridikoen egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak, jarduera horien ondorioz sortu eta jarduerari uztean bete gabe dauden zerga-betebeharrei dagokienez, baldin eta ordaintzeko egin beharrekoa egin ez badute edo ez ordaintzeko erabakia hartu badute edo horretarako neurriak aplikatu badituzte.
- c) [\(23\)](#) Konkurtso administrazioaren kideak eta erakunde eta sozietateen likidatzaileak, oro har, baldin eta egoera horiek gertatu aurretik sortutako zerga betebeharrak, zergapekoei egotzi ahal zaizkienak, erabat betetzeko beharrezko kudeaketak egiten ez badituzte.

Administratzaile eginkizunak ezarrita badituzte, konkurtsoa adierazi ondoko zerga betebeharren eta zehapenen erantzuleak izango dira administratzaile gisa. Gainera, zerga betebeharren erantzuleak izango dira zerga kredituen aurrean lehentasunik ez duten hirugarrenen kredituak ordaindu badira; erantzukizunaren muga: oker ordaindutako zenbatekoa.

- d) Foru arau bidez zerga-zorra ordaintzera xedatutako ondasunen eskuratzailerak, foru arau honetako 77. artikuluen arabera.
- e) Jarduera ekonomiko nagusiaren obrak edo zerbitzuak kontratatzen edo azpikontratatzeko dituzten pertsonak edo erakundeak, langileei, profesionali edo beste enpresari batzuei jasanarazi edo atxiki behar zaizkien zergen betebeharrei dagokienez, hain zuzen ere kontratatu edo azpikontratatzeko obra edo zerbitzuen proportzioan.

Aurreko paragrafoan ezarritako erantzukizuna ezin eskatu izango da kontratistak edo azpikontratistak ordaintzaileari zerga-betebeharretan egunean dagoelako ziurtagiria, Zerga Administrazioak berariaz emana, aurkeztu badio kontratazioaren edo azpikontratazioaren faktura bakoitza ordaindu aurreko hamabi hiletan.

Erantzukizuna kontratistak edo azpikontratistak ordaintzaileari zerga-betebeharretan egunean dagoelako ziurtagiria aurkeztu gabe egindako ordainketetara edo azken ziurtagiria aurkeztu zuenetik hamabi hilabete baino gehiago pasatuta egindakoetara mugatuko da.

Zerga Administrazioak kontratistak edo azpikontratistak eskatu eta hiru egun igaro aurretik eman edo ukatuko du letra honetan aipatutako ziurtagiria; eskatzen dizkion ziurtagiriaren kopiak eman beharko dizkio.

- f) [\(31\)](#) Testamentu ahalordearen edo gozamen ahalhunaren bidez gauzatzen diren herentzietan, administratzailea eta gozamen ahalhunaren, hurrenez hurren, erantzule subsidiarioa izango da testamentu ahalordea edo gozamen ahalhunaren erabili gabe duen herentziaren zerga zorrei dagokienez.
2. [\(23\)](#) Langileei, profesionalei edo beste enpresari batzuei jasanarazi behar zaizkien zergen edo aplikatu behar zaizkien atxikipenen ondoriozko zorren erantzule solidarioak izango dira zor horiek aitortu eta ordaindu behar dituzten pertsona juridikoen egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak, baldin eta, jardura jarraikoa izanik, behin eta berriro aurkezten badira sarrerarik gabeko autolikidazioak zerga kontzeptu horiengatik eta egiaztatzen bada autolikidazio horien benetako asmoa ez dela zerga betebeharra betetzea.
- Halako autolikidazioak behin eta berriro aurkeztutzat joko dira egutegiko urte batean sarrerarik gabe aurkezten badira egin beharreko autolikidazioen erdiak edo gehiago, jarraian edo noizean behinka. Kalkulu horretan ez da kontuan edukiko ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatu den, ez eta autolikidazioa ezarritako epealdiaren barruan zein kanpo aurkeztu den ere.
- Honen ondorioetarako ez dira konputatuko ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaera aurkeztu ondoren horren aldeko ebazpena eman den autolikidazioak; aldiz, ebazpenean ezarritakoa bete ezean, autolikidazioa konputatuko da. Beste alde batetik, inolaz ere ez dira konputatuko behar bezala eratutako bermearekin emandakoak.
- Erantzukizun honi dagokionez, autolikidazioak sarrerarik gabe aurkeztutzat joko dira, nahiz eta denetan edo batzuetan sarrera partzialak egin, baldin eta idatz zati honetako bigarren paragrafoan aipatzen den egutegiko urteko sarrera partzialen guztirako zenbatekoa autolikidazioen arabera sartu beharreko kuoten ehuneko 50 baino gehiago ez bada.
- Idatz zati honetako lehenengo paragrafoan aipatzen den bezala zerga betebeharrak betetzeko benetako asmorik ez dela egon pentsatuko da honelako kredituak ordaindu badira: idatz zati honetan aipatzen den erantzukizunak hartzen dituen zerga betebeharrak sortu edo eskagarri gertatu diren egunaz gero mugaeguneratzen diren hirugarrenen kredituak eta betebeharrak horien ondoriozko zerga kredituen aurrean lehentasunik ez duten kredituak.
3. [\(23\)](#) Foru arau bidez aurreko idatz zatietan ezarritakoak ez erantzukizun subsidiarioko beste kasu batzuk ezarri ahal izango dira.
4. [\(23\)](#) Erantzukizun subsidiarioa adierazteko eta eskatzeko prozeduran foru arau honetako 181. artikuluan xedatutakoa izango da aginduzko.

4. ATALA

ZERGEN ARLOAN JARDUTEKO GAITASUNA

44. artikulua.- Jarduteko gaitasuna.

Zuzenbidearen arabera pertsonak ez ezik, adingabeek eta ezgaituek ere badute zergen arloan jarduteko gaitasuna, hain zuzen ere ordenamendu juridikoaren arabera gurasoen ahala, tutoretza, kuradoretza edo judizioko defentsa egiten duen pertsonaren laguntzarik gabe egin ditzaketen jardueren ondoriozko zerga-harremanetan jarduteko gaitasuna. Adingabe ezgaituek, aldiz, ez dute izango gaitasun hori euren eskubideak baliarazteko eta interesak defendatzeko ezgaituta badaude.

45. artikulua.- Legezko ordezkaritza.

1. Jarduteko gaitasunik ez duten subjektu pasiboen ordezkari euren legezko ordezkariak jardungo dute.
2. Pertsona juridikoen legezko ordezkari gisa zerga-jarduketak gertatzen direnean haien ordezkaritza behar bezala emandako lege-xedapen edo erabakia dela bide duten organoen titulartasuna duten pertsonak jardungo dute.
3. Foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako izakien legezko ordezkari gisa haien ordezkaritza dutenak jardungo dute, baldin eta ordezkaritza hori modu federe-mailan frogatzen bada. Aitzitik, ordezkariak izendatu ez bada, itxuraz kudeaketaren edo zuzendaritzaren ardura duena hartuko da ordezkariatzat eta, horren ezean, zeinahi kide zein partaide.
4. [\(31\)](#) Testamendu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziei dagokienez, administratzaileak edo gozamendun ahalduak jardungo dute ordezkariatzan, hurrenez hurren.

46. artikulua.- Borondatezko ordezkaritza.

1. Jarduteko gaitasuna duten zergapekoek ordezkari bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkaria izendatzen bada, gozatzeko administrazio-jarduketak berarekin egingo dira berariaz besterik adierazi arte.
2. [\(29\)](#) Errekurtsoak edo erreklamazioak jartzeko, haietan atzera egiteko, eskubideei uko egiteko, betebeharrak zergapekoaren izenean bere gain hartzeko edo aintzatesteko, bidegabeko sarrerak edo errenboltsoak eskatzeko, eta foru arau honetako III., IV., V., VI. eta VII. tituluetan araututako prozeduretan zergapekoak sinatu behar duen gainerako kasuetan, ordezkaritza Zuzenbidean balioduna den edo hura modu sinesgarria jasoarazten duen bide baten bitartez frogatu behar da, edo bestela interesdunak adierazpena egin behar du administrazio organo eskudunera bertaratuta.

Ondore horietarako, Zerga Administrazioak onesten dituen ordezkariak agiri normalizatuak izango dira baliodunak.

3. Izapide huts diren egintzetan, ordezkaritza emantzat joko da.
4. Baldin eta zergak kudeatzeko herritarren laguntza dela-eta, edo erregelamenduz ezartzen diren kasuetan, Zerga Administrazioari agiriren bat bide telematikoz aurkeztzen bazaio, aurkezteak kasu bakoitzean beharrezko den ordezkaritza eduki beharko du.

Zerga Administrazioak noiznahi eskatu ahal izango du ordezkaritza frogatzeko, eta hori artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera egin ahal izango da.

5. Aurreko 2., 3. eta 4. idatz-zatietan aipatutakoak ez beste jarduketa batzuk egiteko ordezkaritza arauz ezartzen den moduan frogatu ahal izango da.
6. (23) Baldin eta, foru arau honetako 35. artikuluko 6. idatz zatian ezarri den bezala, zerga betebeharrak batean titular bat baino gehiago badago, ordezkaritza nornahik duela pentsatuko da, berariaz bat izendatu ezean.
7. Ez ahal eskasiak ez urritasunak ez du eragotziko egintza burututzat ematea, baldin eta hamar egun (epea administrazio-organo eskudunak eman beharko du) igaro baino lehen aurkezten bada edo akatsa zuzentzen bada.

47. artikulua.- (42) Pertsona edo erakunde ez egoiliarren ordezkaritza.

Zergen Administrazioarekiko harremanetarako, egoitza Espainiako lurraldean ez daukaten zergapekoek ordezkari bat izendatu beharko dute zergen arloko araudiak berariaz ezartzen duenean.

Izendapena Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio zergen arloko arautegian ezartzen den bezala.

5ª. ATALA

ZERGA-EGOITZA

48. artikulua.- Zerga-egoitza.

1. Zerga-egoitza zergapekoa Zerga Administrazioarekiko harremanetarako dagoen lekua da.
2. Hauxe da zerga-egoitza:
 - a) Pertsona fisikoena, ohiko egoitza.
 - b) Pertsona juridikoena eta Sozietateen gaineko Zergaren kargapeko gainerako erakundeena, beraien sozietate-egoitza, baldin eta bertan zentralizaturik badaude administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori egiten den lekua hartuko da aintzat.
 - c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona edo erakundeek zerga-egoitza non dagoen zerga bakoitzari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera zehaztuko da. Araututa ez badago, zerga-egoitza foru arau honetako 47. artikuluan aipatutako ordezkariarena izango da. Establezimendu iraunkorren zerga-egoitza administrazio-kudeaketa edo negozioen zuzendaritza egiten den lekua izango da.

d) Sozietate zibilena eta nortasun juridikorik gabeko izakiena, kudeaketa eta zuzendaritza egiten diren lekua.

Baldin eta aurreko b), c) eta d) letretako irizpideak aplikatuta zerga-egoitza non dagoen zehaztu ezin bada, ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekua hartuko da aintzat.

3. [\(23\)](#) Zergapekoek euren egoitza non dagoen adierazi behar diote Zerga Administrazioari. Kontzertu Ekonomikoko 43. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, zergapeko batek bere egoitzaren berri eman ezean Zerga Administrazioak eroldakoa hartu ahal izango du kontuan, edo bestela hura titular den edozein higiezin edo ustiapen ekonomiko.
4. [\(23\)](#) Kontzertu Ekonomikoko 43. artikuluko bosgarren idatz zatian xedatutakoa eragotzi gabe, zergapeko batek bere egoitza aldatzen badu, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko dio berariazko adierazpenaren bidez. Egoitzaren aldaketak ez du izango ondorerik Administrazioaren aurrean harik eta arestian aipatutako zerga adierazpena aurkeztu arte.

Zergapekoak ez badio ematen Zerga Administrazioari zerga egoitzaren aldaketaren berri aurreko idatz zatian azaldu den bezala, eroldan ageri dena hartu ahal izango da zerga egoitzatzat. Gainera, zerga agiriren batean adierazi edo jasoarazi duen azken zerga egoitza hartu ahal izango da aintzat jakinarazpenetarako.

5. Administrazioak zergapekoen zerga-egoitza zuzendu ahal izango du egiaztapenen bidez.

Kontrako frogarik egon ezean, pertsona juridikoek zerga-egoitza aldatzen badute eta aurreko edo hurrengo urtean jarduerarik egin ez badute edo jarduerari utzi badiote, aldaketarik ez dela gertatu pentsatuko da.

6. Zergak aplikatzeko prozeduren eta zehapen-prozeduraren ondoriozko jarduketak egiteko eskudun den zerga administrazioa zehazteko, zergapekoak zerga-egitatea edo arau-haustea egitean izan duen zerga-egoitza hartuko da kontuan.

III. KAPITULUA.

ZERGA-BETEBEHAR NAGUSIA ETA KONTURAKO ORDAINKETAK EGIN BEHARRA ZENBATZEKO ELEMENTUAK

49. artikulua.- Zerga-oinarria: kontzeptua eta zehazteko metodoak.

1. Zerga-oinarria zerga-egitatea neurtu edo balioestearen emaitzako magnitudea da, diruzkoa zein beste izaera batekoa.
2. Zerga-oinarria zehazteko metodo hauek baliatu ahal dira:

- a) Zuzeneko zenbatespena.
 - b) Zenbatespen objektiboa.
 - c) Zeharkako zenbatespena.
3. Oro har, zerga-oinarriak zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bitartez zehaztuko dira. Alabaina, foru arau bidez zenbatespen objektiboaren metodoa zein kasutan aplikatu behar den ezarri ahal izango da; nolana ere, metodo hori borondatezkoa izango da zergapekoentzat.
 4. Zeharkako zenbatespena subsidiarioa izango da zerga-oinarria zehazteko gainerako metodoen aldean; foru arau honetako 52. artikuluan ezarritako inguruabarretako bat gertatzen denean aplikatuko da.

50. artikulua.- Zuzeneko zenbatespenaren metodoa.

Zergapekoak eta Zerga Administrazioak zerga bakoitzaren arautegian xedaturikoarekin bat etorritik erabili ahal izango dute zuzeneko zenbatespenaren metodoa. Horretarako, Zerga Administrazioak aurkeztu zaizkion aitorpenak edo agiriak, administrazio-bidean egiaztatutako liburuetan eta erregistroetan adierazitako datuak eta zerga-betebeharraren elementuekin zerikusia duten gainerako agiri, frogagiri eta datuak erabiliko ditu.

51. artikulua.- Zenbatespen objektiboaren metodoa.

Zenbatespen objektiboaren metodoa zerga bakoitzaren arautegian ezarritako magnitudeak, indizeak, moduluak edo datuak aplikatuz erabili ahal izango da zerga-oinarria zehazteko.

52. artikulua.- Zeharkako zenbatespenaren metodoa.

1. Zeharkako zenbatespenaren metodoa ondoren azalduko diren inguruabarretako bat dela bide Zerga Administrazioak zerga-oinarria erabat zehazteko behar diren datuak eskuratu ezin dituztenean aplikatuko da. Hona inguruabarrok:
 - a) Zergapekoak aitorpenik ez aurkeztea edo aitorpena datu batzuk falta direla edo oker daudela aurkeztea.
 - b) Zergapekoa ikuskarpenari jazarritzea, hura oztopatzea, saihesteko aitzakia jartzea edo uko egitea.
 - c) Kontabilitate- edo erregistro-betebeharrak nabarmen ez betetzea.
 - d) Kontabilitateko liburuak eta erregistroak edo haietan idaztoharturiko eragiketen frogagiriak desagertzea edo hondatzea, ezinbestean izanik ere.
2. Oinarriak edo etekinak ondoko bideetako bat, edo batzuk batera, aplikatuta zehaztuko dira:

- a) Garrantzizko datu eta aurrekari ezagunak aplikatzea.
 - b) Ondasunak eta errentak zeharka frogatzen dituzten elementuak erabiltzea, bai eta kasuan kasuko sektore ekonomikoan, zerga-terminoetan alderatu behar diren ekoizpen edo famili unitateen dimentsioak kontuan hartuta, ohiko diren sarrerak, salmentak, kostuak eta etekinak ere.
 - c) Zergapekoei dagozkien magnitudeak, indizeak, moduluak edo datuak balioestea, antzeko edo balio bereko kasuetako datuen edo aurrekarien arabera.
3. Zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatu ahal denean, foru arau honetako 153. artikuluan ezarritako prozedurari burutuko da.

53. artikulua.- Likidazio-oinarria.

Likidazio-oinarria zerga-oinarriari zerga bakoitzari buruzko foru arauan ezartzen diren txikipenak (bidezkoak badira) aplikatzearen emaitzako kopurua da.

54. artikulua.- Karga-tasa.

1. Karga-tasa likidazio-oinarriari kuota osoa kalkulatzeko aplikatzen zaion kopurua, koefizientea edo portzentajea da.
2. Karga-tasak zehatzak edo portzentajeak izan daitezke, eta zerga bakoitzari buruzko foru arauan xedatutakoaren arabera aplikatu behar zaizkio likidazio-oinarriaren unitate, unitate multzo edo tarte bakoitzari.

Zerga baten ordainketan, likidazio-oinarriaren unitate edo tarteei aplikatu beharreko karga-tasen multzoari tarifa esaten zaio.

55. artikulua.- Zerga-kuota.

1. Kuota osoa honela zehaztuko da:
 - a) Likidazio-oinarriari karga-tasa aplikatuta.
 - b) Berariaz adierazitako kopuru finkoa izango da.
2. Kuota osoa kalkulatzeko foru arau honetako 49. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako zehazpen-metodoak erabili ahal izango dira.
3. Karga-tasa aplikatzearen ondorioz oinarriaren gehikuntzari gehikuntza bera baino handiagoa den kuota-zatia badagokio, kuota osoa ofizioz txikitu beharko da. Txikipenaren zenbatekoa gaindikina izan beharko da, gutxienez.

Erregela honetatik salbuetsita daude zerga-zorra efektu tinbredunen bitartez ordaindu behar den kasuak.

4. Kuota osoaren zenbatekoa zerga bakoitzari buruzko foru arauan kasu bakoitzerako ezarritako txikipenak edo mugak aplikatuta aldatu ahal izango da.
5. Kuota likidoa kuota osoari zergari buruzko foru arauan ezarritako kenkariak, hobariak, batuketak edo koefizienteak, kasuan kasukoak, aplikatuta kalkulatzen da.
6. Kuota diferentziala kuota likidoari zergari buruzko arautegian ezarritako kenkarien, zatikako ordainketen, atxikipenen, konturako sarreraren eta kuoten zenbatekoak kenduta kalkulatzen da.

56. artikulua.- Balioen egiaztapena.

1. (6) Zerga Administrazioak ondoko bideak erabil ditzake errenten, produktuen, ondasunen eta zerga-betebeharrean eragina duten gainerako elementuen balioa egiaztatzeko:
 - a) Etekinak zergaren arautegian ezarritako portzentajearen egoztearen edo kapitalizatzea.
 - b) Zerga-izaeradun erregistro ofizialetan agertzen diren balioen arabeko zenbatespena.

 Erreferentzia bidezko zenbatespena egiteko zerga administrazio eskudunak ezartzen eta argitaratzen dituen koefiziente biderkatzaileak aplika dakizkieke, arau bidez ezartzen den bezala, ondasunak balioztatzeko erreferentziatzen hartzen den erregistro ofizialean ageri diren balioei.
 - c) Merkatuko batez besteko prezioak.
 - d) Nazio eta atzerriko merkatuetako kotizazioak.
 - e) Administrazioaren perituen irizpena.
 - f) Arabako Foru Aldundiak onartzen dituen xedapen orokorrak.
 - g) Ondasunek aseguru kontratuetan dituzten balioak.
 - h) Hipotekatutako finak tasatzeko ezarritako balioa, hipotekei buruzko legeriarekin bat etorritik.
 - i) Ondasunaren beste eskualdaketa batzuetan aitortutako prezioa edo balioa; inguruabarrak kontuan hartu behar dira eta arauz ezarritako epealdi baten barrukoak izan behar dira.
 - j) Zerga bakoitzari buruzko foru arauan zehazten den beste edozein bide.
2. Aurreko idatz-zatiko bideak aplikatuta egiten den balioespena baieztatzeko edo zuzentzeko perituaren tasazio kontrajarria erabil daiteke.

3. Balioen egiaztapena Zerga Administrazioak egin beharko du foru arau honetako 128. eta 129. artikuluetan ezarritako prozeduraren bidez, egiaztapena prozeduraren xede bakarra bada edo III. tituluan araututako prozeduretariko batean gauzatzen bada bertako jarduketa zehatz gisa. Nolanahi ere, artikulua horietan xedatutakoa aplikatu beharko da.

IV. KAPITULUA

ZERGA-ZORRA

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

57. artikulua.- Zerga-zorra.

1. Zerga-zorra zerga-betebehar nagusiaren edo konturako ordainketak egin beharren ondorioz sartu behar den kuota edo kopurua da.
2. Horrez gainera, kasu batzuetan ondokoak ere sartu behar dira zerga-zorrearantz:
 - a) Berandutza-interesa.
 - b) Aitorpena epea kanpo aurkezteagatik errekarguak.
 - c) Betearazpen-aldiko errekarguak.
 - d) Legez eska daitezkeen oinarrien edo kuoten gaineko errekarguak, Foru Ogasunarentzat edo beste entitate publiko batzuentzat direnak.
3. Foru arau honetako IV. tituluan xedaturikoaren arabera ezartzen diren zerga-zehapenak ez dira izango zerga-zorren osagai.

58. artikulua.- Zerga-zorra azkentzea.

1. Zerga-zorrak honela azkendu daitezke: ordainduta, preskribituta, konpentsatuta edo barkatuta, eta legezko xedapenetan ezarritako gainerako bideak erabilita.
2. Zerga-zorra ordaintzeak, konpentsatzeak edo barkatzeak ordaindu, konpentsatu edo barkatutako zenbatekoa baizik ez du kitatuko.

2. ATALA

ORDAINKETA

59. artikulua.- Ordaintzeko moduak.

1. Zerga-zorra eskudirutan ordaindu behar da. Erregelamenduz xedatzen den kasuetan efektu tinbredunen bitartez ordaindu ahal izango da.
2. Aparteko kasuetan, Zerga Administrazioak, egokiesten dituen txostenak egin eta gero, zerga-zorra zeinahi ondasun edo eskubide emanaz ordaintzea onartu ahal izango du, borondatezko epealdian zein betearazpen-aldian.
3. Zerga-arautegian zerga-zorra eskudiruz edo gauzaz ordaintzeko bideak eta moduak arautuko dira, bai eta ordainketa teknika eta bi- tarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz egiteko betekizunak eta baldintzak ere.

60. artikulua.- Ordainketa-unea.

1. Zerga-zorra eskudirutan ordaindutzat hartuko da zenbatekoa organo eskudunen edo hura onartzeko baimena duten erakundeen kutxetan sartzen denean.
2. Efektu tinbredunak erabiliz gero, erregelamenduz zehazten den bezala erabiltzen direnean emango da ordaindutzat zerga-zorra.
3. Gauzazko ordainketak arautegian ezarritako unean azkenduko du zerga-zorra.

61. artikulua.- Zerga-zorra ordaintzeko epeak.

1. Autolikidazioen ondoriozko zerga-zorrak kasuan kasuko zergari buruzko arautegian ezarritako epeetan ordaindu behar dira.
2. Administrazioak egindako likidazioen ondoriozko zerga-zorrak daudenean, borondatez ordaintzeko aldia Zerga Administrazioak ezartzen duena izango da; nolanahi ere, aldi hori ezin da izan hilabetea baino gutxiagokoa izan, likidazioa jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita.
3. Arautegian besterik ezarri ezean, aldian-aldian eta taldeka jakinarazten diren zorrak borondatez ordaintzeko aldia irailaren 1etik azaroaren 20ra arte izango da; 20a balioduna ez bada, aldia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Zerga administrazio eskudunak aurreko paragrafoan adierazitako aldia alda dezake, baina inolaz ere ezin da izan bi hilabete baino laburragoa.

4. Efektu tinbredunen bitartez ordaindu behar diren zorrak zerga-egitatea gertatzen den unean ordaindu behar dira, berariazko arautegian besterik xedatu ezean.

5. (34) Epe exekutiboa hasita eta premiamendu probidentzia jakinarazita, zerga administrazioak adierazitako epean ordaindu beharko da zerga zorra. Epe hori ez da inoiz premiamendu probidentziaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hilabete baino laburragoa."
6. (23) Elkarren arteko laguntzaren esparruan zerga bilketan diharduten beste estatu batzuen edo beste nazioarteko zein nazioz gaindiko erakunde batzuen titulartasuneko zorrak ordaintzeko eskatuko zaio zergapekoari, eta honako epealdi hauetan ordaindu beharko du:
- a) Betearazpen tresna hilaren 1etik 15era bitartean jakinarazten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hilaren 20ra arte; 20a balioduna ez bada, aldia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.
- b) Betearazpen tresna hilaren 16tik azken egunera bitartean jakinarazten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo hilaren 5era arte; 5a balioduna ez bada, aldia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.
- Aurrekoa gorabehera, elkarren arteko laguntzari buruzko arauak bidea ematen duen kasuetan, Zerga Administrazioak zerga bilketako jarduketak burutu ahal izango ditu estatu edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakunde eskatzailearen kobrantza eskaera jasotzen duenetik hasita, idatz zati honetan aipatutako epealdia amaitu arte itxaron beharrik izan gabe.
7. (23) Kasuan kasuko zergari buruzko foru arauan zehazten diren kasuetan, zergapeko baten zorraren sarrera erabat edo partzialki etengo da, berak eskatuta eta inolako bermerik jarri gabe, baldin eta beste zergapeko batek dirua itzuli beharra dakarren aitorpen edo autolikidazio bat aurkezten badu eta itzuli beharreko kopuru hori aipatu zorra kitatzeko dela adierazten badu.
- Etendako zorraren zenbatekoa ezin da izan itzultzeko eskatutako kopurua baino handiagoa.
- Etendako zorra erabat edo partzialki azkenduko da aintzatetsitako itzulketaren zenbatekoarekin; itzulketaren kargura kitatutako zorrak ez du berandutza-interesik sortuko.
8. (23) Zergapeko baten zorraren sarrera erabat edo partzialki etengo da, inolako bermerik jarri gabe, baldin eta egiaztatzen bada eragiketa beragatik administrazio berari edo beste bati zerga-zor bat ordaindu zaiola edo beste zerga bat jasanarazi dela; kasu honetan, egindako ordainketa edo jasanarazitako zerga bateraezina izan behar da eskatutako zorrarekin eta, gainera, subjektu pasiboak ezin du eduki bidegabe jasandako zenbateko osoaren kenkaria aplikatzeko eskubidea.
9. (23) Halaber, zerga-zorra beste administrazio bati ordaindu bazaio, ordainketa hamabi hilabeteetan etengo da, osorik zein partzialki, inolako bermerik jarri gabe. Zergapekoarekin zerikusirik ez duten inguruabarrak direla-eta, Administrazioak aurrean aipatutako aldia luzatu ahal izango du.

62. artikulua.- Ordainketak egozte.

1. Zerga-zorrek autonomoak dira. Hainbat zor dituen zergapekoak askatasuna izango du ordainketa bakoitza berak nahi duen zorrari egozteko.
2. Geroago mugaeguneratzen den zor bat kobratzeak ez du azkenduko Zerga Administrazioak kobratu ez dituen aurrekoak jasotzeko duen eskubidea.
3. Zergapeko batek hainbat zerga-zor baditu eta nahitaez ordainarazita edo ofizioz konpentsatuta denak ezin badira azkendu, Zerga Administrazioak Herri Ogasunaren interesak ahalik ondoen babestea irizpidetzat hartuta aplikatuko du ordainketa; honek badu salbuespen bat, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa.
4. Administrazio batek eta beraren menpeko Zuzenbide Publikoko beste erakunde batzuek hainbat zerga-zor badituzte pilatuta, administrazioak kobratu beharrekoek izango dute lehentasuna, kapitulu honetako 5. atalean xedatutakoa kontuan hartuta.

63. artikulua.- Ordainketa kontsignatzea.

Zergapekoek zerga-zorraren zenbatekoa eta, behar denean, arau bidez sortutako kostuak kontsignatu ahal izango dituzte Herri Ogasunean, eta horrek arauzko xedapenetan zehaztutako ondorea izango du: askatzea edo etetea.

64. artikulua.- Ordainketa geroratzea eta zatikatzea.

1. Borondatezko aldiari edo betearazpen-aldiari dauden zerga-zorrek arauz finkatzen denaren arabera geroratu edo zatikatu ahal izango dira, zergapekoak eskatuta, baldin eta beraren ekonomiaren eta finantzen egoera dela eta ezarritako epeetan ordaindu ezin badu.
2. (29) Efektu tinbredunen bidez ordainarazten diren zerga zorrek, jokoaren gaineko zergaren ondorioz sortutakoak eta foru arau honen VII. tituluan araututako Estatuko laguntzak berreskuratzeko erabakiak gauzatzearen ondoriozko gainerakoak ezingo dira geroratu edo zatikatu.

Konkurtsa adieraziz gero, zergapekoak ezin izango du ez geroratu ez zatikatu konkurtsoei buruzko legeriaren arabera masaren kontrako kreditutzat jotzen diren zerga zorren ordainketa.

Idatz zati honetan apatzen diren zorren ordainketa geroratzeko eta zatikatzeko eskaerak ez dira onartuko.

3. (47.1) Geroratu edo zatikatzen diren zorrek foru arau honetako 79. artikuluan ezarritakoaren arabera bermatu behar dira.
4. Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskabidea borondatezko aldiari aurkeztzen bada, betearazpen-aldia hastera eragotziko da, baina ez dagokion interesa sortzea.

Betearazpen-aldiari, eskabideak zergapekoari enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakia jakinarazi arte aurkeztu ahal izango dira. Zerga Administrazioak gerorapena edo zatikapena izapidetzen den bitartean premiamendu-prozedura hasi ahal izango du

edo, behar denean, berriro ekin. Alabaina, enbargatutako ondasunak besterentzeko jarduketak gerorapena edo zatikapena ukatzen duen ebazpena jakinarazi arte eten beharko dira.

5. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa eragotzi gabe, aparteko inguruabarrak edo herritar guztien onura kontuan hartuta, Foru Aldundiak bere eskumenen esparruan era guztietako zerga-zorrak zatikatzeko edo geroratzeko baimena eman ahal izango du, bai eta horretarako baldintzak ezarri ere.
5. (23) Aurreko idatz zatietan ezarritakoa aplikatu ahal izango zaie, halaber, beste estatu batzuen edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuen titulartasuneko kredituei, haiengandik kobrantza eskaera jasoz gero; betiere, elkarren arteko laguntzari buruzko araudian besterik xedatu ezean.

3. ATALA

PRESKRIPZIOA

65. artikulua.- (20) Preskripzio epea.

Ondoko eskubideak bost urteren buruan preskribituko dira:

- a) Administrazioak zerga zorra likidazioaren bidez zehazteko duen eskubidea.
- b) Administrazioak likidatutako eta autolikidatutako zerga zorrak ordaintzeko eskatzeko duen eskubidea.
- c) Zerga bakoitzari buruzko arautegiaren araberrako itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuen itzulketak eskatzeko eskubidea.
- d) Zerga bakoitzari buruzko arautegiaren araberrako itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuen itzulketak jasotzeko eskubidea.

65.bis artikulua.- (29) Egiaztatze eta ikertze eskubidea.

1. Foru arau honetako 65. artikuluan ezarritako eskubideen preskripzioak ez du eraginik izango Administrazioak foru arau honetako 111. artikuluari jarraikiz egiaztapenak eta ikerketak egiteko duen eskubidean, hurrengo idatz zatian xedatutakoa gorabehera.
2. (32) Administrazioen eskubidea konpentsatutako edo konpentsatzeke dauden oinarriak edo kuotak edo aplikatutako edo aplikatzeke dauden kenkariak egiaztatze prozedura hasteko hogeita hamabost urtetan preskribatuko da, oinarri edo kuota horiek konpentsatzeko edo kenkari horiek aplikatzeko eskubidea sortu zen ekitaldiari edo zergaldiari dagokion aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko ezarritako arauzko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Foru Arau honen 145. artikulua aipatzen dituen ikuskaritza-prozedura orokorren kasuan, likidatzeko eskubidea preskribatu gabe dituzten zerga-betebehar eta aldiei dagokienez, konpentsatutako edo konpentsatzeke dauden oinarri edo kuota edo aplikatutako edo aplikatzeke dauden kenkari guztien egiaztatzea jasotzat joko da edonola ere, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera egiaztatzeko eskubidea preskribatu gabe badute. Bestela, berariaz adierazi beharko da prozeduraren xedea jaso dagoela atal honek aipatzen duen egiaztatzea, eta adierazi beharko da zein ekitaldi edo zergaldietan sortu zen egiaztatuko diren oinarriak edo kuotak konpentsatzeko edo kenkariak aplikatzeko eskubidea.

Atal honek aipatzen duen egiaztatzea eta, hala badagokio, konpentsatutako edo konpentsatzeke dauden oinarriak edo kuotak, edo aplikatutako edo aplikatzeke dauden kenkariak zuzentzea edo arautzea, lehen paragrafoan ezarritako preskripzioa ez badute, soilik egin ahal izango da likidatzeko eskubidea preskribatu gabe duten zerga-betebehar eta aldiei buruzko egiaztatze-prozedurak egitean.

3. Zerga bakoitzaren berezko araudiak bestelakorik ezarri ezean, aurreko idatz zatiak aipatzen duen egiaztatzeko eskubidearen mugak ez du eraginik izango idatz zati horretan aipatutako konpentsazio edo aplikazioak sortu zituzten ekitaldi ez preskribatuen egiaztapen eta ikerketa prozedurak direla kausa oinarri, kuota edo kenkariak eta kontabilitatea jaso zituzten likidazio edo autolikidazioen ekarpenerako betebeharrean.

66. artikulua.- Preskripzio-epeen konputua.

1. [\(29\)](#) Aurreko artikuluan aipatutako kasuetan, preskripzio epea 65. artikuluan aipatutako ondoko erregela hauen arabera hasiko da konputatzen:

a) kasuan, beharrezko aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko arauz ezarritako epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Errezibo bidez aldiaren behin kobratzeko zergetan, zerga zorra likidazio egokiaren bidez zehazteko adierazpena edo autolikidazioa aurkeztea beharrezkoa ez denean, preskripzio epea zerga sortzen den egunean hasiko da.

b) kasuan, borondatez ordaintzeko aldia amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera, artikuluko honetako 2. idatz zatian xedatutakoa eragotzi gabe

c) kasuan, zerga bakoitzaren arautegiaren arabera itzulketa eskatzeko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera edo, bestela, aipatu itzulketa eska zitekeen egunaren biharamunetik aurrera; bidegabeko sarrera egin den egunaren edo autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera, baldin eta bidegabeko sarrera epe horretan egin bada; edo aurkaratutako egintza erabat edo partzialki bidegabekoa dela adierazten duen epaia edo administrazio egintza irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Eragiketa bat bateraezinak diren hainbat zergak kargatzen badute, edo zergaldiaz desadostasuna badago, zerga edo zergaldia ebazteko berariaz ezarritako organoak ebazpena ematen duenetik hasiko da konputatzen bidegabe sartutako kopurua itzultzeko eskatzeko preskripzio epea.

d) kasuan, zerga bakoitzaren arautegiaren arabera itzulketak egiteko epeak amaitzen diren egunaren edo itzulketa jasotzeko edo bermeen kostua itzultzeko eskubidea aintzatesten duen erabakia jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

2. [\(23\)](#) Erantzule solidarioei ordaintzeko eskatzeko preskripzioaldia zordun nagusiaren borondatez ordaintzeko aldia amaitzen den egunaren biharamunean hasiko da konputatzen.

Hala ere, erantzukizuna eragiten duena aurreko paragrafoan ezarritako epealdia pasatutakoan gertatzen bada, preskripzioaldia orduantxe hasiko da konputatzen.

Erantzule subsidiarioen kasuan, preskripzioaldia zordun nagusiari edo erantzule solidarioetako bati zergak biltzeko azken jarduketa jakinarazten zaionetik hasiko da konputatzen.

67. artikulua.- Preskripzio-epeak etetea.

1. [\(23\)](#) Foru arau honetako 65. artikuluko a) letran aipatutako eskubidearen preskripzioaldia kasu hauetan etengo da:

a) Zerga Administrazioak, zergapekoari formalki jakinarazita, zerga betebeharraren elementu guztiak edo batzuk onartzeko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, bermatzeko edo likidatzeko ekintza bat egiten duenean, nahiz eta hasieran zergapekoaren adierazpeneko okerrean bat dela eta xedea beste zerga betebeharrak izan.

b) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen denean; erreklamazio edo errekurtsoren izapideetan, zergapekoari formalki jakinarazita; jarduketak egiten direnean; Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean; jurisdikzio penalari erruduntasun-testigantza bidaltzen zaionean edo Fiskaltzari salaketa aurkezten zaionean; jurisdikzio-organo batek aribideko administrazio-prozedura gelditzeko emandako agindua jasotzen denean.

c) Zergapekoak zerga zorra likidatzeko edo autolikidatzeko jarduketa sinesgarri bat egiten duenean.

2. Foru arau honetako 65. artikuluko b) letran aipatutako eskubidearen preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:

a) Zerga Administrazioak, zergapekoari formalki jakinarazita, zerga-zorra biltzeko ekintza bat egiten duenean.

b) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen denean; erreklamazio edo errekurtsoren izapideetan, zergapekoari formalki jakinarazita; jarduketak egiten direnean; Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean; zordunak konkurtso-adierazpena egiten duenean edo zerga-zorra kobratzeko ekintza zibilak edo penalak egiten direnean; jurisdikzio-organo batek aribideko administrazio-prozedura gelditzeko emandako agindua jasotzen denean.

- c) Zergapekoak zerga-zorra ordaintzeko edo azkentzeko jarduketa sinesgarri bat egiten duenean.
3. Foru arau honetako 65. artikuluko c) letran aipatutako eskubidearen preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:
- a) Zergapekoak bere autolikidazioa itzuli, berreskuratu edo zuzentzeko ekintza sinesgarri bat egiten duenean.
 - b) Erreklamazio edo errekurso bat jartzen, izapidetzen edo ebazten denean.
 - c) Zerga Administrazioak, zergapekoari formalki jakinarazita, zerga betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatesteko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, bermatzeko edo likidatzeko ekintza bat egiten duenean.
4. Foru arau honetako 65. artikuluko d) letran aipatutako eskubidearen preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:
- a) Zerga Administrazioak kopuru bat itzultzeko edo berreskuratzeko ekintza bat egiten duenean.
 - b) Zergapekoak itzulketa edo berreskurapena eskatzeko jarduketa sinesgarri bat egiten duenean.
 - c) Erreklamazio edo errekurso bat jartzen, izapidetzen edo ebazten denean, edo Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean.
5. [\(23\)](#) Aurreko idatz zatietan aipatutako jarduketek eta antzekoek preskripzioaldia etengo dute beste estatu batean elkarren arteko laguntzaren esparruan egiten direnean, nahiz eta egintza horiek preskripzioaldia eteteko pareko ondorioz ez sortu haiek burutzen diren estatuan.
6. [\(23\)](#) Preskripzio-epea eten ostean, berriz hasiko da konputatzen, hurrengo idatz-zatian ezarritako salbuespenarekin.
7. [\(23\)](#) Preskripzioaldia administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean errekursoa jartzeagatik, ekintza zibilak edo penalak abiarazteagatik, eskudun jurisdikzioari erruduntasun testigantza bidaltzeagatik, Fiskaltzari salaketa aurkezteagatik edo prozedura gelditzeko epailearen jakinarazpena jasotzeagatik eteten bada, berriz hasiko da konputatzen Zerga Administrazioak prozesu judiziala azkentzen duen edo geldiarazpena kentzen duen ebazpen irmoa jasotzen duenean, edo Fiskaltzaren jakinarazpena jasotzen duenean itzulitako espedientearekin batera.

Preskripzioaldia zordunaren konkurtso adierazpenak eteten badu, epaileak konkurtsoa amaitzeko ematen duen ebazpena irmo bihurtzen den egunean hasiko da konputatzen berriro. Hitzarmena sinatzen bada, preskripzioaldia hura onesten den unean hasiko da konputatzen berriro haren itzalpean ez dauden zerga zorretarako. Hitzarmen konkurtsalari lotuta dauden zerga zorrei dagokienez, preskripzioaldia zordunari eskatu ahal zaizkionean hasiko da konputatzen berriro.

Idatz-zati honetan xedatutakoa ez zaio aplikatuko Zerga Administrazioak ordainketa, administrazioarekiko auzibidean etetea erabaki ez denean, eskatzeko duen eskubidearen preskripzio-epeari.

8. [\(23\)](#) Preskripzio-epea Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkeztuta eten bada, hark hartzen duen erabakiaren jakinarazpena jasotzen denean hasiko da berriz konputatzen.
9. [\(23\)](#) Preskripzioaldia zergapeko batentzat eteten bada, gainerako zergapekoentzat ere etengo da, erantzuleak barne. Hala ere, betebeharra mankomunatua bada eta zergapekoetako bati bakarrik eskatzen bazaio berari dagokion zatia, preskripzioaldia ez da besteentzat etengo.

Ordaintzera behartuta dagoen pertsona bati hainbat zor likidatu bazaizkio, preskripzioaldiaren etendurak haietako bat baizik ez du ukituko.

Foru arau honetako 65. artikuluko b) letran aipatzen den preskripzioaldia auziagatik, konkurtsoagatik edo legezko beste arrazoi bategatik eteten bada zordun nagusiari edo erantzuleetako bati dagokionez, gauza bera gertatuko da zorra modu solidarioan ordaindu behar dituzten gainerako guztiei dagokienez ere (beste erantzule batzuk zein zordun nagusia bera). Hala ere, haiei zor dutena kobratzeko ekintzek aurrera egin ahal izango dute.

10. [\(23\)](#) Preskripzio-epea ez da etentzat joko etenaldia edozein motatako errekurso edo erreklamazioak aurkeztearen ondorioz eragin denean edo errekurso eta erreklamazio horiek bere osotasunean onartuak izan direnean, eurak jarri diren administrazio-egintzaren elementuak osorik deuseztatuz.
11. [\(29\)](#) Foru arau honetako 65. artikuluko a) letran, zerga betebeharraren ingurukoan, aipatzen den eskubidearen preskripzio epea eteteak zehaztuko du, era berean, aipatutako artikuluko a) eta c) letrek –zergapekoaren beraren zerga betebeharraren lotuei buruzkoak– aipatzen dituzten eskubideen preskripzio epearen etetea, horietan zerga desberdina sortzen denean edo sortu behar denean, zerga betebeharraren lotuekin lotuta dagoen betebeharraren arauketaren oinarri diren irizpide eta elementuen aplikazioaren ondorioz, dela Zerga Administrazioaren bidez, dela zergapekoen bidez.

Idatz zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zerga betebeharraren lotuak direla ulertuko da elementuetako batek eragina jasaten duenean edo beste betebeharraren edo aldi bati dagokienez zehazten direnean.

68. artikulua.- Preskripzioaren hedadura eta ondoreak.

1. [\(29\)](#) Preskripzioak zerga zorra ordaindu behar duten guztiei ekartzen die onura, aurreko artikuluko 9. idatz zatiko salbuespenarekin.
2. Preskripzioa ofizioz aplikatuko da, are zerga-zorra ordainduta badago ere; hots, zergapekoak ez dauka eskatu edo salbuespena aurkeztu beharrik.
3. Preskripzioak zerga-zorra azkentzen du, eta ezin zaio uko egin.

69. artikulua.- Preskripzioaren ondoreak betebeharrak formaletan.

1. Hurrengo idatz-zatietan xedatutako salbuespenarekin, zergadun baten zerga-betebeharrak batzuei lotutako betebeharrak formalak zerga-betebeharrak zehazteko eskubidearen preskripzio-epea amaitu ez den bitartean soilik eskatu ahal izango dira.
2. Beste pertsona edo erakunde batzuen zerga-betebeharrak betetzeko, foru arau honetako 29. artikuluko 2. idatz-zatiko d), e) eta f) letretan aipatutako betebeharrak (informazioa gorde beharra eta eman beharra) merkataritzako arautegian ezarritako epean bete beharko dira, betebeharrak formalak eskatzeko epean (aurreko idatz-zatian aipatu da), bestea baino luzeagoa bada.
3. [\(29\)](#) Zergaldi preskribatuetan eginiko eragiketetan oinarria duten datuen jatorria justifikatzeko betebeharrari eutsi egingo zaio eskubidea preskribatzeko epean zehar, dagokion eragiketaren eraginpean dauden zerga zorrak zehazteko eta, nolanahi ere, foru arau honetako 65 bis artikuluko 2. eta 3. idatz zatietan aipatzen diren kasuetan.

4. ATALA

ZERGA-ZORRA AZKENTZEKO BESTE MODU BATZUK

70. artikulua.- Konpentsazioa.

1. Zergapeko baten zerga-zorrak osorik edo partzialki azkendu ahal dira berari administrazio-egintza bidez aintzatetsitako kredituen bidez konpentsatuta, erregelamenduz ezartzen denaren arabera.
2. Konpentsazioa ofizioz edo zergapekoak eskatuta egingo da.
3. Erregelamenduz, kontu korronteko sistema bat ezarri ahal izango da eta zergapekoek euren kredituak eta zerga-zorrak haren bidez konpentsatzeko eskatu ahal izango dute.

71. artikulua.- Zergapekoak eskatutako konpentsazioa.

1. Zergapekoak borondatezko aldia zein betearazpen-aldia dauden zerga-zorrak konpentsatzeko eskatu ahal izango du.
2. Zerga-zorra borondatezko aldia konpentsatzeko eskaera aurkezten bada, eskaintako kredituak estaltzen duen kopuruaren betearazpen-aldia eragotziko da baina ez kreditua aintzatetsi arteko berandutza-interesen sortzapena.
4. Zerga-zorra eskaera aurkezten den unean azkenduko da edo, bestela, zorretarako eta kredituetarako ezarritako betekizunak betetzen direnean, eskaera aurkeztu ondoren gertatuz gero. Konpentsazioa egiteko erabakiak zorra azkendu dela adieraziko du.

72. artikulua.- Ofiziozko konpentsazioa.

1. (29) Zerga Administrazioak ofizioz konpentsatuko ditu ordainarazpen aldian dauden zerga zorrak. Halaber, Zerga Administrazioak ofizioz konpentsatu ahal izango ditu geroratu edo zatikatutako zorrak zergapekoei administrazio egintzen bidez aintzatetsitako kredituekin.

Era berean, borondatez ordaintzeko aldian ofizioz konpentsatuko dira kudeaketa edo ikuskarpen prozedura baten ondorioz sartu eta itzuli beharreko kopuruak edo foru arau honetako 26. artikuluko 5. idatz zatian xedatutakoaren arabera likidazio bat deuseztatu ondoren beste likidazio bat egitearen ondoriozkoak.

Gainera, ofizioz konpentsatuko dira borondatez ordaintzeko aldian foru arau honetako 231.3 eta 244.7 artikuluek aipatzen duten ebazpena betetzearen ondorioz ordaindu eta itzuli beharreko kopuruak.

2. Zerga-zorra betearazpen-aldia hasten den unean azkenduko da edo, bestela, zorretarako eta kredituetarako zarrirako betekizunak betetzen direnean, eskaera aurkeztu ondoren gertatuz gero. Konpentsazioa egiteko erabakiak zorra azkendu dela adieraziko du.

Artikulu honetako 1. idatz-zatiko bigarren paragrafoan ezarritako kasuan, zorrak eta kredituak bateratzen direnean azkenduko da zerga-zorra, arauz ezarritakoaren arabera.

73. artikulua.- Zerga-zorra barkatzea.

Zerga-zorrak foru arau bidez bakarrik barka daitezke, bertan ezarritako betekizunak eta zenbatekoa kontutan harturik.

74. artikulua.- Kaudimengabeziaren ziozko behin-behineko baja.

1. Zergapeko baten kaudimengabezia, osoa edo partziala, frogatzen bada, horren ondoriozko bilketa-prozeduretan ordaindu ezin diren zerga-zorrak kreditu kobraezintzat (osoak edo partzialak) joko dira, harik eta preskripzio-epearen barruan birgaitu arte, foru arau honetako 177. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera.
2. Preskripzio-epean birgaitzen ez bada, zerga-zorra azkendu egingo da.

5. ATALA

ZERGA-KREDITUAREN BERMEAK

75. artikulua.- Lehentasun-eskubidea.

1. Herri Ogasunak mugaeguneratuta eta ordaindu gabe dauden zerga-kredituak kobratzeko lehentasuna izango du beste hartzekodun batzuekin batera suertatuz gero; hala ere, badago salbuespen bat: hartzekodunek jaso beharreko jabaria, bahia,

hipoteka edo bestelako eskubide erreala Herri Ogasunak bere eskubidea jasoarazi baino lehen erregistratu izana erregistro egokian. Nolanahi ere, foru arau honetako 76. eta 77. artikuluetan xedatutakoa bete behar da.

2. Konkurtso-hitzairena bada, haren menpeko zerga-kredituak, are konturako ordainketak egin behar diren ondoriozkoak ere, konkurtsoei buruzko legerian ezarritakoari lotu beharko zaizkio.

76. artikulua.- Isilbidezko legezko hipoteka.

Erregistro publikoetan erregistratu ahal diren ondasunak edo eskubideak edo beraien zuzeneko produktuak, egiazkoak zein ustezkoak, aldizka kargatzen dituzten zergetan, Herri Ogasunak lehentasuna izango du gainerako hartzekodun edo eskuratzailerik guztien aldean, nahiz eta hauek euren eskubideak erregistratuta eduki, ordainketa eskatzen den egutegiko urtean eta aurrekoan sortu eta ordaindu ez den zorra kobratzeko.

77. artikulua.- Ondasun-lotura.

1. Legezko xedapen bidez zerga-zorra ordaintzeari lotutako ondasunen eskuratzailerik haiekin erantzungo dute modu subsidiarioan, zerga-ekintzaren deribazioa dela bide, zorra ordaintzen ez bada.
2. Eskualdatutako ondasunak eta eskubideak horrelako eskualdaketak, eskuraketak eta inportazioak kargatzen dituzten zergeta dagozkien kopuruak, likidatuak zein likidatu gabek, ordaintzeko erantzukizunari lotuta geratuko dira, dena dela edukitzea. Dena den, salbuespenak daude: bata edukitzea erregistro-fede publikoak babestutako gainontzekoa izatea da eta bestea, erregistratu ezin diren ondasun higikorrei dagokiena, ondasunak fede onez eta titulu zuzenez merkataritza edo industriako establezimendu batean eskuratu direla frogatzea.
3. Foru arau bidez zerga-onuraren bat ematen bada eta behin betiko eraginkortasuna izateko zergapekoak foru arau horretan ezarritako betekizunak bete behar baditu, Zerga Administrazioak zerga-onura izan ezean egin beharko zen likidazioaren zenbateko osoa agerrarazi ahal izango du, eta erregistro publikoen titularrek bazterreko lotura-oharrean agerraraziko dute.

Geroago, Administrazioaren egiaztapen-jarduketan ondorioz, aurreko paragrafoan aipatutako behin-behineko likidazioaren emaitzako zenbatekoa handiagoa bada, Zerga Administrazioak erregistratzaile eskudunari jakinaraziko dio, zenbateko hori bazterreko lotura-oharrean agerraraz dezan.

77 bis artikulua.- (23) Beste estatu batzuen titulartasuneko kredituen lehentasuna eta bermeak.

Beste estatu batzuen edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuen titulartasuneko kredituek ez dute inolako lehentasunik izango zuzenbide publikoko beste kreditu batzuekin pilatzen direnean, ezta atal honetako goragoko artikuluetan ezarritako

bermeetariko bakar bat ere, elkarren arteko laguntzari buruzko araudiak besterik xedatu ezean.

78. artikulua.- Kautelazko neurriak.

1. Zerga-zorren kobrantza zapuztu daitekeela edo kobratzeko eragozpen handiak izango direla pentsatzeko zentzuzko zantzurik badago, Administrazioak behin-behineko kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu kobratuko dela bermatzeko.

Kautelazko neurria interesdunari jakinarazi behar zaio eta jakinarazpenean zergatik hartu den azaldu behar zaio.

(23) Zerga Administrazioari elkarren arteko laguntzaren esparruan kautelazko neurriak hartzeko eskatzen zaionean, neurri horiek eskatzen dituen estatutik edo nazioarteko zein nazioz gairik erakundetik jasotako agiria, kautelazko neurriak hartzea ahalbidetzen duena, ez da egongo inongo aitorpen, gehitze edo ordezen egintzari loturik.

2. (35) Neurria saihestu nahi den gaitzaren proportziozkoa izan behar da eta beraren zenbatekoa zorra kobratzeaz iurtatzeko bestekoa izan behar da gehienez. Inolaz ere ez da aplikatuko kalte konponezin edo konpongaitza ekar dezakeen neurririk. Zorra borondatezko epean ordaindu ezean sortuko litartekeen kostuen zenbatekoaren aurrean erantzun egin beharko du zergapekoak.

3. Hauexek dira kautelazko neurriak:

a) Zerga-itzulketen ordainketa edo Zerga Administrazioak egin beharreko beste ordainketa batzuk atxikitzea. Zerga-itzulketa bat, osorik zein partzialki, kautelaz atxikitzen bada, itzulketa-erabakiarekin batera jakinarazi behar zaio interesdunari.

b) Ondasun eta eskubideen prebentziozko enbargo; behar izanez gero, prebentziozko idaztoharra egingo da.

c) Ondasunak edo eskubideak besterentzeko, kargatzeko edo baliatzeko debekua.

d) Jarduera nagusiaren obrak edo zerbitzuak kontratatzen edo azpikontratatzeko dituzten enpresek kontratista edo azpikontratistei egiten dizkieten ordainketetan zati bat langileei, profesionalei edo beste enpresari batzuei jasanarazi edo atxiki behar zaizkien zergen betebeharren berme gisa atxikitzea, hain zuzen ere kontratatu edo azpikontratatuak obra edo zerbitzuen proportzioan.

e) Legez ezarritako beste edozein neurri.

4. (6) Kautelazko neurriak kudeaketa, ikuskaritza edo zergabilketa prozedura baten edozein unetan gauzatu daitezke.

5. (42) Baldin eta etendura automatikoa lortzeko behar direnak ez beste berme batzukeskatzen diren etendura eskaera bat, bermeak jarri beharretik erabat edo modu partzialean salbututa dagoen etendura eskaera bat edo errore aritmetikoa, materiala edo egitatezkoa oinarritzat hartutako etendura eskaera bat izapidetzeaz zentzuzko zantzen

batek erakusten badu betearazpena eten nahi zaien zorren kobrantza zapuztu daitekeela edo erabat zaildu daitekeela, kautelazko neurriak ezarri ahal izango dira zorren kobrantzaziurtatzeko, eta, gainera, aurretik ezarritako kautelazko neurrien indarraldia luzatu ahal izango da.

6. [\(29\)](#) [\(42\)](#) Kautelazko neurrien ondoreak aplikatu eta sei hilabete pasatutakoan iraungiko dira, ondokoetako bat gertatu ezean:

a) Premiamendu prozeduran enbargo edo artikuluko 7. idatz zatiko neurri edo epailearen kautelazko neurri bihurtzea; horiek kautelazko neurria hartu den egunetik izango dituzte ondoreak.

b) Neurria hartu beharra ekarri duten inguruabarrak desagertzea.

c) Interesdunak eskatuta, haien ordezkari askiesten den beste berme bat jartzea erabakitzea.

Nolanahi ere, zergapekoak kautelazko neurriaren zenbatekoa kobratuko dela bermatzen duen abal solidarioa, kreditu entitate edo elkarrekiko bermerako sozietate batena, edo kauzio aseguruaren ziurtagiria aurkezten badu, kautelazko neurria kendu beharko da. Zergapekoak kautelazko neurriaren bidez ziurtatutako zerga betebeharra borondatez ordaintzeko aldiaren ordaintzen badu aurretiaz sarrera eten gabe, Zerga Administrazioak jarritako bermearen gastuak ordaindu beharko dizkio.

d) Aipatu epea arrazoitutako erabakiaren bitartez luzatzea (sei hilabete gehienez).

e) Foru arau honetako 251. artikuluan deskribatutako prozedura izapidetu bitartean edo amaitu ondoren hartzea. Kasu horietan, ondorioak hartu eta hogeita lau hileko epea igarotzean etengo dira.

Foru arau honetako 251. artikuluan deskribatutako izapidetzearen hasiera baino lehen hartu badira, foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatia aipatzen duen likidazioa agindu ondoren, epea luzatu ahalko da, akordio motibatuaren bidez, baina hartutako neurrien luzapen osoak ezingo ditu hemezortzi hil gaingitu.

e) letra honek aipatzen dituen neurriak egindako likidazioa kobratzeko hasi den premiamendu prozeduraren enbargo bilakatu ahalko dira.

Neurri horiek hartu ondoren, organo judizial eskudunari Zigor Kodeko 305. artikuluko 5. idatz zatian jasotako etetea eskatzen bazaio, hartutako neurriak Fiskaltzari jakinaraziko zaizkio, bai eta aipatutako organo judizialari ere, eta horiei eutsiko zaie, harik eta azken horiek horiek kontserbatzeko edo altxatzeko bidezko erabakia hartu arte.

7. [\(42\)](#) Establezimendurik gabe irabazizko jarduera bat egiten bada eta aitortzen ez bada, horregatik eskatu beharreko zerga-zorren ordainketa bermatzeko behar beste diru eta merkaturgai prebentzioz enbargatzea erabaki daiteke. Halaber, Zerga Administrazioari aurretik adierazi ez zaizkion ikuskizun publikoen ondoriozko sarrerak ere prebentzioz enbargatzea erabaki daiteke.
8. [\(29\)](#) [\(42\)](#) Ikuskaritzako egiaztapen eta ikerketa prozedura baten ondorioz, Ogasun Publikoaren aurka delituagatik salaketa edo kereila formalizatzean edo delitu horregatik prozesu judiziala bideratu denean, foru arau honetako 248. artikuluko 2.

idatz zatiak aipatzen duen likidazioa agindu gabe, Zerga Administrazioaren organo eskudunak artikuluko honetan araututako kautelazko neurriak hartu ahalko ditu; hala ere, foru arau honetako hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa bete beharko da.

Ustezko delitua ez bada hasten ikertzen zerga ikuskapeneko egiaztapen eta ikerketa prozedura baten ondorioz, Zerga Administrazioako organo eskudunak Fiskaltzak ikerketarako eginbideei ekin ondoren aplikatu ahal izango ditu kautelazko neurriak, edo bestela zigor eginbideak hasi ondoren.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren kasuetan, salaketan edo kereilan Zigor Kodeko 126. artikuluan aipatzen diren kopuruen ordainketaren balizko erantzule gisa (zuzenekoak edo subsidiarioak) identifikatzen diren subjektuetako edozein izan daiteke kautelazko neurrien xedea.

Zerga Administrazioako organo eskudunak kautelazko neurri bat ezartzea erabakitzen badu, interesdunari, fiskaltzari eta organo judizial eskudunari jakinaraziko zaie, eta azken horrek erabakia (neurri jurisdikzional bihurtzea edo bertan behera uztea) hartu arte iraungo du indarrean.

79. artikulua.- Zerga-zorra geroratzeko eta zatikatzeko bermeak.

1. Zerga-zorra geroratzeko edo zatikatzeko berme gisa, Zerga Administrazioak eskatu ahal izango du beretzako abal solidarioa, kreditu-erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate batena, edo kauzio-asegurua ziurtagiria eratzeko.

Abal edo ziurtagiri hori ezin dela lortu frogatuz gero, edo jarduera ekonomikoaren bideragarritasuna kinka larrian jarrita bakarrik lor daitekeela, Administrazioak hipoteka, bahia, fidantza pertsonala edo solidarioa edo askiesten duen beste berme-bideren bat onartu ahal izango du, erregelamenduz ezartzen denaren arabera.

(44) Erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, zergapekoak zerga administrazioari eskatu ahal izango dio kautelazko neurriak har ditzala aurreko paragrafoetan aurreikusitako bermeen ordeiz. Kasu horietan, ez da aplikatuko foru arau honen aurreko artikuluko 6. apartatuan xedatutakoa.

2. Ondoko kasuetan zergapekoa aurreko idatz-zatian aipatutako bermeak eratu beharretik askatu ahal izango, erabat edo partzialki:
 - a) Zerga-zorra arauz ezarritako kopurua baino gutxiago denean. Salbuespen hau zerga-bilketako prozeduraren fase batzuetan aurkeztutako eskaeretara murriztu daiteke.
 - b) Zergapekoak ez badu zorra bermatzeko behar beste ondasun eta beraren ondarea atxikitzeak jarduera ekonomikoaren ekoizpen-ahalmena eta enplegu kopurua erabat eragotzi ahal baditu edo Herri Ogasunaren interesei kalte handia egin ahal badie, erregelamenduz ezarritakoaren arabera.
 - c) Zerga-arautegian ezartzen diren gainerako kasuak.

III. TITULUA

TRIBUTUEN APLIKAZIOA

I. KAPITULUA

PRINTZPIO OROKORRAK

1. ATALA

ZERGA-PROZEDURAK

80. artikulua.- Tributuen aplikazio-eremua.

1. Zerga Administrazioak zergapekoei informazioa eta laguntza emateko egiten dituen jarduerak eta tributuen kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dituenak, eta zergapekoek euren eskubideez baliatzean edo euren zerga-betebeharrak betetzeko egiten dituzten jarduketak.
2. [\(23\)](#) [\(43\)](#) Tributuen aplikaziotzat hartzen da, halaber, aurreko apartatuan aipatzen diren obligaziodunen administrazio jarduerak eta jarduketak gauzatzea, baldin eta elkarlaguntzaren esparruan egiten badira.
3. [\(23\)](#) Tributuen aplikazioa bereiztu egin behar da Zerga Administrazioak ematen dituen egintzen aurka aurkeztu diren administrazioarekiko diru-erreklamazioak ebaztetik.
4. [\(23\)](#) Tributuen kudeaketa, ikuskapen eta bilketako administrazio-prozeduren eta titulu honetan ezarritako gainerako jarduketan bidez aplikatuko dira.
5. [\(23\)](#) Kontzertu Ekonomikoan eta foru arau honetan ezarritakoa eragotzi gabe, zergapekoek eskuduna ez beste zerga administrazio baten aurrean egiten dituzten jarduketek ez dute ondorerik izango.

80 bis artikulua. [\(43\)](#) Elkarrekiko laguntza eta aldibereko kontrolak.

1. Zerga Administrazioak, agintaritza eskudunaren bidez, informazioa trukatzeko, kredituak biltzeko edo laguntza hori arautzen duen araudian jasotako beste helburu batzuetarako laguntza eskatu ahal izango du eta elkarri laguntza eman, elkarrekiko laguntzari buruzko araudian ezarritako baldintzetan, aldibereko kontroletan parte hartu ahal izango du, beste estatu batzuetako agintaritza eskudunekin batera.

Beste estatu batzuei elkarri laguntzeko jarduketan garapenean, agintaritza eskudunaren alde aurreko baimenarekin edo estatuen arteko alde aurreko akordioarekin, estatu

errekeritzaileak izendatutako funtzionarioak egon ahal izango dira bertan, edo komunikabide elektronikoen bidez parte hartu ahal izango dute.

Beste estatu batzuetako funtzionarioek Arabako Lurralde Historikoan egingo duten jarduera aplikagarri zaien araudiaren arabera egingo da, elkarlaguntzako arauetan ezarritako baldintzetan eta erregelamendu bidez ezartzen denarekin bat etorriz.

Era berean, Zerga Administrazioak izendatutako funtzionarioak beste estatu batzuetan egon ahal izango dira edo komunikabide elektronikoen bidez parte hartu ahal izango dute agintaritza eskudunak egindako laguntza eskaeren esparruan, eta elkarlaguntzari buruzko araudian ezarritakoaren arabera jardun ahal izango dute.

Zerga Administrazioak, agintaritza eskudunaren bitartez, beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gaidiko erakundeekin elkarrekiko laguntzari buruzko araudiaren arabera egiten dituen komunikazioak kasu bakoitzean laguntza arautzen duen araudian ezarritako bitartekoen bidez egingo dira. Berariazko araurik ezean, lehentasunez bide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliko dira harremanetarako.

2. Aldibereko kontrolak dira esku hartzen duten estatuentzat interes komun edo osagarrikoak diren pertsona edo erakundeei buruz lortutako informazioa trukatzeko beste estatu batekin edo batzuekin batera egindako jarduketak.

Zerga Administrazioak, beste estatu batzuetako agintaritza eskudunekin batera, aldibereko kontroletan parte hartu ahal izango du, elkarlaguntzari buruzko araudian ezarritako baldintzetan. Parte hartze horren barruan, artikuluko honen 1. apartatuan aipatzen diren funtzionarioek komunikabide elektronikoen bidez parte hartu ahal izango dute.

Kontrol horietan lortutako informazio trukeei foru arau honen 92. artikuluko 1. apartatuko ñ) letran eta 6. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie.

80 ter artikulua. (43) Baterako ikuskapenak.

1. Baterako ikuskapenak dira Zerga Administrazioak beste estatu batekin edo batzuekin batera egiten dituen ikuskapen jarduerak, esku hartzen duten estatuentzat interes komuna edo osagarria duten pertsona edo erakundeei dagokienez, aplikatu beharreko elkarlaguntzako araudiaren arabera.

2. Arabako Foru Aldundiak ikuskapen eskumena duenean, Ekonomia Itunean jasotakoarekin bat etorriz, batera ikuskatzen ari den zergapeko baten gainean, honako letra hauetan xedatutakoa aplikatuko da:

a) Ikuskapen horietan Zerga Administrazioko funtzionarioek dituzten eskubideak eta betebeharrak foru arau honen III. tituluko IV. kapituluaren aipatzen diren xedapenen arabera arautuko dira, artikuluko honetan ezarritako berezitasunekin, bai eta elkarri laguntzeko araudiaren arabera ere.

Halaber, Espainiako lurraldetik kanpo egiten diren ikuskapen bateratuei dagozkien jarduerak jarduera horiek egiten diren estatuko araudia ere errespetatu beharko dute. Nolanahi ere, horietan parte hartzen duten Zerga Administrazioko funtzionarioek ezingo dute baliatu Espainiako legeriak ematen dizkienak baino eskumen gehiago.

b) Baterako ikuskapenean parte hartzen duten Espainia ez diren estatuetakoen funtzionarioek Espainiako lurraldean egindako ikuskapen horien ondoriozko jardueretan parte hartu ahal izango dute, aplikatu beharreko legeriari jarraikiz, elkarlaguntzako arauetan ezarritako baldintzetan. Bereziki, zergapekoaren adierazpenak eskatu eta foru arau honen 136. artikulua 1. apartatua aipatzen diren dokumentuak aztertu ahalko dituzte.

c) Zergadunek Espainiako estatu mailako edo, hala badagokio, foru mailako araudi aplikagarrian aitortutako eskubide eta betebeharrak izango dituzte.

d) Zerga Administrazioak Espainiaren jarrera finkatzeko behar diren txostenak egin eta erabakiak hartuko ditu.

3. Zerga Administrazioak eta baterako ikuskapenean esku hartzen duten beste estatu bateko edo batzuetako administrazioak ikuskapena egingo dute, aldez aurretik adostuta eta koordinatuta, hizkuntza araubideari dagokiona barne.

Agintari eskudunak, nolana ere, baterako ikuskapenean esku hartzen duten beste estatuetik harremanez arduratuko den ordezkari bat izendatuko du. Baterako ikuskapenaren jarduerak Espainian egiten badira, ordezkari horrek gainbegiratu eta koordinatuko ditu.

4. Baterako ikuskapenaren jarduketaren ondorioak, hala badagokio, amaierako txosten batean dokumentatuko dira. Txosten hori zergapekoei jakinaraziko zaie, txostena egin eta 60 egun naturaleko epean. Zerga Administrazioak ikuskapen eskumena duten zergapekoei jakinaraziko die txosten hori, Ekonomia Itunean jasotakoaren arabera.

Txosten horretan, hala badagokio, baterako ikuskapenaren gertakari eta inguruabar garrantzitsuak jasoko dira, bai eta haiei aplikatu beharreko zerga araubidea ere, baldin eta esku hartzen duten estatuen arteko akordioa badago; horiek kontuan hartu beharko dira baterako ikuskapenaren ondorioz edo haren jarraipena egitearen ondorioz egin daitezkeen zerga prozeduretan. Era berean, berariaz jaso ahal izango du akordiorik lortu ez den edozein gai; prozedura horietan, baliteke kontuan ez hartzea.

2. ATALA

ZERGAPEKOEI INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA EMATEA

81. artikulua.- Zergapekoei informazioa eta laguntza eman beharra.

1. Zerga Administrazioak zergapekoei beraien eskubideei eta betebeharrei buruzko beharrezko informazioa eta laguntza eman behar dizkie.

2. Horretarako ondokoak egingo dituzte, besteak beste:

a) Zergei buruzko arauen testu eguneratuak eta administrazio-doktrinarik garrantzitsuena zabaltzeko.

Hain zuzen ere, zergen arloko indarreko foru arauak eta araudiak emango dira, bai eta urtean onetsitako zergen arloko xedapen guztien zerrenda ere.

Halaber, garrantzi eta eragin handiko ebazpen ekonomiko-administratiboak ere zabalduko dira.

b) Berriemateak eta informazioa eman.

Zerga Administrazioak zergen arloko arautegia aplikatzeko erabiltzen diren administrazio-irizpideen berri emango die zergadunei eta irizpideok dauden datu-base informatizatuak aztertzen utziko die.

c) Administrazioa aurretiaz lotesteko prozedurak.

d) Zergapekoei autolikidazioak eta aitorpenak egiten lagundu.

3. Administrazioak IKTen erabilera sustatuko du zergadunekiko dokumentu-prozedura guztietan. Hori dela eta, artikulua honetan ezarritako informazio-jarduketak teknika eta bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen bidez egin daitezke.
4. Artikulu honetan aipatutako informazio eta laguntza jarduketak Internet bidez eginez gero, doakoak izango dira.

82. artikulua.- Administrazioa aurretik lotesteko prozedurak.

1. Zergapekoek eska dezakete Zerga Administrazioak, zerga-egitatea gertatu edo aitorpena borondatez egiteko epealdia amaitu baino lehen, ebazpen loteslea eman dezala zenbait egitate, egintza edo negozio juridikok edo zenbait eragiketak eurentzat edukiko dituzten zerga-ondoreez.
2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa ondokoen bidez egingo da:
 - a) Zergei buruzko galderak idatziak.
 - b) Ondasun higiezinaren eskuraketa edo eskualdaketen aurreko informazioa.
 - c) Balioespenari buruzko aurretiazko erabakiak.
 - d) Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenak.

83. artikulua.- Zergei buruzko galdera idatziak.

1. Zergapekoek kasu bakoitzean dagokien erregimenari, sailkapenari edo kalifikazioari buruzko galderak, behar bezala dokumentatuak, egin ahal dizkiote Zerga Administrazioari.

Halaber, arau bidez ezartzen diren organismoek edo erakundeek ere egin ahal izango dizkiote zergei buruzko galderak, hain zuzen ere euren kide edo bazkide guztiak ukitzen dituzten gaiei buruz.

2. Zergei buruzko galdera idatziak eskubideak baliatzeko, aitorpenak edo autolikidazioa aurkezteko edo bestelako zerga-betebeharrak betetzeko ezarritako epea agortu baino lehen aurkeztu behar dira.
3. Galdera-idazkiak Zerga Administrazioari bidali behar zaizkio; idazkian ondokoak azaldu behar dira gutxienez:
 - a) Galdera egin duenaren identifikazioa.
 - b) Kasuaren nondik norakoak eta inguruabar garrantzitsuak.
 - c) Galdera bera, zehatz eta argi.

Artikulu honetan aipatutako galderen edukia arau bidez handitu daiteke.

4. Galdera batek ez badu betetzen aurreko idatz-zatietan ezarritako betekizunetako bat eta eskatu ondoren akatsa zuzentzen ez bada, Zerga Administrazioak artxibatu ahal izango du eta interesdunari jakinaraziko dio.
5. Zerga Administrazioak jaso eta hiru hilabete pasatu baino lehen erantzun behar die galderei. Epealdi horretan ez erantzuteak ez dakar berekin Administrazioak galderan adierazitakoa onartzen duenik.
6. Honelako galderak izapidetzeko eta erantzuteko prozedura eta horretarako eskumena izango duten administrazio-organoak arau bidez ezarriko dira.

84. artikulua.- Zergei buruzko galdera idatzien erantzunen ondoreak.

1. Zergei buruzko galdera idatzien erantzunak, aurreko artikuluko betekizunak betez gero, lotesleak izango dira, artikulu honetan ezarritakoaren arabera, tributuak aplikatzen dituzten Zerga Administrazioaren organoentzat zergadunekiko harremanetan.

Aurreko artikuluan ezarritako betekizunak bete ezean, zergei buruzko galdera idatzien erantzunak informaziorako baizik ez dira emango.

Galdera batean aipatutako kasuari aplikatu beharreko arautegia edo jurisprudenzia aldatzen ez den bitartean, emandako erantzunean adierazitako irizpideak aplikatuko zaizkio zergapekoari, idazkian aipatutako inguruabarrak, gertaerak eta gainerako datu guztiak aldatu ezean.

Galderan adierazitako gertaerak eta inguruabarrak erantzunean adierazitakoekin bat badatoz, tributuak aplikatzen dituzten Zerga Administrazioaren organoek zergei buruzko galdera idatzien erantzunetan adierazitako irizpideak aplikatu behar dituzte beti, aplikatu beharreko administrazio-doktrina aldatu ezean (aldaketa arrazoitu behar da).

2. Aurretiaz hasitako prozedura, errekurso edo erreklamazioen xedearen edo izapidetzearen inguruko galderei aurreko artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako epean erantzunez gero, erantzuna ez da loteslea izango Zerga Administrazioarentzat.

3. Galderak aurkezteak eta haien erantzunek ez dituzte etengo zergei buruzko arauetan zerga-betebeharrak betetzeko ezarritako epeak.
4. Zergapekoek ezin dute errekurtsorik aurkeztu zergei buruzko galderen erantzunen aurka. Aldiz, erantzunean adierazitako irizpideak aplikatzeko ematen diren administrazio-egintzen aurka jar ditzakete.
5. Norbaitek galdera jakin baten testu osoa eskatuz gero, Zerga Administrazioak eman egin behar dio, pertsonen identifikazio-datu guztiak ezabatuta.

85. artikulua.- Ondasun higiezinaren balioari buruzko informazioa.

1. Zerga Administrazioak eskuratu edo eskualdatzen diren Arabako higiezinaren katastroko ondasunen zerga-balioaren berri emango du; nola egingo duen eta balioespenak zein ondore izango dituen tributu bakoitzari buruzko arautegian ezarriko da.
2. Interesdunak ezin du jarri inolako errekurtsorik emandako informazioaren aurka. Informazio horren inguruan ematen diren administrazio-egintzen aurka, aldiz, jar ditzake.

Ez erantzuteak ez dakar berekin interesdunak bere eskaeran adierazitako balioa onartzea.

86. artikulua.- Balioespenari buruzko aurretiazko erabakiak.

1. Zergapekoek Zerga Administrazioari eska diezaioke, zerga bakoitzari buruzko foru arauak edo araudiek hala aurreikusten dutenean, aurretiaz eman dezala zerga-zorra eragin duten errenten, produktuen, ondasunen, gastuen eta gainerako elementuen balioespena, zergen ondoreetarako loteslea izango dena.
2. Eskaera idatziz aurkeztu behar dute zerga-egitatea gertatu baino lehen edo, bestela, zerga bakoitzari buruzko arautegian ezarritako epean.

Eskaerarekin batera zergapekoaren balioespen-proposamena aurkeztu behar da.

3. Zerga Administrazioak zergapekoak aitortutako egitate-elementuak eta inguruabarrak egiaztatu ahal ditu.
4. Zerga Administrazioak idatziz emango du balioespen-erabakia; bertan balioespena, egitatea eta zerga zehaztuko ditu eta erabakia loteslea dela adieraziko du, zerga bakoitzari buruzko arautegian finkatutako prozeduraren arabera eta bertan ezarritako epeetan. Zerga Administrazioak behar den epealdian erantzunik ez emateak berekin dakar eskatzaileak proposaturiko balioespena onartzea.
5. Arautegia aldatu edo balioespenaren oinarritzat hartutako inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatu ezean, erabakia eman duen zerga administrazioak bertan adierazitako balioak aplikatu behar ditu. Erabakia hiru urte izango da indarrean gehienez, arautegian besterik ezarri ezean.

6. Zergapekoek ezin dute aurkeztu inolako errekurtsorik artikulua honetan arautako erabakien aurka. Aldiz, erabakian adierazitako balioespenak aplikatzeko ematen diren administrazio-egintzen aurka jar ditzakete.

87. artikulua.- Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenak: kontzeptua eta prozedura.

1. Zergadunek zerga-ordainketa zehazteko aurretiazko proposamenak aurkeztu ahal dizkiote Zerga Administrazioari garrantzi edo konplexutasun handiko eragiketa jakin batzuei dagokienez, arau bidez ezartzen denaren arabera.
2. Aurreko idatz-zatian aipatutako proposamenean, batetik Administrazioa aurretiaz lotesteko prozedura hau proposatzen den eragiketaren edo eragiketa-multzoaren ziozko zerga-zorreetan eragina izan dezaketen elementu guztien deskripzio xehekatua agertu behar da, eta bestetik eragiketak edo eragiketa-multzoak zerga-zorreetan izan duen eraginaren kalkulua, zergapekoak egina, erabilitako irizpideen azalpenarekin.
3. Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenak zerga-egitatea gertatu baino lehen aurkeztu behar zaizkio Zerga Administrazioari, eta zergaldia duten zergetan proposatzen dena aplikatu behar den zergaldia amaitu baino lehen.

Zerga Administrazioak artxibatu egingo ditu aurreko epetik kanpo aurkezten diren proposamenak.

4. Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenak hiru hilabete pasatu baino lehen ebatzi behar dira. Aldi horretan ez onesteak ez dakar berekin Administrazioak proposamenean adierazitako irizpideak eta zenbatekoa onartzen dituenik.
5. Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenak aurkezteko eta onesteko prozedura eta betekizunak arau bidez ezarriko dira.

88. artikulua.- Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenen ondoreak.

1. Zerga Administrazioak zerga-ordainketarako aurretiazko proposamen bat onesten badu, proposamena loteslea izango da eta zergak aplikatzen dituzten organoek bertan ezarritakoa aplikatu beharko dute, adierazitako inguruabarrak egiazkoak ez direla edo aplikatu beharreko arautegia aldatu dela egiaztatu ezean.
2. Zerga-ordainketarako aurretiazko proposamenen ebazpenen aurka ezin da jarri ez errekurtsorik ez erreklamaziorik, baina proposamena aplikatzeko ematen diren administrazio-egintzen aurka bai.

3. ATALA

HERRITARREN LAGUNTZA TRIBUTUEN APLIKAZIOAN

89. artikulua.- Herritarren laguntza.

1. [\(29\)](#) Interesdunek zergen aplikazioan lagundu dezakete, arau bidez ezartzen denari lotuta.

Lankidetza hori Zerga Administrazioak beste administrazio publiko, entitate pribatu edo gizarte, lan, enpresa edo lanbide sektore edo interesen ordezkari diren entitate edo organizazioekin eginiko akordioen bidez antolatu ahalko da, eta, zehazki, zerga aholkularitzako profesionalen elkargo eta elkarteekiko zerga betebeharren lankidetza betearazpena sustatzeko lana errazteko.

2. Zerga Administrazioak herritarrek teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez laguntzeko betekizunak eta baldintzak jarri ahal izango ditu.

90. artikulua.- Informazioa eman beharra.

1. Pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek zein pribatuak, eta foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeek euren zerga-betebeharren inguruko denetarik datu, txosten, aurrerakin eta frogagiriak, zerga-ordainketan eragina izan dezaketenak, eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, bai eta beste pertsona batzuekin izan dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozko guztiak ere.

Zehatzago:

- a) Atxikitzaileek eta konturako sarrerak egin behar dituztenek beste pertsona edo erakunde batzuei dirutan edo gauzatan egindako ordainketen zerrendak aurkeztu behar dituzte.
- b) Sozietateek, elkarteek, profesionalen elkargoek eta, besteak beste, bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura ogibidesariak edo jabetza intelektualaren edo industrialaren edo egilearen jabetzaren ondoriozko eskubideak kobratzen dituzten erakundeek datu horiek jakinarazi behar dizkiote Zerga Administrazioari.

Gauza bera egin behar dute legez edo estatutuz, edo ohiko jardun gisa, kapitalen merkatuan kapitalak erakarri, ezarri edo lagatzeagatik edo horretan bitartekari jarduteagatik ogibidesarien edo komisioren kobrantza kudeatzen duten edo horretan esku hartzen duten pertsonak eta erakundeek, are bankuek, kreditu-erakundeak eta, oro har, finantza-bitartekaritzan ari direnek ere.

- c) Betearazpen-aldian, Zerga Administrazioaren zordun direnen eskudirua edo kontuetako dirua, baloreak edo bestelako ondasunak gordailatzen dituzten pertsonak eta erakundeek horren berri eman behar diete zerga-bilketako organoei eta haiek euren eginkizunetan egiten dituzten errekerimenduak bete behar dituzte.
- d) [\(35\)](#) Zerga eragina daukaten eragiketetan parte hartzen duten entitate edo pertsonak Zerga Administrazioak eskatutako informazioa eman beharko diote administrazio horri, lotura horrek eragindako finantza mugimenduei dagokienez, zerga ikuskaritzako prozedura batean egiaztatze edo ikerketa jarduketan xede izan zein ez.

e) (42) Indarrean dagoen araudia aplikatuta, ekintzen azken onuradunen identifikazioa ezagutzen duten edo jakiteko moduan dauden pertsonak eta entitateek identifikazio horri buruz erregelamenduetan ezartzen diren eskakizunak eta informazio betebeharrak bete beharko dituzte nahitaez Zergen Administrazioan.

f) (44) Pertsona juridikoek eta entitateek beren egiazko titularren berri eman behar diote Zerga Administrazioari. Horretarako, egiazko titularrak izango dira Kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikulua 2. apartatua zehazten direnak.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako betebeharrak arau bidez ezartzen den moduan eta finkatzen diren epeetan bete behar dira, oro har, edo bestela Zerga Administrazioak banakako errekerimendua egindakoan (noiznahi egin dezake).

3. Banku-sekretua ezin da erabili artikulua honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeko aitzakiatzat.

Bankuen, aurrezki kutxen, kreditu kooperatiben eta banku- edo kreditu-trafikoan aritzen diren erakundeek kontu korrante, aurrezki eta eperako gordailu, mailegu- eta kreditu-kontuetako mugimenduei eta gainerako eragiketa aktibo eta pasiboak (kontu iragankorretan islatzen edo txeketan eta bestelako ordainketa-aginduetan gauzatzen diren eragiketak barne) buruzko banakako errekerimenduak ikuskapen edo zerga-bilketa eginkizunetan jardutean egin daitezke, arau bidez ezartzen den Zerga Administrazioaren organoak baimena eman ondoren.

Banakako errekerimenduan txekiekin edo ordainketa-aginduaren identifikazio-datuak zehaztu beharko dira, edo bestela, ikertzen diren eragiketak, ukituriko zergapekoak (titularrak nahiz baimenduak) eta kontuan hartutako epealdia.

Idatz-zati honetan ezarritakoaren arabera ikerketan mugimenduen edo txekiekin eta ordainketa-aginduen jatorria eta xedea azter daitezke, baina hori egiten denean gehienez ere jatorriko eta xedeko pertsona eta kontuak identifikatu ahal izango dira, besterik ez.

4. Funtzionario publikoek, are profesional ofizialek ere, Zerga Administrazioari lagundu behar diote; hain zuzen ere zerga-ordainketan eragina izan dezakeen informazio guztia eman behar diote, hurrengoetako bat aplikatu daitekeenean izan ezik:

a) Postaren edukiaren sekretua.

b) Administrazioari estatistiketarako soilik emandako datuen sekretua.

c) (45) Notarioaren protokoloaren sekretua; honetan Notariotzari buruzko Legeko 34. eta 35. artikuluetan aipatutako agiri publikoak sartzen dira, bai eta ezkontzei edo izatezko bikoteei buruzkoak ere, ezkontza sozietatearen araubide ekonomikoari edo izatezko bikoteen ondarearen araubide ekonomikoari buruzkoak izan ezik.

5. Zerga Administrazioari zerga-ordainketan eragina duen informazioa eman behar dioten gainerako profesionalak ez dizkiote jakinarazi behar euren jardunean ezagutzen dituzten ondaretik kanpoko datu pribatuak, baldin eta horrela pertsonen edo familien ohorea edo

intimitatea urratzen badute. Halaber, ez dizkiote jakinarazi behar aholkularitzako edo defentsako lanbide-zerbitzuak egitean euren bezeroei buruz ezagututako isilpeko datuak.

Profesionalek ezin diote heldu lanbideko sekretuari euren zerga-egoeraren egiaztapena eragozteko.

6. Arau bidez ezartzen denari lotuta, Zerga Administrazioak artikuluko honetan eta hurrengoan aipatutako informazioa teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez emateko betekizunak eta baldintzak ezar ditzake.

91. artikulua.- Informatu beharra eta lagundu beharra dituzten agintaritzak.

1. Agintariek (era guztietakoek), Estatuaren, autonomia erkidegoen, lurralde historikoen eta toki-entitateen organoen titularrek, organismo autonomoek eta enpresa-erakunde publikoek, lanbide ganbarek eta korporazioek, elkargoek eta elkarteek, gizarte aurreikuspenarako mutualitateek, gainerako erakunde publikoek (are Gizarte Segurantzaren kudeatzaileek ere) eta, oro har, eginkizun publikoak dituzten guztiek Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkiote xedapen orokorren bidez edo banakako errekerimenduen bidez eskatzen dituen zerga-ordainketarako datu, txosten eta aurrekari guztiak, eta berari eta beraren agenteei laguntza, sorospena eta babesa eman behar dizkiote euren eginkizunak bete ditzaten.

Halaber, zergen kudeaketan edo ordainarazpenean parte hartuko dute ohartarazpen, jasanarazpen eta atxikipenen bidez, indarreko legerian ezarritakoaren arabera.

2. Betebehar berberak dituzte alderdi politikoei, sindikatuak eta enpresa elkarteak ere.
3. Epaitegiei eta auzitegiei Zerga Administrazioari eman behar dizkiote, ofizioz edo berak eskaturik, euren epai-jarduketan ondorioz ezagutzen dituzten zerga-ondoredun datu guztiak, eta sumarioko eginbideen sekretua errespetatu behar dute.
4. Kapitalak Zuritzearen eta Moneta Urratzearen Aurkako Batzordearen Zerbitzu Betezarazleak eta Terrorismoa Finantzatzeko Jarduerak Zaintzeko Batzordeak, eta bien idazkaritzek, euren eginkizunetan ari direnean eskuratzen dituzten zerga-ondoredun datu guztiak ofizioz eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, oro har, edo banakako errekerimendua jaso ondoren, arau bidez ezartzen denari lotuta.

Zerga Administrazioaren organoek zergapekoen zerga-egoera erregularizatzeko erabili ahal izango dute emandako informazioa, kudeaketa-prozeduran nahiz ikuskapen-prozeduran, eta horretarako ez da aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako errekerimendua egin beharrik izango.

5. Aurreko artikuluan, artikuluko honetako aurreko idatz-zatietan edo legezko beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari datu pertsonalak lagatzeko ez da behar ukiturikoen baimenik. Eremu honetan ez da aplikatuko Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 21. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoa.

92. artikulua.- Zerga-ordainketan eragina duten datuak isilpean eduki beharra.

1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak egitean eskuratzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira eta hark kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko eta bidezko zehapenak ezartzeko soilik erabili ahal izango dira, eta ezin zaizkie laga gainontzekoei, ez jakinarazi, ondoko xedeetako baterako izan ezean:

- a) Jurisdikzio-organoei eta fiskaltzari laguntzea delituak ikertzen edo jazartzen, laidotutako pertsonak eskatuta soilik jazarri ahal direnak izan ezik.
- b) [\(23\)](#) Beste zerga administrazio batzuekin lankidetzan aritzea bere eskumenen eremuan zerga betebeharrak betearazteko.
- c) [\(18\)](#) (42) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailezarekin eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileekin eta zerbitzu erkideekin lankidetzan aritzea Gizarte Segurantzaren sistemako kuoten kotizazioan eta bilketan eta sistemaren konturako prestazioak lortzean eta baliatzean gertatzen den iruzurraren aurka borrokatzeko, eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileekin lankidetzan aritzea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 308. artikuluan aipatzen diren norberaren konturako langileen edo langile autonomoen kotizazioak erregularizatzeko.

Gainera, Zerga Administrazioak asegurdun edo onuradun izaera aitortzeko eta kontrolatzeko ardura duen herri administrazioaren organoaren eskura jarriko ditu erabiltzaileen errenta mailari buruzko datuak, hain zuzen ere, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komunak zoroko prestazioen, ekarpena beharrezkoa dutenen, ordainketan izango den partaidetzaren ehunekoa zehazteko beharrezkoak direnak.

- d) [\(10\)](#) [\(44\)](#) Administrazio publikoekin lankidetzan aritzea, funts publikoen edo Europar Batasunaren kargurako laguntzak edo dirulaguntzak lortzean delitu fiskala prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko, baita iruzurra, ustelkeria eta Europar Batasunaren finantza interesei eragiten dieten interes gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko ere.
- e) [\(14\)](#) Biltzar Nagusietan ostatutako ikerketa batzordeekiko lankidetzan, baita beste parlamentu ikerketako batzordeekiko ere, arau honetako 92. bis artikuluan finkatutako esparruan.
- f) Adingabekoen eta jurisdikzio-organoek edo fiskaltzak ezgaitutakoen eskubideak eta interesak babestea.
- g) Herri Kontuen Euskal Epaitegiari fiskalizazio-lanetan laguntzea.
- h) Epaileekin eta auzitegiekin lankidetzan aritzea epai-ebazpen irmoak betearazteko. Epailearen informazio-eskabideak berariazko ebazpena beharko du; ebazpen honetan, dagokion gaiak ukitzen dituen interes publiko eta pribatuak haztatu ondoren eta zordunaren ondasun eta eskubideen izatea ezagutzeko gainerako bide eta iturriak agortu izanagatik, Zerga Administrazioari datuak eskatu behar diren zioak azalduko dira.

- i) Kapitalak Zuritzearen eta Moneta Urratzeen Aurkako Batzordearen Zerbitzu Betearazleari, Terrorismoa Finantzatzeko Jarduerak Zaintzeko Batzordeari eta horien bien idazkaritzei euren eginkizunetan laguntzea.
- j) Zergaz beste baliabide publikoak biltzen diharduten Zuzenbide Publikoko organoei edo erakundeei zergadunak zuzen identifikatzen laguntzea.
- k) Estatistikaren arloan eskumena duten herri administrazioek datuak estatistikak egiteko erabiltzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikei buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak eman dizkien eginkizunak betetzeko. Informazio-eskaeran zehatz-mehatz azaldu behar dira lagako diren zerga-datuak erabiliz egingo diren estatistika-lanen helburuak. Datuok, beti ere, multzoka erabili behar dira azterlanetan eta ezin dira gorde norbanakoen arabera bereizita.
- l) (22l) Herri administrazioei eta sektore publikoko gainerako erakundeei beren eginkizunetan laguntzea, zergapekoek beren datuak horretarako lagatzeko baimena eman ondoren.
- m) (6) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeetako administrazio publikoekin lankidetzan aritzea eskumeneko sarrerak biltzeko.
- n) (22) (32) Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari eta Espainiako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialari enpresen errolda publikoa egiten laguntzea, apirilaren 1eko 4/2014 Legearen 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
- ñ) (23) Elkarren arteko laguntzari buruzko araudiaren esparruan informazioa trukitzea.

Zerga Administrazioak beste estatu batzuei edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuei eman ahal izango dizkie bere eginkizunetan ari dela lortutako datu, txosten edo aurrekariak, betiere lagapen horren helburua beste estatu batzuen edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuen titulartasuneko zergak aplikatzea bada, elkarren arteko laguntzari buruzko araudian ezarritako baldintza eta mugekin, eta ezertan eragotzi gabe estatu edo erakunde hartzaileak informazioa beste xede batzuetarako erabili ahal izatea, aipatutako araudian hala ezartzen denean.

Informazio hori ematearren, Zerga Administrazioak hura lortzeko behar diren jarduketak egingo ditu, baita eskatutako informazioa bere barruko tributuak zehazteko beharrezkoa ez duenean ere. Horretarako, foru arau honetan araututa dauden informazioa lortzeko mekanismoetatik edozein erabili ahal izango du Administrazioak.

Zerga Administrazioak uko egin ahal izango dio edo, bestela, berariaz baimendu beharko du, elkarren arteko laguntzari buruzko araudian ezarritako moduan, aurreko idatz zatian xedatutakoari jarraituz ematen duen informazioa hirugarren estatu bati edo nazioarteko zein nazioz gaindiko hirugarren erakunde bati eskualdatu diezaioten.

- o) [\(24\)](#) Abokatutzaren Kontseilu Nagusiarekin eta abokatuen elkargoekin lankidetzan aritzea doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko, emandako datuen gai diren zergapekoek baimena eman ondoren.
 - p) [\(28\)](#) Europar Batasuneko Eskubidean eta ordenamendu juridikoa osatzen duten nazioarteko itun eta akordioetan jasotako egoerak.
 - q) [\(29\)](#) [\(44\)](#) Aktiboak Berreskuratze eta Kudeatzeko Bulegoarekiko lankidetzaz zigor prozesu batean enbargatu edo konfiskatu daitezkeen ondasunak eta eskubideak lokalizatzeko behar diren datuen, txostenen edo aurrekarien lagapenaren bidez, gertakari hori egiaztatu ondoren.
 - r) [\(36\)](#) Maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuan ezarritako bizitzeko gutxieneko diru sarreran datzan Gizarte Segurantzako ordaindutakoaz bestelako prestazio ekonomikoa kudeatzeko ardura duten entitateekiko lankidetzaz.
 - s) [\(44\)](#) Lankidetzaz Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin edo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekin, Etxeko langileen lan baldintzak eta Gizarte Segurantzaz hobetzeko irailaren 6ko 16/2022 Errege Lege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren ondorioetarako.
 - t) [\(44\)](#) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko kontratuak adjudikatzeko eta dirulaguntzak emateko prozeduren ardura duten erakundeekin lankidetzan aritzea interes gatazken arriskuaren analisi sistematikoari dagokionez.
2. Aurreko idatz-zatian ezarritako lagapenetan, zerga-informazioa baliabide informatiko edo telematikoen bidez eman behar da, ahal dela. Herri administrazioek informazioa bitarteko horiez baliatuta eskuratu ahal badituzte, ezin eskatu izango diete interesdunei informazioaren inguruko ziurtagiria, Zerga Administrazioak emana, aurkezteko.
 3. [\(23\)](#) Zerga Administrazioak zerga informazioa isilpean edukiko dela eta zuzen erabiliko dela bermatzeko neurriak aplikatuko ditu.
- Honelako datuak, txostenak edo aurrekariak ezagutzen dituzten agintariek, funtzionarioek eta Zerga Administrazioaren zerbitzuko langileek erabat isilpean eduki behar dituzte, aipatu diren kasuetan izan ezik.
- Delitua egon litekeela ohartuz gero (laidotutako pertsonak eskatuta soilik jazar daitezkeen delituak izan ezik), Zerga Administrazioak erruduntasun testigantza aurkeztuko du edo delitutzat jotzen diren gertaera inguruabarren zerranda bidaliko dio fiskaltzari. Horrez gainera kereila prozedurari ere ekin ahal zaio organo eskudunaren bidez.
- Illo beretik, eroskeria izan litekeen gertaera baten berri dakiten agintariek, funtzionarioek eta Zerga Administrazioaren zerbitzuko langileek agintaritzaz eskudunari jakinarazi behar diote.
4. [\(29\)](#) Artikulu honetan ezarritako datuen isilpeko izaerak ez du eragotziko horiek argitaratzea, argitalpena bera Europar Batasunaren arauditik datorrenean.
 5. [\(29\)](#) Atxikitzaileek eta konturako sarrerak egin behar dituztenek konturako ordainketak egiteko baizik ezin dituzte erabili beste zergapeko batzuei buruzko datuak, txostenak eta

aurrekariak. Datuok Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkio zerga bakoitzaren arautegian ezarritako kasuetan.

Aurreko paragrafoan xedatutako kasuan izan ezik, hizpide ditugun datuak, txostena eta aurrekariak isilpekoak dira.

Atxikitzaileek eta konturako sarrerak egin behar dituztenek erabat isilpean gorde behar dituzte.

6. [\(29\)](#) [\(23\)](#) Elkarren arteko laguntzari buruzko arauen babesean beste estatu batzuek edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuek Zerga Administrazioari emandako informazioa hirugarrenei laga ahal izango zaie baldin eta informazioa eman duen estatuaren edo erakundearen araudiak bide ematen badu antzeko xedeetarako erabiltzeko; betiere, elkarren arteko laguntzari buruzko araudian besterik adierazi ezean.

Idatz zati honetan aipatutako informazioa beste estatu batzuei edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuei igorri ahal izango zaie elkarren arteko laguntzari buruzko araudiak horretarako aukera ematen badu, eta bertan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

92. artikulua bis [\(14\)](#).

1. Arabako Foru Aldundiak, zerga administrazio moduan, bost egun balioduneko epean, Arabako Biltzar Nagusietan osatutako ikerketa batzordeek edo beste edozein parlamentu ikerketa batzordek eskatutako datu, txosten, aurrerakin edo agiri guztiak bidali beharko ditu, betiere honako baldintza hauek ematen badira:

a) Honako pertsona hauei buruzkoak izatea:

Bat. Herri Administrazio guztietan, horien organismo autonomoetan, Zuzenbide Publikoko entitateetan goi-karguetan edo baliokidetan ari diren edo ari izan diren (hautatuak izan direlako edo izendatuak izan direlako) pertsona fisikoak, baita horien menpeko organismo eta enpresetako presidenteak edo zuzendari exekutiboak edo baliokideak eta Herri Administrazioen zuzeneko zein zeharkako partaidetza handiena duten merkataritza-sozietateen presidenteak edo zuzendari exekutiboak edo baliokideak, gainontzeko Zuzenbide Publikoko entitatekoak edo erabakitze unitate bat sortzen dutelako horiekin lotura duten entitateenak ere.

[\(45\)](#) Bi. Aurreko Bat apartatuan adierazitakoen ezkontide edo izateko bikote diren edo ikerketaren helburu den unean izan ziren pertsona fisikoak, edo antzeko afektibotasun harremanean horietako batekin bizi diren pertsonak, mendeko seme-alabak edo tutoretzapean dauden pertsonak, eta bigarren mailako ezkontza ahaidetasuna edo odol ahaidetasuna duten senideak, edo izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoak. Ikus galdera eta erantzunen atala.

Aurreko paragrafoan ezkontide, izatezko bikote edo afektibotasunezko antzeko harremanean bizi direnei buruz esandakoa aplikatuko da dagokien erregimen ekonomikoa edo ondare erregimena edozein izanda ere.

Hiru. Aurreko lehenengo eta bigarren ataletan aipatutako pertsona horiekin, zuzenean edo zeharka, banaka edo taldeka, ehuneko 10 baino gehiagoko sozietate partaidetza duten Entitateak edo Pertsona Juridikoak, edo horren zuzendaritzan, aholkularitzan edo administrazioan partaidetzaren bat izan dutenek.

Lau. Estatuko, erkidegoko edo tokiko sektore publikoarekin edozein kontzerturik edo kontraturik egin duten beste entitateak edo pertsona juridikoak, edo enpresa horietako azpi-kontratista direnak, edozein herri administrazioetik diru-laguntzarik jasotzen dutenak edo Ikerketa Batzordeko xedearekin loturarik dutenak.

- b) Ikerketaren xedeak lotura izatea artikuluko honetako a) bat atalean azaldutako pertsonen kargu publikoarekin.
- c) Ikerketa horiek ulertzen badute datu, txosten, aurrerakin edo dokumentu horiek ez badituzte ezin dutela duten funtzioa beste.

- 2. Artikulu honetan xedatutakoa Arabako Biltzar Nagusietan osatutako ikerketa batzordeen eta Eusko Parlamentuko ikerketa batzordeen kasuan aplikatu daiteke, azken hauetarako berariazko legeri bat aplikatu behar ez bada. Kasu horretan, azken lege hori aplikatuko da artikuluko honen edukia gainditzen ez bada.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan osatutako ikerketa batzordeen kasuan, euren lurralde historikoetan indarrean dagoen legeria aplikatuko da, betiere artikuluko honen edukia gainditzen ez bada.

Parlamentu ikerketa batzordeen kasuan, dagokien legeria aplikatuko da, eta halakorik egon ezean, araubide komunezko zerga legeria, artikuluko honen edukia gainditzen ez bada.

- 3. Zerga Administrazioek Biltzar Nagusietan osatutako ikerketa batzordeetara edo parlamentu ikerketa batzordeetara bidaliko datuak, txostenak, aurrekariak edo dokumentuak bakar-bakarrik eman daitezke argitara ikerketaren ondorioen parte baldin badira eta, gainontzeko datuak isilpean gorde beharko dira.

92 ter artikulua. - (27) (42) Zerga betebeharrak nabarmen betetzen ez diren egoeren publikitate.

- 1. Zergen Administrazioak Foru Ogasunari zordunen zerrendak aldi berean argitaratzea erabakiko du, zerga zorren edo zerga zehapenen erantzule solidario deklaratuak izan direlako zordun direnak barne, honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Ordaintzeko dauden zerga zorren eta zehapenen zenbateko osoa, betiere erantzukizun solidarioa aitortu ondoren eskatutakoak barne, 600.000,00 eurotik gorakoa izatea.

b) Zerga zor edo zerga zehapen horiek ez ordaintzea borondatez ordaintzeko epealdian.

c) (45) Zerga zor eta zehapen irmoak izatea, hala administrazio bidean nola auzibidean. Ogasun Publikoaren aurkako delitu bati lotutako likidazioen ondoriozko zerga arloko zor eta zehapenen kasuan, beharrezkoa izango da Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik kondena epea irmoa egotea.

Erantzukizun solidarioa adierazteko erabakian sartutako zorren kasuan, beharrezkoa izango da foru arau honen 61. artikulua 2. apartatuan ezarritako ordainketa epealdia igarotzea, erantzukizuna adierazteko erabakia eta, bidezkoa denean, ordainketa eskatzeko erabakia jakinarazi ondoren.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira sartuko geroratuta, zatikatuta edo etenda dauden zerga zorrak eta zerga zehapenak.

2. Zerrenda horietan honako informazio hau jasoko da:

a) Zordunen identifikazioa zehaztasun honen arabera:

- Pertsona fisikoak: izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

- Foru arau honen 35. artikulua 3. apartatuko pertsona juridikoak eta entitateak: izen sozial osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Ordaintzeko dauden eta argitalpenerako kontuan hartu diren zor eta zehapenen zenbateko osoa.

3. Honako artikulu honetan araututako publizitatea Arabako Foru Ogasunari aplikatzeko eskumenak, zehatzeko ahalmena eta berrikusteko ahalmenak dagozkion zergei buruzkoa izango da soil-soilik, eta ez da aplikatuko Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeek haren aldeko eskumen eskuordetzea egin duten kasuetan.

4. Zerrendan sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen diren zehazteko, argitaratzeko erabakiaren aurreko urteko abenduaren 31 hartuko da erreferentzia datatzat, dena dela erabaki horren egunean ordaintzeko dagoen zenbatekoa.

Zerrendan sartzeko proposamena eragindako zordunari jakinaraziko zaio, eta hark alegazioak aurkeztu ahal izango ditu hamar eguneko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ondorio horietarako, jakinarazpen hori egin dela ulertzeko, nahikoa izango da Zergen Administrazioak egiaztatzea jakinarazpena egiten saiatu dela, edukiaren testu osoa pertsona edo entitate interesdunaren zerga egoitzan duela.

1. apartatuan adierazitako betekizunen inguruko errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak egoteari buruzkoak baino ez dira izango alegazioak.

Alegazio izapidearen ondorioz, administrazioak zerrenda zuzentzea erabaki ahal izango du, baldin eta modu frogagarrian egiaztatzen bada ez direla betetzen artikulu honetako 1. apartatuan zehaztutako lege betekizunak.

Zuzenketa hori ofizioz ere erabaki ahal izango da.

Alegazioak egiteko epealdia amaitu baino lehen zor den zenbatekoa ordaintzen bada eta ondorioz ordainketa egin ondoren artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren ordaindu gabeko zerga zorren eta zerga zehapenen guztirako zenbatekoa 600.000,00 eurotik gorakoa ez bada, zordunak ez dira sartuko zerga zorreatatik edo zehapenengatik Ogasun Publikoari dirua zor dioten pertsonen zerrendetan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den ordainketa gutxienez erreferentzia egunean zor den zenbatekoaren ehuneko 25 izan beharko da.

Aurreko bi paragrafoetan aipatzen den zenbatekoa ordaindu dela egiaztatutakoan administrazioak zerrenda berretsiko du.

Zuzendu beharrekoa zuzendu ondoren, Arabako Foru Aldundiari dirua zor dioten zerrenda argitaratzeko erabakia emango du Arabako Foru Aldundiak.

Erabaki hori interesdunari egiteko jakinarazpena egintzat joko da hura eta Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkaten zerrenda argitaratzen direnean.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez ezarriko dira argitalpen data (urte bakoitzeko lehen seihilekoan argitaratu beharko da) eta bidezko fitxategiak eta erregistroak.

Nolanahi ere, bitarteko elektronikoen bidez argitaratuko da, eta beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira edukia ez indexatzeko Interneteko bilatzaileen bidez, eta zerrendak ez dira eskuragarri egongo argitaratzen direnetik hiru hilabete igaro ondoren. Argitaratzeko behar diren datuen tratamenduak bete egin beharko du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, baita abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere, Datu Digitalak Babesteari buruzkoa.

5. Artikulu honetan arautzen diren argitaratzeko erabakiak emateko eskumena Ogasun zuzendariak edukiko du.

6. Zerrenda argitaratzean, zehaztuko egingo da bertan adierazitako egoera 4. zenbakian jasotako erreferentzia datan dagoena dela, eta zordunak erreferentzia data horren ondoren egindako jarduketek ez dute eraginik izango zerrendaren argitalpenean, salbu eta paragrafo horretan adierazitako kasuetan eta baldintzetan ordainketa egiaztatzen bada.

Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezelako eraginik izango foru arau honetan ezarritako aurkaratze araubidean, zerga zorrak eta zerga zehapenak eragiten dituzten jarduketei eta prozedurei dagokienez, ez eta zergak aplikatzeko hasitako jarduketetan eta prozeduretan edo zerga horiekin lotuta geroago hasten direnetan ere.

Artikulu honetan ezarritako prozeduran egindako jardunek ez dute etenaldirik eragingo, artikuluan araututako informazio argitalpenari dagokionez, foru arau honen 67. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

7. Zerrenda argitaratzeko erabakiak administrazio-bidea amaituko du.

4. ATALA (29)

TEKNOLOGIA INFORMATIKOAK ETA TELEMATIKOAK

92 quater artikulua. - (29)Teknologia informatikoak eta telematikoak erabiltzea.

1. Zerga administrazioak beharrezko teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabilera bultzatu du bere jardueraren garapena ahalbidetzeko eta administrazio horren menpeko eskumenak egikaritzeko, aplikagarria den legeriak ezarritako mugak aintzat hartuta.
2. Zerga administrazioak badituen baliabide teknikoekin bateragarria denean, herritarrek teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak bidezko harremanak izan ditzakete harekin, herritarren eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko helburuz, prozedura bakoitzean araututako berme eta betekizunei jarraiki.
3. Teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak darabiltzan prozedurek eta jarduketek Zerga administrazio jardulearen identifikazioa eta beraren eskumenaren egikaritzea bermatuko dituzte. Gainera, Zerga administrazioak era automatizatuan jarduten duenean, informazio sistema programatzeko eta gainbegiratzeko organo eskumendunen eta jar daitezkeen errekurtsioak ebazteko organo eskumendunen identifikazioa bermatuko da.
4. Ahalak egikaritzeko, Zerga administrazioak erabiltzen dituen programa eta aplikazio elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ontzat eman beharko ditu aurretiaz, erregelamendu bidez ezartzen den eran.
5. Euskarria zeinahi dela ere, Zerga administrazioak bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak emandako edo bidalitako agiriek, hala nola aipatutako bitartekoak bidez bildutako jatorrizkoen kopiek, jatorrizkoen baliozkotasun eta eraginkortasun berdina izango dute, betiere agiri horien egiazkotasuna, osotasuna eta iraunkortasuna bermatzen bada eta, hala badagokio, interesdunak jaso dituela eta aplikagarria den araudiak ezarritako bermeak eta eskakizunak betetzen direla ziurtatzen bada.

II. KAPITULUA

ZERGEN ARLOKO JARDUKETEI ETA PROZEDUREI BURUZKO ARAU OROKORRAK

93. artikulua. - Zergen arloko jarduketei eta prozedurei buruzko arauak.

Zergak aplikatzeko jarduketetan eta prozeduretan ondokoak izango dira aginduzko:

- a) Titulu honetako eta berau garatzeko ematen diren araudietako arau bereziak, eta zergen arloko beste foru arau batzuetan eta horiek garatzeko araudietan bildutako prozedura-arauak.
- b) Osagarri moduan, administrazio-prozedurei buruzko xedapen orokorrak.

1. ATALA

ZERGEN ALORREKO ADMINISTRAZIO-PROZEDUREN BEREZITASUNAK

1. AZPIATALA

ZERGA-PROZEDUREN FASEAK

94. artikulua.- Zergen arloko jarduketak eta prozedurak hastea.

1. Zergen arloko jarduketak eta prozedurak ofizioz edo zergadunek eskatuta has daitezke; zergadunek autolikidazioa, aitorpena, eskaera edo zerga-arautegian ezarritako beste bideren bat balia dezakete horretarako.
2. Zergen arloko jarduketak eta prozedurak hasteko agirietan zergadunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia agertu behar dira nahitaez, eta behar den kasuetan ordezkariarenak ere bai.
3. Zerga Administrazioak autolikidazioen, aitorpenen, eskaeren eta zerga-arautegian ezarritako gainerako bitartekoen ereduak eta sistema normalizatuak onetsi ahal ditu zergen arloko jarduketa eta prozedura ugari izapidetu behar direnerako.
4. Arau bidez ezar daiteke zein kasutan eta nola aurkeztu behar dituzten zergadunek baliabide telematikoen bidez euren aitorpenak, autolikidazioak, eskaerak eta zerga-ordainketan eragina duten gainerako agiriak.

95. artikulua.- Zergen arloko jarduketak eta prozedurak egitea.

1. Zergen arloko jarduketak eta prozedurak egitean, Administrazioak ahal duen guztian lagunduko die zergapekoei euren eskubideak baliarazten eta euren betebeharrak betetzen; ondoko idatz-zatietan azalduko da nola emango dien laguntza hori.
2. Zergadunek Zerga Administrazioari lagundu behar diote bere eginkizunak egiten zergak aplikatzeko prozeduretan.
3. Zergapekoek uko egin diezaiokete zerga-arautegiaren arabera ezin eska daitezkeen agiriak aurkezteari eta zergapekoek lehenago aurkeztu eta ondorioz zerga administrazio jarduleak badituen agiriak aurkezteari; betiere, agiriok zein egunetan eta zein prozeduratan aurkeztu zituzten adierazita. Nolanahi ere, interesdunei aurkeztutako datuak, eurenak zein beste batzuenak, berresteko eskatu ahal zaie.
4. Zergapekoek eskubidea dute eurek aurkeztutako autolikidazioen eta aitorpenen ziurtagiriak, edo haien atal jakin batzuenak, jasotzeko.
5. Zerga-jarduketa edo zerga-prozeduraren batean alderdi izanez gero, zergapekoek espedienteko agirien kopiak eskura ditzakete, kostua ordainduta; hala ere,

gainontzekoen interesak urratu ahal badira edo haien intimitatea arriskuan jartzen bada edo indarreko arautegian hala xedatzen bada, ezin dituzte eskuratu.

Entzunaldiaren izapidea dagoen prozeduretan, edo ebazpen-proposamenaren ondoren alegazioetarako aldia dagoenetan, kopiak izapide horietan emango dira.

6. Administrazio-artxiboetan dauden espedienteetako erregistroak eta agiriak, baldin eta eskaera aurkezten denean espedienteak amaituta badago, zerga-prozeduran alderdi izan diren zergapekoek soilik eska ditzakete, foru arau honetako 92. artikuluan ezarritakoaren arabera isilpean gorde behar direnean izan ezik.
7. Zerga-prozeduretan, froga egiteko ez dago aldi berezia hasi beharrik, ez interesdunei aurretik jakinarazi beharrik.
8. Zergak aplikatzeko prozeduretan, Zerga Administrazioaren jarduketak komunikazioetan, eginbideetan, txostenetan eta prozedurei buruzko arautegi zehatzetan ezarritako agirietan dokumentatuko dira.

Komunikazioen bidez Administrazioak prozedura hasi dela jakinarazten die zergapekoei edo haren inguruko beste gertaera edo inguruabar batzuen berri ematen die, edo errekerimenduak egiten dizkie pertsonari edo erakundeei. Komunikazioak eginbideei txertatu ahal zaizkie.

Eginbideak agiri publikoak dira, gertaerak eta zergapekoaren edo jarduketetan jardule den pertsonaren adierazpenak agerrarazteko ematen direnak. Eginbideetan ezin da egin zerga-likidaziorako proposamenik.

Zerga Administrazioaren organoek, ofizioz edo gainontzeko batek eskatuta, antolamendu juridikoaren arabera aginduzko diren txostenak egingo dituzte, bai eta herri administrazioen beste organo eta zerbitzu batzuek edo legegintzako botereak eta botere judizialak indarreko legeriari lotuta eskatzen dituztenak eta zergak aplikatzeko behar direnak ere.

9. Zergak aplikatzeko prozeduretan entzunaldia emango zaio interesdunari ebazpen-proposamena idatzi aurretik, eskubidez komeni zaiona alega dezan, kasu hauetan izan ezik:

a) Foru arau honetako 126. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako kasuak.

b) Dena delako prozedurari buruzko arauetan proposamenaren ondoren alegazioak aurkezteko izapidea ezarrita dagoenean.

c) Foru Arau honetako III. Tituluko V. Kapitularen 2. Atalean aipatzen den premiamendu-prozeduran.

Entzunaldiak hamar egun iraungo du gutxienez eta hamabost gehienez.

10. (38) Arabako Foru Aldundiaren eta zergapekoen jardunak zergak aplikatzeko prozeduretan honako baldintza hauek betetzen dituzten sistema digitalen bidez egin ahal izango dira: bideokonferentziaz edo antzeko sistema baten bidez, irudi eta soinuaren norabide biko eta aldi bereko komunikazioa eta zergapekoen eta diharduen

organoaren arteko ikustezko, entzutezko eta hitzezko elkarrekintza ahalbideratzea, eta egindako jarduketan emaitzajasetzen duten dokumentuen helarazte eta harrera segurua bermatzea, haien autoretza, benetakotasuna eta osotasuna ziurtatuz.:

Sistema horiek erabiltzea Arabako Foru Aldundiak hala erabakitzen duenean egingo da eta, hartarako, zergapekoak erabilerari eta gauzatzeko eguna eta orduari buruz adostasuna ematea beharko da.

96. artikulua.- Zerga-prozeduren amaiera.

1. Zerga-prozedurak honela amaituko dira: ebazpen bidez; atzera eginez gero; eskaeraren oinarri izan den eskubideari uko eginez gero; gertaera bat dela bide prozedurarekin ezin jarraitu bada; iraungitzeagatik; errekerimenduaren xede izan den betebeharra betetz gero; zerga-antolamenduan ezarritako beste kausaren bategatik.
2. Zerga Administrazioak modu automatikoan ematen dituen erantzunak ebazpentzat hartuko dira, prozedura honela amaitu daitekeen prozeduretan.

2. AZPIATALA

ZERGA-LIKIDAZIOAK

97. artikulua.- Zerga-likidazioak: zer diren eta motak.

1. Zerga-likidazioa ebazpen-egintza da; beraren bidez Zerga Administrazioaren organo eskudunak zerga-zorraren zenbatekoa edo zerga-arautegiaren arabera itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehazten du.

Zerga Administrazioak ez du zertan doitu likidazioak zergapekoek euren autolikidazio, aitorpen, eskaera edo bestelako agirietan adierazitako datuetara.

2. Zerga-likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izango dira.
3. Hauexek izango dira behin betikoak:
 - a) Zerga-betebeharraren elementu guztiak egiaztatu eta ikertu ondoko ikuskarpen-prozeduretan egiten direnak, foru arau honetako artikuluko 3. idatz-zatian xedatutako kasuetan izan ezik.
 - b) Zerga-arautegiaren arabera hala direnak.
4. Gainerako kasuetan zerga-likidazioak behin-behinekoak izango dira.

98. artikulua.- Zerga-likidazioen jakinarazpena.

1. Likidazioak kapitulu honetako 3. atalean ezarritakoari lotuta jakinarazi behar zaizkie zergapekoei.
2. Jakinarazpenean ondokoak agertu behar dira:
 - a) Zerga obligazioa duena identifikatzea.
 - b) Zerga-zorraren zenbatekoa eragin duten elementuak.
 - c) Jakinarazpenaren motibazioa, baldin eta ez badator bat zergapekoak adierazitako datuekin edo hark egindako arauen aplikazio edo interpretazioarekin; horrez gainera jakinarazpena eragin duten gertaerak adierazi behar dira oro har.
 - d) Balia daitezkeen inpugnazio-bideak, inpugnazioak aurkeztu behar diren organoa eta aurkezteko epea.
 - e) Zerga-zorra ordaindu behar den lekua, epea eta modua.
 - f) Behin-behinekoa edo behin betikoa den.
3. Aldizka ordaingairi bidez kobratzen diren zergetan, behin erregistro, errolda edo matrikula egokian alta emateari dagokion likidazioa jakinarazi ondoren, hurrengo likidazioak taldeka jakinarazi ahal izango dira ediktuen bidez (ediktuetan horren berri eman behar da).

Zerga-oinarria aitorpenaren emaitzakoa baino handiagoa bada, zergadunari jakinarazi behar zaio eta jakinarazpenean aldea zerk eragin duen azaldu behar zaio. Hala ere, aldaketa foru arauak baimendutako birbalorizazio orokorraren ondorioz gertatzen bada edo tokiko zerga-arautegiaren arabera zergaren elementuetan aldaketa orokorrak sartzen badira, ez da egongo jakinarazi beharrik.
4. Arau bidez ezartzen den kasuetan ez da egin beharko jakinarazpenik, baldin eta Zerga Administrazioak idatziz ohartarazten badio zergapekoari edo haren ordezkariari, ez eta autolikidazioak aurkeztu ondoren itzulketa egiten denean ere, baldin eta itzulitako kopurua eskatutakoa bera bada.

3. AZPIATALA

EBATZI BEHARRA ETA EBAZTEKO EPEAK

99. artikulua.- Ebatzi beharra.

1. Zerga Administrazioak berariaz ebatzi behar ditu zergak aplikatzeko prozeduretan agertzen diren arazoak, eta gero berariazko ebazpenak jakinarazi behar ditu.
2. Zergadunek jakinarazi baizik egin behar ez dituzten eskubideak baliatzearen inguruko prozeduretan Administrazioak ez du edukiko berariaz ebatzi beharrik, ez eta iraungitzen

diren prozeduretan, xedea galduta dutenetan eta interesdunak uko edo atzera egiten duenetan ere.

Hala ere, interesdunak Zerga Administrazioari berariaz eskatzen badio aipatu inguruabarretako bat gertatu denez argitzeko, hark erantzun egin beharko du.

3. Likidazio-egintzetan, balioa egiaztatzeko egintzetan, betebeharra ezartzen dutenetan, zerga-onura edo zergak aplikatzeko egintzen betearazpenaren etendura ukatzen dutenetan eta indarreko arautegian ezartzen diren beste guztietan arrazoiak azaldu behar dira, egintza eragin duten inguruabarrak adieraziz.

100. artikulua.- Ebazteko epeak eta berariazko ebazpena ez ematearen ondoreak.

1. (34) Ebazpena jakinarazteko gehieneko epealdia kasuan kasuko prozedurari buruzko arautegian finkatuko da. Prozedurari buruzko arauetan gehieneko epealdia ezarri ezean, sei hilabete baino lehen ebatzi beharko da.

Honela zenbatuko da epealdia:

- a) Ofizioz hasten diren prozeduretan, hasteko erabakia jakinarazten den egunetik.
- b) Interesdunak eskatuta hasten diren prozeduretan, agiria izapidetzeko eskumena daukan administrazioaren erregistroan agiria sartzen den egunetik.

Apartatu honetan xedatzen dena ez da aplikatuko premiamendu prozeduretan; beraz, premiamendu prozeduretako jarduketek preskribitzeko epealdia amaitu arte iraun dezakete.

2. (29) Prozeduren iraupenaren gehienezko epearen barruan jakinarazteko betebeharra betetzat jotzeko ondorioetarako, nahikoa izango da ebazpenaren testu osoa dakarren komunikazioa jakinarazteko ahalegin bat egin dela egiaztatzea. Bitarteko elektronikoak erabiliz egindako jakinarazpenak halabeharrez edo haien borondatez jaso behar dituzten zergadunei dagokienez, prozeduren gehienezko epearen barruan jakinarazteko betebeharra betetzat joko da jakinarazpena eskuragarri jartzen denean Zerga administrazioaren egoitza elektronikoan edo gaitutako helbide elektronikoan.

Erregelamendu bidez zehazten diren etete bidezko aldiak, Zerga administrazioari egozgarriak ez diren luzatzeak eta Foru Arau honetan araututako manuei jarraiki gertatzen diren epearen etenaldiak ez dira aintzat hartuko prozedura ebazteko aldia zenbatzean.

3. Ebazteko epea edo Zerga Administrazioaren jarduketek iraun dezaketen epea etetea bidezkoa izango da honako inguruabar hauetako bat gertatzen denean:
 - a) Datuak edo txostenak eskatzen zaizkienean autonomi erkidegoko beste administrazio batzuei, Estatuari, beste autonomi erkidego batzuei, toki-entitateei edo Europar Batasuneko estatuetakoa administrazioei. Datu edo txostenak eskatzean hasiko da epearen etenaldia eta horiek jasotzean amaituko da, eta gehienez ere sei hilabete iraungo du, eskatzen diren datu edo txostenak eskatzen

direla. Eskaera Europar Batasunetik kanpoko estatuei egiten zaienean, epea hamabi hilabetekoa izango da.

b) Ezinbestez Administrazioak bere jarduketak bertan behera utzi behar dituenean, ezinbesteko arrazoiak dirauen artean.

4. Halaber, honako hauek zergapekoari egotzi ahal zaizkion atzerapenak dira: Zerga Administrazioak bere eskumenen eremuan egiten dituen informazio-eskaerei, errekerimenduei edo agertzeko deiei zergapekoak berandu erantzutea; zergapekoak berak eskaturik jarduketak geroratu edo atzeratzea, bidezkotzat jotzen den kasuetan. Osorik betetzen ez diren eskabideak ez dira jasotzat joko zenbaketa horren ondoretarako, harik eta behar bezala bete arte, eta horren berri emango zaio interesdunari. Zenbaketa horren ondoretarako, zergapekoari egotzi ahal zaizkion atzerapenen denbora egutegiko egunetan neurtuko da.
5. Alderdi batek eskatuta hasten diren prozeduretan, gehieneko epea berariazko ebazpena jakinarazi gabe mugaeguneratzeak arautegian ezarritako ondoreak izango ditu. Alde honetatik, zergak aplikatzeko prozedura guztietan berariaz arautu behar da hari dagokion presuntziozko egintzen erregimena.

Erregimena araututa egon ezean, interesdunek baietsizat jo dezakete euren eskaera Administrazioaren isiltasuna dela-eta, Konstituzioan ezarritako eskatzeko eskubidea baliarazteko prozeduretan eta egintzak eta xedapenak inpugnatzeko prozeduretan izan ezik, honelakoetan isiltasunak eskaera ezetsiko baitu.

Prozedura zergadunari egotzi ahal zaion kausa bategatik etenez gero, Administrazioak ohartaraziko dio hiru hilabeteren buruan iraungitza jo ahal izango duela.

6. Ofizioz hasten diren prozeduretan, ezarritako gehieneko epea berariazko ebazpena jakinarazi gabe mugaeguneratzeak prozedurari buruzko arautegian ezarritako ondoreak izango ditu.

Berariazko arautegirik egon ezean, ondore hauek izango ditu:

- a) Prozeduraren emaitza eskubide bat edo bestelako banakako egoera juridiko bat aintzatestea edo eratzea izan ahal bada eta Administrazioaren isiltasuna gertatzen bada, zergapekoak ezetsizat jo ditzake prozedurak eduki ditzakeen aldeko ondoreak.
 - b) Prozeduraren emaitza kontrako ondorea edo karga izan ahal bada, prozedura iraungiko da.
7. Prozedura iraungitakoan, ofizioz edo interesdunak eskatuta adieraziko da eta jarduketak artxibatzeko aginduko da.

Prozedura iraungitzeak ez du ekarriko berez Zerga Administrazioak bere eskubideak erabiltzeari uztea, baina iraungitako prozeduretan egindako jarduketek ez dute etengo preskripzio-epea eta ez dira Administrazioaren errekerimendutzat hartuko foru arau honetako 27. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako ondoretarako.

Iraungitako prozedura batean egindako jarduketak eta eskuratutako agiriak eta bestelako frogabideak haren inguruan edo beste zergapeko bati dagokionez hasitako edo geroago hasten diren beste prozedura batzuetan ere erabili ahal izango dira frogatzeko.

2. ATALA

FROGA

101. artikulua.- Frogabideak, frogaren balioespena eta froga-zama.

1. Zerga-prozeduretan, Kode Zibilean eta Prozedura Zibileko Legean frogabideez eta frogaren balioespenaz ezarritako arauak aplikatuko dira, zerga-arauegian besterik ezarri ezean.

(239 Beste estatu batzuek edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuek emandako probak edo informazioak kasuan kasuko prozedurari batu ahal izango zaizkio, eta aurreko paragrafoaren arabera dagokien froga balioa izango dute.

2. Zergak aplikatzeko prozeduretan, eskubide bat baliarazi nahi duenak hura sortu duten egitateak frogatu behar ditu (froga-zama).
3. Baldin eta Zerga Administrazioak bere esku baditu froga-elementuak, zergapekoek haiek zehatz-mehatz adierazita beteko dute eskubidea frogatu beharra.

102. artikulua.- Frogabideei buruzko arau bereziak.

1. Zerga bakoitzari buruzko foru arauan eragiketa jakin batzuk, zerga-betebeharraren zenbatekoa zehazteko kontuan hartu beharrekoak, kengarri izateko bete beharreko betekizun formalak ezarri ahal izango dira.
2. (29) Gastu kengarriak eta aplikatzen diren kenkariak, enpresaburuek edo profesionalek egindako eragiketek sortu badituzte, justifikatu egin beharko dira; lehentasunez, zerga arautegian ezarritako betekizunak betetzen dituen eragiketa egindako enpresaburuak edo profesionalak emandako faktura aurkeztu beharko da.

Aurrekoari kalterik egin gabe, faktura ez da lehentasunezko frogabidea eragiketen izatearen aldean; hori dela eta, administrazioak fakturen eraginkortasuna modu funtsatuan zalantzan jartzen badu, zergapekoak eragiketen benekotasunari buruzko frogak aurkeztu beharko ditu.

3. (29).

103. artikulua.- Eginbideen froga-balioa.

1. Zerga-jarduketetako eta -prozeduretako eginbideak agiri publikoak dira eta formalizatzen dituzten egintzak frogatzen dituzte, kontrakoa frogatzen ez den bitartean.
2. Eginbideetan ageri diren egitateetatik prozeduraren xede den zergapekoak onartzen dituenak, bai eta haren adierazpenak ere, benetakotzat joko dira eta zergapekoak soilik zuzendu ahal izango ditu, egitatezko errakuntza egin zuela frogatuta.

104. artikulua.- Zergen arloko presuntzioak.

1. Zergei buruzko arauetan ezarritako presuntzioak kontrako frogaren bidez ezaba daitezke, foru arau batek berariaz debekatu ezean.
2. Foru arauetan ezarri ez diren presuntzioak frogabidetzat onartzeko ezinbestekoa da frogatutako egitatearen eta ondorioztatu nahi denaren artean lotura zehatza eta zuzenekoa egotea giza zentzuaren arabera.
3. Zerga Administrazioak ondasun, eskubide, enpresa, zerbitzu, jarduera, ustategi edo funtzio baten titulartzat jo dezake zerga-erregistroan edo beste erregistro publiko batean titular ageri dena, kontrako frogarik ez badago.
4. Zergapekoek aurkezten dituzten autolikidazioetan, aitorpenetan eta gainerako agirietan adierazitako datuak eta egitate-elementuak benetakotzat joko dira haiei dagokienez, eta beraiek soilik zuzendu ahal izango dituzte kontrako frogaren bidez.

Baldin eta aitorpenetan edo errekerimenduen erantzunetan (foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan ezarritako informatu beharra betetzeko) adierazten diren datuak beste zergapeko batzuen zerga-egoera erregularizatzeko erabiltzen badira, benetakotzat joko dira; hala ere, zergapekoak oker daudela edo faltsuak direla alegatzen badu, atal honetan xedatutakoaren arabera erkatu beharko dira. Horretarako, aitortzaileari eskatu ahal izango zaio berrets ditzala aurkeztu dituen aitorpenetan gainontzekoez adierazitako datuak eta froga dezala benetan hala direla.

5. [\(29\)](#) Urtebetetik beherako likidazio aldia duten zerga betebeharrei dagokienez, urteko kuotaren banaketa lineal egokia egin ahalko da dagozkion likidazio aldien artean, baldin eta Zerga administrazioak, bere esku daukan informazioan oinarriturik, likidazio aldi jakin bati egozterik ez badauka, dena delako tributua arautzen duen araudiaren arabera eta zergapekoak, ondore horretarako berariazko errekerimendua jasota, beste denborazko banaketa bat bidezkoa dela justifikatzen ez duenean.

3. ATALA

JAKINARAZPENAK

105. artikulua.- [\(16\)](#) Zergen arloko jakinarazpenak.

1. Zergapekoei egin beharreko jakinarazpenen araubidea administrazio arau orokorretan ezarri da. Nolanahi ere, kontuan eduki behar dira foru arau honetako 98. artikuluan eta 179. artikuluko 4. idatz zatian eta atal honetan ezarritako espezialitateak.

2. [\(34\)](#) Interesdunak baliabide telematikoak erabiltzearekin ados dagoela adierazi badu eta modu hori lehenetsi badu, jakinarazpenak telematikoki bidali ahal izango dira, hurrengo apartatuan, hirugarrenean, xedatutakoa gorabehera.

Jakinarazpenen sistema horrek jakinarazpena interesdunaren esku noiz jarri den (eguna eta ordua) zehazteko aukera eman behar du, eta edukia noiz irakurri den ere bai (ordutik aurrera jakinarazpena egintzat joko da).

Jakinarazi dela egiaztatuta, hamar egunean edukia irakurri ez bada, jakinarazpena ezetsi egiten dela esan nahiko du, eta 107. artikularen 2. apartatuan xedatutako ondorioak izango ditu, salbu eta, ofizioz edo hartzaileak eskatuta, egiaztatzen den ezin izan dela edukia irakurri arazo tekniko edo materialengatik.

3. Zerga Administrazioak arau bidez ezarri ahal izango du ondoko interesdunek berarekin harremanak nahitaez baliabide elektronikoen bitartez eduki beharra: gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, lanbideagatik edo egiaztatutako beste arrazoren bategatik behar diren baliabide teknologikoak erabil ditzaketen pertsona juridikoek eta pertsona fisikoen taldeek.

105 bis artikulua. - (239 Jakinarazteko laguntza.

Elkarren arteko laguntzaren esparruan, Zerga Administrazioak ematen dituen administrazio egintzak beste estatu baten lurraldean jakinarazi ahal izango dira agintaritza eskudunaren bitartez, beste estatu horretako agintaritza eskudunaren laguntza dela medio.

Jakinarazpen horiek ondorioak sor ditzaten, nahikoa izango da eskaera egin zaion agintaritzak adieraztea eskatutako jakinarazpena egin dela.

Beste estatu bati laguntza eskatzen zaionean, jakinarazpena egiteko eskaera bidaltzen zaionetik hasita bi hilabeteko epean ezin bada atzerrian jakinarazpenik egin edo Zerga Administrazioak ez badu jasotzen eskaera egin zaion agintaritzaren erantzunik dokumentua hartzaileari jakinarazi zaion datari buruz, orduan Administrazioak eskatu ahal izango du interesduna jakinarazpena jasotzera ager dadila, foru arau honetako 108. artikuluan arautzen den bezala. Horrelako kasuetan egintza bi aldiz jakinarazten bada, lehenengo egindako jakinarazpenaren data hartuko da jakinarazpen datatzat.

Jakinarazpenaren agiriak Zerga Administrazioak jasotzen dituen hizkuntza berean igorriko zaizkio hartzaileari, elkarren arteko laguntzari buruzko araudiak besterik adierazi ezean.

106. artikulua. - Jakinarazpenak egiteko tokia.

1. Interesdunak eskatuta hasten diren prozeduretan, jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak berariaz adierazitako tokian egingo da, edo bataren edo bestearen zerga-egoitzan.
2. Ofizioz hasten diren prozeduretan, jakinarazpena zergapekoaren edo beraren ordezkariaren zerga-egoitzan, lantokian, jarduera ekonomikoa egiten duen tokian edo jaso-agiria biltzeko aukera ematen duen beste zeinahi tokitan egin ahal izango da.

3. [\(23\)](#) Elkarren arteko laguntzaren esparruan, aurreko idatz zatietan esandako tokiez gainera, jakinarazpena egin ahal izango da atzerriko agintaritzak berariaz adierazten duen lekuan ere. Zerga Administrazioari ezin egotzi zaizkion arrazoiengatik interesdunari ezin bazaio jakinarazpenik egin, behin haren zerga helbidean edo atzerriko agintaritzak berariaz adierazitako tokian saiatu eta gero, aplikagarria izango da foru arau honetako 108. artikuluan xedatutakoa.

107. artikulua.- [\(16\)](#) Jakinarazpenak jasotzeko legitimatutako pertsonak.

1. Jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak berariaz adierazitako tokian egiten bada, edo bataren edo bestearen zerga egoitzan, eta jakinarazpena heltzean interesduna ez badago, bertan dagoen normahik jaso ahal izango du, nor den azaldu ondoren, bai eta jakinarazpen tokia edo zergapekoaren edo ordezkariaren zerga egoitza dagoen eraikineko auzoen edo jabeen erkidegoaren enplegatu batek ere.

Jakinarazpena baliabide telematikoen bidez egiten bada, zergapekoak edo beraren ordezkariak jaso dezake, edo bestela haiek aitorpenak, autolikidazioak, eskaerak eta zergetan ondorioak sortzen dituzten gainerako agiri guztiak ordezkari gisa aurkezteko baimena ematen dioten pertsona fisiko zein juridikoek.

2. Interesdunak edo beraren ordezkariak jakinarazpena jaso nahi ez badu ere, egintzat joko da legezko ondorio guztietarako.

108. artikulua.- [\(29\)](#) Bertaratuta jakinaraztea.

1. Zerga administrazioari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiak direla eta, interesdunaren zerga egoitzan, berak adierazitako helbidean edo berak izendatutako ordezkariari gutxienez bi ahalegin eginda, zergapekoari jakinarazterik ez dagoenean, zergapekoaren eskariz hasitako prozedura bada, jakinarazteko ahaleginen inguruabarrak jasoko dira espedientean. Hartzailea aipatu egoitzan edo tokian ezezaguna bada, ahalegin bakarra nahikoa izango da.

Hala gertatzen denean, interesdunari edo beraren ordezkariari zitazioa bidaliko zaio agertze bidez jakinarazteko; horretarako, iragarkiak argitaratuko dira Estatuko Aldizkari Ofizialean eta iragarki bakarria argitaratuko da interesdun bakoitzeko).

Era berean, iragarki bat argitaratuko da bide hauetako bat erabiliz:

- a) Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan edo, bestela, kasuan kasuko zerga administrazioaren egoitza elektronikoan, herritarrek zerbitzu publikoak baliabide elektronikoaren bidez erabiltzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 10. eta 12. artikuluetan ezarritako baldintzetan.

Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bide honen bitartez argitaratu ahalko ditu egin beharreko jakinarazpenei buruzko iragarkiak, zerga sistema aplikatzeko eskumenak erabilia eta esleituta edo bereganatuta daukan zerga bilketaren kudeaketan.

Gainerako zerga administrazioek modu hori hautatzen badute jakinarazpenen iragarkiak argitaratzeko, gobernu organoaren berariazko arau xedapenaren bidez egin beharko dute, eta gero, xedapen hori Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dute. Ondorioak sortzen noiz hasiko den zehaztu behar da xedapenean.

b) Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean.

Iragarkiak egoitza elektronikoa nola eta noiz argitaratu behar diren erregelamendu bidez zehaztuko da, eta modu berean finkatuko dira iragarkiek egoitza elektronikoa iraun beharreko aldiak.

Ezagutzen den azken egoitza Arabatik kanpo egonez gero, iragarkia ezagutzen den azken zerga egoitzari dagokion udaletxean ere jarri ahal izango da. Dena dela, ezagutzen den azken egoitza atzerrian badago, iragarkia dena delako herrialdearen kontsulatuan edo enbaxadaren kontsulatu sailean jarri ahal izango da.

Aurreko a) eta b) ataletan agertzen diren iragarkiak nahitaez argitaratu beharko ditu Arabako Foru Aldundiak; hala, foru erakundeak letra horietan jasotzen diren bideetako bat aukeratu beharko du eta aukerakoak izango dira gainerako Zerga administrazioentzat. Nolanahi ere, araubide berdinari jarraituz gero, horri buruzko erabakia hartu beharko dute Zerga administrazioek.

2. Argitaratzean, artean bidali gabe dauden jakinarazpenak jasoko dira eta ondoko guztiak adieraziko dira: zergapekoa edo horren ordezkaria, jakinarazpenaren xede den prozedura, izapidetzea bideratzen duen organoa eta jakinarazpen hartzailea agertu behar deneko epea, jakinarazpena eraginkorra izan dadin. Nolanahi ere den, agerpena egutegiko 15 eguneko epean gauzatu beharko da, iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita. Aldi horretan zergapekoa agertzen ez bada, jakinarazpena egintzat joko da mugaegunaren biharamunean, legezko ondorio gutzietarako.

Aurreko idatz zatian aipatzen den hamabost eguneko aldia Zerga administrazioaren egoitza elektronikoa edo Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita zenbatuko da, iragarki hori Estatuko Aldizkari Ofizialekoa baino beranduago argitaratzen bada.

Iragarki batean hainbat zergapeko aipatu ahalko dira eta aurreko paragrafoan azaldutako betekizunak denentzat batera adierazi.

3. Ez zergapekoa ez beraren ordezkaria jakinarazpena jasotzera agertzen ez badira eta, horren ondorioz, prozedura baten hasiera edo beraren izapidetako bat jakinarazitzat jotzen bada, prozeduraren hurrengo jarduketak eta eginbideak ere jakinarazitzat joko dira eta bere horretan iraungo du prozeduran zehar noiznahi agertzeko eskubideak. Hala ere, prozeduran ematen diren likidazioak eta, hala badagokio, bahitutako ondasunak besterentzeko erabakiak atal honetan ezarritakoaren arabera jakinarazi beharko dira.

4. ATALA

ZERGAPEKOEN EGOITZAN SARTZEA

109. artikulua.- (42) Zergapekoak etxean sartzeko baimen judiziala.

Zergak aplikatzeko jarduketetan eta prozeduretan zergapeko baten egoitzan sartu behar bada edo hura miatu behar bada, Zerga Administrazioak zergapekoaren adostasuna edo epailearen baimena lortu behar du, egoitza Konstituzioaren babespean baitago

Egoitza horretan sartzeko erabakia betearazteko baimen judizialaren eskaerak behar bezala justifikatuta egon beharko du, eta sarrera horren helburua, beharra eta proportzionaltasuna arrazoitu beharko ditu.

Baimen judizialaren eskaera eta emakida egin ahal izango dira, prozedura formalki hasi aurretik ere, baldin eta sarrera erabakian zergapekoaren identifikazioa, egiaztatuko diren kontzeptuak eta aldiak jasotzen badira eta organo judizialari ematen bazaizkio.

5. ATALA

SALAKETA PUBLIKOA

110. artikulua.- Salaketa publikoa.

1. Salaketa publikoaren bidez Zerga Administrazioari jakinarazi ahal zaizkio zergen arloko arau-hauste izan daitezkeen egitateak edo egoerak, edo zergen aplikazioan eragina eduki dezaketenak. Salaketa publikoak ez du zerikusirik foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan ezarri bezala Zerga Administrazioari lagundu beharrarekin.
2. Honelako salaketa bat jasoz gero, organo eskudunari bidaliko zaio, bidezko jarduketak egin ditzan. Organo horrek, salaketa oinarri gabekotzat jotzen badu edo uste badu salatutako egitateak edo pertsonak ez direla identifikatu behar bezala, salaketa artxibatzea erabaki ahal izango du.

Egotzitako egitateak benetakoak direla pentsatzeko behar adina zantzu egon arren Zerga Administrazioak haien berri ez badu, bidezko jarduketei ekin ahal izango zaizkie. Hala gertatzen denean, salaketa ez da izango administrazio-espedientearen osagaia.

3. Salaketaren ondorioz abiatzen diren administrazio jarduketetan salatzailea ez da interesduntzat hartuko, eta ez zaio emango haien emaitzen berri. Halaber, salatzailea ez da egongo legitimatuta jarduketan emaitzen inguruan errekurtsorik edo erreklamaziorik jartzeko.

6. ATALA

EGIAZTATZEKO ETA IKERTZEKO AHALAK ETA EGINKIZUNAK

111. artikulua.- Egiaztatzeko eta ikertzeko ahalak eta eginkizunak.

1. [\(29\)](#) Zerga Administrazioak behar beste egitate, egintza, elementu, jarduera, ustiapen eta negozio egiaztatu eta ikertu ahal ditu, bai eta haiekin lotutako inguruabar, datu eta agiri guztiak ere, zerga betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko.

Egiaztapen eta ikerketa horiek guztiak egin ahal izango dira, nahiz eta jarduketek foru arau honetako 65. artikuluan araututako preskripzioa beteta duten ekitaldi edo aldi eta zerga kontzeptuei eragin, betiere egiaztapena edo ikerketa beharrezkoa bada foru arau honetako 65. artikulua jaso eta preskribatuta ez dagoen eskubideren bati dagokionez, foru arau honetako 65 bis.2 artikulua jasotzen dituen inguruabarrei dagokienez izan ezik, halakoetan aplikagarria baitira artikulua horretan ezarritako mugak.

Bereziki, egiaztapen eta ikerketa horiek hedatu ahal izango dira egitate, egintza, elementu, jarduera, ustiapen eta negozio guztietara, baldin eta, aurreko paragrafoan aipatu den 65.a) artikulua araututako preskripzioa bete deneko ekitaldi edo zerga aldietan gertatu, egin, garatu edo formalizatu arren, zerga ondorioak sorrarazi behar badituzte preskripzioa bete ez den ekitaldietan edo zerga aldietan.

2. [\(29\)](#) Artikulu honek jasotzen dituen egiaztapenak eta ikerketak gauzatzeko eginkizunak garatzen dituenean, Zerga administrazioak kalifikatu ahaliko ditu zergapekoak burututako egitate, egintza, elementu, jarduera, ustiapen eta negozioak, azkenak horiei guztiei buruz aurretiaz egin duen kalifikazioa eta kalifikazioa egin deneko ekitaldia edo zerga aldia gorabehera; hala badagokio, foru arau honetako 12, 14 eta 15. artikuluetan ezarritakoa aplikagarria izango da.

Atal honetan ezarritako aplikatzeko xedez, Zerga administrazioak egiaztapen eta ikerketa prozeduretan egindako kalifikazioak ondoreak hedatuko ditu prozeduren xede den zerga betebeharraren gainean eta, hala badagokio, honako foru arau honetako 65.a) artikulua araututako preskripzioa bete ez duten beste zerga betebeharrak batzuen gainean.

3. Zerga-onura batzuk aplikatu ahal izateko baldintza edo betekizun jakin batzuk ezarri badira eta hauek onurak emateko edo aintzatesteko egintzak eman diren prozeduran egiaztatu ez badira, emate eta aintzatespen egintzok behin-behinekoak izango dira. Zerga Administrazioak geroago, zergak aplikatzeko prozedura batean, baldintza edo betekizunak betetzen direnez egiaztatu ahal izango du eta, beharrezkoa bada, zergadunaren zerga-egoera erregularizatu, eta horretarako ez du edukiko behin-behineko egintzak foru arau honetako V. tituluaren xedatutakoaren arabera berrikusi beharrik.

7. ATALA

IRUZURRAREN AURKAKO BORROKA

112. artikulua.- Iruzuraren aurkako plana.

Urtero, Zerga Administrazioak iruzurraren aurkako plana prestatuko du; plana isilpean edukiko da baina, hala ere, beraren irizpide orokorrak aditzera emango dira.

8. ATALA

ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA

112.bis artikulua.- Ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumenen koordinazioa.

Bat. Ikuskatzeko eskumena hainbat administrazioek badute, honako kasu hauetan eskumenaren erabilera koordinatu beharko dute Ekonomia Itunean xedatzen denarekin bat etorritik:

- a) Lotutako pertsona edo entitateen artean egindako eragiketak erregularizatu behar direnean.
- b) Eragiketei zergadunak aitortzearen ezarritako kalifikazioa aldatu eta horren ondorioz jasanarazpen mekanismoa duten zeharkako zergen kuotak (jasandakoak edo jasanarazitakoak) aldatzen direnean.

Bi. Aurreko idatz zatian aipatzen diren kasuetan, zerga administrazioak administrazioak ukitutako gainerako administrazioei jakinarazi beharko dizkie bere ustez egokia den erregularizazioaren zuzenbide oinarriak eta egitateak zergadunari ebazpen proposamena eman edo bidezko ikuskapen akta sinatu aurretik.

Bi hilabete pasatu baino lehen ukitutako gainerako administrazioek ez badute iruzkinik egiten ebazpen proposamenaz, onartutzat joko da eta administrazio guztiak lotuta gertatuko dira zergadunen aurrean: proposameneko irizpideak aplikatu beharko dizkiete. Iruzkinik eginez gero, Ekonomia Ituneko 47.ter. Hiru ezartzen den prozedura aplikatuko da zerga ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumenak lurralde erkideko administrazioaren eta foru administrazioetako baten artean koordinatzeko; behar den kasuetan artikuluko bereko laugarren idatz zatian arautzen diren ondorioak gertatuko dira.

III. KAPITULUA

ZERGAK KUDEAKETAKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

113. artikulua.- Zergen kudeaketa.

1. Zergen kudeaketa esaten zaio ikuskapen eta bilketa eginkizunetan sartzen ez diren zergak aplikatzeko administrazio-jarduketan multzoari.
2. Hain zuzen ere, zergen kudeaketan ondoko administrazio-eginkizun hauek daude:
 - a) Autolikidazioak, aitorpenak eta zerga-ondoreak dituzten gainerako agiri guztiak jasotzea eta izapidetzea.
 - b) Zerga-arautegian ezarritako itzulketak egiaztatzea eta egitea.
 - c) (42) Zerga onurak eta pizgarriak eta zerga araubide bereziak onartzea eta bidezkoak direnez egiaztatzea zergen kudeaketako prozeduren bidez.
 - d) Fakturatu beharra kontrolatu eta haiek errazteko erabakiak ematea, fakturek zerga-ondoreak dituztenean.
 - e) Zergen aitorpenak edo autolikidazioak eta beste betebeharrak formal batzuk betetzen diren kontrolatzea (are horretarako errekerimenduak ematea ere).
 - f) Aurkezten diren autolikidazioak eta aitorpenak berrikustea.
 - g) Balioak egiaztatzeko jarduketak egitea.
 - h) Balioen egiaztatze mugaturako jarduketak egitea.
 - i) Agiriak edo informazioa aurkezteko errekerimenduak ematea.
 - j) Behin-behineko likidazioak egitea.
 - k) Zerga-ziurtagiriak ematea.
 - l) Identifikazio fiskaleko zenbakia ematea eta, behar denean, ezeztatzea, berariazko arautegian ezarritakoaren arabera.
 - m) Zerga-zentsuak egitea eta mantentzea.
 - n) Zergen inguruko informazioa eta laguntza ematea.
3. Aurreko idatz-zatietan aipatutako jarduketak eta eginkizunak foru arau honetan eta garatzen den arautegian ezarritakoaren arabera egingo dira.

114. artikulua.- Zergen kudeaketa hasteko moduak.

Zerga-arautegian ezarritakoaren arabera, zergen kudeaketa honela hasiko da:

- a) Interesdunak eskatuta, autolikidazioaren edo aitorpenaren bidez, edo zergadunak eskaera aurkeztuta, foru arau honetako 94. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- b) Zerga Administrazioak ofizioz.

115. artikulua.- Zerga-aitorpena.

1. Zerga-aitorpenentzat hartuko dira zergak aplikatzean eragina izan dezakeen egitateren bat aintzatesteko edo agertzeko Zerga Administrazioari aurkezten zaizkion agiri guztiak.

Aitorpena aurkezteak ez dakar berekin zergapekoak zerga-betebeharra bidezkoa dela onartu edo aintzatestsi beharra.

2. Arau bidez ezarri ahal izango da zein kasutan onar daitekeen aitorpena ahoz edo ezagutza adierazteko bestelako egintza baten bidez egitea.
3. Oro har, aitorpena aurkeztuta baliarazten edo eskatzen diren edo uko egiten zaien aukerak ezin zuzendu izango dira geroago, aitorpen-aldian izan ezean.

Hala ere, zerga bakoitzari buruzko arautegian aukera horiek zuzentzeko beste une edo aldi bat ezarri ahal izango da, bai eta horretarako baldintzak ere.

4. Zerga Administrazioak zergapekoek aurkeztutako aitorpenak berrikusi eta egiaztatu ahal izango ditu eta, behar denean, likidazioak egingo ditu.
5. [\(29\)](#) Tributuak aplikatzeko prozedura batetik ateratzen den likidazioan, zergapekoak konpentsatu edo kendu gabe dituen zenbatekoak aplikatu ahalko dira, baina ondore horietarako, aplikatu gabeko zenbatekoak ezin izango dira aldatu aitorpen osagarriak edo zuzentzeko eskaerak aurkeztuta tributuak aplikatzeko prozedura hasi ondoren.

116. artikulua.- Autolikidazioak.

1. Autolikidazioak aitorpenak dira; beraien bidez zergapekoek, Administrazioari zerga likidatzeko behar diren datuak eta bestelako datu informatibo batzuk emateaz gainera, euren kabuz egiten dituzte zerga-zorra zehazteko eta zenbatekoa sartzeko edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehazteko behar diren kalifikazio-eragiketa eta kalkulu guztiak.

Halaber, autolikidazio izango dira berariazko arautegian ezarritako baldintzak betetzen dituzten zergapekoek, Zerga Administrazioak lagunduta, aurreko paragrafoan aipatutako jarduketak egiteko aurkezten dituzten aitorpenak.

2. Zerga bakoitza arautzen duten xedapenetan hala ezartzen denean, Zerga Administrazioak autolikidaziorako proposamena bidali ahal izango die autolikidazioa nahitaez aurkeztu behar duten zergadunei.

Zergapekoaren ustez, proposatu zaion autolikidazioak dagokion zergarekiko bere egoera islatzen duenean, autolikidazio hori sinatu edo berretsi ahal izango du; bestela, arau bidez ezarritako baldintzak aintzat hartuta aldatu ahal izango du. Kasu horretan, kasuan kasuko zergaren autolikidaziotzat hartuko da.

Zerga Administrazioak bidalitako autolikidazio-proposamena sinatu edo berresten duen zergadunari ezin izango zaio zehapenik ezarri proposamenean jasotako datuen zioz.

Zergadunak ez badu onartzen bidali zaion autolikidazio-proposamena, administrazio-jarduketa ez egintzat joko da eta zergadunak zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko du, betebeharrak hori edukiz gero.

3. Administrazioak zergapekoek aurkeztutako autolikidazioak egiaztatu ahal izango ditu eta, behar denean, likidazioak egingo ditu.
4. Zergapeko batek uste badu autolikidazio batek kalte egin diela nolabait bere bidezko interesei, zuzentzeko eskatu ahal izango du, arau bidez ezarritako prozedurari lotuta.

Autolikidazio baten zuzenketaren ondorioz zergaren arautegiaren arabera zergapekoari dirua itzuli behar bazaio eta sei hilabete igarota ordainketarik egin ez bada eta horren kausa Zerga Administrazioari egotzi ahal bazaio, honek itzuli beharreko kopuruaren berandutza-interesak (foru arau honetako 26. artikuluan aipatuak) ordaindu beharko ditu.

Zergadunak ez du edukiko interesok ordaintzeko eskatu beharrik. Ondore horietarako, sei hilabeteko epea autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen denetik hasiko da zenbatzen edo, dagoeneko amaituta badago, autolikidazioa zuzentzeko eskaera aurkezten denetik.

Autolikidazio baten zuzenketaren ondorioz bidegabe sartutako kopuru bat itzuli behar bada, Zerga Administrazioak haren berandutza-interesak ordainduko ditu, foru arau honetako 32. artikuluan adierazitakoari lotuta.

117. artikulua.- Aitorpen eta autolikidazio osagarriak edo ordezkioak.

1. Zergapekoek autolikidazio osagarriak, edo aitorpen osagarriak edo ordezkioak, aurkeztu ahal izango dituzte berariaz ezarritako epean, edo epea mugaeguneratutakoan, baldin eta Administrazioak zerga-zorra zehazteko duen eskubidea preskribituta ez badago. Azken kasukoak epeaz kanpokoak izango dira.
2. Autolikidazio osagarrien helburua aurretik aurkeztutako bat osatzea edo aldatzea da; autolikidazio hauek sartu beharreko diru kopurua aurreko autolikidaziokoa baino handiagoa edo itzuli edo konpentsatu beharrekoa baino txikiagoa denean aurkeztu ahal izango dira. Gainerako kasuetan, foru arau honetako 116. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, eta berariaz besterik ezarri ezean, salbuespen, kenkari edo zerga-pizgarri bat aplikatu ondoren aplikatzeko eskubidea galtzen bada, ezarritako baldintzak ez betetzeagatik, zergadunak ez-betetzea gertatu den zergaldiko autolikidazioan aurreko zergaldietan ez-betetzeak izan duen eraginaren

ondoriozko salbuespenaren, kenkariaren edo zerga-pizgarriaren kuota edo kopurua sartu beharko du, bai eta haren berandutza-interesak ere.

3. Aitorpen osagarrien edo ordezeko aitorpenen helburua aurreko aitorpen bat osatzea edo ordezte da; aitorpena osagarria edo ordezekoa den zehaztu behar da.

2. ATALA

ZERGAK KUDEAKETAKO PROZEDURAK

118. artikulua.- Zergak kudeatzeko prozedurak.

1. Hona hemen, besteak beste, zergak kudeatzeko prozedurak:
 - a) Autolikidazioaren bidez hasten den prozedura.
 - b) Aitorpenaren bidez hasten den prozedura.
 - c) Zerga-zorra likidatzeko ofizioz hasten den prozedura.
 - d) Balioak egiaztatze prozedura.
 - e) Egiaztapen mugatuaren prozedura.
2. Arau bidez zergak kudeatzeko beste prozedura batzuk arautu ahal izango dira; nolanahi ere, prozedura horiei titulu honetako II. kapituluaren ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

1. AZPIATALA

AUTOLIKIDAZIOAREN BIDEZ HASTEN DEN PROZEDURA

119. artikulua.- Prozeduraren hasiera.

Zergari buruzko arautegian ezarriz gero, beraren kudeaketa zergadunak autolikidazioa aurkeztuta hasiko da; bertan zergadunak zerga-zorraren zenbatekoa edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehaztu behar du.

[\(34\)](#) Azpiatal honetako prozedurako jarduketak preskripzio epealdiaren barruan egin ahal izango dira.

120. artikulua.- Autolikidazioak aurkeztearen ondoriozko itzulketak.

1. Autolikidazioaren emaitza diru kopuru bat itzuli beharra bada, Zerga Administrazioak itzuli beharko du.
2. Foru arau honetako 31. artikuluan aipatutako itzulketarako epea autolikidazioa aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik hasiko da zenbatzen. Hala ere, autolikidazioa epez kanpo aurkezten bada, aurkeztu den egunetik hasiko da zenbatzen.

121. artikulua.- Autolikidazioaren bidez hasitako prozeduraren amaiera.

1. Foru arau honetako 65. artikuluan ezartzen den preskripzio-epearen barruan, autolikidazioaren bidez hasten den prozedura ikuskapen-prozeduraren bat (egiaztapen mugatuarena ez beste bat) hasten denean amaitu ahal izango da.
2. Foru arau honetako 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik bidezkoa den itzulketaren gaineko berandutza-interesak ordaindu beharra mantendu egingo da.

2. AZPIATALA

AITORPENAREN BIDEZ HASTEN DEN PROZEDURA

122. artikulua.- Zerga kudeatzeko prozedura aitorpenaren bidez hastea.

Zergari buruzko arautegian ezarritik gero, beraren kudeaketa zergapekoak aitorpena aurkeztuta hasiko da; bertan zergapekoak zerga-egitatea gertatu dela jakinarazi behar dio Zerga Administrazioari eta zerga-betebeharraren zenbatekoa zehazteko behar dituen datu guztiak eman behar dizkio.

(34) Azpiatal honetako prozedurako jarduketak preskripzio epealdiaren barruan egin ahal izango dira.

123. artikulua.- Aitorpenaren bidez hasten den prozedura izapidetzea.

Zerga Administrazioak aurreko artikuluan aipatutako likidazioa jakinarazi beharko du, foru arau honetako 65. artikuluan ezartzen den preskripzio-epearen barruan eta, bidezkoa izanez gero, foru arau honetako 125. eta 126. artikuluetan xedatutako berrikuspen, kalifikazio eta zenbatze jarduketak egin ondoren.

124. artikulua.- Aitorpenaren bidez hasten den prozedura amaitzea.

Foru arau honetako 65. artikuluan ezartzen den preskripzio-epearen barruan, zergapekoak aurkeztutako aitorpenaren bidez hasi den prozedura ikuskapen-prozeduraren bat (egiaztapen mugatuarena ez beste bat) hasten denean amaituko da.

3. AZPIATALA

AUTOLIKIDAZIOAREN BIDEZ ETA AITORPENAREN BIDEZ HASTEN DIREN PROZEDUREI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

125. artikulua.- Autolikidazioen eta aitorpenen berrikuspena.

1. Zerga Administrazioak aurkezten zaizkion autolikidazioak eta aitorpenak eta haiei atxikitako agiriak berrikusi ahal izango ditu zerga-arautegia zuzen aplikatu den eta adierazitako datuak berak dituenekin bat datozen egiaztatzeko.
2. Aurreko idatz-zatian aipatutakoa egiteko, Administrazioak autolikidazioetan edo aitorpenetan adierazitako datuak argitzeko edo frogatzeko eska diezaieke zergapekoei, eta zerga zuzen aplikatzeko behar diren agiriak aurkezteko. Halaber, balioak egiaztatzeko beharrezkoak diren jarduketak ere burutu ahal izango ditu.

126. artikulua.- Behin-behineko likidazioak.

1. Zerga Administrazioak inolako izapiderik gabe itzuli ahal izango ditu zergapekoek foru arau honetako 120. artikuluan adierazitakoaren arabera eskatutako kopuruak, bai eta foru arau honetako 122. artikuluan adierazitako likidazioa egin ere.
2. Halaber, Administrazioak ondoko kasuetan egin ahal izango du behin-behineko likidazioa aurretiaz zergapekoari likidazio-proposamena jakinarazi gabe:
 - a) Zergapekoaren aitorpenak edo autolikidazioak akats formalen bat duenean edo bertako kalkulu aritmetikoren bat oker dagoenean.
 - b) Aitortutako datuak ez datozenean bat zergapekoak aurkeztutako beste aitorpen batzuetan adierazitakoekin edo Zerga Administrazioak dituenekin, hau da, gainontzekoei, foru arau honetako eta 91. artikuluetan ezarritako informatu beharra betetzeko, orokorrean eskatutako aitorpenetan adierazitakoekin.
 - c) Foru arau honetako 128. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako kasuetan.
 - d) Aitorpenean edo autolikidazioan edo aurkeztutako frogagirietan zerga-arautegia gaizki aplikatu dela antzematen denean.
 - e) Foru arau honetako 154. artikuluan aipatutako egiaztapen murriztuaren prozeduraren ondorioa denean.

Hala ere, aurkeztutako autolikidazioan edo aitorpenean adierazitako datuak eta Administrazioak dituenak, aurreko b) letran aipatutakoak ez beste batzuk, bat ez badatoz edo egindako behin-behineko likidazioa ez badator bat egiaztapen murriztuaren prozeduran emandako txostenaren ondorioekin, zergapekoari likidazio-proposamena jakinarazi beharko zaio behin-behineko likidazioa egin aurretik, eskubidez komeni zaiona alega dezan.

- f) Foru arau honetako 27. artikuluan ezarritako errekararen eta, hala denean, bidezko berandutza-interesen ziozko behin-behineko likidazioetan.
3. Zergapekoak adierazten badu ez dagoela ados Administrazioak dituen datuekin, foru arau honetako 104. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.
 4. Zerga Administrazioak arrazoitu egin behar ditu jakinarazten dituen proposamenak eta egiten dituen behin-behineko likidazioak; hain zuzen ere, kontuan izan dituen inguruabarrak azaldu behar ditu, orokorrean.
 5. Foru arau honetako 65. artikuluan aipatutako preskripzio-epearen barruan, Zerga Administrazioak, berrikusitako autolikidazio edo aitorpen batean artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako inguruabarretako bat gertatu dela edo aurreko behin-behineko likidazio batean zerbait ez dela hartu kontuan ohartuz gero, behin-behineko likidazio gehiago egin ahal izango du.
 6. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa ez da inolaz ere aplikatuko autolikidazioaren edo aitorpenaren behin betiko likidazioa egin bada foru arau honetako 97. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

Halaber, egiaztapen mugatuaren prozedura aplikatu zaien zerga-betebeharren edo haien elementuen inguruan ere ez da behin-behineko likidazio gehiago egingo, foru arau honetako 134. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoa eragotzi gabe.

4. AZPIATALA

ZERGA-ZORRA OFIZIOZ LIKIDATZEKO HASTEN DEN PROZEDURA

127. artikulua.- [\(12\)](#) Ofizioz hasitako likidazio prozedura.

1. Zerga Administrazioak zergapeko bati errekerimendua bidaltzen badio arauzko epealdian aurkeztu ez duen autolikidazioa edo aitorpena aurkez dezan, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro ondoren behin-behineko likidazioa, zerga zorraren zenbatekoa zehaztuko duena, ofizioz egiteko prozedura abiarazi ahal izango du; nolanahi ere, zergapekoak epealdi horretan eskatutakoa aurkezten badu edo aurkeztu beharrik ez dagoela frogatzen badu behar bezala, behin-behineko likidazio hori ez da egingo.
2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, zergapeko batek arauzko epealdian aurkezten ez badu autolikidazioa edo aitorpena, Zerga Administrazioak hori egiteko errekerimenduarekin batera behin-behineko likidazioa jakinarazi ahal izango dio, baldin eta interesdunak berak aurkeztutako egitateak, alegazioak eta frogak edo gainontzekoek zerga ordenamenduan ezarritako aitortu behar orokorra betetzeko aurkeztutakoak baizik ez badira kontuan hartu hura egiteko, edo Zerga Administrazioak dauzkan datuak, aurrekariak, zeinuak, indizeak, moduluak eta gainerako elementuak. Honelakoetan, Administrazioak bidalitako behin-behineko likidazioak errekerimendua eta likidazioa batera jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatutakoan sortuko ditu ondorioak.

Hala ere, hilabeteko epealdi horretan zergapekoak autolikidazioa edo aitortpena aurkeztu badu edo behar bezala frogatzen badu ez daukala halakorik aurkeztu beharrik, behin-behineko likidazioa baliogabetuko da eta Zerga Administrazioak horren berri adierazi eta jakinarazi beharko du.

3. Aurreko 1. idatz zatian aipatutako behin-behineko likidazioa egin aurretik, Administrazioak likidazio proposamena jakinaraziko dio zergapekoari, eskubidez komeni zaiona alega dezan. Izapide hori ez da beharrezkoa izango interesdunak bera autolikidazioen bidez eta errekerimenduen erantzunen bidez aurkeztutako egitateak, alegazioak eta frogak, edo gainontzekoek zerga ordenamenduan ezarritako aitortu behar orokorra betetzeko aurkeztutakoak baizik ez direnean kontuan hartzen.

Artikulu honetako 2. idatz zatian aipatzen diren kasuetan ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan xedatutakoa.

4. Zerga zorra Zerga Administrazioak dituen datuak, aurrekariak, zeinuak, indizeak, moduluak eta zerga eragina duten gainerako elementuak kontuan hartuta zehaztuko da.

5. Aurreko idatz zatietan xedatutakoa eragotzi gabe, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio gehiago egin ahal izango ditu foru arau honetako 126. artikuluko 5. idatz zatian xedatutakoaren arabera.

5. AZPIATALA

BALIOAK EGIAZTATZEKO PROZEDURA

128. artikulua.- Balioen egiaztapena.

1. Zerga Administrazioak balioak egiaztatu ahal izango ditu foru arau honetako 56. artikuluan ezarritako bideak erabilita edo bertan edo kasuan kasuko zergari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera.

Prozedura hau berriazko jakinarazpenarekin abiaraziko da, edo bestela, nahikoa datu edukiz gero, behin-behineko likidazioa eta artikulu honetako 2. idatz-zatian aipatutako balioespena batera jakinarazita. Nolanahi ere, prozedura foru arau honetako 65. artikuluan aipatutako preskripzio-epareen barruan amaitu beharko da.

2. Zerga Administrazioak zehaztutako balioa eta zergapekoak aitortutakoa bat ez badatoz, hark behin-behineko likidazioaren jakinarazpenarekin batera bere balioespenaren berri emango dio zergapekoari, behar bezala arrazoituta (erabilitako baliabideak eta irizpideak azalduta), egiaztapen-egintza aurretik jakinarazita egon ezean.

Zergapekoek Administrazioaren balioespenen aurka ezin dute aurkeztu ez errekurtsorik ez erreklamaziorik, baina peritu-tasazio kontrajarria sustatu ahal izango dute, bai eta balioespenaren inguruko arazoak planteatu ere erregularizazio-egintzaren aurka jartzen diren errekurtsioak edo erreklamazioak direla bide.

3. Foru arau bidez ezartzen bada egiaztatutako balioak ondoreak sortu behar dituela beste zergapeko batzuen kasuetan, administrazio jardulea balio horri lotu beharko zaio gainerako interesdunei dagokienez. Foru arauan interesdun horiei egiaztatutako balioa jakinarazi beharra ezarri ahal izango da, inpugnazioa edo tasazio kontrajarria sustatzeko aukera izan dezaten.

Geroagoko prozedura batean, egiaztatutako balioa beste zergapeko batzuei aplikatzen zaienean, haiek inpugnazioa edo tasazio kontrajarria sustatu ahal izango dute.

4. Zergapeko batek inpugnazioa edo tasazio kontrajarria sustatzen badu eta haren emaitzako balioa desberdina bada, gainerako zergapekoei aplikatu ahal izango zaie eta aurreko idatz-zatiko bigarren paragrafoan xedatutakoa hartuko da kontuan.

129. artikulua.- Tasazio kontrajarria.

1. (29) Foru arau honetako 56. artikuluan adierazitako balioak egiaztatzeko zerga bideak zuzentzeko xedez, interesdunek peritu tasazio kontrajarria sustatu ahal izango dute, egindako likidazioaren aurkako lehen errekurso edo erreklamazioaren epearen barruan, administrazio bidez egiaztatutako balioekin bat etorri edo, zerga araudiak hala arautzen duenean, behar bezala jakinarazi den balioak egiaztatzeko egintzaren aurka.

Tributuaren zerga arautegian ezarrita egonez gero, interesdunak beretzat gorde ahal izango du peritu tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidea, jakinarazpenean aitortutako balioak aldatzeko nahikoa datu eta arrazoi adierazi ez dela uste badu eta hori berraztertzeko errekurso edo administrazioarekiko diru erreklamazio batean salatzen badu. Hala gertatzen bada, zergapekoak hilabeteko epea izango du peritu tasazio kontrajarria sustatzeko, aurretik aurkeztutako errekursoa edo erreklamazioa ebazten duen erabakiak administrazio bidean irmotasuna daukan egunetik aurrera.

Peritu tasazio kontrajarria aurkeztu bada edo, aurreko paragrafoan adierazi bezala, zergapekoak tasazioa sustatzeko eskubidea beretzat gordetzen badu, likidazioaren betearazpena eta haren aurkako errekursoa edo erreklamazioa aurkezteko epea eten egingo dira.

Era berean, peritu tasazio kontrajarria aurkeztuz gero, hala badagokio, likidaziotik ateratzen den zehapen prozedura hasarazteko epea eten egingo da; bestela, zehazpen prozeduraren epea hasita badago, prozedura zehapena amaitzeko gehieneko epea eten egingo da. Peritu tasazio kontrajarriaren prozedura amaituta, bidezkoa den likidazioaren jakinarazpenak zehaztuko du honako foru arau honetako 214. artikuluko 2. atalean ezarritako epea berriro ere zenbatzen hasiko dela jakinarazpena bidaltzen den unetik edo, bestela, prozedura hasita badago, amaitzeko falta den epearen gainerakoak zenbatzen segituko duela.

Likidazioaren kontrako peritu tasazio kontrajarria eskatzeko unean, zehapen egokia ezarri eta, horren ondorioz, likidazio berria eman bada, zehapena baliogabetuko da eta beste bat ezarriko da, likidazio berriaren zenbatespena kontuan hartuta.

2. Egiaztatutako balioa Administrazioaren peritu baten irizpenaren bidez zehaztu ez bada, haren peritu batek egin beharko du balioespena. Zerga bakoitzari buruzko foru arauak besterik xedatu ezear, Administrazioaren perituak zehaztutako balioaren eta

zergapekoak izendatu duen perituaren tasazioaren arteko diferentzia, balio absolutuetan aintzat hartuta, ez bada %10 eta 120.000 euro baino handiagoa, azken hori hartuko da oinarritzat likidaziorako. Emaitzak arestian aipatu mugak gainditzen baditu, hirugarren peritu bat izendatu beharko da. Emaiza muga horietatik pasatzen bada, hirugarren peritu bat izendatu beharko da.

3. Perituak legez aintzatetsitako elkargo, elkarte edo korporazioetakoak izan behar dira, hain zuzen ere balioetsi beharreko ondasunen edo eskubideen izaeraren arabera bidezkotzat jotzen diren elkargo, elkarte eta korporazioetakoak. Balioetsi beharreko ondasunen edo eskubideen izaerarako gai den elkargo, elkarte edo korporaziorik ez badago, ez gainontzeko peritu lanak egin nahi dituen profesionalik, erregistro ofizial egokian inskribatutako tasazio-sozietatea izendatuko da.
4. Hirugarren perituaren balioespena likidazioaren oinarritzat hartuko da, aitortutako balioa eta Administrazioaren lehenengo aldian egiaztatutako balioa muga direla; balioespen horren aurka ezin aurkeztu izango da errekurtsorik.

6. AZPIATALA

EGIAZTAPEN MUGATUAREN PROZEDURA

130. artikulua.- Egiaztapen mugatua.

1. Egiaztapen mugatuaren prozeduran Zerga Administrazioak zerga-betebeharrean eragina duten egitateak, egintzak, elementuak, jarduerak, ustiapenak eta gainerako inguruabar guztiak egiaztatu ditzake.
2. Prozedura honetan, Zerga Administrazioak ondoko jarduketak soilik egin ditzake:
 - a) Zergapekoek euren aitortzean edo autolikidazioetan adierazitako datuak eta haiek aurkeztutako frogagiriak edo eskatzen direnak aztertu.
 - b) Zerga Administrazioak dituen datuak eta aurrekariak aztertu, hain zuzen ere zerga-egitatea edo zerga-betebeharraren eragilea gertatu dela, zergapekoak zerga-betebeharrean eragina duten elementuak ez dituela aitortu edo aitortu dituenekin bat ez datozen elementuak daudela eta erregularizatu behar diren frogatu gabeko ondare irabaziak daudela agertzen dutenak.
 - c) Erregistroak eta zerga-arauek eskatzen diren gainerako agiriak aztertu, bai eta bestelako liburu, erregistro eta agiri ofizial guztiak ere (merkataritzako kontabilitatearen kopia barne), eta liburu, erregistro eta agiri horietan adierazitako eragiketarik frogatzen dituzten fakturak edo agiriak miatu.
 - d) Gainontzekoei errekerimenduak egin, informazioa emateko, foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan ezarritako betebehar orokorraren arabera, edo informazio hori frogagiri egokiaren bidez berresteko.

3. Gainontzekoei inolaz ere ezin zaie egin finantza-mugimenduei buruzko errekerimendurik; hala ere, zergapekoei zerga-betebeharren oinarrian edo kuotan eragina duten finantza-eragiketen frogagiriak aurkezteko eskatu ahal izango zaie.
4. Egiaztapen mugatuaren jarduketak Zerga Administrazioaren bulegoetan egingo dira.

131. artikulua.- Egiaztapen mugatuaren prozeduraren hasiera.

1. Egiaztapen mugatuaren prozedurako jarduketak ofizioz hasiko dira, organo eskudunak erabakita.
2. Zergapekoei egiaztapen mugatuaren prozedurako jarduketak hasi direla jakinarazi behar zaie. Horretarako komunikazioa bidaliko zaie eta bertan jarduketak nolakoak izango diren eta nora helduko diren azaldu behar zaie eta haien inguruan dituzten eskubideak eta betebeharrak argitu behar zaizkie.

Prozedura hori hasten denean aitorpenaren edo autolikidazioaren bidez hasitako prozeduretan eman ahal izan diren jarduketak eten egingo dira, harik eta prozedura foru arau honetako 133. artikuluan xedatutakoaren arabera amaitu arte.

132. artikulua.- Egiaztapen mugatuaren prozedura izapidetzea.

1. Egiaztapen mugatuaren prozedurako jarduerak foru arau honetako 95. artikuluko 8. idatz-zatian aipatutako komunikazioetan eta eginbideetan dokumentatuko dira, beharrezkoa denean.
2. Errekerimendua bidaliz gero, zergapekoak adierazitako tokira joan behar dira jarduketak egitera, zehaztutako egunean eta orduan; horrez gainera eskatutako agiri eta elementu guztiak aurkeztu beharko dituzte.
3. Behin-behineko likidazioa egin aurretik, Zerga Administrazioak likidazio-proposamena jakinarazi behar dio zergapekoari, eskubidez komeni zaiona alega dezan.

133. artikulua.- Egiaztapen mugatuaren prozeduraren amaiera.

1. Egiaztapen mugatuaren prozedura modu hauetako batean amaituko da:
 - a) Zerga Administrazioak berariazko ebazpena emanda; ebazpenaren edukia ondoko idatz-zatian zehaztuko da.
 - b) Iraungitzen denean; hasierako akordioaren jakinarazpena egiten denetik 6 hilabete igarota gertatuko da. Nolanahi ere, honelako prozedura bat iraungitakoan Zerga Administrazioak beste bati ekin ahal izango dio preskribitu baino lehen.
 - c) Egiaztapen mugatuaren xedea hartzen duen ikerketa prozedura bat abiarazita.
2. Egiaztapen mugatuaren prozedura azkentzen duten administrazio-ebazpenek ondokoak zehaztu behar dituzte, gutxienez:

- a) Zerga-betebeharra edo beraren elementuak, eta egiaztatu den aldia.
- b) Egindako jarduketak.
- c) Ebazpenaren arrazoi diren egitateak eta Zuzenbideko oinarriak.
- d) Behin-behineko likidazioa edo, bestela, egiaztapenaren ondorioz zerga-egoera erregularizatu beharrik ez dagoelako berariazko adierazpena.

134. artikulua.- Egiaztapen mugatuaren prozeduraren bidezko erregularizazioaren ondoreak.

1. Egiaztapen mugatuaren prozedura baten ebazpena eman ondoren Zerga Administrazioak ezin erregularizatu izango du berriz egiaztatutakoa, geroago beste egiaztapen mugatuaren prozedura batean edo ikuskapen-prozedura batean ebazpenean adierazitakoez beste jarduketa batzuen ondoriozko egitate edo inguruabar berriak antzeman ezean.
2. Zergapekoak, edo beraren ordezkariak, berariaz adierazten badu zerga-zorraren egitateekin eta hartan eragina duten elementuekin ados dagoela, ezin inpugnatu izango dira, egitatezko errakuntza gertatu dela frogatu ezean.

IV. KAPITULUA

IKUSKAPENENK JARDUKETAK ETA PROZEDURAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

1. AZPIATALA

EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK

135. artikulua.- (6) Zerga ikuskapena.

(42) Zergak kudeatzeko prozeduren esparruan burutzen diren eginkizunak alde batera utzi gabe, eta prozedura horietan egiten diren jarduketak kontuan hartuta, zergen arloko ikuskapenaren barruan honako hauek egiteko administrazio eginkizunak daude, besteak beste:

- a) Zerga betebeharren egitateak ikertzea, Administrazioak ezagutzen ez dituenen berri jakiteko.

- b) Zergapekoek aurkeztutako aitorpenen eta autolikidazioen benetakotasuna eta zehaztasuna egiaztatzea.
- c) Zergen ezarpenarekin zerikusia duten informazioa lortzeko jarduerak burutzea, foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan ezarritakoaren arabera.
- d) Zerga betebeharrak zehazteko beharrezkoa denean, eskubideen, errenten, ekoizkinen, ondasunen, ondareen, enpresen eta gainontzeko elementuen balioa egiaztatzea, foru arau honetako 128. eta 129. artikuluetan xedatutakoa aplikatuta.
- e) Egiaztatzeko eta ikertzeko jarduketaren ondorioz gauzatu beharreko zerga likidazioak proposatzea.
- f) Balioen egiaztatze mugaturako jarduketak egitea.
- g) Zergen arloko onurak edo pizgarriak eta zerga itzulketak lortzeko betekizunak betetzen diren egiaztatzea, bai eta zerga araubide bereziak aplikatu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen diren ere.
- h) Ikuskapen jarduketak direla eta zergapekoei euren eskubide eta betebeharren inguruko informazioa ematea, eta betebeharrak nola bete behar dituzten azaltzea.
- i) Behin betiko edo behin-behineko zergen arloko esku hartzeak gauzatzea. Esku hartze hauetan berariazko arautegian edo, horrelakorik egon ezean, foru arau honetako kapitulu honetan (146. artikulua bazter utzita) xedatutakoa izango da aginduzko.
- j) Administrazio Publikoko beste organo batzuei aholkuak eta informazioa ematea.
- k) Beste xedapen batzuetan ezartzen direnak edo agintaritza eskudunak agintzen dituenak.

136. artikulua.- Zerga ikuskapenaren ahalmenak.

1. Ikuskapen-jarduketak honela egingo dira: batetik agiriak, liburuak, kontabilitate orokorra eta lagungarria, fitxategiak, fakturak, egiaztagirak, zerga-eragina duen posta, informatizatutako datu-baseak, programak, erregistroak eta jarduera ekonomikoei buruzko artxibo informatikoak aztertuko dira eta bestetik ondasunak, elementuak, ustiapenak eta zerga-betebeharra eskatzeko Administrazioari eman behar zaion edo beharrezkoa diren aurrekari edo informazio guztiak ikuskatuko dira.
2. (42) Ikuskapen jarduketarako beharrezkoa izanez gero, zergak ikuskatzen dituzten funtzionarioak, arau bidez ezarritakoari lotuta, jarraian adieraziko direnetan sartu ahal izango dira: finketan, negozio lokaletan eta kargapeko jarduerak edo ustiapenak egiten diren, zergapeko ondasunak dauden, zerga egitateak edo zerga betebeharren egitateak gertatzen diren edo haien frogaren bat dagoen gainontzeko establezimendu zein toki guztietan.

Zerga ikuskapeneko funtzionarioak aurreko paragrafoan aipatzen diren lekuetan sartzeko, erregelamendu bidez zehazten den organoaren sarrera erabakia beharko da, zergapekoak edo hura zaintzapean daukan pertsonak adostasuna adierazi ezean.

Ikuskapen jarduketak egiteko beharrezkoa bada Konstituzioaren babesak daukan zergapekoaren etxebizitzantsartzea, foru arau honen 109. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da. Baimen judiziala eskatzeko, aipatutako artikuluan jasotako sarrera erabakia erantsi beharko da, erregelamendu bidez zehazten den administrazio agintaritzak sinatua.

3. Ikuskaritzak eskatuz gero, zergapekoa, edo beraren ordezkaria, ezarritako lekura bertaratu behar da, agindutako egunean eta orduan, jarduketak egitera, eta ikuskatzaileen esku utzi beharko ditu eskatutako agiri eta gainontzeko elementu guztiak.

Salbuespen gisa, ikuskaritzak, egin beharreko jarduketetarako beharrezkoa bada, zergapekoa bera bertaratzeko eskatu ahal izango du; eskaera arrazoiak azaldu behar ditu.

Zergapekoek zerga ikuskatzailera hartu beharko dute, eta haiek funtzioak garatzeko lankidetzak egokia eskainiko diete.

4. Ikuskapen-lanak egiten dituzten funtzionarioak agintaritzaren agentetzat hartu behar dira; norbaitek eskatuz gero, ikuskatzaileak direla frogatu beharko dute.

Agintari publikoek babesak eta laguntza eskainiko dizkiete funtzionarioei euren ikuskapen-lanak burutzeko.

2. AZPIATALA

IKUSKAPEN-JARDUKETEN DOKUMENTAZIOA

137. artikulua.- Ikuskapen-jarduketaren dokumentazioa.

1. Zergak ikuskatzeko jarduketak komunikazio, eginbide, txosten eta akten bidez dokumentatuko dira.
2. Aktak zergen ikuskatzaileek arau bidez ezarritako kasuetan ematen dituzten agiri publikoak dira; aktetan egiaztapenaren eta ikerketaren emaitzak biltzen dira eta zergapekoaren zerga-egoeraren erregularizazioa proposatzen da edo hura ontzat ematen.
3. Ikuskapen-prozedurak aktarik egin gabe bukatzen direnean, ondorioak ikuskapen-txostenen bidez dokumentatuko dira.
4. Ikuskapen-jarduketak jasotzeko dokumentu bakoitza zein kasutan erabili arau bidez zehaztuko da, bai eta bakoitzaren gutxienezko edukia ere.

138. artikulua.- Akten froga-balioa.

1. Zerga ikuskatzailtzak egiten dituen aktak agiri publikoak dira eta formalizatzeko zio izan diren egitateak frogatzen dituzte, besterik egiaztatu ezean.
2. Zergapekoek ikuskapen-aktetan onartzen dituzten egitateak egiazkotzat joko dira eta egitatezko okerren bat egon dela frogatuz gero soilik zuzendu ahal izango dira.

2. ATALA

IKUSKAPEN-PROZEDURAK

139. artikulua.- (6) Ikuskapeneko prozedura eta jarduketak motak.

1. Hauexek dira ikuskapeneko prozedurak eta jarduketak, besteak beste:
 - a) Egiaztapen eta ikerketa jarduketak.
 - b) Egiaztapen murriztuaren prozedura.
 - c) Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio prozedura.
 - d) Informazioa eskuratzeko jarduketak.
 - e) Egiaztapen mugatuaren prozedura.
2. Arau bidez, beste ikuskapen prozedura batzuk ere arautu ahal izango dira; hauei titulu honetako II. kapituluaren ezarritako arauak aplikatuko zaizkie, beti, eta bateragarriak diren heinean kapitulu honetako gainontzeko xedapenak ere bai.
3. Foru arau honetako 143. artikuluko xedatutakoa eragotzi gabe, ikuskapen prozeduretan foru arau honetako 78. artikuluan aipatutako kautelazko neurriak aplikatu ahal izango dira, bertan ezarritakoaren arabera.
4. Aurreko 1. idatz zatiko e) letran aipatutako egiaztapen mugatuaren prozeduran foru arau honetako III. tituluko III. kapituluko 2. ataleko 6. azpiatalean ezarritako xedapenak aplikatuko dira; salbuespena: 130. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoa.

140. artikulua.- Ikuskapen-prozeduretako jarduketak egiteko lekua.

1. Ikuskapen jarduketak leku anitzetan burutu ahal izango dira, ikuskaritzaren arabera:
 - a) Zergapekoaren zerga-egoitzan, edo beraren ordezkariaren egoitzan edo bulegoan.
 - b) Kargatutako jarduera guztiak edo batzuk egiten diren lekuan.

- c) Zerga egitatearen edo zerga betebeharraren eragilearen frogaren bat, partziala bada ere, dagoen tokian.
 - d) Zerga Administrazioaren bulegoetan, elementuak haietan ikuskatzeko modua badago.
 - e) [\(38\)](#) Aurreko letretan adierazitako lekuetan edo beste lekuren batean, esandako jarduketak arau honetako 95. artikuluko 10. apartatuan ezarritako sistema digitalen bidez egiten baldin badira. Sistema horiek erabiltzeko, zergapekoaren adostasuna beharko da."
2. Ikuskatzaileak aurretiaz inolako abisurik egin gabe bertaratu daitezke zergapekoen enpresa, bulego, instalazio edo biltegietara; jarduketak zergapekoarekin zein lokalen arduradunekin edo erantzuleekin egingo dira.
 3. Foru arau honetako 136. artikuluko lehenengo idatz-zatian aipatutako liburuak eta gainontzeko agiriak zergapekoaren egoitzan, lokalean edo bulegoan aztertu behar dira, bera edo berak izendatzen duen pertsona aurrean dela. Salbuespen bat dago: zergapekoak azterketa bulego publikoetan egitea onartzea. Hala ere, ikuskatzaileek euren bulegoetan aztertu ahal dituzte aipatutako liburu eta agirien kopiak, mota guztietako euskarrietan.
 4. Zergei buruzko arauak ezarritako erregistroak eta agiriak, bai eta foru arau honetako 130. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran aipatutako egiaztagiriak, Zerga Administrazioaren bulegoetan aurkezteko eskatu ahal izango zaie zergapekoei, bertan aztertzeko.
 5. Arau bidez, ikuskapen jakin batzuk egin beharreko lekua zehazteko irizpideak ezarri ahal izango dira.
 6. Zergapekoa ezinduta badago edo mugitzeko eragozpenak baditu, ikuskapena artikuluko honetako lehenengo idatz-zatian aipatutakoetatik berarentzat egokiena den lekuan egingo da.

141. artikulua.- Ikuskapen-prozeduretako jarduketak egiteko ordutegia.

1. Bulego publikoetan egin beharreko jarduketak lanaldiaren barruan egingo dira.
2. Ikuskapen-jarduketak interesdunaren lokaletan egin behar izanez gero, bulego-ordutegia edota bertan egiten den jardueraren lanaldia errespetatuko da; nolahi ere, jarduketok beste egun edo ordu batean egitea adostu daiteke.
3. Jarduketen inguruabarrek hala eskatzen dutenean, aurreko idatz-zatian aipatutako egun eta ordutegitik kanpo egin ahal izango da ikuskapena, arau bidez ezarritakoaren arabera.

3. ATALA

EGIAZTAPEN ETA IKERKETA PROZEDURA

1. AZPIATALA

ARAU OROKORRAK

142. artikulua.- Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren helburua.

1. Prozedura honen bitartez zerga-betebeharrak behar bezala betetzen diren egiaztatu eta ikertu nahi da; horrez gainera, beharrezkoa denean zergapekoaren egoera erregularizatuko da bidezko likidazioen bidez.
2. Zergapekoek aitorpenetan eta autolikidazioetan adierazitako egintzak, elementuak eta balioespenak egiaztatuko dira.
3. Ikerketa prozeduraren helburua zergapekoek aitortu ez duten edota oker aitortu duten zerga-eragineko egitaterik dagoen argitzea da.
4. Egiaztapen eta ikerketa prozedurak ikuskapen-planak direla bide egingo dira.

143. artikulua.- Kautelazko neurriak egiaztapen eta ikerketa prozeduran.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozeduran arrazoitutako kautelazko neurriak hartu ahal izango dira, zerga-betebeharrak daudela edo bete behar direla frogatzen dituzten elementuak desagertu, suntsitu edo eraldatu ez daitezen, eta gero horien existentzia zein azalpenak ukatu ez daitezen.

Kautelazko neurriak dira kargapeko merkatugaiak edo produktuak, edo kontuan hartu beharreko informazioa egon daitekeen liburuak, erregistroak, agiriak, fitxategiak, lokalak edota datuak jasotzeko ekipo teknikoak prezintatzea, gordailatzea edo inkautatzea.

2. Kautelazko neurriak proportzionalak izan behar dira eta aurrean azaldutako xedeak betetzeko bakarrik erabili behar dira; ezin da aplikatu kalte konponezina edo konpongetza ekar dezakeen neuririk.
3. Hartzen diren neurriak Zerga Ikuskatzailatzaren goren organoak berretsi behar ditu onartzen direnetik 15 egun igaro baino lehen; neurri bat eragin duten inguruabarrak desagertzen badira, bertan behera utziko da.

2. AZPIATALA

HASIERA ETA GARAPENA

144. artikulua.- Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren hasiera.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedura honela has daiteke:
 - a) Ofizioz.
 - b) Zergapekoak eskatuta, foru arau honetako 146. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak hasten direnean, zergapekoei haien izaeraren eta hedaduraren berri eman behar zaie, bai eta jarduketetan izango dituzten eskubideen eta betebeharren berri ere.
3. Jarduketak hasteko erabakia hartu baino lehen, egiaztapen jarduketa batzuk gauzatu ahal izango dira, kasuaren inguruabarrak hobeto ezagutzeko eta prozedura hastea komeni den jakiteko.

Horrela gertatzen denean, egiten diren jarduketak ez dira administrazio-errekerimenduztat hartuko foru arau honetako 27. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako ondoreetarako.

145. artikulua.- Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketen hedadura.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak orokorrak edo partzialak izan daitezke.
2. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak partzialak dira egiaztatuko aldian zerga-betebeharreko elementu guztiak hartzen ez dituztenean eta arau bidezko kasu guztietan.

Gainerako kasuetan egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak orokorrak dira, bai zerga-betebeharrarekiko bai egiaztatutako aldiarekiko, eta behin betiko likidazioa eragiten dute, hurrengo idatz-zatian xedatutako salbuespenarekin.

3. [\(29\)](#) Egiaztapen eta ikerketa prozeduran, kasu hauetan eman daitezke behin-behineko likidazioak:
 - a) Zerga betebeharrari atxikitako elementuren bat zehazten denean egiaztatu gabe dauden beste elementuei batzuei dagozkien likidazioetan oinarrituta, behin-behineko likidazio bidez edo irmoa ez den behin betiko likidazio bidez erregularizatzen denean, edo behin betiko egiaztatu ez diren zerga betebeharraren elementuak ageri direnean, erregelamendu bidez ezarritako baldintzei jarraiki.
 - b) Zerga betebeharrak bakar baten gainean, zenbait likidazio proposamen egin daitezkeenean. Aurreko inguruabarra kasu hauetan gertatuko da: zergapekoak bere zerga egoeraren erregularizazioa zati batez onartzen duenean, balio bat egiaztatzen denean erregularizatzeko objektu bakarra izan gabe, eta erregelamendu bidez ezartzen diren gainerako kasuetan.

c) Nolanahi ere, behin-behinekotzat joko dira honako foru arau honetako 248. artikuluko 2. artikuluko ezarritakoari jarraiki ematen diren likidazioak.

4. Egiaztapen eta ikerketa prozesuaren jarduketak behin-behineko likidazio bidez amaitzen direnean, haien objektua ezin izango dira berriro erregularizatu geroago hasiko den ikerketa prozedura baten bidez, 3. idatz-zatiko a) letran aipatutako inguruabarren bat gertatu ezean, eta soilik inguruabar horiei eragiten dieten zerga-betebeharren elementuei dagokienez.

146. artikulua.- Zergapekoak eskatutako egiaztapen eta ikerketa prozedura orokorra.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedura partzial bateko jarduketak xede diren zergapekoek Zerga Administrazioari eska diezaiokete jarduketak orokorrak izan daitezela zergari eta, bidezkoa bada, jarduketak ukitzen dituen aldiei dagokienez; eskaera horrek ez ditu etengo hasitako jarduketak.
2. Zergapekoak hamabost eguneko epea izango du eskaera egiteko, ikuskapen-jarduketa partzialak hasi direla jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.
3. Zerga Administrazioak eskaera egiten denetik sei hilabete pasatu baino lehen zabaldu beharko du bere jarduketak hedadura edo ekin beharko dio egiaztapen eta ikerketa prozedura orokorrari.

Epe hori betetzen ez bada, jarduketa partzialek ez dute etengo zerga bera eta zergaldia orokorrean egiaztatu eta ikertzeko preskripzio-epea.

147. artikulua.- (29) Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren gehieneko epea.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren inguruko jarduketak hamabi hilabeteko epean gauzatu beharko dira, zergapekoari prozedura hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Jarduketak amaitutzat emango dira haien ondoriozko administrazio egintza jakinarazten denean edo jakinarazitzat hartzen denean. Jakinarazi beharra bete den ala ez zehazteari eta ebazpen epea zenbatzeari gagozkiela, honako foru arau honetako 100. artikuluko 2. idatz zatian jasotako arauak aplikatuko dira.

Hala ere, epe hori luzatu ahal izango da, erregelamendu bidez zehaztutako irismen eta baldintzen arabera. Luzapena ezin izango da 12 hilabete baino luzeagoa izan, eta jarduketetan honako inguruabarren bat gertatzean onartuko da:

a) Jarduketak oso konplexuak direnean. Jarduketak konplexutzat hartuko dira pertsonak edo entitateak eragiketa asko gauzatzen dituenen, jarduerak geografikoki sakabanatuta gauzatzen dituenen, zerga ordainketa zerga baterakuntza edo nazioarteko zerga gardentasuneko araubidean egiten duenean eta erregelamendu bidez ezarritako gainerako kasuetan.

b) Jarduketen ondorioz, zergapekoak egiten duen enpresa jarduera edo jarduera profesionalen bat Zerga administrazioari ezkutatu diola frogatzen denean.

Arestian ezarritako hamabi hilabeteko luzapenaren inguruan hartutako erabakiak arrazoitu egin behar dira beti; hala egitatezko zein zuzenbideko arrazoibideetan funtsatu beharko dira, eta artikuluko honen lehen paragrafoan aipatzen den hamazortzi hilabeteko aldia bukatu aurretik jakinarazi behar dira. Kasu horretan, honako foru arau honetako 100. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da.

2. Egiaztapen eta ikerketa prozedura sei hilabete bako aldi luzeagoan eteten bada, hots, jarduketarik egiten ez bada, zergapekoari egotzi ezin zaion arrazoi bategatik, edo artikuluko honetako 1. idatz zatian prozeduraren iraupenari buruz aipatutako epea betetzen ez bada, prozedura ez da iraungiko; aitzitik, amaierara arte jarraituko du, baina jarraian azalduko diren ondoreak sortuko ditu, besteak beste, likidatu gabeko zerga betebeharrei dagokienez:

a) Preskripzioa ez da etentzat joko arrazoirik gabe etendako ikuskapen-jarduketen ondorioz, ez eta artikuluko honetako 1. idatz-zatian aipatutako epean ere.

Kasu horietan, preskripzioa etentzat emango da arrazoirik gabe eten ondoren jarduketei berriz ekiten zaienean, interesdunari horren berri formala eman eta gero, edo artikuluko honen 1. idatz zatian jasotako epea bukatu ostean, jarduketak egiten direnean. Bi kasuetan, aurrerantzean gauzatuko diren kontzeptuei eta epeei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea izango du zergapekoak.

b) Zergapekoak prozedura hasten denetik jarduketei berriz ekin arte egindako diru sarrerak zergari eta ikuskapen jarduketen zergaldiari egotzi badizkie, sarrera horiek espontaneotzat joko dira foru arau honetako 27. artikuluko ezarritako ondoretarako.

Halaber, espontaneotzat joko dira prozedura hasten denetik artikuluko honen 1. idatz zatian ezarritako prozeduraren iraunaldia bete ez eta gerora egiten den lehen jarduketa gertatu bitartean egindako sarrerak, baldin eta zergapekoak tributuari eta ikuskapen jarduketen xede den zergaldiari egotzi badizkie.

3. Artikuluko honen 1. idatz zatian aipatutako iraunaldia betetzen ez bada, ez da berandutza interesik eskatuko ez-betetzea gertatzen denetik prozedura bukatu arte.
4. (42) Erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari ematen zaionean edo espediente Fiskaltzaribidaltzen zaionean, honako foru arau honetako 248. artikuluko diosenari jarraiki, helarazpen horrek ondore hauek sorraraziko ditu ikuskapen jarduketen iraunaldiari dagokienez:

a) Jarduketa horiek zenbatzeko epealdia eteten duen bidezko arrazoitza hartuko da.

b) Artikuluko honetako 1. apartatuan xedatutakoaren arabera, epealdia luzatzeaahalbidetzen duen kausatzat hartuko da, baldin eta, 249. artikuluko 3. apartatuan, 251. artikuluko 2. apartatuan eta 255. artikuluko 2. apartatuan c) letran aipatzen diren arrazoiak bat gertatu delako, administrazio prozedurak aurrera jarraitu behar badu.

5. (42) Ebazpen judizial edo ekonomiko administratibo batek edo Ekonomia Itunean ezarritako Arbitraje Batzordearen erabaki batek ikuskapen jarduketan atzeraeraginaagintzen duenean, jarduketak atzera eramaten diren unetik artikuluko honen 1. apartatuan aipatzen den epealdia amaitu baino lehen amaitu beharko dira jarduketa horiek, edo sei hilabeteko epealdian, hura laburragoa bada. Ebazpena betearazteko eskumena duen organoak espedientea jasotzen duenetik hasiko da kontatzen epealdi hori.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa administrazio prozeduretan ere aplikatuko da, baldin eta, epealdia luzatu ondoren, erruduntasun testigantza eskumeneko jurisdikziora pasatu bada edo espedientea Fiskaltzari igorri bazaio eta jarraitu egin behar badute, 249. artikuluko 3. apartatuan, 251. artikulua eta 255. artikulua 2. apartatuaren c) letran aipatzen diren arrazoietakoa bat gertatu delako. Kasu horretan, epealdi hori prozedurarekin aurrera egin behar duen organo eskudunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzultitako espedientea jasotzen duenetik hasiko da zenbatzen.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako administrazio espedientea edo ebazpen judiziala zein egunetan jaso den jakinarazi behar zaio zergapekoari, bidezko komunikazioaren bidez edo aurrekoak jaso ondoko egiaztapen eta ikerketa prozeduraren baitan sinatzen den lehenengo eginbidearen bidez.

Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatik berandutza interesak eskatuko dira. Berandutza interesak zenbatzen hasteko eguna, foru arau honen 26. artikulua 2. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik, baliogabetutako likidazioari egokituko zitzaion egun bera izango da, eta interesa likidazio berria eman arte sortuko da.

3. AZPIATALA

IKUSKAPEN-JARDUKETEN AMAIERA

148. artikulua.- Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren amaiera.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren jarduketak amaitutzat emango dira Zerga Ikuskatzailtzaren iritziz gauzatu beharreko administrazio-egintzak oinarritzeko beharrezkoak diren datuak eta frogak lortzen direnean, bai zergapekoaren egoera ontzat emanez, bai horren egoera Zuzenbidearen arabera erregularizatzeko proposatuz.

Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren ondorioak ikuskapen-akten bidez dokumentatuko dira; akta hauek foru arau honetako 137. artikuluko 2. idatz-zatian aipatu dira.

2. Hala ere, ikuskapen planean sartzeko arrazoiaren eragileak funsgabeak direla egiaztatzeagatik erregularizazioa bidezkozat jotzen ez bada edo prozedura arau bidez ezarritako baldintzen arabera gauzatu ez bada, egiaztapen eta ikerketa prozedura ikuskapen aktarik aurkeztu gabe amaitu ahal izango da; horretarako, Zerga Ikuskatzailtzak arrazoiutako txosten bat egingo du.

149. artikulua.- Akten edukia.

Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren emaitza jasotzen duten aktetan ondoko datuak adierazi behar dira gutxienez:

- a) Formalizatu diren lekua eta eguna.
- b) Zergapekoaren izen-abizenak edo izen sozial osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga-egoitza; jarduketak gauzatzeko pertsonaren izena, abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta jarduketetan zer gisa edo ordezkaritzaarekin ariko den.
- c) Zerga-egitatearen edo zerga-betebeharraren eragilearen eta zergapekoarekin duen loturaren oinarritzko elementuak, baita erregularizazioak oinarritzat hartzen dituen Zuzenbideko oinarriak ere.
- d) Zergaren eta zergaldiaren edo zergaldien identifikazioa.
- e) Beharrezkoa bada, zergapekoaren zerga-egoeraren erregularizazioa eta horri dagokion likidazio-proposamena, berandutza-interesak barne (badaude).

Adostasun-aktak egiten direnean eta zergapekoak zehapen-prozedura bereizita izapidetzeko eskubideari uko egiten dionean, bidezkoa denean jakinaraziko dira antzeman diren arau-haustekak eta proposatzen diren zehapenak.

- f) Zergapekoa erregularizazioarekin eta likidazio-proposamenarekin eta, egonez gero, zehapenarekin ados dagoen.
- g) Akta egin ondoko prozedura-izapideak.
- h) Beharrezkoa denean, zehapen-prozedura bereizita izapidetzeari uko egin zaiola.
- i) Arau bidez ezartzen diren gainontzeko guztiak.

150. artikulua.- Akta motak.

1. Izapidetzaren ondoretarako, ikuskapen-aktak adostasunekoak edo desadostasunekoak izan daitezke.
2. Zergapekoa edo beraren ordezkaria ezarritako tokira bertaratzen ez bada behar den egunean, edo bertaratu eta akta jaso edo sinatu nahi ez badu, desadostasun-akta moduan izapidetuko da.
3. Akta sinatu baino lehen, interesdunari entzunaldiaren izapidea emango zaio (baldin eta bera edo beraren ordezkaria jarduketetara bertaratu bada), espedientea aztertu ondoren jarraian zehaztuko direnak, edo bidezkotzat jotzen dituenak, adieraz ditzan egutegiko hamabost egun pasatu baino lehen.
 - a) Zerga Ikuskatzailtzak egindako akta-proposamenarekin ados dagoen.

b) Akta-proposamenarekin ados ez badago, zehapen-prozedura eta egiaztapen eta ikerketa prozedura batera edo bereiz izapidetzea nahi duen.

4. Entzunaldiaren izapidea amaitutakoan, akta formalizatuko da.

151. artikulua.- Adostasun-aktak.

1. Zergapekoa edo beraren ordezkaria aktan jasotzen den eta Zerga Ikuskatzailtzak egin duen proposamenarekin ados badago, berariaz jasoaraziko da aktan.
2. Era berean, Zerga Ikuskatzailtzak zergapekoaren egoera egokia dela uste badu eta, beraz, ez bada erregularizaziorik egin behar, adostasun-akta modura izapidetuko da, zergapekoa ados egonez gero.
3. Zergapekoak zerga-zorraren egitateekin eta oinarrizko elementuekin ados dagoela adierazten badu, foru arau honetako 138. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie.

152. artikulua.- Desadostasun-aktak.

1. Foru arau honetako 150. artikuluko 2. idatz-zatian ezartzen diren kasuetan eta zergapekoa edo beraren ordezkaria Zerga Ikuskatzailtzak egindako erregularizazio proposamenarekin ados badago, berariaz jasoaraziko da aktan.
2. Organo eskudunak, akta, txostena eta interesdunak aurkeztutako alegazioak (badaude) ikusi ondoren, bidezkoa den administrazio-egintza emango du.

4. AZPIATALA

ZEHARKAKO ZENBATESPENA

153. artikulua.- Zeharkako zenbatespenaren metodoaren aplikazioa.

1. Zeharkako zenbatespena aplikatu daitekeenean, Zerga Ikuskatzailtzak, zergapekoen egoera erregularizatzeko hasitako aktekin batera, ondokoei buruzko txosten arrazoitua ere emango du:
 - a) Zeharkako zenbatespena aplikatzeko kontuan hartu diren funtsezko arrazoiak.
 - b) Zergapekoaren kontabilitatearen eta nahitaezko erregistroen egoera.
 - c) Oinarriak, etekinak edo kuotak zehazteko hautatu diren bideak hautatu izanaren azalpena.

d) Hautatutako bideen arabera egindako kalkuluak eta zenbatespenak.

2. Zeharkako zenbatespena aplikatzeko ez da beharrezkoa izango hori adierazten duen aurretiazko administrazio-egintza ematea. Hala ere, horien ondoriozko egintza eta likidazioen aurka aurkezten diren errekursoetan eta erreklamazioetan aplikatu ahal izango da.

3. [\(29\)](#) Zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzeko erabiltzen diren datuak eta aurrekariak ondoko iturri hauetatik etorri ahalko dira:

a) Zenbatespen objektiboaren metodoan ezarritako ikurrak, indizeak eta moduluak. Horiek lehentasunez erabiliko dira metodo horri uko egin dioten zergapekoei dagokienez. Hala eta guztiz ere, ikuskatzaileak egiaztatzen badu jarduera ekonomikoaren ondorioz atera diren zenbateko ekonomiko handiagoko etekinik badagoela, azken zenbatekoa aintzat hartuko da erregularizazioa egiteko.

b) Zergapekoak berak emandako datu ekonomikoak eta ekoizpen prozesuari buruzkoak.

Erregularizatzen den ekitaldiaren aurreko edo ondoko ekitaldietan ateratako datuak erabili ahal izango dira, baldin eta informazio nahikoa eta fidagarria eskuratzea badago. Bereziki, ikuskapen jarduera garatzen deneko uneari dagokion informazioa baliatu ahal izango da, eta aplikagarritzat jo ahalko da aurreko ekitaldietan, ikuskatzaileak edo zergapekoak berak datu horietan doiketak egin behar direla justifikatu eta zenbatu ezean.

Metodo hori zergapekoaren ezaugarri antzekoak dituzten jarduerak zenbatzeko erabili arren, zergapekoak horren gaineko informaziorik ematen ez duenean, okerreko informazioa edo datu gutxiegi ematen duenean edo, eragiketen lagin bat aztertuta, akats errepikatuak badaudela egiaztatzen denean, zerga ikuskatzaileak laginketa bidez erregularizatu ahalko ditu jarduketak. Halako kasuetan, laginketan ateratzen den batez bestekoa aplikatu ahalko zaie egiaztatuko zergaldian izan diren guztizko eragiketei, zergapekoak hein hori bidezkoa ez dela justifikatzen duten arrazoiak egiaztatu ezean.

c) Erakunde publikoek edo antolakunde pribatuak estatistika teknika egokien bidez ateratako sektorearen inguruko datuak, betiere erregularizatzea xede duen zergaldiari dagozkionak. Kasu horretan, datuen iturria identifikatuko da, zergapekoak bere eskubidearen arabera egokitzen jotzen duena argudiatzea izan dezan datu horien inguruan.

d) Ikuskatzailearen organoek zergapekoaren antzeko enpresetatik, jardueretatik edo ezaugarri esanguratsuak dituzten produktuetatik ateratako datuak, dena delako ekitaldikoak badira. Kasu horretan, ikuskatzaileak aukeratutako lagina identifikatu beharko du, zergapekoaren ezaugarrietara egokitzen dela bermatzeko xedez, eta adierazi beharko du datuak zein erregistro publikotatik edo zein iturritatik eskuratu dituen. Erabilitako datuen iturria Zerga administrazioa bera bada, lagina erregelamendu bidez xedatutakoari jarraiki prestatuko da.

4. [\(29\)](#) Zuzeneko ezarpenari dagokionez, zeharkako zenbatespena erabiliz kalkulatu ahalko dira salmentak eta prestazioak, erosketak eta gastuak edo jardueraren etekin garbia. Zeharkako zenbatespena salmenten eta prestazioen zenbatekoa bakarrik

kalkulatzeko balitu ahalko da, kontabilitatean edo zerga erregistroetan jasota dauden gastuak nahikoa egiaztaturi daudela pentsatzen bada. Era berean, erosketa eta gastuei bakarrik eragin ahal die, salmentak eta prestazioak nahikoa egiaztaturik daudenean.

Kontsumoaren gaineko ezarpenari dagokionez, zeharkako zenbatespenaren metodoa erabiliz kalkulatu ahalko dira zerga oinarria eta jasanarazitako kuota, jasandako kuota zenbatetsia eta kengarria edo bi zenbatekoak. Jasandako kuota zenbatetsia eta kengarria kalkulatzeko, dagozkion salmentak edo prestazioak lortzeko beharrezkoak izan ohi diren ondasun eta zerbitzuen ziozko kuotak zenbatetsiko dira, baina zerga jasanarazi den zenbatekoaren neurrian eta zergapekoak eraginkortasunez jasan duena aintzat hartuta. Zerga administrazioak kuoten eragina kalkulatzeko informazio nahikorik ez badauka, zergapekoak informazio egokia eman beharko du zerga jasanarazi zioten pertsonak edo entitateak identifikatzeko eta zenbatekoa kalkulatzeko.

Zeharkako zenbatespenaren bidez erregularizatutako ekitaldi bati dagozkion jasandako gastuak edo kuotak ezin izango dira beste ekitaldi batean kendu.

- 5 [\(29\)](#) Urtebetetik beherako likidazio aldia duten tributuetan, ikuskatzailtzak urtean zenbatetsitako kuota era linealean banatuko da likidazio aldi egokietan, zergapekoak beste denborazko banaketa bat bidezkoa dela justifikatzen ez duenean.

4. ATALA

EGIAZTAPEN MURRIZTUAREN PROZEDURA

154. artikulua.- Egiaztapen murriztuaren prozeduraren helburua.

1. Egiaztapen murriztuaren prozeduraren helburua zergapekoek aurkeztutako aitorpenen elementuak zerga-arautegian xedatutakora egokitzea da, gainontzeko zerga administrazioek eskatuta.

Era berean, prozedura hau erabiliko da, arestian aipatutako organoek hala eskatuta, eskatu den itzulketa baten eta ziurtatutako zerga-pizgarri jakin baten edo zergapekoak eskatutako erregimen bereziren baten aplikazioaren bidez kotasuna egiaztatu behar denean.

2. Prozedura honetan, Zerga Ikuskatzailtzak behar beste egiaztapen edo informazioa lortzeko egintza gauzatu ahal izango du, eta kapitulu honetako 3. eta 6. ataletan ezarritako arauak aplikatuko ditu, bateragarriak diren neurrian.

155. artikulua.- Egiaztapen murriztuaren prozeduraren hasiera.

Egiaztapen murriztuaren prozedura ofizioz hasiko da, zergak ikuskatzen dituzten organo eskudunei zuzendutako erabakiaren bidez; erabakia zergapekoari jakinaraziko zaio.

156. artikulua.- Egiaztapen murriztuaren prozeduraren gehieneko iraupena.

1. Egiaztapen murriztuaren prozedurako jarduketak 6 hilabeteko epean burutu behar dira, zergapekoari jarduketak hasi direla jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Zergapekoari jarduketan ondorioak jasotzen dituen Zerga Ikuskatzailearen txostena jakinarazten zaion egunean emango dira bukatutzat jarduketak; foru arau honetako 100. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

2. Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatutako gehieneko epea amaitzeak ez du ekarriko prozeduraren iraungipena; aitzitik, aurrera egingo du amaitu arte, baina ondore hauek sortuko ditu likidatu gabe dauden zerga-betebeharrei dagokienez:

- a) Preskripzioa ez da etengo aipatu epean zehar egindako ikuskapen-jarduketan ondorioz.

Hala gertatzen denean, artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatutako epea mugaeguneratu ondoren jarduketak egiten direnean etengo da preskripzioa.

- b) Zergapekoak, prozedura hasten denetik jarduketei berriz ekin arte, zergari eta ikuskapen-jarduketan zergaldiari egotzita egin dituen sarrerak borondatezkoztat joko dira foru arau honetako 27. artikuluko ondoretarako.

157. artikulua.- Egiaztapen murriztuaren prozeduraren amaiera.

1. Egiaztapen murriztuaren prozedura amaitutzat joko da Zerga Ikuskatzailearen iritziz egin beharreko administrazio-egintzak oinarritzeko behar diren datuak eta frogak lortzen direnean, bai zergapekoaren aitorpena ontzat emanez, bai horren egoera Zuzenbidearen arabera erregularizatzeko proposatuz.
2. Egiaztapen murriztuaren prozeduraren ondorioak foru arau honetako 137. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako ikuskapen-txostenaren bidez dokumentatuko dira, arau bidez ezartzen denaren arabera. Ikuskapen-txostena zergapekoari jakinaraziko zaio; jakinarazpenean jarduketa guztiak zehatz-mehatz azaldu behar dira.
3. Gainera jakinaraziko zaio txosten hori organo eskudunari bidaliko zaiola zerga-egoera erregularizatzeko administrazio-egintzak burutu ditzan. Xede horrekin, 15 eguneko epea emango zaio zergapekoari aipatutako organoaren aurrean dagozkion alegazioak aurkezteko.
4. Artikulu honetan aipatutako ikuskapen-txostenaren aurka ezin izango da jarri ez errekurtsorik ez erreklamaziorik, baina emaitzako egintzen eta likidazioen aurka jartzen direnetan proposatutako erregularizazioaren bidezkoatasuna planteatu ahal izango da.

158. artikulua.- Egiaztapen murrizturako jarduketan ondoreak.

Egiaztapen murriztuaren prozedura baten bidez emandako txosten batek proposatzen duen erregularizazioaren ondoriozko administrazio-egintza eman eta gero, Zerga Administrazioak ezin izango du egiztatutakoa berriz erregularizatu; salbuespen bat dago: egiaztapen

mugatuaren prozeduran bertan edo geroko ikuskapen-prozedura batean txostenean azaldutakoak ez beste jarduketa batzuen ondorioz egitate eta inguruabar berriak agertzea.

5. ATALA

ZERGAPEKOA BERTARATU GABEKO ERREGULARIZAZIO-PROZEDURA

159. artikulua.- Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio- prozeduraren helburua.

1. Zergapekoa bertaratu gabe egiten den prozeduraren helburua zerga-egitatea badagoela aurretiaz frogatutako kasuetan egin beharreko zerga-erregularizazioari buruzko informazioa ematea da. Zerga-egitatea titulu honetako II. kapituluko 2. atalean dauden frogak balioesteko arauen arabera emango da frogatutzat.
2. Prozedura hau Zerga Ikuskatzailtzak zergapekoaren egoera erregularizatzeko ikerketa, egiaztapen edo informazio jarduketarik egin behar ez duenean aplikatuko da.

160. artikulua.- Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio- prozeduraren garapena.

1. Prozedura hau ez zergapekoa ez beraren ordezkaria bertaratu gabe egingo da; emaitzak foru arau honetako 137. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako ikuskapen-txostenaren bidez dokumentatuko da, arau bidez ezarritakoaren arabera.
2. Ikuskapen-txostena zergapekoari jakinaraziko zaio; bertan zerga-egitatea burutu dela frogatzen duten elementuak zeintzuk diren zehaztuko da. Horrez gainera, esango zaio organo eskudunari bidaliko zaiola zerga-egoera erregularizatzeko administrazio-egintzak eman ditzan, eta 15 eguneko epea emango zaio organo horri nahi dituen alegazioak aurkezteko.
3. Artikulu honetan aipatutako ikuskapen-txostenaren aurka ezin izango da jarri ez errekurtsorik ez erreklamaziorik, baina emaitzako egintzen eta likidazioen aurka jartzen direnetan proposatutako erregularizazioaren bidez kotasuna planteatu ahal izango da.

161. artikulua.- Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio- prozeduraren ondoreak.

Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio-prozeduretan ematen diren txostenetan proposatzen diren erregularizazioen ondoriozko administrazio-egintzak eman eta gero, Zerga Administrazioak ezin izango du egiztatutakoa berriz erregularizatu. Salbuespena dago: egiaztapen mugatuaren prozeduran bertan edo geroko ikuskapen-prozedura batean txostenean azaldutakoak ez beste jarduketa batzuen ondorioz egitate edo inguruabar berriak agertzea.

6. ATALA

INFORMAZIOA LORTZEKO JARDUKETAK

162. artikulua.- Informazioa lortzeko jarduketak.

1. Zerga Administrazioak informazioa lortzeko foru arau honetako 90 eta 91. artikuluetan ezarritako jarduketak egin behar baditu eta horretarako bere bulegoetatik kanpo jardun behar badu, jarduketa horiek Zerga Ikuskatzailtzak egin beharko ditu, foru arau honetan ezarritakoaren arabera zerga-bilketaz arduratzen diren organoek dituzten ahalmenak eragotzi gabe.
2. Aipatutako jarduketak arau bidez ezarritakoaren arabera egingo dira.
3. Zerga Ikuskatzailtzak, jarduketok egitean, foru arau honetako 90 eta 92 bitarteko artikuluetan xedatutakoa hartu behar du aintzat, bai eta kapitulu honetako gainerako ataletan zehaztutako jarduteko arauak ere, aurrekoekin bateragarriak diren heinean.

7. ATALA

ITZURPENAREN AURKAKO KLAUSULA

163. artikulua.- Itzurpenaren aurkako klausula aplikatzeko prozedura.

1. Ikuskapen-prozeduran zehar foru arau honetako 14. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusten diren inguruabarrak gertatzen direla uste denean, Zerga Ikuskatzailtzak txosten bat egingo du itzurpenaren aurkako klausularen erabili beharra bidezkotzeko.
2. Zergak aplikatzeko beste prozedura batean zehar Zerga Administrazioko beste organo batek foru arau honetako 14. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusten diren inguruabarrak gertatzen direla uste izanez gero, Zerga Ikuskatzailtzari txosten bat egiteko eskatuko dio, horren bidez, itzurpenaren aurkako klausularen erabilera oinarritzeko.
3. Prozedura izapidetzeaz arduratu den organoak interesdunari emango dio aipatu txostena. Honek hamabost eguneko epea izango du organo horren beraren aurrean egokiesten dituen alegazioak aurkezteko edo frogak proposatzeko.
4. Txostena, alegazioak eta frogak (halakorik dagoenean) aztertu ondoren, prozedura izapidetzeaz arduratzen den organoak ebazpen-proposamena eta horrekin batera doazen aurrekari guztiak bidaliko dizkio arau bidez ezartzen den goragoko organoari.
5. Zergapekoaren portaeran itzurpenik egon denean organo horrek hiru hilabeteko gehieneko epea izango du hori adierazteko; ondoren, bidezko likidazioak ezarriko ditu.

6. Txostenaren aurka eta artikuluko honetan xedatutakoaren ondorioz aplikatutako gainerako egintzen aurka ezin izango da jarri ez errekursorik ez erreklamaziorik; hala ere, ondorengo egintza eta likidazioen aurka jartzen direnetan itzurpenaren aurkako klausula aplikatzea bidezkoa den planteatu ahal izango da.

V. KAPITULUA

ZERGA-BILKETARAKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

164. artikulua.- Zerga-bilketa.

1. Zerga-bilketa zerga-zorrak kobratzeko egiten den administrazio-egintza da.

Hauexek dira zerga-bilketako eginkizunak:

- a) Zerga-betebeharren ordainketa ahalbideratzeko eta errazteko jarduketak egitea.
 - b) Zorra ordaintzeko edo erantzukizun administratibo, zibil eta penalak eskatzeko egintzekin zerikusia duen informazioa lortzeko jarduketak egitea.
 - c) Zordunaren ondarearen aurkako jarduketak egitea, haren ondasun eta eskubideak exekutatzea eta, behar izanez gero, prebentziozko neurriak hartzea.
 - d) Zergapekoei zerga-bilketetarako prozedurekin lotutako jarduketei eta beraien eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa ematea, eta hauek nola bete azaltzea.
2. [\(23\)](#) Elkarren arteko laguntzaren eremuan zorrak biltzeko, zergapekoak foru arau honetako 61. artikuluko 6. idatz zatian eta 64. artikuluko 6. idatz zatian ezarritako eran ordainduko edo betebeharra beteko du, eta halaber kapitulu honetako 2. ataleko arauak aplikatuko dira hala behar denean.

Foru arau honetako 177. artikuluan azaltzen diren arrazoiez gainera, elkarren arteko laguntzaren babesean izapidetutako bilketa prozedurak amaitzeko arrazoiak izango da laguntza hori eskatu duen estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindikoa erakundeak hasieran egindako kobrantza eskaera aldatzea edo bertan behera uztea.

3. [\(23\)](#) Zerga-zorrak honela bil daitezke:

- a) Borondatezko aldian, zergapekoak foru arau honetako 61. artikuluan ezarritako epeetan ordainduta.

- b) Betearazpen-aldian, zergapekoak bere borondatez edo administrazioaren premiamendu-prozeduraren bidez ordainduta.

165. artikulua.- Betearazpen-aldiko zerga-bilketa.

1. Betearazpen-aldia hasten da:

- a) Zerga Administrazioak likidatu dituen zorren kasuan, foru arau honetako 61. artikuluan zorrak ordaintzeko ezartzen den epea mugaeguneratzen den egunaren biharamunean.
- b) Sarrera egin gabe aurkeztutako autolikidazioaren bidez ordaintzen diren zorren kasuan, zerga bakoitzaren arautegiak ordainketa egiteko ezartzen duen epea amaitzen den egunaren biharamunean edo, epe hori amaituta badago, autolikidazioa aurkezteko egunaren biharamunean.

2. Geroratzeko, zatikatzeko, konpentsatzeko edo ondasunak edo eskubideak zorrean ordaintzeko dohaintzen eskaera borondatezko aldia aurkeztu bada, espediente horiek izapidetzen diren bitartean ez da betearazpen-aldia hasiko.

Zehapen baten aurka errekurtsioa edo erreklamazioa jartzen bada garaiz eta behar bezala, betearazpen-aldia ez da hasiko harik eta zehapena irmoa izan arte administrazio-bidean eta ordainketa borondatezko epean egiteko epea amaitu arte.

3. Betearazpen-aldia hasita, Zerga Administrazioak zergapekoaren ondarearen gainean burutuko du, premiamendu bidez, artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen diren likidatu edo autolikidatutako zorren zerga-bilketa.

4. Betearazpen-aldia hasten denean berari dagozkion berandutza-interesak eta errekaratuak eskatuko dira, foru arau honetako 26. eta 28. artikuluetan zehaztutakoaren arabera, bai eta premiamendu-prozeduraren kostuak ere, sortuz gero.

165 bis artikulua.- (23) Zerga-bilketaren prozedura etetea.

Laguntza eskatu duen estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak laguntzaren xede den kredituari eragin liezaiokeen auziren bat dagoela jakinarazten badu, erabakiko da ofizioz etetea elkarren arteko laguntzari buruzko arauen babesean eskatutako bilketa prozedura. Prozedurako interesdunak auziren bat dagoela adierazi eta modu sinesgarrian frogatzen duenean ere, prozedura eten egingo da. Aurrekoa gorabehera, ez da prozedura etetea erabakiko, edo erabaki hori ondoriorik gabe geratuko da, aipatutako estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak betearazpena nahi duela adierazten duenean.

Laguntza eskaeraren zati bati bakarrik dagokion auzia denean, aurkaratzeak eragiten dion prozedura zatia bakarrik etengo da, eta ukitu gabeko zatia betearazpenak aurrera jarraitu ahal izango du.

Elkarren arteko laguntzari buruzko araudian besterik xedatu ezean, bilketa prozedura eten egingo da, era berean, laguntza horretan esku hartzen duten estatu edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeetako baten batek adiskidetasunezko prozedura bati ekin badio eta prozedura horren emaitzak eskatutako laguntzaren xede den kredituari eragin badiezaioke. Eteteak ondorioak sortuko ditu harik eta prozedura hori amaitu arte, salbu eta, beste kasu batzuen artean, zentzuzko aztarnak badaude kobrantza hori ezinezkoa edo oso zaila izango dela uste izateko; hala denean betearazpenak aurrera egingo du. Aurrekoa gorabehera, kautelazko neurriak hartu ahal izango dira kredituaren kobrantza bermatzeko, foru arau honetako 78. artikuluko 1. idatz zatiko hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat.

166. artikulua.- Zerga-bilketarako ahalmenak.

1. Zerga-zor baten ordainketa ziurtatu edo burutzeko, zerga-bilketa gauzatzen duten organoek foru arau honetako 136. artikuluan Zerga Ikuskatzailetzari aintzatesten zaizkion ahalmenak izango dituzte, bertan adierazitako baldintza guztiekin. Horrez gain, foru arau honetako 78. eta 143. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera kautelazko neurriak ere hartu ahal izango dituzte, zergapekoen nahiz hirugarrenen ondasun, eskubide eta erregistroei dagokienez, baldin eta zergapekoaren eragiketekin zerikusirik badute.
2. Zerga Administrazioak eskatuz gero, zergapekoak bere ondareko eskubideen eta ondasunen zerrenda bidali beharko dio, hain zuzen ere zerga-zorren zenbatekora heltzen den zerrenda.
3. Zerga-bilketaz arduratzen diren organoek premiamendu-prozeduran beharrezkoak diren jarduketa materialak egingo dituzte. Zergapekoek organo horiei euren eginkizunak betetzeko behar duten laguntza emango diete.
4. Zergapekoak ez baditu betetzen berariaz emandako ebazpenak edo errekerimenduak, organo eskudunak, ohartarazpena egin ondoren, ebazpena edo errekerimendua betearazte modu subsidiarioan betearaztea erabaki ahal izango du.

2. ATALA

PREMIAMENDU-PROZEDURA

1. AZPIATALA

ARAU OROKORRAK

167. artikulua.- Premiamendu-prozeduraren izaera.

1. Premiamendu-prozedura administrazio-prozedura da eta zordunaren ondarea betearaziz zerga-zorrak ordaintzea helburu duen jarduketan multzoak osatzen du. Zerga

Administrazioa da honetan eskumena duen bakarra, eta berari dagokio honen inguruko gorabehera guztiak ebaztea.

2. Administrazioaren premiamendu-prozedura ezin izango zaie pilatu ez prozedura judizialei ez betearazpenerako beste bide batzuei. Azken horiek hasteak edo izapidetzeak ez du premiamendu-prozedura etengo, jurisdikzio-gatazkei buruzko legerian eta hurrengo artikuluko arauetan ezarritakoaren arabera bidezkoa denean izan ezik.

Zerga Administrazioak, aipatutako jurisdikzio-gatazkei buruzko legeriarekin bat etorritz, arautegiak aintzatesten dizkion arlo honetako ahalak zaintzapatuko ditu.

3. Premiamendu-prozeduraren izapide guztiak ofizioz hasi eta bultzatuko dira eta, behin prozedura hasi eta gero, zergen arloko arautegiak aurreikusitako kasu eta moduetan eten ahal izango da soilik.
4. (35) Zergapeko berberaren zorrak betearazteko prozedura berezi sinplifikatua araudien bitartez garatu ahalko da, zergaren zenbateko osoa zehaztutako kopurua baino baxuagoa denean, foru dekretu bidez.

168. artikulua.- Prozedurak pilatzea.

1. Kredituak kobratzeko unean legeriak ezartzen duen lehentasun-ordena errespetatu behar dela kontuan hartuta, zergak biltzeko premiamendu-prozedurarekin batera betearazpenerako beste prozedura batzuk ematen badira aldi berean, banakakoak zein orokorrak, judizialak zein judizioz kanpokoak, prozedurako ondasunak betearazteko lehentasuna honako arauen bidez zehaztuko da:
 - a) Betearazpenerako banakako beste prozesu edo prozedurekin batera ematen denean, premiamendu-prozedurak izango du lehentasuna, baldin eta premiamendu-prozeduran gauzatutako enbargoa zaharrena bada. Horretarako, ondasun edo eskubidearen enbargo-eginbidearen data hartuko da kontuan.
 - b) Beste prozesu edo prozedura konkurtsal nahiz orokorrekin batera ematen denean, premiamendu-prozedurak izango du lehentasuna enbargatu diren ondasun eta eskubideak betearazi behar direnean, baldin eta premiamendu-probidentzia pilaketaren aitorpena baino lehenago eman bada.
2. Hartzekodun bat baino gehiago agertzen denean, konkurtsoei buruzko legerian xedatutakoa aplikatuko da eta, hala dagokionean, Arabako Lurralde Historikoko erregimen ekonomikoaren eta aurrekontuei buruzko erregimenaren arautegian xedatutakoa. Nolanahi ere, bidezko premiamendu-probidentzia emango da eta betearazpen-aldiko errekarquak sortuko dira, baldin eta horretarako beharrezkoak diren baldintzak pilaketaren aitorpena baino lehenago ematen badira.
3. Auzitegi eta epaitegiek nahitaez jardun beharko dute Zerga Administrazioarekin elkarlanean; honela, bada, zerga-bilketaz arduratzen den organoari bere eginkizunak betetzeko behar dituen betearazpenerako prozesu konkurtsal nahi orokorrei buruzko datuak eman beharko dizkiote.

Era berean, eta prozedurei dagokienez, elkarlanean aritzeko betebeharrak berbera izango du betearazteko prozedurak izapidetzeko eskumena duen edozein administrazio-organok.

4. Zerga-kredituen pribilegio izaerak, prozesu konkurtsaletan abstenitzeko eskubidea ematen dio Herri Ogasunari. Hala ere, Ogasunak, prozesu hauetan konkurtsoei buruzko legerian aurreikusitako akordio edo hitzarmenak sartzea eskatu ahal izango du. Era berean, zordunarekin ordainketarako baldintza bereziak hitzartu ahal izango du, behin beharrezko bermeak ziurtatu eta gero; baldintza hauek ezin izango dira, zordunarentzat, prozesu judizialari amaiera ematen dion hitzarmen edo akordioan jasotzen direnak baino onuragarriagoak izan. Pribilegio hau, konkurtsoei buruzko legerian aurreikusitakoaren arabera erabili ahal izango da. Era berean, kreditu horiek zergen arloko arautegian aurreikusitakoaren arabera konpentsatu ahal izango dira.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren akordio eta hitzarmenak sinatu eta burutzeko, nahikoa izango da Zerga Administrazioaren organo eskudunaren baimena izatea.

169. artikulua.- Premiamendu-prozedura etetea.

1. (42) Premiamendu prozedura errekursoak eta administrazioarekiko diru erreklamazioak arautzen dituzten xedapenetan ezarritakoaren arabera eta bertako baldintzak betez gero etengo da, baita zergen araudian eta konkurtso araudian ezarritako gainerako kasuetan ere.
2. Zergak biltzeko organoek premiamendu-prozedura automatikoki etengo dute, inolako bermerik eman gabe, interesdunak ondoko kasuren bat gertatu dela frogatzen duenean: bere kalterako izan den oker material, aritmetiko edo egitatezko bat gauzatu dela zorra zehazteko unean; zorra jadanik ordainduta, barkatuta, konpentsatuta, geroratuta edo etenda dagoela edota ordainketa eskatzeko eskubidea jadanik iraungita dagoela.
3. Hirugarren batek enbargoa kendu nahi duenean, bai enbargatu diren ondasun edo eskubideak bere jabetzakoak edo titulartasunekoak direla uste duelako bai kreditua kobratzeko orduan Herri Ogasunaren aurrean lehentasuna duela uste duelako, hirugarrengotza-erreklamazioa aurkeztuko du administrazio-organoko eskudunaren aurrean.
4. Jabari-hirugarrengotza aurkezten bada, eztabaidapeko ondasun eta eskubideei dagokienez premiamendu-prozedura eten egingo da, behin ezarri beharreko segurtasun neurriak ezarri eta gero.
5. Eskubide hobeko hirugarrengotza izanez gero, prozedurak aurrera egingo du ondasunak gauzatu arte, eta lortutako produktua gordailuan mantenduko da hirugarrengotzaren gaineko ebazpen bat eman arte.
6. Arau bidez, hirugarrengotza-erreklamazioak izapidetzeko prozedura bat garatuko da, eta prozedura honen bidez lortutako ebazpenak administrazio-bidea agortuko du.

170. artikulua.- Jarduketak mantentzea.

1. Premiamendu-prozedurako jardun jakin batzuen deuseztasuna adieraztean, deuseztasun horrek ukitzen ez dituen gainontzekoak mantendu egingo dira.
2. Kuotarekin zerikusirik ez duten errekaruaren edo zerga-zorren gainontzeko osagaien deuseztapenak edo zehapenen deuseztapenak ez dute eraginik izango premiamendu-prozeduran zehar egindako jarduketetan, ezta zerga-zorren edo deuseztatu ez diren zehapenetan ere.

2. AZPIATALA

PREMIAMENDU-PROZEDURAREN HASIERA ETA GARAPENA

171. artikulua.- Premiamendu-prozeduraren hasiera.

1. Premiamendu-prozedura, zergapekoari premiamendu-probidentzia jakinarazten zaionean hasiko da. Jakinarazpenean zorra identifikatuko da, foru arau honetako 28. artikuluan aipatzen diren errekaruak likidatuko dira eta ordainketa egin dezan eskatuko zaio.
2. Premiamendu-probidentzia titulu nahikoa izango da premiamendu-prozedura hasteko, eta epai baten besteko indarra izango du zergapekoaren ondasun eta eskubideen aurka jotzeko orduan.
3. Premiamendu probidentziaren aurka egiteko arrazoi hauek soilik onartuko dira:
 - a) Zorra oso-osorik azkentzea edo ordainketa eskatzeko eskubidea preskribitzea.
 - b) Gerorapena, zatikatzea edo konpentsazioa eskatzea borondatezko aldian eta zerga-bilketa prozedura eten dezaketenean beste arrazoi batzuk.
 - c) Likidazioaren jakinarazpenik ez egitea.
 - d) Likidazioa deuseztatzea.
 - e) Zorduna edo premiamendupeko zorra identifikatzea galarazten duen oker edo omisioren bat egotea premiamendu probidentziaren edukian.
4. [\(23\)](#) Elkarren arteko laguntzari buruzko arauen babesean emandako betearazpen tresnaren aurka egiteko ez dira onartuko aurreko idatz zatian azaldutako zioak. Elkarren arteko laguntza eskatu duen estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak egingo du betearazpen tresnaren berrikuspena, laguntzari buruzko arauetan besterik ezarri ezean.
5. [\(23\)](#) Zergapekoak ez badu ordainketarik egin foru arau honetako 61. artikuluko 5. idatz-zatian aipatzen den epearen barruan, ondasunak enbargatuko zaizkiola ohartaraziko zaio premiamendu-probidentzian.

171 bis artikulua.- (23) Betearazpen tresna elkarren arteko laguntzaren esparruan.

1. Betearazpen tresnatzat joko da kapitulu honetan aipatzen diren bilketa jarduketak egiteko gaitasuna ematen duena, elkarren arteko laguntzari buruzko arauak direla bide.
2. Premiamendu probidentziaren parekoa da betearazpen tresna. Bereziki, bilketa prozedurari ekiteko titulu nahikotzat joko da, eta foru arau honetako 171. artikuluan aipatzen den premiamendu probidentziak bezainbesteko indar betearazlea izango du ordaindu behar dutenen ondasun eta eskubideen kontra jarduteko.
3. Laguntza eskatzen duen estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak betearazpen tresnarekin batera tresna horri dagozkion beste agiri batzuk ematen dituenean, agiri horiek Zerga Administrazioak jasotzen dituen hizkuntza berean igorriko zaizkio hartzaileari, elkarren arteko laguntzari buruzko araudian besterik ezarri ezean.
4. Ez betearazpen tresna ez horri dagozkion agiriak, elkarren arteko laguntzari buruzko araudiarekin bat etorritik harekin batera igortzen direnak, ez dira loturik egongo Zerga Administrazioaren inolako aitortpen, gehitze edo ordezen egintzari, araudi horretan besterik ezarri ezean.

172. artikulua.- (23) Bermeak betearaztea.

Zerga zorra bermatuta badago, lehenbizi bermea betearaziko da foru arau honetako 176. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez.

Hala ere, Zerga Administrazioak bermea betearazi baino lehen beste ondasun edo eskubide batzuk enbargatzea eta besterentzea erabaki ahal izango du berme hori bermatutako zorrerako eman ez denean edo zergapekoak hala eskatzen duenean, horretarako ondasun nahiko emanetz. Horrelakoetan, enbargoak ziurtatzen duen kopurua kenduko da bermetik.

173. artikulua.- Ondasun eta eskubideen enbargoa.

1. Proportzionaltasun printzipioa errespetatuta, zergapekoaren ondasun eta eskubideak enbargatuko dira honako gastuei aurre egin ahal izateko zenbatekoetan:
 - a) Ordaindu ez den zor edo zehapenaren zenbatekoa.
 - b) Ordainketa egin den egunera arte sortu diren interesak.
 - c) Bidezko errekarquak.
 - d) Premiamendu-prozeduraren kostuak.
2. Zerga Administrazioak zergapekoaren enbargatzeko errazak diren eta kalterik gutxien eragingo dioten ondasun eta eskubideak enbargatuko ditu, harik eta zor den zenbatekoa ordaindu arte. Nolanahi ere, azkenerako utziko dira ondasun zein

eskubideak enbargatzeko konstituzionalki babestuta dagoen zergapekoaren etxebizitzara sartzea dakartenak.

3. Zergapekoak hala eskatzen badu, enbargatutako eskubide eta ondasunak beste batzuentzat ordezkatu ahal izango dira, azken hauen bidez zorraren ordainketa modu bertsuan eta eraginkortasunez bermatuko bada eta hirugarrenei kalterik egiten ez bazaie.
4. Ez dira enbargatuko foru arauen edo legeen arabera enbargaezinak diren ondasun edo eskubideak, ezta betearaztean besterentzean baino zenbateko handiagoa lortuko litzatekeela uste den gainerakoak ere.

174. artikulua.- Enbargo-eginbidea eta prebentziozko idaztoharra.

1. Enbargo-jarduketa bakoitza eginbide baten bidez dokumentatuko da, eta eginbide hori jarduketa egiten den pertsonari jakinaraziko zaio.

[\(45\)](#) Ondasun eta eskubideen enbargoa gauzatu eta gero, eginbidea jarraian adierazten direnei jakinaraziko zaie: zergapekoari eta, beharrezkoa bada, hirugarren titularrari eta ondasunaren edukitzaile edo gordailuzainari, baldin eta jarduketekin zerikusirik ez badute; zergapekoaren ezkontideari, baldin eta ondasunak irabazizkoak badira; zergapekoaren egitatezko bikotekideari, euren araubide ekonomikoa eta ondare araubidea irabazizkoa denean, eta azkenik, jabekide eta titularkideei.

2. Enbargatutako ondasunak erregistro publiko baten inskribatu ahal badira, Zerga Administrazioak prebentziozko idaztoharra egiteko eskubidea izango du erregistro horren gainean. Horretarako, organo eskudunak enbargoaren agindu judizial bezala hartuko den agindua emango du eta erregistroan agertzen diren kargen inguruko espediente bat egin dadin eskatuko du. Erregistratzaileak, enbargoaren bazterreko idaztoharren bidez, espediente hori luzatu dela ziurtatu eta, bertan, dagokion data zein prozedura mota adieraziko ditu.

Kasu honetan, enbargoaren berri emango zaie prebentziozko enbargoaren idaztoharren ondoren kargen titular bihurtu direnei, bai eta bazterreko idaztoharra egin aurretik zeudenei ere.

Modu honetara gauzatzen den prebentziozko idaztoharrek ez du foru arau honetako 75. artikulua zerga-kredituak kobratzeko ezartzen duen lehentasunean eraginik izango, baldin eta eskubide hobeko hirugarrengotza aurkezten bada. Hau honela gertatu ezean, enbargoaren prebentziozko idaztoharrek ezarritako hurrenkera mantenduko da.

3. Enbargo-eginbidearen aurka egiteko arrazoi hauek soilik onartuko dira:
 - a) Zorra azkentzea edo ordainketa eskatzeko eskubidea preskribitzea.
 - b) Premiamendu-probidentziaren jakinarazpenik ez egotea.
 - c) Foru arau honetan enbargoari buruz ezarritako arauak ez betetzea.
 - d) Zerga-bilketaren prozedura etetea.

e) Ordainketa geroratu edo zatikatzeko baimena edukitzea.

4. [\(23\)](#) Elkarren arteko laguntzaren babesean emandako enbargo eginbideen aurka egiteko onartuko diren zio bakarrik aurreko idatz zatian azaldutakoak izango dira.

Aurka egiteko arrazoiaren oinarria beste estatu edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde bateko erakunde administratibo edo judizialen aurrean egindako jarduketetan lortu diren frogabideetan badago, organo eskudunak frogabide horiek behar bezala egiaztatzeko eskatu beharko du. Horretarako igortzen den informazioak zuzenbidez dagokion froga balioa izango du, foru arau honetako 101. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Elkarren arteko laguntzaren esparruan jasotako kobrantza eskaeren ondorioz Zerga Administrazioak egiten dituen gainerako jarduketan aurka egiteko zioak foru arau honetan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoak izango dira.

5. [\(23\)](#) Ondasun higikorrek enbargatzen direnean, Zerga Administrazioak gordailupean jarri ahal izango ditu arau bidez ezartzen den moduan.
6. [\(23\)](#) Merkataritza edo industriako edota, orokorrean, enpresa baten ondasun eta eskubideak enbargatzea agintzen denean, jardueraren zuzendaritzaren buru diren pertsonak zergapekoaren kaudimenean kalte egin dezaketela uste bada, organo eskudunak, behin negozioaren titularra edo administrazio-organoa entzun ostean, administratzaile gisa jardungo duen pertsona bat izenda dezake. Azken honek, hain zuzen, araubidez ezartzen den moduan, negozioaren kudeaketan esku hartu dezake, betearazi aurretik fiskalizatuz administrazio-akordioan zehazturiko egintzak.
7. [\(23\)](#) Zergapeko bati ondasun higiezin batzuen titular den sozietate baten akzioak edo partaidetzak enbargatu bazaizkio, edo sozietate hori osorik edo partzialki kontrolpean edukitzeko zuzenean zein zeharka erabiltzen duen sozietate batenak (Merkataritzako Kodea, 42. artikulua , Zerga Administrazioak ondasun higiezin horiek erabiltzea debekatu ahal izango du, nahiz eta kontu bateratuak aurkeztu beharrik eduki ez. Ondasun horiek erabiltzeko debekuaren aurreneurritzko idatzoharra egin ahal izango da jabetzaren erregistro eskuduneko finken orrian. Jabetza erregistro eskuduna zein den kautelazko neurria erregistroan ageri den titularrari ez beste pertsona bati aplikatzea justifikatzen duen aginduan zehaztuko da sozietatearen kontrolaren aipamenaren bitartez (aginduan kontrola nola gauzatzen den xehatu behar da).

Ondasunak erabiltzeko debekuaren kontrako errekurtoa aurkezteko arrazoi bat bakarrik onartuko da: neurria aplikatzeko gertatu beharreko egitateetako bat ez gertatzea.

Zergapekoaren partaidetzen edo akzioen enbargoa bertan behera geratzen denean, kautelazko neurria kenduko da. Gainera, Zerga Administrazioak ondasunak erabiltzeko debekua bertan behera utzi ahal izango du hark indarrean jarraitzeak gaitz konpontzen diren kalteak edo kalte konponezinak sortu ahal baditu (sozietateak frogak aurkeztu behar ditu).

175. artikulua.- Kreditu- edo gordailu-erakundeen ondasun zein eskubideen enbargoa.

1. Zerga Administrazioak kreditu-erakunde edo pertsona zein erakunde gordailuzain bati emandako fondo, balio edo ondasunen berri duenean, hauek enbargatu ahal izango ditu behar duen besteko zenbatekoa bereganatuz; horretarako, ez du erakundearen ondasun edo eskubideei buruzko datuen identifikaziorik behar izango.
2. Fondo edo balioak titular bat baino gehiagoren izenean gorde direnean, zergapekoari dagokion zatia soilik enbargatuko da.

Hala gertatzen denean, bataren zein bestearen titulartasuna duten gordailuzainarekiko solidaritate aktibo edo mankomunatutako baterako titulartasuna dagoenean, zenbatekoa zati berdinetan banatuta dagoela ulertuko da, bestelako titulartasunen bat dagoela frogatzen denean izan ezik.

3. Enbargoak eragindako kontutik normalean soldatak edo pentsioak ordaintzen direnean Prozedura Zibileko Legeak ezarritako mugak errespetatu beharko dira, hain zuzen, lege hori zordunaren soldatari edo pentsioari dagokion zenbatekoari aplikatuko zaio. Honela, bada, soldata eta pentsiotzat hartuko dira enbargoa egiten den hilabeteen kontzeptu hori dela-eta kontu horretan sartu diren zenbatekoak edo, halakorik egon ezean, aurreko hilabeteen sartutako zenbatekoak.

176. artikulua.- Enbargatutako ondasunak eta eskubideak besterentzea.

1. Enbargatutako ondasunak eta eskubideak enkante, lehiaketa edo adjudikazio bidez besterenduko dira, arau bidez zehaztutako kasuetan eta baldintzetan.

Besterentzeko erabakia soilik inpuignatu ahal izango da, baldin eta enbargatzeko eginbideak foru arau honetako 108. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera jakinarazi badira. Kasu horretan, besterentzeko erabakiaren aurka soilik onartu ahal izango dira foru arau honetako 174. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako enbargo-eginbideak inpuignatzeko zioak.

2. Premiamendu-prozedura, Herri Ogasunari eginiko ondasunen adjudikazioarekin amaitu ahal izango da, baldin eta Ogasunari ondasunok adjudikatzea interesatzen bazaio eta besterentze-prozeduran jadanik adjudikatuta ez baldin badaude.

Adjudikazioa zorraren bestekoa izango da; nolanahi ere, besterentze-prozeduran ezarritako hasierako oinarriaren %75 ezin izango da, inola ere, gaintitu.

3. Zerga Administrazioak ezin izango ditu besterendu premiamendu-prozeduran enbargatu diren ondasun eta eskubideak harik eta betearazitako zerga-zorraren likidazioa irmoa izan arte; salbuespena egingo da ezinbesteko kasuetan, ondasun galkorretan, balioa berehala galtzeko arriskua duten ondasunetan edo zergapekoak besterentzea berariaz eskatzen duenean.
4. Ondasunak adjudikatu aurreko edozein momentutan, Zerga Administrazioak enbargatutako ondasunak askatuko ditu zergapekoak zerga-zorra eta premiamendu-prozeduraren kostuak azkentzen dituenean.

5. Zerga Administrazioak, besterentzea egiteko zenbatekoa azkenean lortuko litzatekeena gainditzen duten ondasun edo eskubideak ez besterentzea erabaki ahal izango du.

3. AZPIATALA

PREMIAMENDU-PROZEDURAREN AMAIERA

177. artikulua.- Premiamendu-prozeduraren amaiera.

1. Premiamendu-prozedura honako kasuetan amaituko da:
 - a) Foru arau honetako 173. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako zorra ordaintzen denean.
 - b) Kreditua osorik edo zati batean kobraezina dela adierazten duen akordioa lortuz gero, ordainketa egin behar duten guztiak krediturik gabe daudela adierazi ondoren.
 - c) Zerga-zorra edo zehapena beste edozein arrazoiengatik azkendu dela adierazten duen erabakia ematen denean.
2. Kreditua kobraezintzat jotzen denean, premiamendu prozedura preskripzioaldiaren barruan hasiko da berriro, behin zergapekoren baten kaudimena ezagutzen denean.
3. [\(35\)](#) Zergapeko berberaren zorrak kobraezintzat jotzeko prozedura berezi sinplifikatua araudien bitartez garatu ahalko da, zenbateko osoa zehaztutako kopurua baino baxuagoa denean, foru dekretu bidez.

3. ATALA

ERANTZULE ETA OINORDEKOEN AURKAKO PROZEDURA

1. AZPIATALA

ERANTZULEEN AURKAKO PROZEDURA

178. artikulua.- Prozeduraren izaera.

Foru arau honetako 41 43 bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera, erantzuleen aurkako prozedurak zerga-bilketaren jardun guztiak barneratzen ditu, zerga-zorren erantzuleak, zordun nagusiarekin zein beste pertsona zein erakunderekin batera, ordainketa egitera behartzeko asmoarekin.

179. artikulua.- Erantzukizun-adierazpena.

1. Erantzukizuna, likidazioa egin edo autolikidazioa aurkeztu osteko edozein unetan adierazi ahal izango da, foru arauak beste zerbait xedatu ezean.
2. (47) Erantzukizuna adierazteko prozedura eta erantzukizun adierazpenaren administrazio egintza emateko eskumena zerga bilketako organoak dauka.
3. Erantzuleen aurretiazko entzunaldiak ez du baztertuko horiek izapidea egin aurretik alegazioak egiteko eskubidea, ez eta beraien ustez beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskubidea ere.
4. Erantzukizun-adierazpenerako egintza erantzuleei beraiei jakinaraziko zaie, eta honako edukia izango du:
 - a) Erantzukizun-adierazpenaren gaineko erabakiaren testu osoa; bertan, gaitzen duen egitatea eta berorrek biltzen dituen likidazioak adieraziko dira.
 - b) Egintza horren aurka erabil daitezkeen inpugnazio-bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta horiek aurkezteko epea.
 - c) Erantzuleari eskatu zaion zenbatekoa ordaintzeko lekua, epea eta modua.
5. (23) Erantzukizun adierazpenaren gaineko erabakiaren aurka jarritako errekurso edo erreklamazioan, gaitzen duen egitatea eta berorrek biltzen dituen likidazioak aurkaratu ahal izango dira. Hala ere, errekurso edo erreklamazio hauen ebazpenaren ondorioz ezin izango dira berrikusi beste zergapeko batzuen likidazio irmoak: errekursoa edo erreklamazioa aurkeztu duenaren betebeharraren zenbatekoa soilik berrikusi ahal izango da.

Hala ere, foru arau honetako 42. artikuluko 4. idatz zatian eta 43. artikuluko 1. idatz zatiko d) letran ezarritako kasuetan ezin da aurkaratu egitateak biltzen dituen likidazioak, baizik eta erantzukizunaren erdiespen orokorra. Gainera, kasu horietan ezin da aplikatu foru arau honetako 218. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa, zenbatekoa zor baten ondoriozkoa zein zerga zehapen baten ondoriozkoa izan.
6. Erantzuleari, foru arau honetako 61. artikuluko 2. idatz-zatian ezartzen den epea emango zaio ordainketa borondatezko aldian egiteko.

Erantzuleak ez badu ordainketa epe horren barruan egiten, zorra premiamendu-bidean eskatuko zaio eta foru arau honetako 28. artikuluen arabera bidezkoa den betearazpen-aldiko errenergua aplikatuko da.
7. Erantzukizuna adierazteko prozeduraren jarduketak sei hilabeteko epean amaitu beharko dira, zergapekoari berauek hasi direla jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita. Epea konputatzeko, ez dira kontuan hartuko interesdunari egotzi dakizkiokeen luzatzeak.

Aurreko paragrafoan aipatutako prozeduraren gehieneko iraupena igaro arren erantzukizun-adierazpenaren administrazio-egintzarik eman ez bada, prozedura ez da iraungiko, hau da, amaitu arte jarraituko du; baina Zerga Administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahalaren preskripzioa ez da etengo erantzulearen aurka

gauzatutako jarduketan ondorioz. Kasu honetan, aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitu ostean jarduketak gauzatzen direnean etengo da preskripzioa.

180. artikulua.- Erantzukizun solidarioa eskatzeko prozedura.

1. (42) Erantzukizun solidarioa eskatzeko prozedura, kasuen arabera, honako hau izango da:
 - a) Erantzukizuna eratorritako zorra ordaintzeko hasierako borondatezko aldia amaitu baino lehenago deklaratu bada eta erantzuleari jakinarazi bazaio, nahikoa izango da epealdi hori igarotakoan ordainketa egiteko eskatzea.
 - b) Gainerako kasuetan, zorra ordaintzeko borondatezko aldia igaro eta gero, organo eskudunak erantzukizunaren deklarazioa egingo du eta erantzuleari jakinaraziko zaio.
2. Ustiapenen eta jarduera ekonomikoen titulartasuna eskuratu nahi dituenak, foru arau honetako 42. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako erantzukizun solidarioa mugatzeko asmoarekin, egungo titularraren adostasuna lortuz gero Administrazioari dagokion ekitaldiko zergen arloko zor, zehapen eta erantzukizunak zehatz-mehatz azalduko dituen ziurtagiria eskatzeko eskubidea izango du. Zerga Administrazioak hiru hilabeteko epea izango du ziurtagiri hori luzatzeko, eskaera egin zenetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, eskuratzaillearen erantzukizuna bertan azaltzen diren zor, zehapen eta erantzukizunetara mugatuta geratuko da. Ziurtagiria zor, zehapen edo erantzukizunik aipatu gabe egin edo aipatutako epean ematen ez bada, eskuratzaillea artikulua ezartzen duen erantzukizunetik aske geratuko da.

181. artikulua.- Erantzukizun subsidiarioa eskatzeko prozedura.

Zordun nagusia eta, beharrezkoa bada, erantzule solidarioak kobraezintzat jotzen direnean, Zerga Administrazioak erantzukizun-adierazpenaren egintza eman eta erantzule subsidiarioari jakinaraziko dio.

2. AZPIATALA

OINORDEKOEN AURKAKO PROZEDURA

182. artikulua.- Oinordekoen aurkako zerga-bilketa prozedura.

1. Zerga-zorra ordaindu behar duena hiltzen bada zerga-bilketa prozedurak bere jaraunsleekin jarraituko du eta, kasuaren arabera, baita legatu-hartzaileekin ere. Horretarako, nahikoa izango da zergapekoaren heriotza gertatu dela adieraztea eta oinordekoei jakinaraztea; horrekin batera, kausatzailearen zerga-zorra eta gainerako kostuak ordaintzea eskatuko zaie.

Jaraunsleak pentsatzeko eskubidea erabili duela adierazten duenean zerga-bilketa prozedura eten egingo da, horretarako dagoen epea igaro arte. Aldi horretan, Zerga Administrazioari kausatzaileak ordaintzeke dituen zorren zerrenda emateko eskatu ahal izango zaio, betiere informazio gisa.

Jaraunspena banatu gabe dagoen artean, zerga-zorrak biltzeko prozedurak beraren ondasunen eta eskubideen aurka jarraitu ahal izango du; horretarako, administrazioa zein ordezkaritza duenarekin adostu beharko dira egintza guztiak.

2. Sozietate edo erakunde bat desegin eta likidatu ondoren, zerga-bilketa prozedurak bazkide, partaide edo titularkideen aurka jarraituko du, nortasun juridikoa azkendu dela baieztatu ondoren.

Fundazio bat desegin edo likidatzen denean, zerga-bilketa prozedurak haren ondasun eta eskubideen jasotzaileekin jarraituko du.

Zerga Administrazioa bazkide, partaide edo titularkideren baten edo guztien aurka jo ahal izango du zerga-zorra eta kostuak ordain ditzaten eskatzeko.

IV. TITULUA

ZEHATZEKO AHALA

I. KAPITULUA

ZERGEN ARLOKO ZEHATZEKO AHALAREN PRINTZPIOAK

183. artikulua.- Zehatzeko ahalaren printzipioak.

Zergen arloko zehatzeko ahala administrazioaren esparruko printzipio arautzaileen arabera betearaziko da, foru arau honetako eta zergei buruzko gainontzeko arauen berezitasunekin.

Zehazki, legezkotasun, tipikotasun, erantzukizun, proportziotasun eta ez pilatzeko printzipioak aplikatuko dira. Atzeraeragingarritasun printzipioa orokorrean aplikatuko da, foru arau honetako 9. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa kontuan hartuz.

184. artikulua.- Erantzukizun printzipioa zergen arloko arau-hausteei dagokienez.

1. Foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako pertsona fisiko edo juridikoek eta erakundeek zehapena jaso ahal izango dute zergen arloko arau-hausteren bat ematen denean eta horien erantzuleak direnean.

2. [\(29\)](#) Foru arauetan edo legeetan tipifikatutako ekintzek eta omisioek ez dute zergen arloko arau hausteengatiko erantzukizunik ekarriko honako kasu hauetan:

a) Zergen arloan jarduteko gaitasunik ez dutenek egiten dituztenean.

b) Ezinbestean gertatzen denean.

c) Talde baten erabakiaren ondorio direnean, botoa salbatu dutenentzat edo erabakia hartu den bileran izan ez direnentzat, salbu eta baterako erabakia ondoren berretsi izan balute.

d) Zerga betebeharrak betetzeko arreta nahikoarekin jardun denean.

Beste inguru batzuen artean, behar besteko arretaz jokatu dela ulertuko da zergapekoak araua arrazoiz interpretatuz jardun duenean. Zehazki esanda, zergadunak arauak zentzuz interpretatu dituela pentsatuko da ondokoei jarraiki jardun badu:

a') Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen edo administrazioarekiko auzien epaitegien ebazpenak, edo Konstituzio Auzitegiak eta Europar Batasuneko justizia auzitegiek auto eta ebazpenetan emandako epaietatik eratorritako doktrina, oso antzekoak diren egitate eta inguruabarrak gertatzen direnean.

b') Zerga administrazioak ondokoetan adierazitako irizpideak:

- Aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko eredu eta zabalkundeko eskuliburuetan jasotako jarraibideak.

- Honako foru arau honetako 81. artikulua jasotzen dituen zabalkunde ohar eta komunikazioak.

- Honako foru arau honetako 83. artikuluan jasotzen diren zergen gaineko galdera idatziei emandako erantzunak. Galdera horiek beste zergapeko batzuek egin dituzte, oso antzekoak diren egitateak eta inguruabarrak gertatzen direnean, betiere, aipatutako irizpideak aldatu ez badira.

2. idatz zatian xedatutakoaren ondoretarako, honako foru arau honetako 211 bis artikulua aipatzen dituen inguruabarretan, aurkako frogarik egon ezean, ezin izango da pentsatu konkurrentziarik dagoenik, ez zerga betebeharrei erantzuteko arreta egokiari buruz, ez d) letra honetan adierazitako arauen arrazoizko interpretazioari buruz.

e) Zerga betebeharrak betetzeko helburuz, Zerga administrazioak eskaintzen dituen programa informatikoen akats bati egozteko modukoak direnean.

3. Zergapekoek borondatez erregularizatzen badute beren zerga egoera edo aurretiaz aurkeztutako aitorpen, autolikidazio eta eskaera okerrak zuzentzen badituzte, nahiz eta zerga administrazioak aurrez ez eskatu, ez dira zerga arau-hausteen erantzule izango aurretiaz aurkeztutako aitorpen, autolikidazio eta eskaera okerrengatik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du eragotziko foru arau honen 27. artikuluan xedatutakoa betetzea eta aitorpen, autolikidazio eta eskaera berriak berandu edo oker aurkeztearen ondorioz egin daitezkeen arau-haustea halakotzat jotzea.

185. artikulua.- [\(29\)](#) Zerga zehapenak ez pilatzeko printzipioa.

1. Arau hauste bat mailakatzeko irizpidetzat erabili beharreko egintza edo ez-betetze bat ezin izango da banakako arau hauste moduan zehatu.
2. Hainbat arau haustetzat har daitezkeen ekintza edo ez-betetze batzuk eginez gero, bakoitzari bere zehapena ezarri ahal izango zaio.
3. Zergen arloko arau hausteen ondoriozko zehapenekin batera, berandutze interesak eta betearazpen aldiko errekaruak eskatu ahal izango dira.

II. KAPITULUA

ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEEI ETA ZEHAPENEI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

1. ATALA

ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ERANTZULEAK

186. artikulua.- Arau-hausleak.

1. Foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak subjektu arau-hausleak izango dira baldin eta foru arauetan edo legeetan arau-hauste gisa tipifikatuta dauden egintza edo ez-betetzeak gauzatzen badituzte.

Honakoak izan daitezke, besteak beste, arau-hausleak:

- a) Subjektu pasiboak.
- b) Konturako ordainketak egin behar dituztenak.
- c) Zergen ondorioz norbanakoen arteko betebeharrak dituztenak.
- d) Zerga-betebehar formalak bete behar dituztenak.
- e) [\(29\)](#) Zerga multzoa ordezkatzeko duen entitatea zerga baterakuntzaren araubidean.
- f) Bazkide edo kideei errentak egoztera behartuta dauden erakundeak.

- g) Zergen arloan jarduteko gaitasunik ez duten zergapekoen legezko erantzuleak.
 - h) [\(23\)](#) Zergapekoak, elkarren arteko laguntzari buruzko araudiaren arabera.
 - i) [\(42\)](#) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren entitate taldearen araubide bereziko entitate nagusia.
2. Subjektu arau-hauslea zordun nagusitzat hartuko da foru arau honetako 41. artikuluko 1. idatz-zatian erantzukizun-adierazpenari buruz xedatutakoaren ondoretarako.
 3. Zergen arloko arau-hauste batean subjektu arau-hausle bat baino gehiago pilatzen denean, solidarioki ordaindu beharko diote Administrazioari zehapena.

187. artikulua.- Zerga-zehapenen erantzuleak eta oinordekoak.

1. Foru arau honetako 42. artikuluan aipatzen diren kasuetako pertsonak edo erakundeek zerga-zehapenak solidarioki ordaindu beharko dituzte, artikuluko horretan ezarritakoaren arabera.
2. Foru arau honetako 43. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran aipatzen den kasuko pertsonak edo erakundeek zerga-zehapenak subsidiarioki ordaindu beharko dituzte, artikuluko horretan ezarritakoaren arabera.
3. Erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa adierazi eta eskatzeko prozedura foru arau honetako 180. eta 181. artikuluetan ezarri da.
4. Zerga-zehapenak ez zaizkie eskualdatuko arau-hausle fisikoen jaraunsleei eta legatu-hartzaileei.

Desegindako sozietate eta erakundeek egindako zergen arloko arau-haustea euren oinordekoei eskualdatuko zaizkie, foru arau honetako 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. ATALA

ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENEN KONTZEPTUA ETA MOTAK

188. artikulua.- Zergen arloko arau-hausteen kontzeptua.

Zergen arloko arau-haustea dira foru arau honetan edo besteren baten zein legeren batean edozein mailatako zabarkeriaz tipifikatuta eta zehatuta dauden doluzko edo erruzko ekintzak edo ez-betetzeak.

189. artikulua.- Zerga-zehapen motak.

1. Zergen arloko arau-hausteak diruzko zehapenak ezarriaz zigortuko dira eta, hala dagokionean, diruzko izaerarik ez duten zehapen osagarrien bidez ere bai.
2. Diruzko zehapenak isun finakoak edo proportziozkoak izan daitezke.

190. artikulua.- Zergen arloko arau-hausteen diruzkoak ez bestelako zehapenak.

1. [\(32\)](#) Arau hauste baten ondorioz jartzen den diruzko isuna 30.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean eta zehapena mailakatzeko irizpide gisa erabiltzen direnean foru arau honetako 191. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran jasotako irizpidea (zergen arloko arau hausteak behin eta berriro errepikatzea) eta, horrez gain, idatz zati bereko c) letran jasotakoa (iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jokatzeari), orduan zehapen osagarri hauek ere ezarri ahal izango dira:
 - a) Urtebetean edo bi urtean diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko eta eskabidezko zerga-onurak edo zerga-pizgarriak lortzeko aukera galtzea, arau bidez ezarritakoaren arabera.
 - b) Zehapena ezarri duen Herri Administrazioarekin urtebetean edo bi urtean kontratuak sinatzeko debekua, arau bidez zehaztutakoaren arabera.
2. [\(32\)](#) Arau hauste baten ondorioz jartzen den diruzko isuna 60.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean eta zehapena mailakatzeko irizpide gisa erabiltzen direnean foru arau honetako 191. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran jasotako irizpidea (zergen arloko arau hausteak behin eta berriro errepikatzea) eta, horrez gain, idatz zati bereko c) letran jasotakoa (iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jokatzeari), orduan zehapen osagarri hauek ere ezarri ahal izango dira:
 - a) Hiru, lau edo bost urtean diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko eta eskabidezko zerga-onurak edo zerga-pizgarriak lortzeko aukera galtzea (arau bidez ezarritako baldintzen arabera), zehapenaren zenbatekoa 60.000, 150.000 edo 300.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean, hurrenez hurren.
 - b) Zehapena ezarri duen Herri Administrazioarekin hiru, lau edo bost urtean kontratuak egiteko debekua (arau bidez zehaztutakoaren arabera), zehapenaren zenbatekoa 60.000, 150.000 edo 300.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean, hurrenez hurren.
3. Agintariak edo lanbide ofizialak dituzten pertsonak foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan ezarritako lankidetzaren betebeharrak ez betetzeagatik arau-hausteak betetzen dituztenean eta, betiere, aipatutako betebeharrari dagokionez, foru arau honetako 208. artikuluan aurreikusitako hiru betekizun bete ez direnean, dagokion diruzko zehapenaz gain, zehapen osagarri gisa, lanbide ofiziala, enplegua zein kargu publikoa hiru hilabetez etetea eskatu ahal izango da.

Etetea hamabi hilabetez izango da baldin eta subjektu arau-haustea aurreko paragrafoan aipatzen den zehapen osagarriaren bidez zigortua izan bada arau-haustea gauzatu aurreko lau urteetan, administrazio-bidean emandako ebazpen irmoaren arabera.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondoreetarako, lanbide ofizialtzat hartuko dira: jabetzaren erregistratzaileen, merkataritzakoen eta notarioen lanpostuak eta, funtzio publikoetan jardunez, foru erakundetan, Estatuan, Autonomia Erkidegoan, toki-entitateetan edo Zuzenbide Publikoko beste erakunde batzuetan zuzeneko ondasunik jasotzen ez dutenek betetzen dituzten lanpostuak.

4. [\(6\)](#) Foru arau honetako 207. artikuluko 3. idatz zatian aurreikusten den zehapena ezartzen denean, horrez gain aipatutako artikuluko 1. idatz zatian aurreikusten diren zehapen osagarriak ere ezarri ahal izango dira.

3. ATALA

DIRUZKO ZERGA-ZEHAPENEN ZENBATEKOAK

191. artikulua.- Zerga-zehapenak mailakatzeko irizpideak.

1. Zerga-zehapenak honako irizpideen arabera bakarrik mailakatuko dira, aplikagarriak diren heinean:

a) Zergen arloko arauak behin eta berriro haustea.

Egoera hau gertatu dela ulertuko da, subjektu arau-hauslea administrazio- bideko ebazpen irmo bidez izaera bereko beste arau-hauste bategatik zigortua izan denean, arau-haustea gauzatu aurreko lau urteren barruan.

Honela, bada, izaera bereko arau-haustetzat hartuko dira titulu honetako III. kapituluaren aurreikusten direnak. Hala ere, foru arau honetako 195., 196. eta 197. artikuluetan aurreikusten diren arau-hausteak ere izaera berekoak direla ulertuko da.

Horrelakoetan, gutxieneko zehapena %10 eta %30 artean gehituko da, arau bidez ezartzen diren baldintzen arabera.

Zehapena proportziozkoa ez bada, %100 eta %300 bitartean gehituko da, arau bidez ezartzen diren baldintzen arabera.

b) [\(32\)](#)

c) Iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jokatzeta.

Arau bidez ezarritakoaren arabera, iruzurtzat joko dira:

- kontabilitatean eta zergen arloko arautegiak ezartzen dituen liburuetan edo erregistroetan antzematen diren huts garrantzitsuak;
- faktura, egiaztagiri edo bestelako dokumentu faltsuak erabiltzea; baldin eta agiri edo euskarri faltsu nahiz desitxuratuaren intzidentzia zehapenaren oinarriaren %10etik gorakoa bada.

- subjektu arau-hausleak bitarteko pertsonak edo erakundeak erabiltzea, bere nortasuna ezkutuan mantentzeko asmoz, hirugarren baten izenean jartzen dituenen, bere baimenarekin edo berau gabe, ondasun eta eskubideen titulartasuna, errenta edo ondare irabaziak edo zehatu den arau-haustearen zerga-betebeharra ez betetzeagatiko zerga-eragiketen gauzatzea.

Horrelakoetan, gutxieneko zehapena %25 eta %100 artean gehituko da, arau bidez ezartzen diren baldintzen arabera.

- d) Interesdunak laguntza berezia ematea ikuskapen-jardunetan Zerga Administrazioak nekez lor ditzakeen datuak borondatez eskainiz eta, horrek, zerga-zorra gehitzea eraginez.

Arau-hauste batean inguruabar hori gertatzen bada, laguntza horren zioz gehitutako zenbatekoari ezarri behar zaion zehapenaren portzentajeari 10 eta 30 puntu arteko txikipena aplikatuko zaio, arau bidez ezarritako baldintzen arabera.

2. Mailakatze irizpideak aldi berean aplika daitezke. Mailakatzeko irizpideak aldi berean aplikatu arren zehapena ez da izango berorren zenbatekoa baino handiagoa, ezta egin den arau-haustearen gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa ere.

192. artikulua.- (23) Zehapenen murrizketa.

1. Ezartzen diren diru zehapenen zenbatekoa ehuneko 30 murriztuko da zergapekoak erregularizazioarekin eta zehapenarekin ados dagoela adierazten duenean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeaz gainera zergapekoak zerga zor osoa eta zehapena ordaintzen baditu foru arau honetako 61. artikuluan aipatzen den nork bere borondatez ordaintzeko epealdian, murrizketa ehuneko 50ekoa izango da. Honelako kasuetan ezin eskatu izango da ordainketa geroratzeko ez zatikatzeko.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoaren arabera egindako murrizketaren zenbatekoa interesdunari jakinarazpena egin ondoren eskatuko da, erregularizazioaren edota zehapenaren aurka errekurtsioa nahiz erreklamazioa jartzen denean.

Baldin eta, aurreko idatz zatiko lehenengo paragrafoan xedatutakoa beteta, ordaindu beharreko guztia ordaintzen ez bada, bai zerga zorra, bai zehapena, aurreko idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarri den bezala, aplikatutako murrizketa eskatuko da, hau da, bidezko diru zehapenaren ehuneko 20, eta horretarako izapide bakarra interesdunari jakinaraztea izango da.

3. Artikulu honetako 2. idatz zatiko lehenengo paragrafoan xedatutakoaren arabera murrizketaren zenbatekoa eskatzen bada, ez da beharrezkoa izango egintza horren aurkako errekurtsorik jartzea, baldin eta aurretik murriztutako zehapenaren aurka errekurtsio edo erreklamazio bat jarri bada.

Murriztutako zehapenaren aurka errekurtsio edo erreklamazioen bat jartzen denean, errekurtsoko zenbatekoa zehapenaren zenbateko osoa izango dela ulertuko da eta errekurtsio edo erreklamazio horretatik eratorritako ondore etenarazleak eskatzen den murrizketari ere aplikatuko zaizkio.

4. Administrazio bideko zerga edota zehapena, errekurtoa edo erreklamazioa erregularizatzeko proposamenari alegazioak aurkeztu bazaizkio eta, ondorioz, zergapekoaren eskaria osorik onartzen bada, ezarri beharreko zehapenetan artikulua honetako lehenengo idatz zatian aipatzen den murrizketa egin behar dela ulertuko da.

4. ATALA

ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNA AZKENTZEA

193. artikulua.- Zergen arloko arau-hausteen ondoriozko erantzukizuna azkentzea.

1. Zergen arloko arau-hausteen ondoriozko erantzukizuna subjektu arau-hauslea hiltzen denean eta zehapenak jartzeko preskripzio-epea amaitzen denean azkenduko da.
2. [\(20\)](#) Zerga zehapenak ezartzeko preskripzio epea bost urtekoa izango da, eta arau haustea egiten denetik hasiko da zenbatzen.
3. Zerga-zehapenak ezartzeko preskripzio-epea honako kasuetan etengo da:

- a) Zerga Administrazioak, interesdunari jakinarazita, zerga-zehapena ezartzeko ekintza bat egiten duenean.

Zergapekoaren zerga-egoera erregularizatzeko gauzatzen diren administrazio-egintzek erregularizazio horien ondorioz sor daitezkeen zerga-zehapenak ezartzeko preskripzio-epea etengo dute.

- b) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen denean; Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean; jurisdikzio penalari erruduntasun-testigantza bidaltzen zaionean edo Fiskaltzari salaketa aurkezten zaionean; prozedura horietan, zergapekoari formalki jakinarazita, jarduketak egiten direnean.

Preskripzio-epea ez da etentzat joko etenaldia edozein motatako errekurto edo erreklamazioak aurkeztearen ondorioz eragin denean edo errekurto eta erreklamazio horiek bere osotasunean onartuak izan direnean, eurak jarri diren administrazio-egintzaren elementuak osorik deuseztatuz.

[\(29\)](#) Era berean, honako foru arau honetako 67. artikuluko 11. idatz zatian xedatutakoa aplikagarria izango da, Zerga administrazioak zerga zehapenak ezartzeko ahalmena egikaritzeari dagokionez.

4. Zerga Administrazioak ofizioz aplikatuko du preskripzioa, eta ez da beharrezkoa izango interesdunak eskatzea.

194. artikulua.- Zerga-zehapenak azkentzea.

1. Zerga-zehapenak kasu hauetan azkenduko dira: ordaintzen direnean; ordainketa eskatzeko eskubidea preskribitzen denean; konpentsatzen direnean; barkatzen direnean; ordaindu behar duena hiltzen denean.
2. Zerga-zehapenei foru arau honetako II. tituluko IV. kapituluan xedatzen dena aplikatu ahal izango zaie, bai eta III. tituluko V. kapituluko arauak ere.
3. (29) Zerga zehapenak foru arau bidez bakarrik barka daitezke, bertan ezarritako betekizunak eta zenbatekoa aintzat harturik.
4. Foru arau honen ondoreetarako, bidegabe ordaintzen diren zerga-zehapenak bidegabeko sarrerak izango dira.

III. KAPITULUA

ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

195. artikulua.- (32) Autolikidazio baten ondoriozko zerga zorra ez ordaintzeagatiko arau haustea.

1. Zergen arloko arau haustea izango da autolikidazioa behar bezala egitearen ondoriozko zerga zor osoa edo horren zati bat ez ordaintzea zerga bakoitzaren araudian ezarritako epearen barruan, salbu eta foru arau honetako 27. artikuluan xedatutakoaren arabera hura erregularizatzen denean edo foru arau honetako 165. artikuluko 1. idatz zatiko b) letra aplikatu ahal denean, aurretiazko errekerimendurik egin gabe.

Zergen arloko arau haustea izango da, halaber, errenten eratxikipenean erakundeek eman ez dituzten edo oker eman dituzten zenbatekoen ondorioz bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideek ordaindu beharreko zerga zor osoa edo horren zati bat ez ordaintzea.

2. Zehapenaren oinarria arauren bat haustearen ondorioz autolikidazioan ordaindu ez den zenbatekoa izango da.
3. Zergen arloko arau hauste horrengatiko zehapena, ehuneko 50etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da, daturik ezkutatzen ez bada.

Hala ere, atxikitako zenbatekoen, egindako konturako sarreraren edo jasanarazitako zergen ordainketa ez egitearen ondorioz sortu bada arau haustea, zehapenaren zenbatekoa zehapenaren oinarriaren ehuneko 75 eta ehuneko 150 artekoa izango da, daturik ezkutatatu ez bada.

4. Zergen arloko arau hauste horrengatiko zehapena ehuneko 100etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da datuak ezkutatatu badira.

Hala ere, atxikitako zenbatekoen, egindako konturako sarreraren edo jasanarazitako zergen ordainketa ez egitearen ondorioz sortu bada arau haustea, zehapenaren

zenbatekoa zehapenaren oinarriaren ehuneko 125 eta ehuneko 150 artekoa izango da.

5. Zerga Administrazioari datuak ezkutatu zaizkiola pentsatuko da autolikidaziorik aurkeztzen ez denean, benetakoak ez diren egitateak edo eragiketak edo zenbateko faltsuak dituztenak agertzen dituzten autolikidazioak aurkeztzen direnean, edo eragiketa, sarrera, errenta, produktu, ondasun edo zerga zorraren zenbatekoan eragina duen daturen bat falta duten aitortenak, baldin eta datuak ezkutatzeak zorrean duen eragina zehapenaren oinarriaren ehuneko 10 baino gehiago bada.
6. Zergapekoak berari ez zegokion itzulketa bat jaso badu eta gauzatutako erregularizazioaren ondorioz artikulua honetan araututako zehapenen bat ezartzen bazaio, ordaindu ez den zenbatekoa oker lortutako zenbatekoari autolikidazioan ordaindu beharko zen zenbateko osoa gehitzearen emaitza dela ulertuko da.

Horrelakoetan, foru arau honetako 197. artikulua aipatzen duen itzulketa oker eskuratzeari buruzko arau hausteari ez zaio zehapenik aplikatuko.

7. Aurreko idatz zatietan xedatutakoa hala bada ere, ehuneko 30eko portzentajeaz zigortuko da zergapekoak geroago aurkeztutako autolikidazioan sartu edo erregularizatu dituen zergak edo konturako ordainketak epe barruan ordaindu ez izana, foru arau honek 27. artikuluko 4. idatz zatian aurretiazko errekerimendurik gabeko garaiz kanpoko aitortenagatiko errekaraguen aplikazioari buruz jaso dituen baldintzak bete gabe.

Idatz zati honetan ezarritakoa ez da aplikatuko aurkeztu den autolikidazioan Zerga Administrazioaren aurretiazko errekerimendua jakinarazia duten kontzeptuei eta zergaldiei dagozkien sarrerak daudenean.

196. artikulua.- (32) Likidazioak egiteko beharrezkoak diren aitortenak edo agiriak osorik eta modu egokian aurkezteko betebeharra ez betetzeagatiko arau haustea.

1. Zergen arloko arau haustea da autolikidazio prozeduraren bidez eskatzen ez diren zergak behar bezala likidatzeko Zerga Administrazioak behar dituen aitorten edo agiriak osorik eta zuzen aurkeztu beharra ez betetzea, salbuespen honekin: foru arau honetako 27. artikuluan ezarritakoaren arabera erregularizatzea.
2. Aitorpena aurkeztzen ez bada, zehapenaren oinarria likidazioaren zenbatekoa izango da, edo zergaren likidazio egokiaren eta aitortutako datuen bidez egindakoaren arteko aldea.
3. Zergen arloko arau hauste horrengatiko zehapena, ehuneko 50etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da, daturik ezkutatzen ez bada.

Zergen arloko arau hauste horrengatiko zehapena ehuneko 100etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da datuak ezkutatu badira.

4. Zerga Administrazioari datuak ezkutatu zaizkiola pentsatuko da aitortenik aurkeztzen ez denean, benetakoak ez diren egitateak edo eragiketak edo zenbateko faltsuak dituztenak agertzen dituzten aitortenak aurkeztzen direnean, edo eragiketa, sarrera, errenta, produktu, ondasun edo zerga zorraren zenbatekoan eragina duen daturen bat

falta duten aitorpenak, baldin eta datuak ezkutatzeak zorrean duen eragina zehapenaren oinarriaren ehuneko 10 baino gehiago bada.

197. artikulua.- (32) Itzulketak bidegabeki lortzearengatiko arau haustea.

1. Zerga bakoitzaren araudiaren ondoriozko itzulketak bidegabeki eskuratzea arau haustea da.
2. Zehapenaren oinarria, arau haustea egitearen ondorioz bidegabeki itzultako zenbatekoa izango da.
3. Zergen arloko arau hauste horrengatiko zehapena, ehuneko 50etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da, daturik ezkutatzen ez bada.

Zergen arloko arau hauste horrengatiko zehapena ehuneko 100etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da datuak ezkutatatu badira.

4. Zerga Administrazioari datuak ezkutatatu zaizkiola pentsatuko da autolikidaziorik aurkezten ez denean, benetakoak ez diren egitateak edo eragiketak edo zenbateko faltsuak dituztenak agertzen dituzten autolikidazioak aurkezten direnean, edo eragiketa, sarrera, errenta, produktu, ondasun edo zerga zorraren zenbatekoan eragina duen daturen bat falta duten aitorpenak, baldin eta datuak ezkutatzeak zorrean duen eragina zehapenaren oinarriaren ehuneko 10 baino gehiago bada.

198. artikulua.- Zergen arloko itzulketak, onurak edo pizgarriak bidegabe eskatzeagatiko arau-haustea.

1. Zerga bakoitzaren arautegiaren ondoriozko itzulketak bidegabe eskatzea arau-haustea da, horretarako datu garrantzitsuak omititzen badira edo autolikidazio zein aitorpenetan datu faltsuak ematen badira, azkenean itzulketarik lortu gabe.

Zehapenaren oinarria, bidegabe eskatutako zenbatekoa izango da.

Zehapena, %15eko diruzko isun proportzionala izango da.

2. Era berean, arau-haustea izango da, zergen arloko onurak edo pizgarriak eskatzea horretarako garrantzitsuak diren datuak omitituz edo autolikidazio zein aitorpenetan datu faltsuak sartuz; baldin eta jokabide horren ondorioz subjektu berberari ezin bazaio jarri foru arau honetako 195., 196. edo 199. artikuluan edo artikulua honetako lehenengo idatz-zatian aurreikusten den arau-hausteengatiko zehapenik.

Idatz-zati honetan aurreikusitako zergen arloko arau-haustea 300 euroko isun finkoaz zehatuko da.

199. artikulua.- Partida positibo edo negatiboak zein itxurazko zerga-kredituak bidegabe zehaztu edo egiaztatzeagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da, partida positibo edo negatiboak zein zerga-kredituak bidegabe zehaztu edo egiaztatzea, norberaren edo hirugarrengoen bihar-etziko aitorpenetan horiek konpentsatzeko edo kentzeko asmoarekin.

Arau-hauste honen aurrean egongo gara, halaber, zergaldi bateko errenta garbia, jasanarazitako kuotak, kendu beharreko zenbatekoak edo kuotak edo zerga-pizgarriak bidegabe aitortzen direnean, eta ez denean sarreren gabeziarik ez itzulketen bidegabeko jasotzerik gertatu konpentsatu, kendu edo aplikatu beharreko zenbatekoak kudeaketa prozedura bidez edo ikuskapen prozedura bidez konpentsatu direlako.

2. Zehapenaren oinarria, bidegabe zehaztu edo egiaztatu diren zenbatekoei dagokiena izango da. Aurreko idatz-zatiko bigarren paragrafoan aurreikusitako kasuan, bidegabe zehaztu edo egiaztatu den zenbatekoa zergaldian zehar eman den errenta garbiaren edo jasanarazitako zenbateko edo kuoten gehikuntza dela, edo aitzitik, kendu beharreko zenbateko edo kuoten gutxipena edo zerga-pizgarriena dela ulertuko da.
3. Zerga-oinarrian konpentsatu edo kendu beharreko partiden kasuan zehapena %10eko diruzko isun proportzionala izango da, baina kuotan edo itxurazko zerga-kredituetan kendu beharreko partiden kasuan zehapena %30ekoa izango da.
4. Artikulu honetan aurreikusten denaren arabera ezarritako zehapenak proportzionalki kentzeko modukoak izango dira, subjektu arau-haustele berberak arestian aipatutako kontzeptuak konpentsatu edo kentzearen ondorioz geroago egiten dituen arau-hausteetan. Nolanahi ere, kendu beharreko zenbatekoa ezin izango da arau-hauste horiei dagokien zehapena baino handiagoa izan.

200. artikulua.- Errenten egozketaren erregimenari lotuta dauden erakundeek zerga-oinarriak, errentak edo emaitzak bidegabe egozteagatiko edo ez egozteagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da, errenten egozketaren erregimenari lotuta dauden erakundeek euren bazkide edo kideei zerga-oinarriak edo emaitzak bidegabe egozte edo ez egozte. Ekintza edo ez-betetze hori ez da arau-haustetzat hartuko, foru arau honetako 195., 196. edo 197. artikuluetan aipatutako arau-haustek gauzatzearen ondorioz errenten egozketaren erregimenari lotuta dagoen erakundeari zehapena jartzea eragin duen oinarri edo emaitzei dagokienez.
2. Zehapenaren oinarria egotzi ez diren zenbatekoei dagokiena izango da. Bidegabe egotzitako zenbatekoen kasuan, zehapenaren oinarria izango da kopuru positibodun diferentziak gehitzean lortutako zenbatekoa (kopuru negatiboak konpentsatu gabe) bazkide edo kide bakoitzari egotzi beharko litzaiokeen eta beraietariko bakoitzari egotzi zitzaionaren artean.
3. Zehapena, %40ko diruzko isun proportzionala izango da.

201. artikulua.- Errenten egozketaren erregimenari lotuta dauden erakundeek kenkariak, hobariak eta konturako sarrerak bidegabe egozteagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da errenten egozketaren erregimenari lotuta dauden erakundeek euren bazkide edo kideei kenkariak, hobariak eta konturako sarrerak bidegabe egozteak. Ez da arau-haustetzat hartuko, bazkide edo partaideei bidegabe egotzitako zenbatekoei dagokienez foru arau honetako 195., 196. edo 197. artikuluetan aipatutako arau-haustek gauzatzearen ondorioz errenten egozketaren erregimenari lotuta dagoen erakundeari zehapena jartzea eragin duen ekintza.
2. Zehapenaren oinarria izango da kopuru positibodun diferentziak gehitzean lortutako zenbatekoa (kopuru negatiboak konpentsatu gabe) bazkide edo kide bakoitzari egotzi beharko litzaiokeen eta beraietariko bakoitzari egotzi zitzaionaren artean.
3. Zehapena, %75eko diruzko isun proportzionala izango da.

202. artikulua.- Autolikidazioak eta aitorpenak epean ez aurkezteagatiko, nahiz eta kalte ekonomikorik ez ekarri, edo egoitza fiskala zein den ez esateagatiko arau-haustea.

1. Autolikidazioak edo aitorpenak epez kanpo aurkeztea zergen arloko arau-haustea da, betiere Herri Ogasunari kalte ekonomikorik egin ez bazaio edo egingo ez bazaio.

Hona hemen jarriko den zehapena:

- a) Oro har, 200 euroko isun finkoa.
 - b) Zentsu-aitorpenetan edo, arautegiak hala ezartzen duenean, pertsona zein erakundeen ordezkarien izendapenak jakinarazteari buruzko aitorpenetan, 400 euroko isun finkoa jarriko da.
 - c) Foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan jasotzen den informazioa emateko betebeharra betetzeko oro har eskatzen diren aitorpenetan 20 euroko isun finkoa jarriko da aitorpenean pertsona edo erakunde bati buruz eman beharreko datu edo datu-multzo bakoitzeko. Isuna, gutxienez 300 eurokoa izango da eta gehienez 20.000 eurokoa.
2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, autolikidazioak edo aitorpenak epez kanpo aurkezten badira Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin gabe, zehapena eta gutxieneko eta gehieneko mugak aurreko idatz-zatian aurreikusitakoan erdia izango dira.

Autolikidazioak edo aitorpenak epe barruan aurkeztu badira baina osatugabe, zehaztasunik gabe edo datu faltsuekin eta, ondoren, epez kanpo (aurretiazko errekerimendurik gabe) autolikidazio edo aitorpen osagarria nahiz ordezkaria aurkeztu bada, ez dira foru arau honetako 198. eta 203. artikuluan epe barruan aurkeztutako autolikidazio edo aitorpenen gainean aipatzen duen arau-haustek emango. Horrenbestez, idatz-zati honek epez kanpo aitortutakoaren kasurako ezartzen duen zehapena jarriko da.

3. Errekerimenduak egin badira, artikuluko honetako 1. idatz-zatian aipatzen den zehapena foru arau honetako 208. artikuluan Zerga Administrazioak errekerimenduei kasurik ez egitearren burututako jardunei jarkitzeagatik, uko egiteagatik, oztopatzeagatik edo aitzakiak jartzeagatik ezartzen denarekin bateragarria izango da.
4. Egoitza fiskalaren berri ez ematea edo jarduera ekonomikoak gauzatzen ez dituzten pertsona fisikoek egoitza fiskala aldatu dutela ez jakinaraztea ere arau-haustea dira.

Zehapena 100 euroko isun finkoa izango da.

203. artikulua.- Autolikidazioak edo aitorpenak bidegabe aurkezteagatiko, nahiz eta kalte ekonomikorik ez ekarri, edo informazioa jasotzeko banako errekerimenduen erantzunak bidegabe aurkezteagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da autolikidazioak edo aitorpenak osatugabe, zehaztasunik gabe edo datu faltsuekin aurkeztea (horrela Herri Ogasunari kalte ekonomikorik egin ez bazaio edo egingo ez bazaio) edo informazioa jasotzeko banako errekerimenduen erantzunak modu berean aurkeztea.
2. Hona hemen jarriko den zehapena:
 - a) Oro har, autolikidazio edo aitorpen osatugabeak, zehaztasunik gabekoak edo datu faltsudunak aurkezten badira 150 euroko isun finkoa jarriko da.
 - b) Zentsu-aitorpen osatugabeak, zehaztasunik gabekoak edo datu faltsudunak aurkezten badira 250 euroko isun finkoa jarriko da.
 - c) Banako errekerimenduen edo, foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan jasotzen den informazioa emateko betebeharra betetzeko oro har eskatzen diren aitorpenen kasuan, diru-kopuruei buruzko daturik ez dutenean eta osatugabe, zehaztugabe edo datu faltsuekin aurkeztu badira 200 euroko isun finkoa jarriko da aipatu ez den, zuzen azaldu ez den edo faltsua den pertsona nahiz erakunderen bati buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko.

Diru-kopuruei buruzko datuak eman direnetan, aitortu ez diren edo bidegabe aitortu diren eragiketen zenbatekoaren %2rainoko diruzko isun proportzionala izango du zehapenak. Gutxienez, 500 eurokoa izango da gainera.

Arau bidez zehaztuko da, ezarritako mugen barruan, kasu bakoitzean aplikatu behar den zehapena; betiere, aitortu ez diren edo oker aitortu diren eragiketek benetan aitortu behar zirenen aldean suposatzen duten portzentajearen arabera.

204. artikulua.- (23) Autolikidazioak edo aitorpenak horretarako onetsitako ereduaren arabera, ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian edo telematikoki aurkezteko betebeharra ez betetzeagatiko arau haustea.

1. (29) Zergen arloko arau haustea da autolikidazioak edo aitorpenak aurkezterakoan Zerga administrazioak kasu bakoitzean onetsi eta argitaratzen duen eredia ez, beste bat erabiltzea.

Zehapena 100 euroko isun finkoa izango da.

2. (29) Halaber, zergen arloko arau haustea da autolikidazioa edo aitorpena baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoki bidez ez aurkeztea, nahitaez bide horiek erabiliz aurkeztu behar izanez gero.

Arau hauste horren ziozko zehapena 1.500 euroko isun finkoa izango da.

3. Hala ere, foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan arautzen den informazioa eman beharra betetzeko modu orokorrean eskatzen diren aitorpenen kasuan, autolikidazioa edo aitorpena aurkezteko Zerga Administrazioak kasu bakoitzerako onetsi eta argitaratutako ereduak ez beste bat erabiltzen bada, artikuluko honetako lehenengo idatz zatian xedatutakoaren arabera ezarritako zehapenaren zenbatekoa ehuneko 100 gehituko da.

Foru arau honetako 90. eta 91. artikuluetan arautzen den informazioa eman beharra betetzeko banako errekerimenduen edo modu orokorrean eskatzen diren aitorpenen kasuan, aitorpena baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoki bidez aurkezten ez bada, nahitaez beharrezkoa izanik, zehapena 100 eurokoa izango da pertsona edo erakunde bakoitzari buruzko datu edo datu multzo bakoitzagatik (1.500 euro gutxienez).

Aitorpena baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoki bidez aurkeztu behar bada eta beste batzuen bidez aurkezten bada eta aitorpeneko datuak diru kopuruak badira, zehapena aitortutako eragiketen zenbatekoaren ehuneko 1 izango da (1.500 euro gutxienez).

Arau bidez zehaztuko da, ezarritako mugen barruan, kasu bakoitzean aplikatu behar den zehapena; betiere, aitortu ez diren edo oker aitortu diren eragiketek benetan aitortu behar zirenen aldean suposatzen duten portzentajearen arabera.

205. artikulua.- Kontabilitate eta erregistro betebeharrak ez betetzeagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da, kontabilitate eta erregistro betebeharrak ez betetzea.

2. Hona hemen jarriko den zehapena:

a) Oro har, 150 euroko isun finkoa.

b) Kontabilitatean edo zergen arloko arauak eskatutako liburu eta erregistroetan eragiketak oker ematen badira edo ematen ez badira, kontuak benetan duten esanahiaren orde bere izaerarekin bat ez datorren beste batekin erabiltzen badira eta, ondorioz, zergapekoaren egoera egiaztatzeko trabak jartzen badira, aipatu ez diren, oker azaldu diren, faltsuak diren edo eurekin bat ez datorren esanahidun kontuetan jaso diren kargu, abonu edo idaztoharren %1eko diruzko isun proportzionala jarriko da. Isuna, gutxienez, 150 eurokoa izango da eta gehienez 6.000 eurokoa.

c) (29) Zerga arloko arauak ezarritako kontabilitatea, liburuak eta erregistroak jaso edo gordetzeko betebeharra urratzearen zioz, diruzko isun proportzionala ezarriko da, subjektu arau hauslearen negozio bolumenaren ehuneko batekoa, arau haustea egin

deneko ekitaldian, gutxienez, 600 eurokoa. Zergaldi hori egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumenari dagokion tamaina urtekotu egingo da.

Aurreko paragrafoan adierazitako kontabilitate, liburu eta erregistroen euskarritzat baliatzen diren programa eta fitxategi informatikoak gordetzeko betebeharra edo erabilitako kodetze sistemak gordetzeko betebeharra urratzen denean, diruzko isun proportzionala ezarriko da, subjektu arau hauslearen negozio bolumenaren ehuneko hogeikoa, arau haustea egin deneko ekitaldian, gutxienez, 30.000 eurokoa. Zergaldi hori egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumenari dagokion tamaina urtekotu egingo da.

[\(39\)](#)

[\(39\)](#)

- d) [\(29\)](#) Jardun eta ekitaldi ekonomiko bakarrarentzat kontabilitate desberdinak eramaten badira, zergapekoaren benetako egoera zein den ezagutzea oztopatzen delarik, diruzko isun finkoa ezarriko da, 5.000 eurokoa, kontuak eramateak eragiten dion ekitaldi ekonomiko bakoitzeko. Arau-hauste hori berriz egiteak diru-isuna bikoiztea ekarriko du.
- e) Kontabilitateak eta zergen arloko arauak zehaztutako liburuek eta erregistroek lau hilabete baino gehiagoko atzerapena badute, 300 euroko isun finkoa jarriko da.
- f) Administrazioak eginbidetu edo gaitu ez dituen edo epea kanpo eginbidetu edo gaitu dituen liburuek eta erregistroak erabiltzen badira, 300 euroko isun finkoa jarriko da, zergen arloko arautegiak horrela ezartzen duenean.
- g) [\(29\)](#) [\(39\)](#) Erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan, erregistroak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan hornitzen ez badira eta ondorioz erregistro liburuek kudeatzeko betebeharrean atzerapenagertatzen bada, diruzko isun proportzionala ezarriko da, erregistroaren xede den eragiketaren fakturaren edo frogagiriaren (elektronikoa zein paperezkoa) zenbatekoaren ehuneko 0,5ekoa (gutxienez 300 euro hiruhilekoan eta gehienez 6.000 euro).

206. artikulua.- [\(23\)](#) Fakturazio edo dokumentazio betebeharrak ez betetzeagatiko arau-haustea.

1. Fakturazio betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-haustea da.
2. Hona hemen jarriko den zehapena:
 - a) Fakturatzeko betebeharra arautzen duen arautegian ezarritako betekizunak betetzen ez badira (besteak beste, fakturak edo ordezkoko dokumentuak egin, igorri, zuzendu eta kontserbatzeari buruzkoak), arau-haustea sortu duten eragiketen zenbateko osoaren ehuneko 1eko diruzko isun proportzionala jarriko da. Hala ere, salbuespen izango da idatz-zati honetako hurrengo letretan xedatzen dena.
 - b) [\(29\)](#) [\(39\)](#) Fakturak edo frogagiriak egin, bidali edo ematen ez badira, edo gordetzen ez badira, diruzko isun proportzionala ezarriko da, arau haustea sorrarazi duten eragiketen zenbateko osoaren ehuneko bikoia. Arau hausteari

dagozkion eragiketen zenbatekoa zein den ezin jakin daitekeenean, zehapena 600 eurokoa izango da faktura edo dokumentua egin edo gorde ez den eragiketa bakoitzeko.

Zerga administrazioak egiaztatzen badu faktura egokia egin, bidali edo eman ez dela, eta inguruabar hori artean bukatu ez den zergaldi batean egiaztatzen badu, 600 euroko isuna ezarriko da faktura egin, bidali edo eman ez den eragiketa bakoitzeko.

- c) Fakturak edo ordezeko dokumentuak datu faltsuekin edo desitxuratuekin egin badira, arau-haustea sortu duten eragiketen zenbateko osoaren ehuneko 100eko diruzko isun proportzionala jarriko da.

Ez-betetzeak fakturatzeko betebeharrean dauden eragiketen zenbatekoen ehuneko 20 baino gehiagori eragiten badio (zerga edo zerga betebeharrak eta egiaztapen edo ikuskarpen aldiari dagokionez), edo ez-betetze horren ondorioz Zerga Administrazioak ezin duenean jakin zein diren fakturatzeko betebeharrean dauden zenbatekoak, zehapena ehuneko ehunetan gehituko da.

3. Arau-haustea izango da, halaber, zerga berezien arautegiak zirkulazio-dokumentuen luzapen eta erabilera egokiaren inguruan agintzen dituen betebeharrak ez betetzea.

Zehapena, 300 euroko isun finkoa izango da oker egin edo erabili den dokumentu bakoitzeko. Ez-betetzeak egiaztapen edo ikuskarpen aldiaren egin edo erabilitako zirkulazio-dokumentuen ehuneko 20 baino gehiagori eragiten badio, zehapenak ezartzen duen zenbatekoa ehuneko ehunetan betebeharra. Hala ere, betebeharrak horiek ez betetzeak zerga horien arautegian tipifikatutako ez-betetzea dakarrenean, bertan ezarritako zehapena betebeharrak.

207. artikulua.- (23) Identifikazio fiskaleko zenbakia, ondasun higiezinaren katastro-erreferentzia edo bestelako zenbaki edo kodeak eskatzeko eta erabiltzeko betebeharrak ez betetzeagatik arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea izango da, identifikazio fiskaleko zenbakia, ondasun higiezinaren katastro-erreferentzia edo zergen arautegiak ezartzen dituen bestelako zenbaki edo kodeak erabiltzeko betebeharrak ez betetzea.

2. Hona hemen jarriko den zehapena:

a) Oro har, 300 euroko isun finkoa.

b) Modu berezian kreditu-erakundeei dagozkien ez-betetzeei dagokionez, hau da, kontu edo eragiketetan identifikazio fiskaleko zenbakia erabiltzeari dagokionez, oker abonatu edo kargatu diren zenbatekoen, eragiketaren zenbatekoaren edo kantzela beharrekotako gordailu edo eragiketaren ehuneko 5eko diruzko isun proportzionala jarriko da. Gutxienez 2.000 euroko isuna jarriko da. Ez-betetzea eramaile-txekearen librantzaren edo abonuaren ingurukoa bada, isuna efektuaren ageriko balioaren ehuneko 5ekoa izango da. Gutxienez 2.000 euroko isuna jarriko da.

3. Halaber, zerga arau-haustetat joko da zerga identifikazio zenbakiaren eskaera datuak faltsutu edo desitxuratzeko. Zehapena 60.000 euroko diruzko isun finkoa izango da.

208. artikulua.- (23) Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzeagatiko, oztopatzeagatiko, aitzakiak jartzeagatiko edo ezetza emateagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzea, oztopatzea, aitzakiak jartzea edo ezetza ematea. Egoera hau gertatu dela ulertuko da arau-hausleak, jakinaren gainean egon arren, Zerga Administrazioak bere betebeharrak betetzeari dagokionez egiten dituen jarduketak denboran luzatu, eragotzi edo galarazten dituenen. Beste batzuen artean Zerga Administrazioaren aurkako jarkitze, oztopo, aitzakia eta uko egite izango dira honako jokabideak:
 - a) Dokumentuen, txostenen, aurrekarien, liburuen, erregistroen, fitxategien, fakturen, egiaztagiri eta kontabilitate orokor zein osagarriko idazpenen, informatika programa eta artxiboen, sistema operatibo zein kontrolen eta zergen esparruan garrantzizkoa den beste edozein daturen azterketa ez erraztea.
 - b) Behar bezala jakinarazitako errekerimenduren bat ez erantzutea.
 - c) Zehaztutako leku eta epean ez bertaratzea, bidezko arrazoren bat frogatzen ez bada.
 - d) Zerga Administrazioako funtzionarioei ez uztea: finka edo lokaletan sartzen edo bertan egoten, ez eta lokal, makina eta zerga betebeharrekin lotutako ustiapenen ikuskapena egiten ere.
 - e) Zerga Administrazioako funtzionarioak hertsatzea.
 - f) Zerga-billetaz arduratzen diren organoek egindako enbargo-eginbideak ez betetzea edo oker betetzea.
2. Zehapena 300 euroko isun finkoa izango da, artikulua honetako hurrengo idatz-zatietan xedatutakoa ezarri daitekeenean izan ezik.
3. Zerga Administrazioaren aurkako jarkitzeak, oztopoak, aitzakiak edo uko egiteak errekerimenduak horretarako emandako epeetan ez betetzea dakartenean, zehapena, zenbateko finkodun isuna izango da:
 - a) 300 euro, errekerimendua lehen aldiz bete ez denean.
 - b) 600 euro, errekerimendua bigarren aldiz bete ez denean.
 - c) 1.200 euro, errekerimendua hirugarren aldiz bete ez denean.
4. Zerga Administrazioaren aurkako jarkitzea, oztopoa, aitzakia edo uko egitea pertsona fisikoek edo erakundeek gauzatutako jarduera ekonomikoei dagokienean, zehapena jarraian zehazten denetako bat izango da:
 - a) 600 euroko diruzko isun finkoa, ez baldin bada bertaratzen edo administrazio-jarduketa nahiz eskatutako informazioa ez bada horretarako jakinarazitako lehenengo errekerimenduaren epean ematen.

b) 3.000 euroko diruzko isun finkoa, ez baldin bada bertaratzen edo administrazio-jarduketa nahiz eskatutako informazioa ez bada horretarako jakinarazitako bigarren errekerimenduaren epean ematen.

c) Arau-haustea gertatu denean aitorpenerako amaitu den azken zergaldian arau-hausleak zuen negozio kopuruaren ehuneko 2rainoko diruzko isun proportzionala (gutxienez 10.000 euro eta gehienez 400.000 euro); hau gertatuko da, ez baldin bada bertaratzen edo administrazio-jarduna nahiz eskatutako informazioa ez bada horretarako jakinarazitako hirugarren errekerimenduaren epean ematen. Zergaldi hori egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, negozio-zifrari dagokion kopurua urtebetera igoko da.

5. Lehenengo idatz zatiko a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren arau hausteetako bat egiten duen zergapekoa ikuskapen prozedura batean badago, honela ezarriko zaio zehapena:

a) Arau haustea egin duen pertsonak edo erakundeak ez badu egiten jarduera ekonomikorik:

1. 1.000 euroko isun finkoa, baldin eta berariaz jakinarazitako lehenengo errekerimenduan finkatutako epealdian bertaratzen ez bada, administrazio jarduketa onartzen ez badu edo eskatutako informazioa ematen ez badu.

2. 5.000 euroko isun finkoa, baldin eta berariaz jakinarazitako bigarren errekerimenduan finkatutako epealdian bertaratzen ez bada, administrazio jarduketa onartzen ez badu edo eskatutako informazioa ematen ez badu.

3. Jakinarazten zaion hirugarren errekerimenduan finkatutako epealdian bertaratzen ez bada, administrazio jarduketa onartzen ez badu edo eskatutako informazioa ematen ez badu, zehapenaren zenbatekoa haxe izango da.

- Arau haustea diru kopuru ezagunekin egin bada, isun proportzionala ezarriko da, hain zuzen ere eskatu arren erantzun gabe utzitako eragiketen zenbatekoaren erdia (10.000 euro gutxienez eta 100.000 gehienez).

- Arau haustea ez bada egin diru kopuruekin, edo eskatutako eragiketen zenbatekoa ezezaguna bada, isun proportzionala ezarriko da, hain zuzen ere arau haustea egin denean aitorpena aurkezteko epealdia amaituta eduki duen azken zergaldian arau hausleak eduki duen errentaren gaineko kargaren zerga oinarriaren ehuneko 0,5 (10.000 euro gutxienez eta 100.000 gehienez).

b) Arau haustea egin duen pertsonak edo erakundeak jarduera ekonomikoa egiten badu:

1. Oro har, isun proportzionala ezarriko da, hain zuzen ere arau haustea egin denean aitorpena aurkezteko epealdia amaituta eduki duen azken zergaldiko negozio kopuruaren ehuneko 2 (20.000 euro gutxienez eta 600.000 gehienez).

2. Arau haustea ezinbesteko datu, txosten, aurrerakin, agiri, faktura edo bestelako frogagiriren bat ez aurkeztea izan bada.

a) 3.000 euroko isun finkoa, baldin eta berariaz jakinarazitako lehenengo errekerimenduan finkatutako epealdian bertaratzen ez bada edo eskatutako informazioa ematen ez badu.

b) 15.000 euroko isun finkoa, baldin eta berariaz jakinarazitako bigarren errekerimenduan finkatutako epealdian bertaratzen ez bada edo eskatutako informazioa ematen ez badu.

c) Jakinarazten zaion hirugarren errekerimenduan finkatutako epealdian bertaratzen ez bada edo eskatutako informazioa ematen ez badu, zehapenaren zenbatekoa hauxe izango da:

- Arau haustea diru kopuru ezagunekin egin bada, isun proportzionala ezarriko da, hain zuzen ere eskatu arren erantzun gabe utzitako eragiketen zenbatekoaren erdia (20.000 euro gutxienez eta 600.000 gehienez).

- Arau haustea ez bada egin diru kopuruekin, edo eskatutako eragiketen zenbatekoa ezezaguna bada, zehapenaren zenbatekoa arau haustea egin denean aitortpena aurkezteko epealdia amaituta eduki duen azken zergaldiko negozio kopuruaren ehuneko 1 izango da (20.000 euro gutxienez eta 600.000 gehienez).

Idatz zati honetan aipatzen diren kasu guztietan, zergapekoak administrazioaren errekerimendua oso-osorik betetzen badu zehapen prozedura amaitu baino lehen (edo ikuskapen prozedurako entzunaldiaren izapidea amaitu baino lehen, aurrekoa bada), zehapenaren zenbatekoa lehen aipatutako zenbatekoen erdia izango da.

6. Zerga Administrazioaren aurkako jarkitzeak, oztopoak, aitzakia edo uko egiteak foru arau honetako 143., 166. eta 215. artikuluetan xedatutakoaren arabera hartu diren kautelazko neurriak ez betetzea dakarrenean, zehapena isun proportzionala izango da, hain zuzen ere arau haustea gertatu den egutegiko urtearen aurrekoan arau hausleak eduki duen negozio kopuruaren ehuneko 2 (6.000 euro gutxienez).

7. Foru arau honetako 90. artikuluko 1. idatz zatiko c) letran xedatutakoarekin bat etorritz, jarkitze, oztopo, aitzakia edo uko egite horiek pertsona fisikoek edo Administrazioari funts, balio zein beste ondasun batzuk zor dizkioten erakundeek zerga bilketako organoek egindako enbargo eginbideak ez betetzea edo oker betetzea dakarrenean, zehapenaren zenbatekoa funts, balio edo ondasun horien benetako balioaren ehuneko 25 izango da (2.000 euro gutxienez).

Zehapen hori foru arau honetako 42. artikuluko 4. idatz zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorritz aplikatuko da; nolanahi ere, enbargarako aginduak erruz edo zabarkeriaz betetzen ez dituztenek erantzukizun solidarioa edukiko dute.

8. Aurreko idatz zatietan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, jarkitze, oztopo, aitzakia edo uko egite hori elkarren arteko laguntzaren esparruan atzerriko funtzionarioek egiten dituzten jarduketan kontrakoa denean.

209. artikulua.- (23) Atxikitzaileek eta konturako sarrerak egitera behartuta daudenek isilpekotasuna ez betetzeagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea da, foru arau honetako 92. artikuluan atxikitzaileei eta konturako sarrerak egin behar dituztenei eskatzen zaien isilpekotasuna ez betetzea.
2. Zehapena 600 euroko isun finkoa izango da, bidegabe jakinarazi den pertsona edo erakunderen bati buruzko datu nahiz datu-multzo bakoitzeko.

210. artikulua.- (23) Atxikipen edo konturako sarreren menpeko errentak dituen ordaintzaileari datuak behar bezala ez jakinarazteagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea izango da, atxikipen edo konturako sarreren menpeko errentak dituen ordaintzaileari datuak ez jakinaraztea edo datu faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak jakinaraztea, horietatik jatorrizkoak baino atxikipen edota konturako sarrera txikiagoak eratortzen direnean.
2. Hona hemen jarriko den zehapena:
 - a) Zergapekoak, atxikipen edo konturako sarreren menpeko errentak jasoko dituen autolikidazioa aurkeztu behar duenean, ehuneko 35eko diruzko isun proportzionala jarriko da.
 - b) Zergapekoak, atxikipen edo konturako sarreren menpeko errentak jasoko dituen autolikidazioa aurkeztu behar ez duenean, ehuneko 150eko diruzko isun proportzionala jarriko da.

Kasu bietan, zehapenaren oinarria, bidezko atxikipen edo konturako sarreraren eta datu faltsu, osagabe eta zehaztugabeak ezarri zireneko epean egindakoen arteko diferentzia izango da.

211. artikulua.- Atxikipenen edo konturako sarreren ziurtagiria ez aurkezteagatiko eta zerga bakoitzaren arautegian ezartzen diren beste betebeharrak batzuk ez betetzeagatiko arau-haustea.

1. Zergen arloko arau-haustea izango da, atxikipen edo konturako sarreren menpeko errentak jasotzen dituen zergapekoei egindako atxikipenen eta konturako sarreren ziurtagiriak ez aurkeztea.

Zehapena 150 euroko isun finkoa izango da.

2. Zergen arloko arau-haustea izango da, zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren arabera zergapekoari eskatzen zaizkion zerga-betebeharrak edo zerga-eginbeharrak ez betetzea; betiere, kapitulu honetako aurreko artikuluetako edo beste foru arauren batean tipifikatutako arau-hausteak ez direnean, eta zergen arloko beste arau-hauste bat dela-eta zehapena mailakatzeko irizpide gisa erabiltzen ez direnean.

Zehapena 150 euroko isun finkoa izango da.

211 bis artikulua.- (29) Zerga saihestearen aurkako klausularen operatibitate inguruabarren ziozko arau haustea.

1. Zerga arloko arau haustea da zerga betebeharrak saihestea honako foru arau honetako 14. artikulua ezarritako aplikatuz erregularizatzen diren egintzak edo negozioak gauzatzen badira, ondoko inguruabarretako edozein egiaztatzen baldin bada:
 - a) Zerga zorraren guztizko zenbatekoa edo horren zati bat ez sartzea, tributu bakoitzaren araudiak ezarritako epearen barruan.
 - b) Tributu bakoitzaren araudiaren ziozko itzulketak bidegabe eskuratzea.
 - c) Itzulketa, zerga onura edo zerga pizgarriak bidegabe eskatzea.
 - d) Norberaren edo gainerakoen hurrengo aitortzen oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharreko partida positiboak, negatiboak edo zerga kredituak bidegabe zehaztea edo egiaztatzea.
2. Aurreko idatz zatian azaldutako ez-betetzea zerga arloko arau haustea izango da erregularizazioaren xede den kasuaren eta administrazioaren irizpidea ezarrita duten inguruabar edo inguruabarren arteko funtsezko berdintasuna badagoela egiaztatzen denean, baldin eta aipatutako inguruabarra gizarteratu baldin bada jende orok jakin dezan aitortzen edo autolikidazio egokia aurkezteko epea hasi baino lehen:
3. Hona hemen jarriko den zehapena:
 - a) Diruzko isun proportzionala, aurreko 1.a) idatz zatian adierazitako kasuan sartu ez den zenbatekoaren % 50ekoa.
 - b) Diruzko isun proportzionala, aurreko 1.b) idatz zatian adierazitako kasuan bidegabe itzuli den zenbatekoaren % 50ekoa.
 - c) Diruzko isun proportzionala, aurreko 1.c) idatz zatian adierazitako kasuan bidegabe eskatu den zenbatekoaren % 15ekoa.
 - d) Diruzko isun proportzionala, bidegabe zehaztutako edo egiaztatutako zenbatekoen % 10ekoa, zerga oinarrian konpentsatu edo kendu beharreko partidei dagokienez, edo % 30ekoa, kuotan kendu beharreko partidei edo itxurazko zerga kredituei dagokienez, aurreko 1.d) idatz zatiko kasua aintzat harturik.
4. Artikulu honetan ezarritako arau haustea eta zehapenak bateraezinak izango dira honako foru arau honetako 195, 197, 198 eta 199. artikuluek araututakoekin.

IV. KAPITULUA

ZERGEN ARLOKO ZEHAPEN-PROZEDURA

212. artikulua.- Zergen arloko zehapen-prozeduraren arauketa.

Zergen arloko zehapen-prozedura honela arautuko da:

- a) Titulu honetan ezarritako arau berezien bidez eta horiek garatzeko ematen diren araudien bidez.
- b) Horrelakorik ezean, administrazio-arloko zehapen-prozedurari buruzko arauen bidez.

213. artikulua.- Zergen arloko zehapenak ezartzeko prozedura.

1. Zergen arloko zehapen-prozedura eta foru arau honetako III. tituluaren arautzen diren prozedurak, hau da, zergak aplikatzekoak, bereiz izapidetuko dira, zergapekoak berariaz kontrakoa adierazi ezik, hori egiten badu batera izapidetuko baitira.
2. Adostasun-aktak egiten direnean, zergak aplikatzeko prozeduran aztertuko dira arau-hausteen inguruko kontuak, prozedura horri buruzko arauekin bat etorritik, arau bidez ezartzen den eran.

Prozedura bereiz izapidetzeari egindako ukoa aktaren testuan jasoko da, bai eta zehapen-proposamena ere, behar bezala arrazoituta, foru arau honetako 215. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako edukiarekin.

3. Zergapekoak uko egiten badio zehapen-prozedura bereiz izapidetzeari, zergak aplikatzeko prozeduran aztertuko dira arau-hausteen inguruko kontuak, prozedura horri buruzko arauekin bat etorritik, arau bidez ezartzen den eran.

Ikuskapen-prozeduran, prozedura bereiz izapidetzeari egindako ukoa berariaz agerraraziko da eta zehapen-proposamena aktan jasoko da, behar bezala arrazoituta, foru arau honetako 215. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako edukiarekin.

4. Zergen arloko zehapen-prozeduran, jakinarazpenak foru arau honetako III. tituluko II. kapituluko 3. atalean ezarritakoaren arabera egingo dira.

214. artikulua.- Zergen arloko zehapen-prozeduraren hasiera.

1. Zergen arloko zehapen-prozedura ofizioz hasiko da beti, organo eskudunak hartutako erabakiaren jakinarazpena dela bide.
2. [\(23\)](#) Kudeaketa edo ikuskapen prozeduren ondorioz hasten diren zehapen prozedurak ezin izango dira hasi prozedura horien xede diren pertsona edo erakundeen aurka, sei hilabeteko epea igarotzen bada likidazioa edo ebazpena jakinarazi zitzaientetik edo jakinarazpena burututzat eman zenetik.

Foru arau honetako 190. artikuluan aipatzen diren zehapenak ezartzeko prozedurak zehapena jakinarazten edo jakinarazitzat jotzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen hasi behar dira.

215. artikulua.- Zergen arloko zehapen-prozeduraren instrukzioa.

1. Zehapen-prozeduraren instrukzioan aplikagarriak izango dira foru arau honetako 95. artikuluan azaltzen diren arau bereziak, zergen arloko jarduketan eta prozeduren garapenari buruzkoak.
2. Foru arau honetako III. tituluaren zergak aplikatzeko prozedurak arautzen dira. Prozedura horietako batean bildu edo eskuratutako datu, froga nahiz inguruabarren bat zehapen-prozeduran aintzat hartzen bada, behar den eran bildu beharko da zehapen-prozedurara, ebazpen-proposamena egin aurretik.
3. Zehapen-prozedurak dirauen artean kautelazko neurriak hartu ahal izango dira, foru arau honetako 143. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.
4. Jarduketak amaiturik, ebazpen-proposamena egingo da. Bertan, azalpen arrazoitua eginez, egitateak, haien kalifikazio juridikoa eta ustez egin den arau-haustea adieraziko dira, edo bestela, arau-hausterik ez dela egin edota erantzukizunik ez dela sortu adieraziko da.

Gainera, ebazpen-proposamenean zehapena proposatuko da, zehapena mailakatzeko erabili diren irizpideak azalduko dira eta behar den moduan adieraziko da nondik atera diren irizpide horiek.

Ebazpen-proposamena interesdunari jakinaraziko zaio, espedientea ikusgai dagoela adieraziko zaio eta hamabost eguneko epea ezarriko zaio egokitzen jotzen dituen alegazioak egin eta agiri, egiaztatze eta frogak aurkezteko.

216. artikulua.- Prozedura laburtua.

1. Zehapen-espedientea hasterakoan organo eskudunak jada bere esku baditu zehapena ezartzeko proposamena egin ahal izateko behar dituen egitatezko elementu guztiak, orduan zehapen-prozedura hasi dela jakinarazteko agiria ebazpen-proposamen ere izango da eta horrela ohartaraziko zaie interesdunari, espedientea aztertu ahal izan dezaten, ikusgai egongo baita; eta hamabost eguneko epea ezarriko zaie euren eskubideei komeni zaiena adierazteko eta egokitzen jotzen dituzten agiri, egiaztatze eta frogak aurkezteko.
2. Alegazioak egiteko epea alegaziorik gabe igarotzen bada, edo alegazioak aurkezteko ezarritako epeari uko egiten bazaio, edo arau-hausleak nahiz erantzuleak ebazpen-proposamena onartzen duela adierazten badu, proposamenean azaltzen den ebazpena jakinarazitzat joko da, kasu hauetan izan ezik: ebazpen-proposamena jakinarazi zenetik hilabeteko epea igaro baino lehen interesdunari jakinarazten zaionean organo eskudunak ebazpena aldatzea erabaki duela, eta jarduketa osagarriak egiteko agintzen denean.

Horrela bada, ebazpen-proposamenean bertan adierazi beharko da interesdunak noiz eta zein kasutan ulertu ahal izango duen ebazpena jakinarazi zaiola, aurreko paragrafoan esandakoaren haritik; halaber, ebazpenari aurka egiteko bideak eta epeak

azalduko zaizkio, eta zein organorengana jo behar duen, eta, isuna ezarri bazaio, zein epetan eta nola ordaindu behar duen.

Ebazpena jakinarazitzat jotzen den egunetik hasita zenbatuko dira isuna ordaintzeko epeak eta errekurso nahiz erreklamazioak jartzekoak.

3. Zergak kudeatzen dituzten organoek hasitako zehapen-prozeduretan, 2. idatz-zatiko lehen paragrafoan aipatutako hilabeteko epea ez da izango hilabetekoa, hamabost egunekoa baizik, eta alegazioetarako epea bera izango da. Horrelakoetan, eta proposamenak ebazpen moduan ondoreak ekar ditzan soil-soilik, ebazteko eskumena duen organoaren sinadura eduki beharko du eta gainera 2. idatz-zatiko bigarren paragrafoan aipatutako zehaztasunak bildu beharko ditu.

217. artikulua.- Zergen arloko zehapen-prozeduraren amaiera.

1. Zergen arloko zehapen-prozedura ebazpen bidez edo iraungitzearen ondorioz amaituko da.
2. Zergen arloko zehapen-prozedura sei hilabeteko gehieneko epean amaitu behar da, prozeduraren hasierari buruzko komunikazioa jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

Prozedura ebazpenaren administrazio egintza jakinarazten den edo jakinarazitzat hartzen denean joko da amaitutzat.

Jakinarazi beharra bete den ala ez zehazteko, eta ebazpen-epearen zenbaketari dagokionez, foru arau honetako 100. artikuluko 2. idatz-zatian dauden arauak aplikatuko dira.

3. Zergen arloko zehapen-prozeduraren berariazko ebazpenean egitateak azalduko dira, frogak balioetsiko dira, zein arau-hauste egin den zehaztuko da, pertsona edo erakunde arau-hauslea identifikatuko da, zehapenaren zenbatekoa adieraziko da, zehapena mailakatzeko erabilitako irizpideak azalduko dira eta, bidezkoa denean, foru arau honetako 192. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, zehapenaren zenbatekoa murriztuko da. Hala dagokionean, arau-hausterik ez dela egin edo erantzukizunik ez dela sortu adieraziko da ebazpenean.
4. Artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritako epea amaitutakoan berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada edo jakinarazitzat eman ez bada, prozedura iraungi egingo da.

Prozedura iraungi dela adierazteko adierazpena ofizioz edo interesdunak eskatuta eman ahal izango da eta bertan jarduketak artxibatzeko aginduko da. Iraungitasun horrek beste zehapen-prozedura bat hastea eragotziko du.

5. Zehapena ezartzeko organo eskudunak izango dira:
 - a) Arabako Foru Aldundia, zehapenaren bitartez lanbide ofizial, enplegu edo kargu publikoetan aritzea eteten denean.
 - b) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, toki-entitateetako organo eskudunak edo horiek izendatzen dituzten eskuordeak, beraiek ematen dituzten

zerga-onurak edo zerga-pizgarriak aplikatzeko eskubidea kentzen denean, edo diru-laguntza eta laguntza publikoak jasotzeko aukera kentzen denean, edo Herri Administrazioarekin kontratuak sinatzeko debekua ezartzen denean.

- c) Zerga-onura edo zerga-pizgarria onartzeko eskumena duen organoa, horiek aplikatzeko eskubidea kentzen denean, goiko b) letran xedatutakoa salbu.
- d) Likidazioa egiteko eskumena duen organoa, edo zehapen-prozedura hasia proposatu duen administrazio-unitatearen gainetik hurrengo dagoen organoa, gainerako kasuetan.

218. artikulua.- Zehapenen aurkako errekursoak.

1. Zehapen-prozedura ebazteko egintzaren aurka errekurtoa edo erreklamazioa jarri ahal izango da.

Zergadunak zerga-zorra ere inpugnatzen duenean, errekurtoa edo erreklamazio biak pilatuko dira, eta zorraren aurkako inpugnazioa ezagutzen duena izango da eskuduna.

2. [\(23\)](#) Zehapen baten aurka administrazio errekurtoa edo erreklamazioa jartzeak ondore hauek sortuko ditu:

a) Zehapenen betearazpena automatikoki etenda geratuko da borondatezko aldia, eta ez da bermerik eman behar izango administrazio-bidean irmoak izan arte.

b) Ez da sortuko berandutze korriturik administrazio bidea agortzen duen ebazpenaren jakinarazpenean zorra borondatezko aldia ordaintzeko ezarritako epealdia amaitu arte; berandutze korrituak epealdia amaitu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko dira.

Idatz zati honetako a) eta b) letretan erantzukizuna lotuta duten zerga zehapenak eteteko aplikatuko da, bai arau hausleak errekurtoa aurkezten duenean, bai erantzukizuna daukanak, foru arau honetako 179. artikuluko 5. idatz zatian xedatutakoaz baliatuta, errekurtoa aurkezten duenean. Erantzukizuna lotuta duten zerga zorrak ez dira berez etengo hemen araututakoa aplikatuz.

Halaber, foru arau honetako 42. artikuluko 4. idatz zatian aipatzen diren zorren ordaintzen erantzukizunak ere ez dira etengo hemen araututakoa aplikatuz.

c) Murrizketa galduko da, foru arau honetako 192. artikuluan xedatu den bezala.

V. TITULUA

ADMINISTRAZIO-BIDEKO BERRIKUSPENA

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

219. artikulua.- Berrikuspenerako bideak.

1. Zergak aplikatzeko egintza eta jarduketak eta zerga-zehapenak ezartzeko egintzak berrikusi ahal izango dira, hurrengo kapituluetan ezarritakoaren arabera eta honakoen bidez:
 - a) Berrikuspenerako prozedura bereziak.
 - b) Berraztertze errekurtoa.
 - c) Administrazioarekiko diru-erreklamazioak.
2. Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpen irmoak eta ebazpen ekonomiko-administratiboa izan duten zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak ezin izango dira administrazio-bidean berrikusi, alegatutako arrazoia edozein delarik ere. Salbuespen izango dira, dena den, foru arau honetako 224. artikuluan aurreikusitako erabateko deuseztasun kasuak, 227. artikuluko okerre zuzenketa eta 246. artikuluan araututako berrikuspenerako aparteko errekurtoak.

Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpenak kaltegarritzat jo ahal izango dira, foru arau honetako 225. artikulua aurreikusten duenaren arabera.
3. Zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak epai irmoaren bidez berretsi direnean ezin izango dira inola ere berrikusi, ezta administrazioarekiko diru-erreklamazioen ebazpenak ere.
4. [\(23\)](#) Elkarren arteko laguntza eskatu duen estatuak edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeak egingo du foru arau honetako 171 bis artikuluan aipatutako betearazpen tresnaren berrikuspena, laguntzari buruzko arauetan besterik ezarri ezean.

Jasotako kobrantza eskaeren ondorioz Zerga Administrazioak egiten dituen enbargo diligentzien eta gainerako jarduketan berrikuspena, berriz, foru arau honetan eta hura garatzeko arauetan ezarritako berrikuspen organoek egingo dute.

220. artikulua.- Gaitasuna eta ordezkaritza, probaldia, jakinarazpenak eta ebazteko epeak.

1. Titulu honetan aurreikusitako berrikuspenerako prozedura berezietan, errekurtoetan eta erreklamazioetan foru arau honetako II. tituluko II. kapituluko 4. atalean gaitasunari eta ordezkartzari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira; baita III. tituluko II. kapituluko 2. eta 3. ataletan ezarritako probaldi eta jakinarazpenei buruzko arauak ere.
2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatzeko, kontuan hartuko dira titulu honetako IV. kapituluaren arautzen diren berezitasunak.

3. Titulu honetan aurreikusten diren ebazteko epeak zenbatzeko, foru arau honetako 100. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa hartuko da kontuan.

221. artikulua.- Ebazpenen arrazoitzea.

1. Titulu honetan aurreikustako berrikuspenerako prozedura bereziak, errekursoak eta erreklamazioak arrazoituak izan beharko dira, eta egitatei eta Zuzenbideko oinarriei aipamen laburra egin beharko diete.
2. Prozedura horietan honako egintza hauek ere arrazoitu egin beharko dira:
 - a) Interesdunek aurkeztutako edozein motatako idazkiak ez onartzea.
 - b) Inpugnatutako egintzen betearazpena etetea, eteteko eskaerari ezetza ematea, eta eteteko eskaera izapidetzeko ez onartzea.
 - c) Ofizioz abstenitzea, arazoa ezagutzeari edo ezagutzen jarraitzeari uko eginez, gaia dela-eta.
 - d) Errefusatzeari bidezkoa dela edo ez dela adieraztea, frogaren bat ez onartzea edo gainontzeko beste frogaren bat ez onartzea, eta auzialdia iraungitzat jotzea.
 - e) Prozeduran zehar interesdunen eskubide subjektiboak mugatzen dituzten egintzak.
 - f) Prozedura etetea, edo hura aurrera eramatea galarazten duten arrazoiak.

222. artikulua.- Errekurritutako egintzaren betearazpena etetea.

1. [\(23\)](#) Berraztertzearen errekursoaren bitartez edo bide ekonomiko-administratiboan aurkaratutako egintza baten betearazpena berez etengo da interesdunak eskatuz gero, baldin eta egintza horren zenbatekoa, etendurak sortzen dituen berandutze korrituak eta bermea atxikiz gero sortuko liratekeen errekaratuak bermatzen badira, arau bidez ezarri den bezala.

Hala ere, berraztertzearen errekursoa edo administrazioarekiko diru erreklamazioa garaiz eta behar den eran jartzeak aurkaratutako egintzaren betearazpenaren etendura ekarriko du, inolako bermerik jarri gabe, gainera. Horretarako, beharrezkoa izango da zerga zorra borondatez ordaintzeko aldiaren egotea edo premiamendu probidentziaren aurkako errekurso bat aurkeztuta egotea. Bi kasuetan, betiere, borondatezko aldiaren azkenean zorraren zenbatekoa arau bidez zehaztutakoa bera edo gutxiago izan beharko da.

Aurkarapenak zerga zehapen bati eragiten badiot, haren betearazpena berez etengo da, eta ez da egongo zertan bermerik jarri, foru arau honetako 218. artikuluko 2. idatz zatian xedatu den bezala.

Kudeaketa partekatua duen zerga bati buruzko zentsu egintza bat aurkaratzen denean, ez da likidazioa kobratzeko prozeduran inolako etenik gertatuko. Horrek ez du galaraziko sartutako kopuruak itzultzea, bidezkoa denean, zentsu arloan ematen den ebazpenak ordaindutako likidazioaren emaitzan eragina badu.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den etendura automatikoa lortzeko beharrezko berme bakarrik hauek izango dira:
 - a) Diruaren edo balore publikoen gordailua.
 - b) Kreditu erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abala nahiz fidantza solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria.
 - c) Kaudimen nabaria duten Arabako Lurralde Historikoko beste zergadun batzuek emandako fidantza pertsonal eta solidarioa, zergen arloko arautegiak ezartzen duen zenbatekoa gainditzen ez duten zorren kasuetan soilik.
3. Interesdunak, etendura lortzeko, aurreko idatz-zatian aipatzen diren bermeak jartzerik ez duenean, etendura onartuko da baldin eta bestelako bermeak jartzen baditu eta nahiko irizten bazaie.
4. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, inpugnatutako egintzaren betearazpenaren etendura erabaki ahal izango da:
 - a) Berme osoak edo bermeen zati bat dispentsatuta, betearazpenak konponbiderik gabeko edo konponbide zaileko kalteak eragin ditzakeenean.

Horrelakoetan, arau bidez ezarritako moduan erabakiko da etendura. Letra honetan hizpide den kasuan, betearazpenari buruzko ebazpena aldatu ahal izango da ebazpen hori ematerakoan aintzat hartutako baldintzak betetzeari uzten bazaio, edo jarritako bermeek balioa zein eraginkortasuna galtzen badute, edo jakiten bada badirela berme gisa emateko moduko beste ondasun edo eskubide batzuk, betearazpenari buruzko ebazpena eman zenean ezagunak ez zirenak.
 - b) Bermerik eman behar izan gabe, inpugnatutako egintzan oker aritmetiko, material edo egitatezkoren bat egon daitekeela ikusten denean.
 - c) Zerga-zorrik edo zenbateko likidorik xedetzat ez duen egintza izan eta interesdunak haren etendura eskatzen duenean, betearazpenak kalte larriak edo konponezinak ekar ditzakeela frogatuz gero.
5. Errekurtsoak zerga-zor osoari eragiten ez badio, errekurritu den zatiaren betearazpena bakarrik etengo da; kasu horretan, zergadunak gainerako zenbatekoa ordaindu behar izango du.
6. [\(29\)](#) Honako foru arau honetako 67. artikuluko 11. idatz zatiak jasotzen dituen kasuetan, errekurtsioak edo erreklamazioak zergapekoaren aldeko itzulketa onartzen duen zerga zor bati eragiten badio, etetea lortzeko ezarri diren bermeek, aldi berean, errekurtsio edo erreklamazioaren osoko edo zatizko baiestearen ondorioz itzuli behar diren zenbatekoak bermatu beharko dituzte.

7. [\(29\)](#) Berraztertzeko errekurtsuan gertatzen bada etendura, bide ekonomiko-administratiboan mantendu ahal izango da, arau bidez zehaztutako baldintzak betez.
8. [\(29\)](#) Administrazio bidean gertatutako etendura mantendu egingo da, baldin eta zergadunak Zerga Administrazioari jakinarazten badio Administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epealdiaren barruan errekurtsu hori sustatu duela eta etendura eskatu duela. Etendura horrek jarraitu egingo du, administrazio bidean ezarri den bermeak indarrean jarraitzen badu eta bere eraginkortasuna mantentzen badu, harik eta organo judizialak eskatutako etenduraren gainean bidezko erabakia hartu arte.

Zehapenen kasuan, etendura aurreko paragrafoan adierazitako moduan mantenduko da inolako bermerik jarri behar izan gabe, harik eta erabaki judiziala hartu arte.
9. [\(29\)](#) Berrikuspenerako aparteko errekurtsuaren bidez inpugnatutako egintzaren edo ebazpenaren betearazpena ezin izango da inola ere eten.
10. [\(29\)](#) Errekurtsuaren edo erreklamazioaren gainean emandako ebazpenaren ondorioz inpugnatu den egintzaren zenbatekoa osorik edo zati batean ordaindu behar denean, etenaldi osoari dagozkion berandutza-interesak likidatuko dira, foru arau honetako 26. artikuluko idatz-zatian eta 218. artikuluko 2.ean aurreikusten denaren kalterik gabe.

II. KAPITULUA

BERRIKUSPENERAKO PROZEDURA BEREZIAK

223. artikulua.- Berrikuspenerako prozedura berezien motak.

Berrikuspenerako prozedura bereziak honakoak dira:

- a) Erabat deusezak diren egintzen berrikuspena.
- b) Egintza deuseztagarrien kaltegarritasunezko deklarazioa.
- c) Errebokazioa.
- d) Okerren zuzenketa.
- e) Zor ez diren sarreren itzulketa.

1. ATALA

ERABAT DEUSEZAK DIREN EGINTZEN BERRIKUSPENERAKO PROZEDURA

224. artikulua.- Erabateko deuseztasunaren deklarazioa.

1. Zergen arloan emandako egintzen eta Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpenen erabateko deuseztasuna deklaratu ahal izango da, administrazio-bidea agortu badute edo epe barruan errekurritu ez badira, honako kasuetan:
 - a) Konstituzioaren babesa duten eskubide eta askatasunak urratzen dituztenean.
 - b) Gaiari eta lurraldeari dagokionez argi eta garbi eskumenik ez duen organo batek emandakoak direnean.
 - c) Ezinezko edukia dutenean.
 - d) Zigor Zuzenbideko arau-hauste direnean, edo halako arau-hauste baten ondorioz ematen direnean.
 - e) Legezko prozedura erabat bazterturik edo kide anitzeko organoetan borondatea eratzeko funtsezko erregelak barnean dituzten arauak erabat bazterturik emandakoak direnean.
 - f) Antolamendu juridikoaren kontra doazen berariazko nahiz ustezko egintzak direnean, ahalmen edo eskubideak eskuratzeko badira, horiek eskuratzeko oinarritzko betekizunak izan ez arren.
 - g) Foru arauetan edo legeetan berariaz ezarritako beste edozein.
2. Artikulu honek aipatzen duen deuseztasuna deklaratzeko prozedura hasi ahal izango da:
 - a) Egintza eman zuen organoaren edo goragoko baten erabakiaren bidez.
 - b) Interesdunak hala eskatu duelako.
3. Interesdunek aurkeztutako eskabideak ez izapidetzea erabaki ahal izango da organo aholku-emaileari irizpenik eskatu behar izan gabe (horretarako bidezko arrazoiak emanez), egintza ez denean irmoa administrazio-bidean edo eskabidea ez denean artikulu honetako idatz-zatian zehaztutako deuseztasunerako arrazoietan oinarritzen, edo modu nabarian oinarriturik ez duenean, baita funtsean antzekoak ziren beste eskabide batzuek muinari erreparatuta aurretiaz baztertu direnean ere.
4. Prozeduran interesdunari entzunaldia emango zaio eta egintzaren bidez eskubideak aintzatetsi zaizkienei entzungo zaie, baita egintzaren ondorioz euren interesetan kalteak jasan dituztenei ere.

Deuseztasunaren deklarazioa egin aurretik batzorde aholku-emaileak aldeko irizpena eman beharko du.
5. Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko eremuan, Diputatuen Kontseiluari dagokio honelako prozedurak ebaztea.

6. Berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkezten duenetik edo prozedura ofizioz hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, honako ondoreak sortuko dira:

- a) Ofizioz hasitako prozedura iraungi egingo da; baina horrek ez du eragotziko gero beste prozedura bat hasteko aukera.
 - b) Administrazioaren isiltasunez eskabidea ezetsiko da, prozedura interesdunaren eskariz hasi bada.
7. Berariazko zein ustezko ebazpenak edo interesdunen eskabideak ez izapidetzeko erabakiak agortuko du administrazio-bidea.

2. ATALA

EGINTZA DEUSEZTAGARRIEN KALTEGARRITASUNEZKO DEKLARAZIOA

225. artikulua.- Kaltegarritasunezko deklarazioa.

1. Foru arau honetako 224. eta 227. artikuluek aurreikusten duten kasuetan ez bada, Zerga Administrazioak ezin izango ditu deuseztatu berak emandako egintzak eta ebazpenak interesdunen kaltetan.

Zerga Administrazioak bere egintza eta ebazpenak interes publikoarentzat kaltegarriak direla adierazi ahal izango du, nahiz eta interesdunentzat onuragarriak izan, baldin eta antolamendu juridikoaren edozein motatako arau-haustea badakarte. Horrela, gero administrazioarekiko auzien bidean inpugnatzeko aukera izango du.

2. Kaltegarritasunezko deklarazioa ezin izango da egin administrazio-egintza jakinarazi zenetik lau urte igaro badira, eta gainera, prozeduran interesdun gisa agertzen diren guztiei aurretiaz entzutea eskatuko du.
3. Prozedura hasi zenetik sei hilabeteko epea igarota, oraindik ez bada kaltegarritasunaren deklaraziorik eman, prozedura iraungi egingo da.
4. Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko eremuan, Diputatuen Kontseiluari dagokio kaltegarritasunezko deklarazioa egitea.

3. ATALA

ERREBOKAZIOA

226. artikulua.- Zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak errebokatzea.

1. Zerga Administrazioak bere egintzak errebokatu ahal izango ditu interesdunen mesedetan, baldin eta antolamendu juridikoa modu nabarian urratzen dutela uste badu, edo norbanakoen egoera juridikoari eragiten dioten inguruabarrek egintzaren desgokitasuna agerian uzten badute, edo prozedura izapidetzean interesdunek babesik eza jasaten badute.

Errebokazioak ezin izango du, inola ere, zergen arloko arauak onartzen ez duten dispentsa edo salbuespenik sorrarazi; ezta berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo antolamendu juridikoaren aurka joan ere.

2. Behin preskripzio-epea beterik, egintza ezin izango da errebokatu.
3. Errebokazio-prozedura ofizioz hasiko da beti, eta arau bidez izendatzen den organoak izango du hura deklaratzeko eskumena.

Espedientean interesdunei entzungo zaie, eta, organo eskudunak beharrezkotzat jotzen badu, aholkularitza juridikoaz arduratzen den organoak txostena egingo du egintza errebokatzearen bidezketasunari buruz.

4. Berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakia jakinarazten denetik hasita.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igaro ondoren ez baldin bada berariazko ebazpenik eman, prozedura iraungi egingo da.

5. Prozedura honen bidez ematen diren ebazpenek administrazio-bidea agortuko dute.

4. ATALA

OKERREN ZUZENKETA

227. artikulua.- Okerren zuzenketa.

1. Egintza edo erreklamazioaren ebazpena eman duen organoak noiznahi zuzenduko ditu, bai ofizioz bai interesdunak hala eskatu duelako, oker material, aritmetiko zein egitatezkoak, baldin eta preskripzio-epea igaro ez bada.

Zehazki, prozedura honen bidez zuzenduko dira administrazioarekiko diru-erreklamazioetako egintzak eta ebazpenak, espedienteko agirietan okerren bat azaltzen denean.

Ebazpenaren bidez, zenbatekoan edo egintza nahiz ebazpenaren beste edozein elementutan dagoen okerra zuzenduko da.

2. Berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkezten duenetik edo prozedura ofizioz hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, honako ondoreak sortuko dira:

- a) Ofizioz hasitako prozedura iraungi egingo da; baina horrek ez du eragotziko gero beste prozedura bat hasteko aukera.
 - b) Administrazioaren isiltasunez eskabidea ezetsiko da, prozedura interesdunaren eskariz hasi bada.
3. Prozedura honetan ematen diren ebazpenen aurka berraztertze errekurtoa eta administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahal izango dira.

5. ATALA

ZOR EZ DIREN SARREREN ITZULKETA

228. artikulua.- Zor ez diren sarrerak itzultzeko prozedura.

1. [\(29\)](#) Bidegabeko sarrerak itzultzeko eskubidea aintzatesten duen prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, honako kasu hauetan:
 - a) Zerga-zorren edo zehapenen ordainketa birritan egiten denean.
 - b) Ordaindutako zenbatekoa administrazio egintzatik edo autolikidaziotik sortutakoa baino handiagoa denean.
 - c) Preskripzio epeak igaro ondoren, zerga zorrei edo zerga zehapenenei dagozkien zenbatekoak ordaindu direnean. Honako foru arau honetako 250. artikuluan ezarritako borondatezko erregularizazioan ordaindutako zenbatekoak ez dira inola ere itzuliko.
 - d) Zerga arloko araudiak hala ezartzen duenean.

Idatz zati honetan ezarritako prozedura erregelamendu bidez garatuko da, eta foru arau honetako 227. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko zaio.
2. Itzultzeko eskubidea artikuluko honetako 1. idatz-zatian araututako prozeduraren bidez, administrazio-egintza baten bidez edo ebazpen ekonomiko-administratibo zein judizial baten bidez aintzatetsi bada, arau bidez zehaztutakoaren arabera betearaziko da itzulketa.
3. Zor ez zen sarrera eragin zuen zergak aplikatzeko edo zehapenak ezartzeko egintza irmo bihurtuta badago, foru arau honetako 223. artikuluko a), c) eta d) letretan ezartzen diren berrikuspenerako prozedura berezien bidez edo 246. artikuluan ezartzen diren

berrikuspenerako aparteko errekurtsoen bidez bakarrik eskatu edo sustatu ahal izango da itzulketa.

4. Zergapekoak uste duenean autolikidazioen baten aurkezpenak zor ez zen ordainketaren bat eragin duela, autolikidazio hori zuzentzeko eskatu ahal izango du, foru arau honetako 116. artikuluko 4. idatz-zatian xedatzen denarekin bat etorritz.
5. Zor ez ziren sarrerak itzultzean berandutza-interesak ere likidatuko dira, foru arau honetako 32. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorritz.
6. Prozedura honetan ematen diren ebazpenen aurka berraztertzeko errekurtsua eta administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahal izango dira.

III. KAPITULUA

BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA

229. artikulua.- Berraztertzeko errekurtsuaren xedea eta izaera.

1. Administrazioarekiko diru-erreklamazioa ekar dezaketen Zerga Administrazioaren egintzei berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaie, kapitulu honetan xedatzen denaren arabera.
2. Berraztertzeko errekurtsua jartzekotan, erreklamazio ekonomiko-administratiboa baino lehen jarri behar da.

Interesdunak berraztertzeko errekurtsua jartzen badu, ezin izango du administrazioarekiko diru-erreklamaziorik sustatu errekurtsua berariaz ebazten den arte edo administrazioaren isiltasunez ezetsizat jo ahal den arte.

Errekurtsua aurkezteko ezarritako epean, berraztertzeko errekurtsua eta administrazioarekiko diru-erreklamazioa jartzen badira (biak ere egintza berberaren aurka), lehenengo aurkeztu dena izapidetu egingo da eta bigarrena onartezintzat joko da. Biak aldi berean jartzen badira, berraztertzeko errekurtsuak izango du lehentasuna.

230. artikulua.- Berraztertzeko errekurtsuaren hasiera eta izapidetzea.

1. Hilabeteko epea egongo da berraztertzeko errekurtsua jartzeko, errekurritu daitekeen egintza jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita. Administrazioaren isiltasunaren ondoreak gertatzen diren unetik aurrera ere jarri ahal izango da.

Aldian-aldean mugaeguneratzen diren eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, errekurtsua ordainketa egiteko borondatezko aldia jarri ahal izango da, edo hilabeteko epean, aipatu aldia amaitu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2. Errekurtsogileak espedientea aztertu behar badu alegazioak egiteko, errekurtsua jartzeko epealdiren barruan joan behar da espedientea ikustera.

3. Berraztertzeo errekurtsua jartzeko legimitatuta daudenei eta horretarako interesa dutenei, administrazioarekiko diru-erreklamazioei buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.
4. Berraztertze honen bidez, espedientean ageri diren egitatezko zein Zuzenbideko arazo guztien berri ematen zaio organo eskudunari, ebatz ditzan, hala errekurtsuan aurkeztu diren arazoak nola bestelakoak. Hala ere, ezin izango da, inola ere, errekurtsogilearen hasierako egoera txartu.

Organo eskudunak interesdunek aurkeztu ez dituzten arazoak aztertu eta ebaztea erabakitzen badu, beraiei jakinaraziko die alegazioak egin ditzaten.

231. artikulua.- Berraztertzeo errekurtsuaren ebazpena.

1. Errekurritu den egintza eman zuen organo bera izango da berraztertzeo errekurtsua ezagutu eta ebazteko eskuduna.

Eskuordetze bidez emandako egintzetan, eta aurkakoa esaten ez den bitartean, berraztertzeo errekurtsua eskuordetutako organoak ebatziko du.

2. Berraztertzeo errekurtsua ezagutzeko eskumena duen organoak ezin izango dio ebazpena emateari ukorik egin, eta ezin izango du arrazoizko zalantzarik edo legezko manuen gabeziarik alegatu.

Ebazpenean gertaeren azalpen laburra emango da, eta erabakia hartzeko erabili diren oinarri juridikoak jasoko dira behar bezala arrazoituta.

3. [\(29\)](#) Zergapeko baten zerga betebehar bati lotuta dagoen beste zerga betebehar baten aurkako errekurtsua osorik edo zati batez baiesten duen ebazpen bat betearazteko, honako foru arau honetako 67. artikuluko 11. idatz zatiak ezarritakoarekin bat etorritik, errekurritutakoa ez den zerga betebehar lotua erregularizatuko da, non Administrazioak erreklamazioaren xede den zerga betebeharraren likidazioa funtsatzeko irizpideak edo elementuak aplikatu dituen.

Erregularizazio horren ondorioz, errekurritutakoa ez den zerga betebehar lotua baliogabetzen bada eta errekurtsuan ebatzitakoaren arabera likidazio berria egiten bada, honako foru arau honetako 26. artikuluko 5. idatz zatiak xedatutakoa aplikagarria izango da.

4. [\(29\)](#) Ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, errekurtsua aurkeztu eta biharamunetik hasita.

Ebazpena emateko gehieneko epea igarota, berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada eta, betiere, errekurritutako egintza etetea aurrez erabaki bada, berandutza-interesen sortzapena gelditu egingo da, foru arau honetako 26. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako baldintzen arabera.

5. [\(29\)](#) Errekurtsua jarri zenetik hiru hilabete igarotakoan, interesdunak errekurtsua ezetsi egin dela ulertu ahal izango du eta bidezko erreklamazioa jarri.

6. [\(29\)](#) Berraztertzeako errekursoaren ebazpenaren aurka ezin da berriz ere berraztertzeako errekurtoa jarri.

IV. KAPITULUA

ADMINISTRAZIOAREKIKO DIRU-ERREKLAMAZIOAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

1. AZPIATALA

ADMINISTRAZIOAREKIKO DIRU-ERREKLAMAZIOEN EREMUA

232. artikulua.- Administrazioarekiko diru-erreklamazioen aplikazio-eremua.

Bide ekonomiko-administratiboan erreklamatu ahal izango da, honako gaiak direla-eta:

- a) Zergen aplikazioa eta zerga-zehapenen ezarpena.
- b) Zuzenbide Publikoko beste sarrera batzuen bilketa.
- c) Foru arau bidez berariaz ezartzen den beste edozein.

233. artikulua.- Administrazioarekiko diru-erreklamazioa ekar dezaketen egintzak.

- 1. Administrazioarekiko diru-erreklamazioa onargarria izango da, aurreko artikulua aipatzen dituen gaiei dagokienez, honako egintzen aurka:
 - a) Eskubideren bat behin-behinean edo behin betiko aintzatetsi nahiz ukatzen dutenak edo betebeharrak nahiz eginbeharren bat aitortzen dutenak.
 - b) Izapidezkoak, baldin eta zuzenean nahiz zeharka arazoaren muinari buruz erabakitzen badute edo prozedurari amaiera ematen badiote.
- 2. Zergak aplikatzeari dagokionez, erreklamazioa honako egintza hauen kontra jar daiteke:
 - a) Behin-behineko edo behin betiko likidazioak.

- b) Autolikidazioa zuzentzeko eskaerarekin zerikusia duten berariazko zein ustezko ebazpenak.
 - c) Errenta, produktu, ondasun, eskubide eta gastuen balio-egiaztapenak; baita balioak, etekinak eta oinarriak finkatzeko egintzak ere, zergen arloko arautegiak hala ezartzen duenean.
 - d) Zergen arloko salbuespenak, onurak edo pizgarriak ukatu edo aintzatesten dituzten egintzak.
 - e) Amortizaziorako plan bereziak onartu edo ukatzen dituzten egintzak.
 - f) Zergapeko bati aplikatu beharreko zerga-erregimena zehazten duten egintzak, beraren etorkizuneko betebeharretarako garrantzizkoak direnean (nahiz eta formalak izan). Salbuespen izango da, dena den, administrazioa aurretik lotesten duten prozedurentzat foru arau honetako III. tituluko I. kapituluko 2. atalean xedatzen dena.
 - g) Zerga-bilketan diharduten organoen jarduketetan emandako egintzak.
 - h) Zergen arloko arautegiak ezartzen dituen egintzak.
3. Era berean, erreklamatzeko modukoak izango dira zerga-zehapenak ezartzen dituzten egintzak.
4. Erreklamatzeko modukoak izango dira, gainera, arau bidez zehaztutako betekizunak ezarritako moduan bete ostean, norbanakoen jarduketa edo omisio hauek:
- a) Legez ezarritako jasanarazpenari eta jasanarazi beharrari buruzkoak.
 - b) Atxikipenak edo konturako sarrerak egin eta jasan beharrari buruzkoak.
 - c) Enpresaburu eta profesionalei eragiten dieten fakturak egin, eman eta zuzendu beharrari buruzkoak.
 - d) Ordezkoaren eta zergadunaren arteko harremanetatik sortutakoak.
5. Ez dira administrazioarekiko diru-erreklamazioak onartuko honako egintzei dagozkienean:
- a) Administrazio-bidean erreklamazioa jartzeko aukera ematen dutenak (bide judizialean, zibilean edo lan arloan baino lehen) edo bide hori agortzen dutenak.
 - b) Administrazio-bidea agortuko duen ebazpena ematea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari dagokion prozeduretan ematen direnak.
 - c) Administrazioarekiko diru-erreklamazioaren eremutik kanpo uzten dituen foru arau edo legezko xedapenen baten itzalpean ematen direnak.

2. AZPIATALA

ANTOLAKETA ETA ESKUMENAK

234. artikulua.- Arabako Lege eta Administrazio Erakundea.

1. Bide ekonomiko-administratiboko zerga-erreklamazioak ezagutzea Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari dagokio. Honek lotura funtzionalik gabe jardungo du bere eskumenak erabiltzen dituenean.
2. Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen eskumenak uko egin ezinezkoak eta luzaezinak izango dira eta interesdunek ezin izango dituzte aldatu, nahi izanda ere.

235. artikulua.- Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen eskumena.

1. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak honakoak ezagutuko ditu auzialdi bakarrean:
 - a) [\(29\)](#) Foru arau honetako 232. artikuluan aurreikusten diren gaien inguruan Arabako Foru Aldundiko organoek emandako administrazio-egintzen aurka jartzen diren administrazioarekiko diru-erreklamazioak.
 - b) Berraztertzekeo aparteko errekursoak.
 - c) Bere ebazpenetan antzemandako okerren zuzenketak, foru arau honetako 227. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Halaber, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak honakoak ezagutuko ditu auzialdi bakarrean.
2. norbanakoek zergen arloan egiten dituzten jarduketan aurkako erreklamazioak, jarduketa horien aurka administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahal bada:
 - a) Atxikipenen eta kontura egiten diren beste ordainketa batzuen kasuan, Arabako arautegia aplikagarria zaienean, Kontzertu Ekonomikoan aurreikusitakoaren arabera.
 - b) Zergen jasanarazpenen kasuan, eragiketa Arabako Lurralde Historikoan egindakotzat jotzen denean, Kontzertu Ekonomikoan aurreikusitakoaren arabera.

236. artikulua.- [\(29\)](#) Erreklamazio ekonomiko-administratiboak metatzea.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak ondoko kasu hauetan metatu ahal izango dira, batera izapidetu eta ebazteko:
 - a) Interesdun bakarrak jarritakoak, prozedura bakarretik badatoz eta zerga berari buruzkoak badira.
 - b) Hainbat interesdunek aurkeztutakoak, zerga berari buruzkoak badira eta guztiak espediente bakarraren haritik sortu badira edo auzi berdin-berdinak mahairatzen badituzte.

- c) Hainbat interesdunek administrazio egintza bakarraren aurka edo norbanakoen zerga jarduketa beraren aurka jarritako erreklamazioak.
 - d) Zehapen baten aurka jarritako erreklamazioa, hura sorrarazi duen zerga zorraren aurkako erreklamazioa aurkeztu bada.
- 2** Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, arrazoibidez metatu ahal izango ditu, bere aburuz, baterako ebazpenaren xede izan behar diren erreklamazioak, tributu bakarrari edo batzuei eragiten badieten arren, betiere erreklamazioen arteko lotura badago. Erreklamatzailerik batzuk badira eta haiek eskatu ez badute, bost eguneko epea eman beharko zaie aurretiaz egokitzen jotzen dutena adierazteko metaketaren bidez kotitasunaren inguruan.
- Atal honek jorratzen dituen metaketak baliorik gabe gera daitezke Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak erreklamazioak banaka ebatzi behar direla egokitzen jotzen duenean.
- 3** Erreklamazioak metatzeko erabakiak edo metatutako erreklamazioak baliorik gabe uztekoak izapidezko egintzak izango dira eta ezin izango dira errekurritu.

237. artikulua.- Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen funtzionamendua.

- 1. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak osoko bilkuretan edo saletan jardungo du. Banakoen bitartez ere jardun ahal izango du, hau da, bere kideetariko edozeinen bitartez, arau bidez zehazten diren kasuetan.
- 2. Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen eraketa, antolaketa eta funtzionamendua arau bidez zehaztuko dira.

3. AZPIATALA

INTERESDUNAK

238. artikulua.- Administrazioarekiko diru-erreklamazioetan legitimatuta daudenak eta interesa dutenak.

- 1. Administrazioarekiko diru-erreklamazioak sustatzeko legitimatuta egongo dira:
 - a) Zergapekoak eta subjektu arau-hausleak.
 - b) Zergen arloko egintza, omisio edo jarduketaren ondorioz bidezko interesak ukitzen zaizkion beste edozein pertsona.
- 2. Ez dira legitimatuta egongo:
 - a) Funtzionarioak eta enplegatu publikoak, salbu eta aintzatetsita duten eskubideren bat zuzenean urratzen denean edo bidezko interesak ukitzen zaizkienean.

- b) Norbanakoak, Administrazioak eskuordetuta edo haren agente nahiz mandatudun gisa jarduten dutenean.
 - c) Salatzaileak.
 - d) Itun edo kontratu bidez zerga-betebeharrak euren gain hartzen dituztenak.
 - e) Inpugnatu den egintza eman zuten erakundeak edo organoak, bai eta egintza horren bidez kudeatutako funtsen jasotzailea den beste edozein erakunde ere.
3. Hasita dagoen prozedura ekonomiko-administratiboan, eman beharreko ebazpenak ukituko dituen bidezko eskubide edo interesen titularrak bertaratu ahal izango dira. Nolanahi ere, izapideak ez du inola ere atzera egingo.
- Prozedura izapidetzen den bitartean, bidezko eskubide edo interesen beste titularren bat bertaratu ez dela ikusten bada, erreklamazioaren berri emango zaio alegazioak jar ditzan. Horrelakoetan foru arau honetako 244. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.
4. Inork ordezkartzaren bidez jarduten badu, ordezkaritza frogatzen duen agiria erantsi beharko zaio interesdunak berak sinatzen ez duen lehenengo idazkiari; baldintza hori bete ezean agiria ez da izapidetuko. Hala ere, ahalik ez egon arren edo ahala nahikoa ez izan arren, idazkia aurkeztutzat emango da baldin eta bertaratu den pertsonak ahala eransten badu, edo erantsi duen ahalak izan ditzakeen akatsak zuzentzen baditu, edo ahal nahikorik gabe bere izenean eta ordezkaritzan egindako jarduketa guztiak berresten baditu.

2. ATALA

PROZEDURA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA

239. artikulua.- (29) Arau orokorrak.

1. Honako foru arau honetako 46. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako bideetako bat aurkeztu beharizanik ez dela, borondatezko ordezkaritza egiaztatutzat joko da Zerga administrazioak ordezkaritza onartu bazuen aurkaratutako egintza eman zen prozeduran.
2. Prozedura ofizioz bideratuko da, eta ezarritako epeei men egingo zaie. Epeak ezin izango dira luzatu eta ez da beharrezkoa izango amaitu direla adieraztea.
3. Interesdunei eragiten dieten edo erreklamazio ekonomiko-administratiboari amaiera ematen dioten egintza eta ebazpen guztiak interesdunei jakinarazi beharko zaizkie, bitarteko elektronikoen bidez, adierazitako helbidean edo, bestela, honako foru arau honetako 108. artikuluko ezarritakoari jarraiki.

Nahitaez, jakinarazpena bitarteko elektronikoz egingo interesdunentzat, eta erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, erreklamazioa bide hori erabiliz jartzea ezinbestekoa den kasuetan.

Jakinarazpenean, ebazpenaren testu osoa jasoko da. Gainera, zein errekurtsio jar daitekeen adieraziko da, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta zein epetan jarri behar diren. Nolanahi ere, interesdunek egokitzen jotzen duten beste edozein errekurtsio erabili ahal izango dute.

4. Prozedura ekonomiko-administratiboa doakoa izango da. Hala eta guztiz ere, erreklamazioa edo errekurtsioa gaitzesten bada edo onartzen ez bada, eta Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak ausarkeria, gaitzuste edo asmo txarrik igartzen badu, ausarkeriaz edo asmo txarrez jokatu duen pertsona horri eskatu ahalko zaio prozeduraren kostuak ordain ditzala, erregelamendu bidez ezarritako irizpideei jarraiki.

Kostuak ordaintzeko kondena ematen den ebazpenean bertan ezarriko da, eta Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak gaitzuste edo ausarkeria antzemateko modua berariaz aipatuko da, bai eta zigorraren zenbatekoa ere.

5. Prozedura ekonomiko-administratiboa kapitulu honetan araututako xedapenen eta prozedura garatzeko ematen diren arauzko xedapenen arabera ezarriko da.

240. artikulua.- (29) Prozedura hastea.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboa Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean jarriko da, hilabeteko epean, aurkaratzen den egintza jakinarazten den egunaren hurrengotik hasita, edo atxikipena zein konturako sarrera, erreklamazioaren zio den jasanarazpena edo ordezkioaren eta zergadunaren arteko harremanetatik sortutako ordezkioa egin dela edo egin gabe utzi dela egiaztatzen den egunaren hurrengotik hasita.

Bestalde, erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango da administrazioaren isiltasunak ondoreak sortzen dituen egunaren hurrengotik aurrera.

Erreklamazioa jarri ondoren eta ebatzi baino lehen, esanbidezko ebazpenik emanaz gero, Arabako Lege eta Administrazio Erakundera helaraziko da, interesdunari jakinarazi ondoren.

Jakinarazpenean ohartarazi beharko da, ezen edukiaren arabera, esanbidezko ebazpena bide ekonomiko-administratiboan aurkaratutzat joko dela edo prozeduraren amaiera ekarriko duela uziak prozesutik kanpo betetzeagatik. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak ebatziko du aipatutako betetzea.

Nolanahi ere, hilabeteko epea emango da, jakinarazpena bidaltzen den egunaren hurrengotik hasita, interesdunak egokitzen jotzen dituen alegazioak Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean egitea izan dezan. Alegazio horietan, interesdunak aurreko paragrafoan adierazitako ondorioez aritu ahalko da. Eta egin ezean, aipatutako ondorioekin bat datorrela ulertuko da.

Enpresaburu eta profesionalen fakturak egin eta emateko betebeharrari buruzko erreklamazioei dagokienez, aurreko paragrafoak aipatzen duen epea betebeharrari hori gauzatzeko formalki eskatu denetik hilabete igarotzen denean hasiko da zenbatzen.

Aldian-aldean mugaeguneratzen diren eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, erreklamazioa ordaintzeko borondatezko aldia jar daiteke edo, bestela, hilabeteko epean, errekurtsioa auzitegiaren egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

2. Prozedurari ekiteko, idazkia aurkeztu beharko zaio Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari; idazki horretan, nahikoa izango da erreklamazioa aurkeztutzat jo dezala eskatzea, erreklamazioa identifikatzea, zein egintza edo jarduketari aurka egiten zaion adieraztea eta jakinarazpenetarako helbidea ematea. Gainera, erreklamazioak alegazioak erantsi ahal izango ditu, bere eskubidea funtsatzeko xedez.

Atxikipen, konturako sarrera, jasanarazpen, faktura egin eta emateko betebeharrari eta ordezkarien eta zergadunaren arteko harremanei buruzko erreklamazioetan, errekurritutako pertsona identifikatzeko datuak eta haren egoitza ere adierazi beharko dira idazkian. Horrez gain, erreklamazioak eskura dituen edo erregistro publikoetan dauden aurrekari guztiak erantsi beharko ditu.

3. Erreklamazioa nahitaez aurkeztu beharko da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabiliz, erreklamazioak komunikazioak eta jakinarazpenak ezinbestean bitarteko elektronikoak erabiliz jaso behar dituztenean.

241. artikulua.- Izapidetzea.

1. (29) Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak, espedientea jaso eta, behar izanez gero, osatu ondoren, espedientea ikusgai jarriko du erreklamazioan agertu diren baina idazkian alegaziorik egin ez duten interesdunentzat, baita idazkian alegazioak egin eta berariaz izapide hori eskatu duten interesdunentzat ere, eta denei hilabeteko epea ezarriko die espedientea aztertu eta alegazio-idazkia aurkez dezaten, egoki deritzeten frogekin batera.

Espediente elektronikoaren agerrarazpena bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoa bidez egin ahal izango da eta, era berean, alegazioak eta frogabideak bitarteko horiek erabiliz aurkeztu ahal izango dira. Erreklamazioa era elektronikoz jarri behar dutenek bide hori erabiliz aurkeztu beharko dituzte alegazioak, frogak eta beste edozein idatzi. Bide hori erabiliz, izapidetzea galarazten duen akatsa, Zerga administrazioari egotzi ahal zaiona, gertatuz gero, Arabako Foru eta Administrazio Organoak neurriak hartu beharko ditu interesdunari kalterik ez eragiteko; ildo horretan, besteak beste, beste epe bat eman ahal izango du, aurretiaz emandako epea luzatu ahal izango du edo beste bitarteko batzuk erabiliz egiteko baimena eman ahal izango du.

2. Atxikipen, konturako sarrera, jasanarazpen, faktura egin eta emateko betebeharrari eta ordezkarien eta zergadunaren arteko harremanei buruzko erreklamazioen kasuan, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak erreklamazioa jarri dela jakinaraziko dio errekurritutako pertsonari, bertaratu dadin; horretarako, pertsonatze-idazkia bidaliko dio, eta eskura dituen edo erregistro publikoetan dauden aurrekari guztiak erantsiko ditu.

3. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak, gainera, txostena eskatu ahalko dio inpugnatu den egintza eman zuen organoari, behar diren alderdiak argitzeko. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak txosten hori erreklamatzailerari helarazi beharko dio, alegazioak egin ahal izan ditzan.

Arau bidez zehaztu ahal izango diren kasuetan, txosten hori nahitaez eskatu beharko da.

4. Artikulu honetako aurreko idatz-zatietan aipatzen diren izapideak alde batera utzi ahal izango dira baldin eta erreklamazioa jartzeko idazkian dauden alegazioen bitartez edo interesdunak erantsitako agirien bitartez egiaztaturik geratzen badira ebazpena emateko behar diren datu guztiak, edo datuok egiazkotzat eman ahal badira, edo argi ikusten bada erreklamazioa ez onartzeko arrazoiren bat badagoela.
5. Arau bidez arautuko da froga burutzeko erregimena.
6. Prozedurako inguruabar gisa aztergai hartu ahal izango dira auziaren muinekoak ez izan arren auziarekin edo prozeduraren baliozkotasunarekin zerikusia duten alderdiak, baldin eta erreklamazioa izapidetu ahal izateko ezinbestekoa bada haiek aurretik ebaztea eta auziaren muinari buruzko erabakia hartu arte itxaroterik ez badago.

Prozedurako inguruabar baten gaineko ebazpenari ezin izango zaio errekurtsorik jarri. Erreklamazioaren ebazpena jasotzen duenean, interesdunak berriro jarri ahal izango du ezbaian prozedurako inguruabar hori, erreklamazioaren ebazpenaren aurka bidezko errekurtsua jarritz.

242. artikulua.- Bide ekonomiko-administratiboko berrikuspenaren hedapena.

1. Administrazioarekiko diru-erreklamazioen bidez, espedientean ageri diren egitatezko zein Zuzenbideko arazo guztien berri ematen zaio Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari, honek ebatz ditzan; berdin izango da interesdunek azaldutako arazoak diren edo ez diren. Hala ere, ezin izango da, inola ere, erreklamatzaileraren hasierako egoera txartu.
2. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak bidezkotzat jotzen badu interesdunek aurkeztu ez dituzten arazoak aztertu eta ebaztea, beraiei jakinaraziko die, alegazioak egin ahal ditzaten.
3. [\(29\)](#) Prozedura erregelamendu bidez garatuko da, judizio aurreko auziak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean aurkeztu ahal izateko. Interesdunek auzi prejudizialaren proposamena erreklamazioan edo errekurtsu ekonomiko-administratiboan eskatu ez badute, epaiketa gertatu baino lehen, hamabost eguneko epea emango zaie interesdunei alegazioak egitea izan dezaten, bakar-bakarrik lehen esandako proposamenaren aukerari dagokionez.

Nolanahi ere, auzi prejudiziala proposatu aurretik, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak hamabost eguneko epea emango dio egintzaren sustatzailea den administrazio organoari, alegazioak egin ditzan.

uzi prejudizialen bat Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean aurkeztuz gero, aurreko ataletan esandakoaren arabera, prozedura ekonomiko-administratiboa eten egingo da hasieratik bertatik, harik eta auzi prejudiziala ebazten duen ebazpena jaso arte. Era berean, proposatutako auzi prejudizialaren emaitzaz jakin behar duten prozedura ekonomiko-administratibo guztiak eten egingo dira. Etendura interesdunei jakinaraziko zaie, prozedura ekonomiko-administratiboan bertan, eta hortaz, honako foru arau honetako 65. artikulua jasotzen dituen eskubideen preskripzio aldiaren etendura sorraraziko du jakinarazpenak, baina aldia berriro zenbatzen hasiko da proposatutako auziaren ebazpena Arabako Lege eta Administrazio Erakundean jaso ondotik.

243. artikulua.- (29) Bukatzea.

1. Prozedura honako kasuetan amaituko da: erreklamazioak oinarritzat duen eskubideari uko egiten zaionean, eskaera edo auzialdia bertan behera uzten denean, berau iraungitzen denean, prozeduraren xedea galtzen denean edo auzia prozesutik kanpo konpontzen denean, eta ebazpena ematen denean.
2. Erreklamatzailerak uko egiten badu edo atzera egiten badu, auzialdia iraungitzen bada, prozeduraren xedea galtzen bada edo auzia prozesutik kanpo konpontzen bada, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak jarduketak artxibatzea erabakiko du, arrazoiak azalduta.

Jarduketak artxibatzeko erabakia honako foru arau honetako 244. artikuluko 245.bis idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik berrikusi ahal izango da.

244. artikulua.- (29) Ebazpena.

1. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak ezin izango du ebatzi gabe utzi bere esku jarritako erreklamaziorik. Hori dela eta, ezin izango du arrazoizko zalantzarik alegatu, ezta legezko manuetako hutsunerik ere.
2. Ematen diren ebazpenetan, oinarritzat hartu diren egitatezko aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak jaso beharko dira, eta horien arabera espedientean agertzen diren auzi guztiak erabakiko dira, interesdunak aurkeztutakoak izan zein ez.
3. Ebazpena baiestekoa, ezestekoa edo onartezintasuna deklaratzekoa izan daiteke. Ebazpena baiestekoa izanez gero, aurkaratutako egintza osorik edo zati batean deuseztatu ahal izango da, funtsezko oinarriak edo formazko okerrak direla medio.

Ebazpenean erreklamatzailerak babesteko aukerak murrizten dituen formazko akatsen bat antzematen bada, egintza deuseztatu egingo da akatsa duen zatian, eta jarduketetan atzera egiteko aginduko da, formazko okerra gertatu zen unera itzultzeko.

Aurreko paragrafoan jasotako kasuan izan ezik, Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen erabakien ondoriozko egikaritze egintzak, baita likidazioak gauzatzea ere, ez dira sartuko aurkaratzearen xedea duen egintzan jatorria daukan prozeduran.

Atzeraeraginezko kasuetan izan ezik, ebazpena gauzatzeko egintza guztiak hilabeteko epean jakinarazi beharko dira, ebazpena betearazteko eskumena daukan organoaren

erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Ez da berandutza interesik eskatuko administrazioak hilabeteko epea urratzen duenetik.

4. Erreklamazioa onartezina dela deklaratu da ondoko kasuetan:

- a) Bide ekonomiko-administratiboko erreklamazio edo errekurtsorik ezin jar dakiekeen egintzak edo ebazpenak aurkaratzen direnean.
- b) Erreklamazioa epez kanpo aurkeztu denean.
- c) Erreklamazioa zein egintza edo jarduketaren aurka jartzen den adierazten ez denean.
- d) Erreklamazioa jartzeko idazkian ageri den eskaerak errekurritu den egintza edo jarduketarekin zerikusirik ez duenean.
- e) Legitimazio edo ordezkaritza akatsak daudenean.
- f) Erreklamazioa jarri zaion egintzaren oinarri bakarra beste egintza irmo eta onartu bat denean; lehenagoko egintza irmo eta behin betikoen berdinak diren egintzak errekurritzen direnean; onartutako beste egintza batzuk berresten dituzten egintzak errekurritzen direnean; eta gauza epaitua dagoenean.

5. Ematen den ebazpenak eragin osoa izango du erreklamazioa jakinarazi zaien interesdun guztientzat.

Honako foru arau honetako 233. artikuluko 4. idatz zatian jasotzen diren norbanakoen jarduketa edo ez-betetzei buruzko erreklamazioetan, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak ematen dituen ebazpenak irmoak direnean, Zerga administrazioa lotetsiko dute, ebazteko aintzat hartu diren egitateen kalifikazio juridikoari dagokionez, egiaztatze eta ikertze eskumenei kalterik egin gabe. Ondore horretarako, ebazpenak Zerga administrazioari jakinaraziko zaizkio.

6. Faktura egiteko betebeharra ezartzen duen Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpena lege ezarritako epean betetzen ez denean, erreklamatuak, erreklamatuaren izenean eta haren kontura, eragiketa dokumentatzen den faktura egin ahal izango du, honako arau hauei jarraiki:

- 1. Ahalmen horren erabilera idatziz jakinarazi beharko zaio Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari, epaitza bete ez, eta faktura egokia egingo dela adierazita. Era berean, erreklamatuari jakinarazi beharko dio, hartu agiria egiaztatzen duen zeinahi bide erabilita, arestian aipatutako ahalmena erabili egingo duela.
- 2. Erreklamatuak prestatu beharko du eragiketa dokumentatzeko faktura, eta eragiketaren hartzaile gisa agertuko da; igorlea, berriz, betebeharra urratu duena izango da.
- 3. Erreklamatuak fakturaren kopia bidaliko dio erreklamatuari eta jatorrizko faktura gordeko du. Halaber, faktura horren kopia eta, emandako ebazpenaren ez-betetzearen berri jakinarazteko, Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean aurkeztutako idazkiaren kopia bidali beharko dio Zerga administrazioari.

7. Zergapeko baten zerga betebeharraren bati lotuta dagoen beste zerga betebeharraren baten aurkako errekurtsioa osorik edo zati batez baiesten duen ebazpen bat betearazteko, honako foru arau honetako 67. artikuluko 67.11. idatz zatiak ezarritakoarekin bat etorrituz, errekurritutakoa ez den zerga betebeharraren lotua erregularizatuko da, non Administrazioak erreklamazioaren xede den zerga betebeharraren likidazioa funtsatzeko irizpideak edo elementuak aplikatu dituen.

Erregularizazio horren ondorioz, errekurritutakoa ez den zerga betebeharraren lotua baliogabetzen bada eta errekurtsioan ebatzitakoaren araberrako likidazio berria egiten bada, honako foru arau honetako 26. artikuluko 5. idatz zatiak xedatutakoa aplikagarria izango da.”

8. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak behin eta berriz ezartzen duen doktrinak Zerga Administrazioa lotetsiko du.

245. artikulua.- Ebazteko epea.

1. (7) Prozeduraren gehieneko iraupena urtebetekoa izango da, erreklamazioa aurkeztu denetik zenbatzen hasita. Epealdi hori igarota interesdunak ezetsitatzat jo dezake erreklamazioa eta bidezko errekurtsioa jarri.

Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak berariazko ebazpena emango du beti. Berariazko ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasiko dira zenbatzen errekurtsioak aurkezteko epealdiak.

Atal honetako lehenengo paragrafoan xedatutakoari kalte egin gabe, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak erabakitzen badu beste eremu edo jurisdikzio batzuetan jarraitutako prozeduretan oraindik ezarri ez diren erabakiek aurkatutako ekintzak kalte ditzaketela, behar bezala arrazoituta eta interesdunari entzun ondoren, erabaki ahalko du jarduketak etetea, ebazteko epearen konputua geldiaraziz, baita Foru Arau honen 65. artikulua aipatzen duen aginduaren epea ere, horiek bukatu arte.

2. Erreklamazioa jarri zenetik urtebete igarota, berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada eta, betiere, erreklamaturako egintza etetea aurrez erabaki bada, berandutza-interesen sortzapena gelditu egingo da, foru arau honetako 26. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako baldintzen arabera.

245 bis artikulua.- (29) Deuseztatzeko errekurtsioa.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpenen aurka, deuseztatzeko errekurtsioa jarri ahal izango da Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean, hamabost eguneko epean, bakar-bakarrik ondoko kasuetan:
 - a) Erreklamazioaren onartezintasuna behar bezala adierazten denean.
 - b) Bide ekonomiko-administratiboan aurkeztu diren alegazioak edo frogak hutsalak deklaratu direnean.

- c) Ebazpenaren erabateko eta ageriko kongruentziarik eza dagoela alegatzen denean.
2. Era berean, honako foru honen 243. artikuluan jasota dagoen jarduketak artxibatzeko erabakiaren aurkako deuseztatzeko errekurtsua jarri ahal izango da.
 3. Errekurtsu hori ezin izango da berriro erabili ebazpenaren aurrean. Deuseztatzeko errekurtsua ez da bidezkoa izango berrikusteko errekurtsu bereziaren ebazpenaren aurrean.
 4. Errekurtsu idazkian alegazioak jasoko dira eta bidezko frogak erantsiko dira. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak hilabeteko epean ebatziko du, beste izapiderik gabe, eta horrela ez bada, ezetsi dela ulertu beharko da.
 5. Deuseztatzeko errekurtsua jartzeak ez du etengo administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko epea.

245 ter artikulua.- (29) Betearazpenaren aurkako errekurtsua.

1. Ebazpen ekonomiko-administratiboak betearazteko egintzak zehatz-mehatz lotuko zaizkie horien erabakiei.
2. Interesduna ebazpen ekonomiko-administratibo bat betearaztearren eman diren egintzekin bat ez badator, honako errekurtsu hau aurkeztu ahal izango du.
3. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak eskumena izango du errekurtsu horretaz jakiteko. Hala, emandako ebazpenak gauzatu beharreko baldintza zehatzak ezarri ahal izango ditu, epaitza taxuz betearazteko.
4. Hilabeteko epea egongo da errekurtsu hau jartzeko, errekurritu daitekeen egintza jakinarazten den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.
5. Errekurritutako egintzaren etendura ez da inola ere onartuko gai berririk proposatzen ez badira, betearazten ari den ebazpen ekonomiko-administratiboa aintzat hartuta.
6. Ezin izango da berraztertzeke errekurtsorik jarri betearazpenaren aurkako errekurtsuaren aurretik.
7. Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak betearazpenaren aurkako errekurtsua onartezina dela deklaratu du betearazten ari den ebazpenean bertan aurkeztu diren auziei dagokienez, dagoeneko erabaki diren gaiei buruz, ebazpena betearazten ari deneko erreklamazioan aurkez zitezkeen gaiei dagokienez, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 244. artikuluko 4. idatz zatian aipatutako kasuetako bat gertatzen denean.

246. artikulua.- Berrikuspenerako aparteko errekurtsua.

1. Interesdunek berrikuspenerako aparteko errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Zerga Administrazioaren egintza irmoen aurka eta Arabako Lege eta Administrazio

Erakundearen ebazpen ekonomiko-administratiboen aurka, honako inguruabarren bat gertatzen denean:

- a) Gaia erabakitzeke funtsezkoak diren agiriak agertzen direnean. Agiri horiek errekurritu den egintza edo ebazpena baino geroagokoak izango dira, edo, bestela, haien garaian ezin aurkeztu izan zirenak; nolana ere, okerren bat dagoela agertuko dute.
 - b) Egintza edo ebazpena ematerakoan funtsezko eragina izan duen agiri edo lekukotasunen bat faltsua dela agertzen denean, egintza edo ebazpena baino lehenagoko edo geroagoko epai irmo baten bidez hala adierazita.
 - c) Prebarikazio, eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo zigortzeko moduko beste jokabideren baten ondorioz emana denean egintza edo ebazpena, eta epai irmo baten bidez horrela adierazten denean.
2. Errekurtso hau aurkezteko legitimatuta egongo dira interesdunak eta Ogasuneko zuzendaria.
 3. Errekurtsoa onartezintzat joko da goiko 1. idatz-zatian adierazitakoak ez diren inguruabarrak alegatzen direnean.
 4. Errekurtsoa hiru hilabeteko epean aurkeztuko da, agirien berri dagoenetik edo epaia irmo bihurtzen denetik zenbatzen hasita.
 5. [\(29\)](#) Berrikusteko errekurtso bereziaren ebazpena sei hilabeteko epean emango da. Epe hori igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, interesdunak errekurtsoa ezetsi dela ulertu beharko du.

3. ATALA

ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA

247. artikulua.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Bide ekonomiko-administratiboa agortzen duten ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio-organo eskudunari zuzenduta.

VI. TITULUA

[\(29\)](#) TRIBUTUAK APLIKATZEKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK OGASUN PUBLIKOAREN AURKAKO DELITU KASUETAN

248. artikulua.- Likidazioen gauzapena Ogasun Publikoaren aurkako delituen zantzuak agertzen direnean.

1. Zerga administrazioak Ogasun Publikoaren aurkako delitu zantzuak hautematen dituenean, prozeduraren izapidetzeari eutsiko zaio aplikagarriak diren arau orokorrei jarraiki, erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari emateari edo espedienteak Fiskaltzara helarazteari kalterik egin gabe, honako titulu honetan ezarritako arauari jarraiki.

Hurrengo artikuluan jasotako kasuetan izan ezik, egiaztapenaren xede den zerga betebeharra osatutako elementuen likidazioa ematea bidezkoa izango da, eta zenbait likidaziotan banatuko dira Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotutako kasuak eta Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotzen ez zaizkion kasuak.

(33) Idatz zati honetan aipatzen diren likidazioak egiteko eskumena Arabako Foru Aldundiak edukiko du kasu honetan: zergapekoa ikuskatzeko eskumena berak daukanean Ekonomia Itunak ezartzen duenaren arabera. Horrelakoetan, AFAk administrazio eskudun guztien aurrean erabiliko du eskumen hori, hau da, haiei dagozkien tributazio proportzio guztiak hartuta, eta berak kobratuko ditu likidazio guztiak; nolanahi ere, gero bidezko konpentsazioak egin ahal izango dira administrazioen artean.

2. Hala badagokio, ematen den likidazioak, Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotzen zaizkion zerga betebeharraren elementuei doakiena, honako titulu honetan ezarritakoari men egingo dio.

Honako atal honetan jasotzen diren inguruabarretan, administrazioak ez du hasiko, edo hala badagokio, ez jarraituko, egitate horiei lotutako zehapen prozedura. Zehapen prozedura hasi bada, prozedura aurretiaz bukatu ez bada, bukaera gertatu dela ulertuko da, hala dagokionean, erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari ematen zaionean edo espedienteak Fiskaltzari helarazten zaionean, zehapen prozedura berria hasteko aukerari kalterik egin gabe, atal honen azken paragrafoan jasotako kasuetan.

Agintaritzak judizialaren kondena epaiak administrazio zehapena ezartzea eragotziko du.

Deliturik badagoela hautematen ez bada, Zerga administrazioak, bidezkoa denean, administrazioaren zehapen prozedura hasaraziko du auzitegiek frogatutzat jotako egitateetan oinarriturik.

3. Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delituari lotzen ez zaizkion zerga kontzeptuen inguruan ematen den likidazioaren izapidetzea prozedura arrunt egokiaren arabera egingo da, honako foru arau honetako III. tituluaren IV. kapituluaren xedatutakoari jarraiki, eta V. tituluaren ezarritako berrikuspen araubideari men egingo dio.

249. artikulua.- Likidazioen gauzapearen salbuespenak, Ogasun Publikoaren aurkako delituen zantzuak agertzen direnean.

1. Zerga administrazioak Ogasun Publikoaren aurkako delitu zantzuak hautematen dituenean, erruduntasun testigantza emango dio jurisdikzio eskumendunari edo espedientea helaraziko dio Fiskaltzari, baina ez du gauzatuko honako foru arau honetako 248.2 artikuluan jasotzen den likidazioa, honako inguruabar hauetan:

a) Likidazio administratiboaren izapidetzeak delituaren preskripzioa sorraraz dezakeenean, Zigor Kodearen 131. artikuluan ezarritako epeak aintzat hartuta.

b) Ikerketaren edo egiaztapenaren ondorioz, likidazioaren zenbatekoa zehazterik ez dagoenean edo zergapeko jakin bati egozterik ez dagoenean.

c) Likidazio administratiboak eraren batean kalterik eragin diezaikeenean zerga iruzurraren ikerketari edo egiaztapenari.

d) (42) Administrazioak zerga zorra likidazioaren bidez zehazteko duen ahala preskribatuta edo iraungita dagoenean.

Arestian azaldutako kasuetan, Zerga administrazioak aurkeztutako salaketa edo kereila idazkiaz gain, likidazioa ez emateko erabaki administratiboa ekarri duten inguruabarrak gertatzen direlako erabaki arrazoitua ere helaraziko da.

Kasu horietan, ez zaio entzunaldirik edo alegazioak egiteko aukerarik emango zergapekoari.

2. Aurreko atalean azaldutako inguruabarretan, administrazioak ez du prozedura administratiborik hasaraziko edo, hala badagokio, ez jarraituko. Prozedura hori etenda geratuko da agintaritza judizialak epai irmoa eman arte, jarduketak largetsi edo artxibatu arte edo Fiskaltzak espedientea itzuli arte.

Hala eta guztiz ere, zehapen prozedura hasarazi bada, bukatutzat joko da, hala dagokionean, erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari ematen zaionean edo espedientea Fiskaltzari helarazten zaionean, zehapen prozedura berria hasteko aukerari kalterik egin gabe, azkenean, deliturik hauteman ezean eta, hala badagokio, auzitegiek frogatutzat emandako egitateen arabera.

Erruduntasun testigantzaren emateak edo espedientea helarazteak zerga zorra zehazteko eskubidea preskribatzeko eta zehapena ezartzeko epeak etengo ditu, honako foru arau honetako 67.1 eta 193.3 artikuluetan ezarritakoei jarraiki.

Agintaritza judizialaren kondena epaiak administrazio zehapena ezartzea eragotziko du.

Salatutako egitateez den bezainbatean, etendura aldian egin diren egiaztapen eta ikerketa prozeduraren jarduketak hutsaltzat hartuko dira.

3. (42) Aurreko kasuetan, deliturik badagoela hauteman ezean, zerga administrazioak jarduketak hasarazi edo garatuko ditu jurisdikzio organoek foru arau honen 147.

artikuluaren 1. apartatuan ezartzen den epealdia, artikuluko horren beraren 4. paragrafoaren b) letran ezarritakoa kontuan hartuta, amaitu arteko aldia edo, hori luzeagoa bada, sei hilabeteko epealdia frogatutzat emandako egitateetan oinarriturik. Aipatutako epea zenbatzen hasiko da prozedurari eutsi behar dion organo eskudunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzultitako espedienteak jasotzen duen unetik aurrera.

Preskripzio aldiak berriz hasiko dira zenbatzen foru arau honen 67. artikuluko 7. artikuluan ezartzen den bezala.

250. artikulua.- Borondatezko erregularizazioa.

Zerga administrazioak ez dio erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari emango, ez espedienteak Fiskaltzari helaraziko, zergapekoak zerga egoera erregularizatu duela agertzen ez bada. Erregularizazioa gauzatzeko, zergapekoak zerga zorra erabat aitortu eta ordaindu beharko du erregularizazioaren xede den zerga zorra zehazteko egiaztapen eta ikerketa jarduketak hasaraziko direla jakinarazi baino lehen edo, jarduketak egin ezean, Fiskaltzak, Estatuko abokatuak edo Arabako Foru Aldundiko ordezkari prozesalak zergapekoaren aurkako kereila edo salaketa jarri baino lehen, edo Fiskaltzak edo instrukzio epaileak eginbideak hasi direlako jakintza formalaren berri ematen dioten jarduketak hasi baino lehen.

Zerga zorra honako foru arau honetako 57. artikuluan jasotzen diren elementuek osatzen dute. Zergapekoak autolikidazioa egin eta aldi berean ordaindu beharko ditu zergaren kuota, berandutza interesak eta ordaintzeko data izan arte legez sortu diren errekarguak. Hala eta guztiz ere, nor bere borondatez erregularizatutako tributuak autolikidazio prozeduraren bidez eskatzen ez direnean, zergapekoak aitorpen egokia aurkeztu beharko du, eta Zerga administrazioak likidatutako zerga zorraren zenbateko osoa ordaindu beharko du zerga arloko araudian ezarri den ordainketa epearen barruan.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikagarria izango da, zerga zorraren zenbatekoa zehazteko helburuz, erregularizazioa administrazioaren eskubidea preskribatuta dagoela egiten denean.

Artikulu honen lehen paragrafoan jasotzen den erabateko aitorpena eta ordainketa zilegi direla zehazteko, Zerga administrazioak bidezko egiaztapen edo ikerketa jarduketak garatu ahalko ditu, nahiz eta jarduketa horiek honako foru arau honetako 65.a) artikuluan arautzen den preskripzioa bete duten zergaldi eta zerga kontzeptuei eragin.

251. artikulua.- Ikuskapen prozedura izapidetzea, likidazioa egitea bidezkoa denean.

1. Zerga administrazioak Ogasun Publikoaren aurkako delitu zantzuak hautematen ditunean eta likidazioa ematea galarazten duten arrazoiak gertatzen ez direnean, honako foru arau honetako 249. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoari jarraiki, delituari lotutako likidazioa formalizatzea bidezkoa izango da, eta bertan, proposamena zer egitateetan eta zuzenbideko oinarritan funtsatzen den adieraziko da.

Proposamena zergapekoari jakinaraziko zaio eta entzunaldia emango zaio, haren eskubideari doakiona alegatzea izan dezan, egutegiko hamabost eguneko epean, proposamena jakinarazten den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

Inongo kasutan, administrazio izapidetzean gertaturiko prozedurazko akatsek iraungiaraziko dute delituari lotutako zerga betebeharra, ez osorik, ez zati batean, ezta honako foru arau honetako 147. artikuluko 2. atalean ezarritakoak ere, Zerga administrazioak zerga zorraren likidazioa gauzatzeko helburuz garatu dituen jarduketei dagokienez, horietatik eratorritakoei kalterik egin gabe, Fiskaltzak espedienteak itzultzen badu edo honako foru arau honetako 255.2 c) artikuluko araututako doiketa gauzatzeko beharra agintzen duen ebazpen judizial irmoa ematen bada, Ogasun Publikoaren aurkako delituri badagoela hauteman ez delako.

Entzunaldiaren izapidea baliatzeko epea igarota eta, hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertuta, organo eskumendunak likidazio administratiboa emango du, eta Zerga administrazio eskumendunaren baimena izango du, aurretiaz edo aldi berean, salaketa edo kereila aurkezteko, bidezko erregularizazioak Ogasun Publikoaren aurkako ustezko delitua agerian jartzen duenean.

Likidazio administratiboa eman ondoren, Zerga administrazioak erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari emango dio edo espedienteak Fiskaltzari helaraziko dio eta egiaztapen prozedura bukatuko da, likidazio horren bidez erregularizatu diren zerga betebeharraren elementuei dagokienez, zergapekoak likidazioaren jakinarazpena jasotzen duenean. Jakinarazpenean, ohartaraziko da ordainketaren borondatezko aldia bakar-bakarrik zenbatzen hasiko dela salaketa edo kereilaren izapidetzea onartu dela jakinarazten denean, honako foru arau honetako 253. artikuluko ezarritako baldintzei jarraiki.

Erruduntasun testigantzaren emateak edo espedienteak helarazteak zerga zorra zehazteko eskubidea preskribatzeko eta zehapena ezartzeko epeak etengo ditu, honako foru arau honetako 67.1 eta 193.3 artikuluetan ezarritakoei jarraiki.

2. Salaketa edo kereila ez onartzeak ikuskapen jarduketaren atzeraeragina ekarriko du delituari lotutako likidazioaren proposamena eman zeneko unearen aurrekora, eta kasu horretan, bidezkoa izango da akta egokia formalizatzea. Akta izapidetuko da honako foru arau honetan eta hori garatzeko araudian ezarritakoei jarraiki.

Ikuskapen jarduketaren bukaerak men egingo dio honako foru arau honetako III. tituluaren IV. kapituluaren 3. atalaren 3. azpiatalean xedatzen denari.

(42) Prozedurak amaitu beharko du jarduketak atzera eramaten diren unetik foru arau honen 147. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den epealdia amaitu arte, artikuluko beraren 4. apartatuaren b) letran ezarritakoa kontuan hartuta, edo sei hilabeteko epealdian, hau luzeagoa bada. Epealdi hori zenbatzen hasiko da prozedurarekin jarraitu behar duen organo eskudunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzultitako espedienteak jasotzen duenetik.

Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatik berandutza interesak eskatuko dira. Berandutza interesak zenbatzen hasteko data izango da, honako foru arau honetako 26. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik, baliogabetutako

likidazioari egokituko zitzaion data berdina, eta interesa likidazio berria eman arte joan den unera arte sortuko da.

Halako kasuetan, zorraren zenbatekoa zehazteko eskubidea preskribatzeko epeak zenbatzen hasiko dira eta zehapena ezarriko da, honako foru arau honetako 67. artikuluko 7. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

3. Zerga kontzeptu eta zergaldi bakarrari erreparaturik, Ogasun Publikoaren aurkako delitua eragin dezakeen dolozko jokabidea hauteman deneko elementuak eta aipatutako dolozko jokabide hori hauteman ez deneko elementu eta erregularizatu beharreko zenbatekoak bereizi behar direnako kasuetan, bi likidazio bereiz egingo dira.

Bi likidazio horien zenbateko zehazteko, delituari lotutako likidazioaren proposamena eta ikuskapen akta formalizatuko dira, ondoko arauei jarraiki:

a) Delituari lotutako likidazioaren proposamenak aitorpenaren xede izan diren elementuak bilduko ditu eta, hala badagokio, doloa edo iruzurra hauteman den elementu guztiak erantsiko zaizkie lehenengoei; bestetik, zergapekoak eskubidez balia ditzakeen aldeko doiketak kenduko dira, bai eta, izaera osagarritz, oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharreko partidak ere. Aurkeztutako aitorpenean ordaindu beharreko kuota zehaztu bada, zenbateko hori kenduko da likidazioaren proposamena kalkulatzeko helburuz.

b) Aktan jasotako likidazioaren proposamenak egiaztatutako elementu guztiak bilduko ditu, ustezko delituari lotutakoak zein loturarik ez dutenak, eta aurreko letran jasotzen den likidazio proposamenean ateratzen den zenbatekoa kendu egingo da.

Hala ere, zergapekoak bi kuotak kalkulatzeko sistema aplikatu ahal izango du. Sistema horren funtsa dugu oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu behar diren partiden proportziozko aplikazioa, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzei jarraiki. Aukera horren berri eman beharko zaio administrazioari delituari lotutako likidazioaren proposamena jakinarazi ondoko alegazioen epearen barruan.

252. artikulua.- Likidazioak aurkaratzea.

1. Foru arau honetako 248.2 artikulua ezarritakoaren ondorioz emandako likidazio administrazioaren aurrean, ezin da errekurtsorik edo erreklamaziorik jarri administrazio bidean, zigor prozesuan ebazten denaren arabera, bidezkoa den doiketari kalterik egin gabe, Zigor Kodeko 305. artikuluan eta honako foru arau honetako 255. artikuluan ezarritakoekin bat etorriz; hala, bada, zigor arloko epaileari dagokio epai bidez zehaztea Ogasun Publikoaren aurkako delituei lotutako iruzurrezko kuota, Zigor Kodeko 305. artikuluko 5. idatz zatian eta honako foru arau honetako VI. tituluaren araututakoen eredura likidatuko litzatekeena.

Inongo kasutan, administrazio izapidetzean gertaturiko prozedurazko akatsek iraungiaraziko dute delituari lotutako zerga betebeharra, ez osorik, ez zati batean, ezta honako foru arau honetako 147. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoak ere, Zerga administrazioak zerga zorraren likidazioa gauzatzeko helburuz garatu dituen jarduketei dagokienez.

2. Ustezko delituari lotzen ez zaizkion elementu eta zenbatekoen erregularizazioaren ondorioz sortutako likidazioaren aurrean, honako foru arau honetako V. tituluan ezarritako errekurtsioak eta erreklamazioak jarri ahalko dira.

253. artikulua.- Likidatutako zorraren bilketa, Ogasun Publikoaren aurkako delituen zantzuak agertzen direnean.

Foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatian jasotzen diren inguruabarretan, Ogasun Publikoaren aurkako delituagatiko zigor prozedura abiarazteak ez ditu likidatutako zerga zorra kobratzeko administrazio jarduketak geraraziko, epaileak betearazpen jarduketak etetea erabaki ezean.

Aurreko paragrafoan aipatu diren kobratzeko administrazio jarduketek honako foru arau honetako III. tituluaren V. kapituluaren ezarritako arau orokorreari men egingo diete, honako titulu honetan jasotako jarduketa bereziek izan ezik.

Ogasun Publikoaren aurkako delituagatiko salaketa edo kereila onartu eta gero, Zerga administrazioak zergapekoari jakinaraziko dio ordaintzeko borondatezko epea noiz hasten den, eta likidatutako zerga zorraren zenbatekoa honako foru arau honetako 61. artikuluko 2. idatz zatian jasotako epearen barruan ordaintzeko errekerimendua egingo dio.

254. artikulua.- Diru bilketaren aurreko aurkakotzaren arrazoiak.

Foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoari jarraiki likidatutako zerga zorra kobratzeko garatzen diren diru bilketaren egintzen aurrean, honako foru arau honetako 171.3, 174.3 eta 176.1 artikuluko bigarren paragrafoan agertzen diren arrazoiak baino ezin izango dira aurkaratu, eta horien berrikuspena honako foru arau honetako V. tituluan ezarritakoari jarraiki egingo da.

255. artikulua.- Ebazpen judizialaren ondorioak zerga likidazioaren gainean.

1. Foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatian jasotzen diren inguruabarretan, zerga administrazioak emandako likidazioak zigor prozesuan azkenean erabakitzen denari men egingo dio, iruzurrik egon dela ebazteari eta iruzurraren zenbatekoari dagokienez.

2. Doiketa honela egingo da:

a) Zigor prozesuan Ogasun Publikoaren aurkako delituagatiko kondena epaia emango balitz eta, prozesu horretan, administrazio bidez likidatutako iruzurrezko kuota berdina zehaztuko balitz, ez da egindako likidazioa aldatu beharko, berandutza interesen eta dagozkion errekariguen likidazioari kalterik egin gabe.

Zigor arloan zehaztutako iruzurrezko kuota eta administrazio bidez zehaztutakoa desberdinak izango balira (lehenengoa bigarrena baino handiagoa ala txikiagoa izango balitz), honako foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatian araututakoaren eredura emandako likidazioa aldatu beharko litzateke. Kasu horretan,

hasierako egintzak iraungo du, eta zuzendu egingo da epaiaren edukiarekin bat etorritik, zigor prozesuan iruzurrezko kuotatzat finkatu denari egokitzeko.

Zerga administrazioak aurreko paragrafoan ezarritakoaren eredura egikaritutako aldaketak ez du eraginik izango lehendik egindako diru bilketako jarduketaren baliozkotasunean, zigor prozesuan berretsi den zenbatekoari dagokionez.

Aldatzeko erabakia auzitegi eskumendunari helaraziko zaio, hark betearaz dezan, bai eta ordaindu behar duen zergapekoari eta zigor prozesuan bertaratu diren gainerako alderdiei ere.

Zigor prozesuan zehazten den iruzurrezko zenbatekoa administrazio bidez zehaztutakoa baino txikiagoa izango balitz, zerga arloko araudian ondore horretarako ezarritako arau orokorrak aplikagarriak izango lirateke, sarreraren itzulketari eta bermeen kostuaren itzulketari dagokienez.

b) Azkenik, zigor prozesuan deliturik aurkitzen ez bada zerga betebeharririk ez dagoelako, administrazio bidez egindako likidazioa deuseztatu egingo da, eta zerga arloko araudian ondore horretarako ezarri diren arau orokorrak aplikagarriak izango dira, sarreraren itzulketari eta bermeen kostuaren itzulketari dagokienez.

c) Zigor prozesuan ebazpen irmorik emango balitz, zerga betebeharraren ez-izatez besteko arrazoi baten ziozko deliturik ez dagoela ebatzita, emaitzak ikuskapen jarduketaren atzeraeragina ekarriko du honako foru arau honetako 251. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako eta delituari lotutako likidazioaren proposamena eman zeneko unearen aurrekora, organo judizialak frogatutzat eman dituen egitateak aintzat hartuta. Halakoetan akta formalizatuko da, eta honako foru arau honetan eta hori garatzeko araudian ezarritakoei jarraiki izapidetuko da.

Ikuskapen jarduketaren bukaerak men egingo dio honako foru arau honetako III. titularen IV. kapituluaren 3. atalaren 3. azpiatalean xedatzen denari.

(42) Jarduketak atzera eramaten diren unetik foru arau honen 147. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den epea amaitu arteko epean amaitu beharko da prozedura, artikuluko beraren 4. paragrafoaren b) letran ezarritakoa kontuan hartuta betiere, edo sei hilabeteko epean, azken hori luzeagoa bada, jarduketa judizialak edo Fiskaltzakitutako espedienteak jasotzen direnetik kontatzen hasita. Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatik berandutza interesak eskatuko dira. Berandutza interesak zenbatzen hasteko data izango da, honako foru arau honetako 26. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik, baliogabetutako likidazioari egokituko zitzaion data berdina, eta interesa likidazio berria eman arte joan den unera arte sortuko da.

Honako foru arau honetako V. tituluaren araututako berrikuspen araubideari eta zerga likidazio ororen berezko baliabideei men egin beharko die, baina ebazpen judizialean frogatutzat emandako egitateak ezin izango dira aurkaratu.

Halako kasuetan, zorraren zenbatekoa zehazteko eskubidea preskribatzeko epeak zenbatzen hasiko dira eta zehapena ezarriko da, honako foru arau honetako 67. artikuluko 7. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik.

256. artikulua.- Erantzuleak.

1. Foru arau honetako 248.5 artikulua xedatutakoari jarraiki likidatutako zerga zorraren erantzule solidarioak izango dira likidazioa sorrarazi duten egintzen kausatzaileak edo egintzetan gogotik parte hartu dutenak, baldin eta salatutako delituagatik hasarazi den zigor prozesuan inputaturik badaude edo aipatutako prozesuaren zioz kondenaturik badaude.

Likidazio prozeduran ageri diren edo prozedura horren bitartez lortu diren datuak, frogak edo inguruabarrak, artikulua honetan ezarritako erantzukizuna galdatzeko prozeduran kontuan hartzekoak badira, era formalean txertatu behar dira bertan, ebazpen proposamena eman baino lehen.

2. Foru arau honetako 248. artikuluko 2. idatz zatian jasotzen diren likidazioei dagokienez, honako foru arau honetako 42. artikuluko 4. idatz zatian araututako erantzukizun inguruabarrak ere aplikagarriak izango dira.
3. Aurreko 1 idatz zatian araututako erantzukizuna deklaratzeko duen erabakiaren aurkako errekurtsioan edo erreklamazioan, aipatutako erantzukizunaren irismen globala baino ezin izango da aurkaratu.
4. Zigor prozesuan, aurreko 1 idatz zatian aipatzen diren erantzuleen largespena edo absoluzioa erabakitzen bada, erantzukizunaren adierazpena deuseztatu egingo da, zerga arloko araudian ondore horretarako ezarritako arau orokorrak aplikagarriak izango dira, sarreraren itzulketari eta bermeen kostuaren itzulketari dagokienez.
5. Foru arau honetako 67. artikuluko 9. idatz zatian xedatutakoari kalterik egin gabe, 1 idatz zatian agertzen diren erantzukizun inguruabarretan, zergapeko baten preskripzio epea eteten bada, etenduraren eragina zergapeko guztiei hedatuko zaie, bai eta erantzuleei ere.
6. Aurreko 1 eta 2 idatz zatietan arautzen diren inguruabarretan, erantzukizuna adierazteko erabakiak emateko eskumena diru bilketako organoari dagokio.
7. Erantzukizun adierazpenaren prozedurari atxikitako epea etentzat hartu da salaketa edo kereila Fiskaltzaren edo organo judizialaren aurrean aurkeztu denetik auzipetuen egozpen formala gertatu arte.

(44) Artikulu honetan araututako erantzukizun adierazpenaren prozeduraren izapidetzeak irauten duen artean hartutako kautelazko neurriei honako foru arau honetako 78.6.e) artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaio.

VII. TITULUA

(29) ZERGA ARLOARI ERAGITEN DIOTEN ESTATUKO LAGUNTZAK BERRESKURATZEA

I. KAPITULUA

(29) XEDAPEN OROKORRAK

257. artikulua.- Xedapen orokorrak.

1. Zerga administrazioari dagokio beharrezko jarduketak egitea zerga arloan eragina duten Estatuko laguntzak berreskuratzeke erabakiak gauzatzeko.
2. Tributuen aplikaziotzat hartzen da zerga arloan eragina duten Estatuko laguntzak berreskuratzeke erabakiak gauzatzeko aldera beharrezkoak diren administrazio egintzak egikaritzea, bai eta zergapekoen jarduketak egikaritzea haien eskubideak erabiliz edo erabaki horien ondorioz sortzen diren zerga betebeharrak betetzeko xedez.
3. Artikulu honen aurreko atalek jasotzen dituzten inguruabarrez gain, titulu honetan xedatutakoa zeinahi inguruabarretan aplikagarria izango da, non Europar Batasuneko Zuzenbidea betetzeko xedez, zerga arloan eragina duten Estatuko laguntza gisa jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatzea bidezkoa den.
4. Arabako Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, zerga arloan eragina duten Estatuko laguntzak berreskuratzea xede duten prozeduren hasiera eta ebazpena erabakitzeke eskumena Ogasun zuzendariarena izango da.
5. (42) Europar Batasunaren ordenamenduaren arabera estatuko laguntza diren zerga onurak ezin izango dituzte jaso lege kanpokatzen eta barne merkatuarekin bateraezintzat jotako estatu laguntzak jaso dituztenek, baldin eta Batzordeak, alde aurretik, agindu bat eman badu laguntzak berreskuratzeke, harik eta laguntza horiek itzuli arte.

258. artikulua.- Estatuko laguntzak berreskuratzea xede duten erabakiak betearazteke prozedurak.

Estatuko laguntzak berreskuratzea xede duten erabakiak betearazteke prozedurak ondokoak dira:

- a) Berreskuratzeke prozedura erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan.
- b) Berreskuratzeke prozedura beste kasu batzuetan.

259. artikulua.- Preskripzioa.

1. Hala badagokio, berreskuratzeke erabakiaren betearazpenaren ondorioz sortzen den zerga zorra zehaztu eta ordainketa galdatzeko administrazioaren eskubidea hamar urtera preskribatuko da.
2. Preskripzio epea zenbatzen hasiko da erregularizazioaren xede den zerga betebeharra betetzeko Estatuko laguntzaren aplikazioak zerga arloko araudiaren arabeko ondore juridikoak sorrarazten dituen unean.

3. Preskripzio epea ondoko zioengatik etengo da:

- a) Zerga Batzordeak edo Zerga Administrazioak Estatuko laguntzarekin zerikusia daukan batzordearen eskariz bideratzen duen zeinahi jarduketaren zioz.
- b) Zergapekoak era formalean dakiela, Zerga administrazioak bideratzen duen zeinahi ekintzaren zioz, berreskuratze erabakiak eragindako elementuei atxikitzen zaien zerga zorra aitortzeko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, ziurtatzeko eta likidatzeko helburuz edo ordaintzeko helburuz.
- c) Zergapekoak gauzatzen duen zeinahi jarduketa sinesgarriren zioz, zerga zorra likidatzeko edo ordaintzeko helburuz, edo bidezko errekursoak jartzearen zioz.

4. Preskripzio epea eten beharko da berreskuratze erabakia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurreko prozeduraren barruan dagoen denbora guztian.

260. artikulua.- Berreskuratze erabakia betearaztearen ondorioak.

- 1. Zerga administrazioak gauzatutako ebazpena edo aurrelikidazioa egin denean, estatuko laguntza berreskuratze erabakiak eragindako zerga betebeharrari dagokionez, erabaki horren betearazpenak zehaztuko du ebazpena edo likidazioa aldatu beharko den, irmoa izan arren.
- 2. Berandutza interesek Europar Batasuneko araudian xedatutakoei men egingo diete.

261. artikulua.- Betearazpen egintzaren aurkako errekursoak.

Berreskuratze erabakiaren betearazpenak sortutako ebazpena edo likidazioaren aurrean, berraztertze errekurtoa jarri ahalko da eta, hala badagokio, erreklamazio ekonomiko-administratiboa, honako foru arau honetan ezarritako baldintzei jarraiki.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat, ebazpena edo likidazioa berrikusten bada, administrazio egintzen betearazpenaren etendura bakarrik onartuko da bermeak emanda, hain zuzen ere, dirua gordailututa Zerga administrazioan.

II. KAPITULUA

(29) BERRESKURTZEKO PROZEDURA BERRESKURTZEKO ERABAKIAK ERGAINDAKO ZERGA BETEBEHARRAREN ELEMENTUAK ERREGULARIZATZEKO INGURUABARRETAN

262. artikulua.- Berreskuratzeko prozedura erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan.

1. Erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan, berreskuratzeko prozeduran, Zerga administrazioak erabakiak eragindako betebeharraren elementuak egiaztatu, besterik ez du egingo.
2. Prozedura honetan, Zerga Administrazioak ondoko jarduketak soilik egin ditzake:
 - a) Zergapekoek aitorpenetan edo autolikidazioetan adierazitako datuak eta haiek aurkeztutako frogagiriak edo eskatzen direnak aztertzea.
 - b) Administrazio zergak eskuratutako datuak eta aurrekariak aztertzea.
 - c) Erregistroak eta zerga araudian eskatzen diren gainerako agiriak aztertzea, bai eta bestelako liburu, erregistro eta agiri ofizial guztiak ere, adibidez, merkataritzako kontabilitatea, eta liburu, erregistro eta agiri horietan adierazitako eragiketak frogatzen dituzten fakturak edo agiriak miatzea.
 - d) Hirugarrenei informazio errekerimenduak bidaltzea.
3. Prozedurari lotutako jarduketak Zerga administrazioaren bulegoetatik kanpo egin ahalko dira; ondore horretarako, foru arau honetako 136.2 eta 140 artikuluetan jasotako arauak aplikagarriak izango dira.
4. Aurreko ataletan jasotako agirien azterketa eta jarduketen egikaritzea burututzat joko dira Estatuko laguntza berreskuratzeko bidezketasuna zehazte aldera, eta horrela ez da eragotziko, ez mugatuko, egitate edo agiri berdinak gerora egiaztatzei aukera.

263. artikulua.- Hasiera.

1. Erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan, berreskuratzeko prozedura ofizioz hasaraziko da, Zerga administrazioaren erabakiz.
2. Zergapekoei komunikazio bidez jakinaraziko zaie prozedurako jarduketak hasi direla. Komunikazio horretan, jarduketak nolakoak izango diren eta noraino helduko diren azaldu behar zaie eta haien inguruan dituzten eskubideak eta betebeharrak argitu behar zaizkie.

Zerga Administrazioak eskura dauzkan datuak ebazpen proposamena egiteko nahikoak badira, proposamena jakinarazita has daiteke prozedura.

264. artikulua.- Izapidetzea.

1. Erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan, berreskuratzeko prozedurari lotutako jarduketak honako foru arau honetako 95. Artikuluko 8. idatz zatian jasotzen diren komunikazio eta eginbideetan dokumentatuko dira.

2. Zergapekoek arreta eskaini beharko diote Zerga administrazioari eta haren eginkizunak betetzen lagundu beharko diote.

Errekerimendua bidaliz gero, bertan adierazitako leku, egun eta orduan, zergapekoa bertaratu beharko da jarduketak gauzatzera; horrez gainera eskatutako agiri eta elementu guztiak aurkeztu beharko ditu edo Zerga administrazioan aurkezteko prest izan beharko ditu.

3. Behin-behineko likidazioa egin aurretik, Zerga administrazioak likidazio-proposamena jakinarazi behar dio zergapekoari, eskubidez komeni zaiona alegatzea izan dezan hamar eguneko epean.

265. artikulua.- Prozedura amaitzea.

1. Erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak erregularizatzeko inguruabarretan, berreskuratzeko prozedura Zerga administrazioaren berariazko ebazpenez amaituko da. Ebazpen horrek, gutxienez ondoko edukiak jaso beharko ditu:

- a) Berreskuratzeko erabakiak eragindako zerga betebeharraren elementuak eta erabakien xede diren denborazko esparrua.
- b) Ebazpena arrazoitzen duten egitateak eta zuzenbideko oinarriak.
- c) Behin-behineko likidazioa edo, bestela, berreskuratzeko erabakiaren ondorioz zerga egoera erregularizatu beharrik ez dagoelako adierazpen berariazkoa.

2. Foru arau honetako 100. artikuluan araututako prozeduraren iraunaldiaren ez-betetzeak ez du prozeduraren iraungipena ekarriko eta prozedura amaitu arte bideratuko da. Kasu horretan, preskripzioa ez da etentzat joko aipatutako epe horren barruan garatutako administrazio egintzen ondorioz.

Halako inguruabarretan, aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitu ondoren, jarduketak gauzatzen direnean etentzat joko da preskripzioa, interesdunak era formalean jakinda.

3. Ebazpen judizial batek formazko akatsak hautematen baditu eta administrazio jarduketek atzera egiteko agintzen badu, jarduketek atzera egiten duten unetik honako foru arau honetako 100. artikuluan jasota dagoen epea amaitu arte doan aldiaren barruan bukatu beharko dira, edo bestela, hiru hilabeteko epean, esandako aldia luzeagoa bada. Aipatutako epea zenbatzen hasiko da organo eskumendunak Estatuko laguntzak berreskuratzeko prozedura berriro hasteko espedientea jasotzen duenean.
4. Aurreko atalean jasotako ebazpen judizialaren betearazpenak ezin du ekarri, inola ere, zergapekoari berreskuratzeko zenbatekoak bueltatzea. Hala, zenbateko horiek gordailututa geratuko dira Zerga administrazioan erabiltzen diren arte, prozedurari azkena ematen dion administrazio egintzan xedatutakoari jarraiki.

III. KAPITULUA

(29) BERRESKURATZE PROZEDURA BESTE KASU BATZUETAN

266. artikulua.- Berreskuratze prozedura beste kasu batzuetan.

1. Berreskuratze erabakia betearazteak ez badakar zerga betebehar bat erregularizatzea, bete beharreko prozedura kapitulu honetan araututakoa izango da.
2. Berreskuratze erabakia betearazteko, organo eskudunak zerga administrazioari foru arau honetako 166. artikuluan aitortzen zaizkion ahalmenak izango ditu, bertan ezarritako betekizunekin.

267. artikulua.- Hasiera.

Berreskuratze prozedura ofizios hasiko da.

Zergadunei prozedurako jarduketak hasi direla jakinarazi behar zaie. Horretarako komunikazioa bidaliko zaie eta bertan jarduketak nolakoak izango diren eta nora helduko diren azaldu behar zaie eta haien inguruan dituzten eskubideak eta betebeharrak argitu behar zaizkie.

Hasierari buruzko komunikazioan ebazpen proposamena sartu behar da, eta zergadunari hamar eguneko epea emango zaio bere eskubideei komeni zaiena alega dezan.

268. artikulua.- Prozedura amaitzea.

1. Berreskuratze prozedura zerga administrazioaren berariazko ebazpenaren bidez amaituko da, zergadunari prozedura hasi dela jakinarazten zaion egunetik lau hilabeteko epean jakinarazi beharko dena, salbu eta berreskuratze erabakiak beste epe bat ezartzen badu. Foru arau honen 265. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.
2. Prozedura azkentzen duten ebazpenek ondokoak zehaztu behar dituzte, gutxienez:
 - a) Administrazioak aurretik emandako ebazpena aldatzeko erabakia, berreskuratze erabakiaren zentzu berean, edo, bestela, berreskuratze erabakiaren ondorioz aldaketarik ez dela egin behar berariaz esaten duen adierazpena.
 - b) Ebazpenaren arrazoi diren egitateak eta Zuzenbideko oinarriak.
 - c) Likidazioa, baldin eta berreskuratze erabakia betearazteak zerga zorraren exigentzia zehazten badu, zehazki berandutza interesen sortzapenetik datorrena, foru arau honetako 260. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritz.
3. Ebazpen judizial batek akats formalak atzematen baditu eta administrazio jarduketak atzera ekartzeko agintzen badu, jarduketa horiek jarduketak atzera ekartzen diren unetik aurreko 1. idatz zatian aipatzen den epea amaitu arte dagoen denboran amaitu beharko dira, edo bi hilabeteko epean, azken epe hori lehenengoa baino luzeagoa

bada. Estatuaren laguntzak berreskuratzeko prozedura berriro hasteko eskumena duen organoak espedientea jasotzen duenetik aurrera zenbatuko da epe hori.

4. Aurreko idatz zatia dagokion ebazpen judizialak ezin izango du inola ere ekarri zergadunarengandik eskuratutako zenbatekoak itzultzea; diru hori zerga administrazioak edukiko du gordeta, harik eta administrazioari amaiera ematen dion administrazio egintzan xedatutakoaren arabera aplikatu arte.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. [\(34\)](#) Ondare-prestazio publikoak.

1. Ondare-prestazio publikoak dira Konstituzioaren 31.3 artikulua aipatu eta hertsapenezexijitzen direnak.
2. Aurreko apartatuan aipatutako ondare-prestazio publikoek tributu-izaera edo tributuz kanpoko izaera izan ahalko dute.

1. apartatuan aipatzen diren prestazioetatik zergetakoak dira foru arau honetako 16. artikuluan ezartzen denaren arabera tasatzen, kontribuzio berezizat edo zergatztatzen direnak.

Tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak dira hertsapenezexijitzen diren eta interes orokorra xede duten gainerako prestazioak.

Bereziki, tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikotzat hartuko dira halako izaera izanik pertsonifikazio pribatuaren bitartez zuzenean kudeatutako zerbitzua emateagatik edo zeharka kudeatutako zerbitzua emateagatik exijitzen direnak.

Zehatzago esanda, zergez kanpoko ondare prestazio publikoak dira kontzesio araubidean edo ekonomia mistoko sozietatea eratuta, enpresa entitate publikoaren bidez, kapital osoa publikoa duen sozietate baten bidez zein zuzenbide pribatuko gainerako formula guztien bidez obrak ustiatzeagatik edo zerbitzuak egiteagatik eskatzen direnak.

Bigarrena. Toki-ogasunei buruzko arauak.

1. Berraztertze errekurtsoen eta administrazioarekiko diru-erreklamazioen arloan, toki-entitateen zergei eta Zuzenbide Publikoko gainerako sarrerei aplikagarri izango zaizkie toki-ogasunak arautzen dituzten xedapenetan dauden arauak eta, egoki denean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean daudenak.
2. Taldeka eta aldian-aldian jakinarazi beharreko zorrak toki-entitateei zatika ordaintzen zaizkienean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 32. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da zor ez ziren sarrerak itzultzeko.

3. Toki-entitateek, euren eskumeneko eremuan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa garatu ahal izango dute zerga-ordenantzak onetsiz.

Hirugarrena. Zentsu-aitorpenak.

1. Araban enpresa- nahiz lanbide-jarduerak egiten dituzten edo egingo dituzten pertsonak eta erakundeek, bai eta atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dakarten etekinak ordaintzen dituztenek ere, zentsu-aitorpenak egin beharko dizkiote Zerga Administrazioari, zergapekoen zentsuan alta emanda daudela jakinarazteko, edo euren zerga-egoeran aldaketaren bat gertatu dela, edo zentsuan baja hartu dutela. Zergapekoen zentsua zergadunen zentsuaren osagai izango da; Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko zein juridiko eta erakunde guztiak agertuko dira zentsu horretan, Arabako Lurralde Historikoan ondore fiskaletarako identifikaturik egonez gero.

Zentsu-aitorpenen bitartez, gainera, jarduera ekonomikoen hasiera, aldaketak eta amaiera jakinaraziko dira. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoari dagokionez, enpresaburu edo profesionaltzat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko berariazko xedapenekin bat etorritik enpresaburu edo profesional direnak, nahiz eta zerga horren aplikazio-lurraldetik kanpo jardun.

2. Betebehar horiek ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da, eta zehapena izango du, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera.
3. Araudi bidez zehaztuko dira zentsu-aitorpenen edukia, forma eta beraiek aurkezteko epea.
4. Zergapekoen zentsuan alta hartu dela jakinarazteko aitorpenean datu hauek jarriko dira gutxienez:

a) Aitortzailearen izen-deiturak edo sozietatearen izena.

b) Identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin eta pertsona fisikoa izanik aitortzaileak horrelako zenbakia badu. Aitortzailea Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako pertsona juridiko eta erakundeetarikoa izanez gero, alta-aitorpenaren bitartez eskatuko du zenbaki hori. Horretarako, arau bidez eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu, eta atal honetan aipatzen diren gainerako datuak jarri. Identifikazio fiskaleko zenbakirik ez duten pertsona fisikoek ere gauza bera egingo dute, zentsuan alta hartu izanaren aitorpena aurkeztu beharra dutenean, jarduera ekonomikoak egin nahi dituztelako edo atxikipena nahiz konturako sarrera egin beharra dakarten etekinak ordaindu nahi dituztelako.

c) Zerga-egoitza; eta sozietatearen egoitza, zerga-egoitza bera ez bada.

d) Jarduera ekonomikoetarako erabiliko diren establezimendu eta lokalen zerrenda, eta bakoitzaren helbide osoa.

e) Egingo diren jarduera ekonomikoen sailkapena, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ondoreetarako erabiltzen den kodetze-sistemaren arabera.

- f) Egingo diren jarduera ekonomikoen eremua, hots, Arabako Lurralde Historikoa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Estatua, Europar Batasuna edo nazioarteko eremua. Europar Batasunean jardun behar duten zergadunek alta eskatuko dute Batasunaren barruko eragileen zentsuan, arau bidez ezarritako eran.
 - g) Adierazi behar da pertsona edo erakunde aitortzailea zer den, egoiliarra edo ez-egoiliarra. Ez-egoiliarra izanez gero, establezimendu iraunkorrik duen zehaztuko da, eta establezimendu iraunkor guztiak identifikatu dira, nahiz eta, horrez gain, banan-banan alta eman behar zaien. Establezimendu iraunkorra zein pertsona edo erakunderen kargu dagoen adieraziko da alta-aitorpenean; halaber, pertsona edo erakunde horrek zergapekoen zentsuan alta emanda dituen gainerako establezimendu iraunkorrak identifikatuko dira.
 - h) Sozietateen gaineko Zerga ordaintzeko erregimena, edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena, kasuan kasukoa. Berariaz aipatuko dira aplikagarri diren zerga-ordainketarako erregimen eta modalitateak eta kontura egin beharreko ordainketak.
 - i) Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaintzeko erregimena. Zerga horren ondorioz aitortzaileak aldian behin bete behar dituen betebeharrak aipatuko dira, bai eta jarduera hasteko aurreikusitako epea ere; bereiztu egingo dira ondasun eta zerbitzuak eskuratzen eta inportatzen hasteko aurreikusitako epea eta, beste alde batetik, jardueraren xede diren ondasunak ematen eta zerbitzuak egiten hasteko aurreikusitako epea, bi gauza horiek epe berean egiten ez badira.
 - j) Arau bidez zehazten diren zergak ordaintzeko erregimena.
 - k) Aitortzailea eratzen ari den erakundea bada, alta-aitorpenean, gutxienez ere, eraketa sustatzen duten pertsona edo erakundeen identifikazio-datuak eta helbide osoak jarriko dira.
5. Aldaketari buruzko zentsu-aitorpena aurkeztu beharko da alta-aitorpenean ageri diren datuen edozein aldaketaren berri emateko, edo aurretik egindako beste aldaketa-aitorpen batzuetan ageri diren datuen aldaketak jakinarazteko, arau bidez ezartzen den moduan.
 6. Bajari buruzko zentsu-aitorpena aurkeztuko da xedapen gehigarri honetan aipatutako jarduera guztiak benetan amaitzen direnean, arau bidez xedatzen denarekin bat etorritik.
 7. Zerga Administrazioak, zergapekoen zentsuarekin batera, Batasunaren barruko eragileen zentsua ere edukiko du. Zentsu horretan alta emango zaie Batasunaren barruan ondasun-emate eta -eskurapenak eta zenbait zerbitzu egiten dituzten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak, arau bidez ezartzen den moduan.
 8. Xedapen gehigarri honetako 1. idatz-zatian aipatutako pertsona eta erakundeei, arau bidez, zerga bakoitzari buruzko arau zehatzetan ezarritako beste zentsu-aitorpen batzuk aurkeztu beharra kendu ahal izango zaie.
 9. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoa aplikatuko da baldin eta Foru Aldundiak haren aplikaziorako behar diren xedapenak ematen baditu.

Laugarrena. Identifikazio fiskaleko zenbakia.

1. (33) Pertsona fisiko eta juridikoek, bai eta foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren nortasunik gabeko entitateek ere, identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dute zergen arloko harremanetarako edo zerga ondorioak sortzen dituztenerako.

Zerga administrazioak emango du identifikazio fiskaleko zenbakia, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek Arabako Foru Aldundiari eskatu behar diote identifikazio fiskaleko zenbakia zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukiz gero.

Egoitza Araban ez duten entitateek establezimendu iraunkorrik gabe jarduten badute eta Arabako Lurralde Historikoan zergen arloko egintzak edo zerga ondorioak sortuko dituzten egintzak egiteko asmoa badute, Arabako Foru Aldundiari eskatu behar diote identifikazio fiskaleko zenbakia; salbuespena: beste zerga administrazio batek emandako identifikazio fiskaleko zenbakia dutenek ez dute zertan eskatu.

Arautegi batean arautuko da identifikazio fiskaleko zenbakia nola eman eta kenduko den, nola eratuko den eta nola erabili behar den zergen arloko harremanetan eta zerga ondorioak sortzen dituzten harremanetan. Halaber, arautegi batean ezar daitezke kreditu entitateek identifikazio fiskaleko zenbakiaren informazioaren inguruan bete beharrekoak. Identifikazio fiskaleko zenbakia kentzeko eskumena Arabako Foru Aldundi edukiko du zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan egonez gero; salbuespena: ikerketa eta egiaztatze lanak egiteko eskumena beste administrazio batek badauka, horrexek edukiko du zenbakia kentzeko eskumena ere.

Egoiliar ez diren establezimendu iraunkorrik gabeko entitateen kasuan, zenbakia eman duen administrazioak edukiko du kentzeko eskumena.

2. Bereziki, funtsak, ondasunak edo baloreak kreditu-erakundeetan gordailatu edo haien esku uzten dituztenek, edozein motatako kreditu eta maileguak eskatzen dizkietenek eta kreditu-erakundeekin beste edozein finantza-eragiketa egiten dutenek erakunde horiei euren identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi beharko diete aldez aurretik.

Kreditu-erakundeekin egiten diren eragiketa aktibo edo pasiboak iragankorrak izanda ere betebeharrak hori bete egin beharko da.

Arau bidez betebeharrak horri buruzko erregela bereziak eta salbuespenak ezarri ahal izango dira, bai eta kreditu-erakundeek horrelako kasuetan izango dituzten informazio-betebeharrak ere.

3. Kreditu-erakundeek ezin izango dute txekerik igorri eskudirua, ondasunak, baloreak nahiz beste txeke batzuk ematearen truke, aurretik hartzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazten ez bazaie. Igorpena eta hartzailearen identifikazioa jasorik geratuko dira. Banku-kontuen kargura igortzen diren txekeak aurreko betebeharrak horretatik salbuetsirik daude.

Era berean, kreditu-erakundeek identifikazio fiskaleko zenbakia eskatuko diete kreditu-erakunde batek igorritako txekueak kobratzeko aurkezten dizkieten pertsona nahiz erakundeei, abonua ez bada banku-kontu batean egiten. Kreditu-erakundeak ez diren pertsonak igorritako 3.000 eurotik gorako txekueak kobratzeko aurkezten dizkietenei ere identifikazio fiskaleko zenbakia eskatuko diete. Bi kasuetan ere, txekua ordaindu egin dela agerraraziko da, eta kobratzeko aurkeztu duenaren identifikazioa ere jasorik utziko da.

Arau bidez adieraziko da zehatz-mehatz kreditu-erakundeek zer egin behar duten aurreko paragrafoetan aipatutako datuak jasorik uzteko eta Zerga Administrazioari jakinarazteko.

4. [\(29\)](#) [\(42\)](#) Esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakiaren ezeztapena ALHAOn argitaratzen denean, zenbaki horrek zergen eremuan balioa galduko du identifikazio ondorioetarako.

Halaber, argitalpen horren arabera, kreditu entitateek ez dute zordunketarik edo ordainketarik egingo ezeztatutako zenbaki horien titularrak titular edo baimendu gisa agertzen diren bankuko kontu edo gordailuetan, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen denean izan ezik.

Ezeztapena entitate baten identifikazio fiskaleko zenbakiari badagokio, ALHAOn argitaratzeak berekin ekarriko du notarioa abstenitzea borondate aitorpenei buruzko edozein tresna publiko, adostasuna ematea dakarten egintza juridikoak, kontratuak eta edozein motatako negozio juridikoak baimentzeko, baita edozein erregistro publikotan sartzeko debekua ere, administrazio erregistroak barne, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen ez bada. Ezeztapenak eragiten dion entitatea inskribatuta dagoen erregistro publikoak, entitate motaren arabera, bazterreko ohar bat egingo du entitate horri irekitako orrian. Ohar horretan jasoko da hemendik aurrera ezingo dela entitate horri eragiten dion inskripziorik egin, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen ez baldin bada.

Salbuespen gisa, aurreko paragrafoan aipatutako bazterreko oharra ezerezteko ezinbestekoak diren izapideak egitea onartuko da.

Era berean, ezeztatutako zenbakiaren titularra den entitatearen erregistro ziurtagiri guztietan zenbaki hori ezeztatuta dagoela jaso behar da.

Apartatu honetan xedatzen dena gorabehera, falta diren zerga betebeharrak bete beharko dira. Hala ere, ezeztatutako identifikazio fiskaleko zenbakia duten autolikidazioak, aitordenak, komunikazioak edo idazkiak onartzeko, identifikazio fiskaleko zenbaki hori birgaitu egin beharko da, erregelamenduz ezarritako moduan.

5. [\(23\)](#) Zerga Administrazioak kautelazko neurriak ezarri ahal izango ditu identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatze prozeduraren ondorioak bermatzeko, baldin eta zentzuzko zantzurik badago pentsatzeko bestela zorraren kobrantza zapuztu daitekeela edo kobratzeko eragozpen handiak izango direla.

Kautelazko neurriak ondo arrazoitu behar dira. Neurri bat jakinarazten denean, berariaz azaldu behar da zergatik hartzen den, zergapekoak nahi dituen alegazioak aurkez ditzan.

Kautelazko neurriak eragotzi nahi den kaltearen proportziozkoak izan behar dira, eta inolaz ere ezin dute egin konpontzen gaitz den kalterik ez kalte konponezinik; hauexek izan daitezke:

- a) Zerga-itzulketen ordainketa edo Zerga Administrazioak egin beharreko beste ordainketa batzuk atxikitzea.
- b) Batasunaren Barruko Eragileen Erregistroan kautelaz baja ematea.
- c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Hileko Itzulketen Erregistroan kautelaz baja ematea.
- d) Aurreneurri gisa, zergapekoaren kontuak edo gordailuak enbargatzea (aurreneurrizko idatzoharra egin behar da).

Bosgarrena. Prozedura konkurtsalak.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa une bakoitzean indarra duten lege konkurtsaletan ezarritakoarekin bat etorritz aplikatuko da.

Seigarrena. Informazioa emateko betebeharrari buruzko eskumenak.

Ohorerako, norbanakoaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubideen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoko 8. artikuluko 1. idatz-zatiaren arabera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak edo toki-entitateen gobernu-organoek izango dute horretarako eskumena.

Zazpigarrena. [\(29\)](#) Erantzukizun zibilaren ordainarazpena eta isuna Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik.

1. Ogasun Publikoaren aurkako delituen prozeduretan, Zerga Administrazioak preskripzioagatik edo beste legezko kausa batengatik Foru Arau honetan ezarritako moduan likidatu ez duen zerga zorraren zenbatekoa barnean edukiko du erantzukizun zibilak, berandutza interesak eta isunaren zigorra barne, eta erantzukizun zibila premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez exijituko da.
2. Behin epaia irmoa denean, hura betearazi behar duen epaileak edo auzitegiak lekukotasuna bidaliko die Zerga Administrazioko organoei eta zorra ordainaraz dadila aginduko du. Modu berean jardungo da epaileak edo auzitegiak errekurritutako epai bat behin-behinean betearaztea erabakitzen duenean.
3. Zigor Kodeko 125. artikuluekin bat etorritz erantzukizun zibilaren edo isunaren ordainketa zatikatzea erabakitzen denean, epaileak edo auzitegiak Zerga Administrazioari jakinaraziko dio. Kasu horretan, premiamenduzko prozedura hasiko da baldin eta zatikapenaren baldintzak betetzen ez badira.
4. Zerga Administrazioak epaia eman duen epaileari edo auzitegiari izapidearen berri emango dio, Espainiako Konstituzioaren 117.3 artikuluko ondorioetarako; eta, hala badagokio, agindutako betearazpenari buruzko gorabeheren berri ere emango dio.
5. [\(33\)](#) Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren kopuruak ordainarazteko eskumena Arabako Foru Aldundiak edukiko du kasu honetan: zergapekoa ikuskatzeko eskumena berak daukanean Ekonomia Itunak ezartzen duenaren arabera. Horrelakoetan, AFAk

administrazio eskudun guztien aurrean erabiliko du eskumen hori, hau da, haiei dagozkien tributazio proportzio guztiak hartuta, eta berak kobratuko ditu kopuru guztiak; nolanahi ere, gero bidezko konpentsazioak egin ahal izango dira administrazioen artean.

Zortzigarrena. Administrazioarekiko diru-erreklamazioak beste arlo batzuetan.

1. Administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahal izango da (aldez aurretik, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarrita) ondoren zehazten diren gaien muiari buruz zuzenean edo zeharka erabakitzen duten ebazpenen eta izapide-egintzen aurka:
 - a) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak honako sarrera hauen bilketari buruz egiten dituen egintzak: Arabako Foru Aldundiaren Zuzenbide Publikoko sarrerak eta Arabako Foru Aldundiari lotutako edo haren menpeko administrazio-erakundeenak; eta beste Herri Administrazio batzuen Zuzenbide Publikoko sarrerak (zergak nahiz bestelakoak).
 - b) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko agintari edo erakundeek Foru Diruzaintzaren obligazioak aintzatetsi edo likidatzea, eta organo horiek Diruzaintzaren kargura egiten dituzten ordainketekin zerikusia duten gaiak.
 - c) Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren era guztietako pentsio eta eskubide pasiboak aintzatetsi eta ordaintzea.
2. Ez da administrazioarekiko diru-erreklamaziorik onartuko honako egintzen aurka:
 - a) Administrazio-bidean erreklamazioa jartzeko aukera ematen dutenak (bide judizialean, zibilean edo lan arloan baino lehen) edo bide hori agortzen dutenak.
 - b) Administrazio-bidea agortuko duen ebazpena ematea foru diputatu eskudunari dagokion prozeduretako egintzak.
 - c) Administrazioarekiko diru-erreklamazioa izatetik salbuesten dituen foru arauren baten itzalpean ematen diren egintzak.
3. Lehenengo idatz-zatian aipatutako gaiei buruzko egintzen aurka administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahal izango dute administrazio-egintzak bidezko interesak ukitzen dizkien pertsona guztiek.
4. Lehenengo idatz-zatian aipatutako gaiei buruzko egintzen aurka ezin izango dute administrazioarekiko diru-erreklamaziorik jarri ondoren adierazten diren hauek:
 - a) Funtzionarioak eta enplegatu publikoak, salbu eta aintzatetsita duten eskubideren bat zuzenean urratzen denean edo bidezko interesak ukitzen zaizkienean.
 - b) Norbanakoak, Administrazioak eskuordetuta edo haren agente nahiz mandatudun gisa jarduten dutenean.

- c) Salatzaileak.
 - d) Itun edo kontratu bidez betebeharrak euren gain hartzen dituztenak.
 - e) Inpugnatu den egintza eman zuten erakundeak edo organoak, bai eta egintza horren bidez kudeatutako funtsen jasotzailea den beste edozein erakunde ere.
5. Berrikuspenerako aparteko errekurtoa jarri ahal izango dute xedapen gehigarri honetako 3. idatz-zatian aipatutako pertsonak, bai eta arau bidez zehazten diren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko organoak ere, euren eskumeneko gaitan.
 6. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, xedapen gehigarri honetan araututako administrazioarekiko diru-erreklamazioetan Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko arauak aplikatuko dira, alegia, zergen arloan administrazioarekiko diru-erreklamazioak arautzen dituztenak.

Bederatzigarrena. Administrazioarekiko diru-erreklamazioetan baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiltzea.

1. Arabako Foru Aldundiak hala erabakitzen duen guztietan, baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabili ahal izango dira administrazioarekiko diru-erreklamazioak jartzeko, izapidetzeko eta ebazteko.
2. Era berean, aurreko idatz-zatian esandako moduan, horrelako baliabideak erabili ahal izango dira interesdunari egiten zaizkion jakinarazpenetan, baldin eta berak aldeztu aurretik baliabide horiek lehenesten baditu edo berariaz baimena ematen badu beraiek erabiltzeko.
3. Administrazioarekiko diru-erreklamazioei buruzko espedienteak osatzen dituzten agiriak xedapen honetako 1. idatz-zatian aipatutako bideetatik eskuratu ahal izango dira, betiere Arabako Foru Aldundiak hala erabakitzen badu.
4. Arabako Foru Aldundiak neurri horiek ezartzeko behar diren arauak emango ditu eta erregistro telematiko egokiak sortuko ditu.

Hamargarrena. Administrazioarekiko diru-erreklamazioak toki-ogasunen egintzen aurka.

Toki-erakundeak Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen jurisdikzioaren pean jarri ahal izango dira. Horretarako, berariazko erabakia hartu beharko dute, eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu.

Aurreko paragrafoan azaldutako kasuetan, interesdunak, berraztertze errekursoaren berariazko edo isilbidezko ebazpenaren aurka, nahi badu, eta administrazioarekiko auzibidean sartu aurretik, administrazioarekiko diru-erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari, hilabeteko epean, inpugnatu nahi duen egintza jakinarazten dioten egunaren biharamunetik hasita, edo Administrazioaren isiltasunak ondoreak sortzen dituen egunaren biharamunetik hasita.

Horrelakoetan aplikagarriak izango dira administrazioarekiko diru-erreklamazioari buruz ezarritako arauak.

Dena dela, udalak bere organoa sortu badu administrazioarekiko diru-erreklamazioak ebazteko, udal organo horrek izango du halako erreklamazioak ezagutzeko eskumena. Betiere, zein arautegiren itzalpean sortu den udal organoa, hareekin bat etorritik jardun beharko du.

Hamaikagarrena. [\(7\)](#) Betearazpen-aldiko zerga-bilketa.

Arabako Foru Aldundiaren bilketa, aldi exekutiboan, horren ardura duenak egingo du, 2005eko martxoaren 11n, edo aipatutako bilketa aldi exekutiboan- egiteko esleitzen den erakundeak.

Hamabigarrena. Arau-haustea eta zehapenak.

Arauzko garapena egiten ez den artean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 191. artikuluan dauden mailakatze-irizpideak eta foru arau horretan aurreikusten diren zehapenak behearen mailan aplikatuko dira.

Hamahirugarrena. Berariazko ebazpenik ez ematearen ondoreak.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 100. artikuluko 5. idatz-zatia, zergak aplikatzeko prozedurarako presuntziozko egintzak aipatzen dira. Bada, presuntziozko egintza horien erregimena arautzen ez den artean, administrazioaren isiltasuna dela bide interesdunek euren eskaerak ezetsi egin direla ulertu ahal izango dute.

Hamalauugarrena. Zerga-likidazioak.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 135. artikuluan aipatzen diren likidazioak eta horien parekoak zergen kudeaketaz arduratzen diren bulegoetan egingo dira, besterik ez dagoen bitartean.

Hamabosgarrena. [\(29\)](#) [\(42\)](#) Jurisdikzio ez-kooperatiboaren definizioa.

1. Jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartuko dira xedapen gehigarri honen hurrengo apartatueta ezartzen diren irizpideen arabera Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten dituen herrialdeak eta lurraldeak, bai eta zerga araubide kaltegarriak ere.

2. Jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialdeen eta lurraldeen zerrenda honako irizpide hauen arabera eguneratu ahal izango da:

a) Gardentasun fiskalaren arloan:

1) Herrialde edo lurralde horrekin zerga informazioaren trukearen arloko elkarlaguntzari buruzko araudia izatea, foru arau honetan ezarritako moduan.

2) Espainiarekin zerga informazioaren truke eraginkorra betetzea.

3) Zergen Alorreko Gardentasunaren eta Informazio Trukearen Foro Globalak egindako inter pares ebaluazioen emaitzak.

4) Benetako titularrari buruzko informazioa benetan trukatzeko, kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko Espainiako araudian ezarritako moduan definituta.

a) letra honen ondorioetarako, informazio truke eraginkortzat jotzen da zerga informazioaren trukearen arloko elkarrekiko laguntzari buruzko araudia aplikatzea, Zerga Helburuekiko Gardentasunaren eta Informazioa Trukatzeko Foro Orokorrak onartutako erreferentzia baldintzak kontuan hartuta.

b) Herrialde edo lurralde horietan benetako jarduera ekonomikorik islatzen ez duten onurak erakartzera bideratutako lurraldez kanpoko tresnak edo sozietateak egiten edo existitzen laguntzea.

c) Tributazioa baxua izatea edo tributaziorik ez izatea.

Herrialde edo lurralde bateko tributazioa baxua da pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga bezalako edo antzeko zerga baten karga tasa Arabakoa baino askoz baxuagoa denean (0 tasa barne).

Herrialde edo lurralde batean ez dago tributaziorik pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga bezalako edo antzeko zergarik aplikatzen ez bada.

Zerga horiek bezalakotzat edo antzekotzat joko dira errenta, zati batean besterik ez bada ere, kargatzen duten zergak, zergaren xedea errenta bera, sarrerak edo errenta dagoelako zantzua ematen duen beste edozein elementu izatea gorabehera.

3. Jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren araubide fiskal kaltegarrien zerrenda eguneratu ahal izango da Europar Batasuneko enpresa fiskalitatearen arloko Jokabide Kodearen edo Ekonomia lankidetzako eta garapenerako antolakundeko (ELGA) Araubide Fiskal Kaltegarrien Foroaren irizpideen arabera.

4. Zerga bakoitzaren arauetan berezitasunak ezar daitezke xedapen honetako arauak aplikatzeko.

5. Xedapen honetan ezarritakoarekin bat etorriz, jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialde edo lurraldeei dagokienez, baldin eta Espainiak hitzarmen bat sinatu badu haiekin indarrean dagoen zergapetze bikoitza saihesteko, jurisdikzio ez-kooperatiboekin lotutako zerga araudia ere aplikatuko da, betiere hitzarmen horretako xedapenen aurkakoa ez bada.

Hamaseigarrena. [\(12\)](#) Katastroko erreferentzia.

1. Ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia agertu behar da higiezinaren jabaria eta haien gaineko gainerako eskubide errealek xede dituzten gertakari, egintza edo negozioak jasotzen dituzten tresna publikoetan, judiziozko manamendu eta ebazpenetan, administrazio espediente eta ebazpenetan eta gainerako agiri guztietan, bai eta higiezinak errentatzeko eta haien erabilera zeinahi tituluren bidez lagatzeko kontratuetan, energia elektrikoa hornitzeko kontratuetan, proiektu teknikoetan eta arau bidez zehazten diren ondasun higiezinaren inguruko gainerako agiri guztietan ere. Halaber, Jabetza Erregistroan agerraraziko da legean ezarritako kasuetan.
2. Honako hauetan ez da katastroko erreferentzia agerrarazi beharko:
 - a) Berme eskubide errealeen kitapena agerrarazten duten agirietan.
 - b) Zuzenbide publikoko zorrak kobratzeko neurriak hartzen edo deuseztatzen dituzten administrazio egintzetan.
 - c) Zergabiltketako araudian ezarritako ordainketa gerorapenak edo zatiketak xede dituzten prozeduretan, eta zergen arloko egiaztapen, ikerketa eta likidazio prozeduretan, Zerga Administrazioak erreferentzia lehendik ere ezagutzen badu.
 - d) Premiamendu prozeduretan emandako epai ebazpenak edo administrazio ebazpenak betetzeko eta betearazteko egiten diren oharretan.
3. Arabako Lurralde Historikoan eskumena edo jurisdikzioa duten notario, erregistratzaile eta epai zein administrazio organo eta agintariek, ondasun higiezin baten aldatetaren bat agerian jartzen duen egintza, negozio edo prozeduraren bat aurkezten zaienean, higiezinaren behar bezala identifikatzeko eskatu behar dute, hau da, katastroko erreferentzia jartzeko, arauz ezartzen den bezala, eragin erreala duten egintza edo negozioen eta Higiezinaren Katastroaren arteko koordinazioa bermatzeko.
4. Honako hauek nahitaez aurkeztu behar dute ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia:
 - a) Ondasun higiezinaren bat ukitzen duen prozedura bideratzeko eskumena duen agintaritzaren judizial edo administratiboaren aurrean, ondasun higiezinaren horien gaineko eskubide errealeen edo eragina duten eskubideen titularrek.
 - b) Notarioaren aurrean, higiezinaren gainean eratutako egitate, egintza edo negozioa agerrarazten duen notario agiriaren eskatzen edo egilesten dutenek.
 - c) Jabetza Erregistroan, erregistratzaileari ondasun higiezinaren gaineko erregistro idazpena egiteko eskatzen diotenek.
 - d) Xedapen honetako 1. idatz zatian azaltzen den hornidura ematen duten konpainien aurrean, hornidura horiek kontratatzen dituztenek, eta higiezinaren erabileraren errentamendu edo lagapen kontratuetan, errentatzaile edo lagatzaileek.

- e) Aurreko paragrafoetan ezarritako kasuetatik kanpo, alderdiek edo interesdunek erreferentzia hori beren kabuz agerraraziko dute egilesten edo egiten dituzten agirietan.

- 5. Katastroko erreferentzia hainbatek aurkeztu behar badute, betebeharrak hori batek betetz gero zergapeko guztiek betetzat joko da.

Hamazazpigarrena. [\(22\)](#) Arabako Lurralde Historikoaren Foru Ogasunaren urteko txosten integratua.

Urtearen lehen seihilekoan, zerga administrazioaren eskumena duen foru sailak Foru Ogasunaren txosten integratua jendaurrean jarriko du. Txosten horrek, aurreko urteko zerga kudeaketa zein ekonomia kudeaketa jasoko du, zerga bakoitza eta erkidegoko erakundeekiko, Estatuarekiko eta toki entitateekiko finantza harremanak aipatuta; gainera, onetsitako arau aldaketen azterketa laburra ere jasoko du. Halaber, Arabako Lurralde Historikoan Iruzzurri Aurre egiteko Planaren alderdirik garrantzitsuenak ere sartuko dira.

Hemezortzigarrena. [\(22\)](#)

Arau honetako 92. artikuluan n) letran aurreikusitakoa betetzeko, zerga administrazioaren eskumena duen foru sail honek eta n) letran aipatzen diren entitateek hitzarmena bat sinatuko dute. Hitzarmen horrek, lagapenaren xede diren zerga datuak azalduko ditu, baita horiek jakingo dituzten pertsonen zerrenda ere; horrela bada, martxoaren 22ko 3/1997 Legearen 17.3 artikulua derrigortzen duen isiltasun baldintza beteko da.

Hemeretzigarrena. [\(23\)](#) [\(41\)](#) [\(42\)](#) Atzerrian dauden ondasunen eta eskubideen gaineko informazioa eman beharra.

Zergapekoek ondoko informazioa eman behar diote Zerga Administrazioari, foru arau honen 29. eta 90. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik eta arauz ezartzen den bezala:

- a) Banku edo kreditu trafikuan aritzen diren atzerriko entitateetan irekita dauzkaten (titular diren) kontuei buruzko informazioa, bai eta baimenduta dauden edo dirua erabiltzeko ahalen bat duten entitate horietako kontuei buruzko informazioa ere.
- b) Denetarikotako entitateen sozietate kapitalaren, funtsen edo ondarearen adierazgarri edo norberaren kapitalak hirugarrenei laga izanaren adierazgarri izanik atzerrian kokatuta edo gordailatuta dauzkaten (titular diren) titulu, aktibo, balore edo eskubideei buruzko informazioa, bai eta atzerriko entitateekin hartzaile gisa kontratatutako bizi edo elbarritasun aseguruiei buruzko informazioa eta halako entitateei kapitala (dirutan), ondasun higigarriak edo ondasun higiezinak eman izanaren ondorioz onuradun diren biziarteko edo aldi baterako errentei buruzkoa ere.
- c) Titular diren atzerriko ondasun higiezinak eta ondasun higiezinen gaineko eskubideei buruzko informazioa.

- d) (44) Titulartasunean dauden ondasun higigarriei eta horien gaineko eskubideei buruzko informazioa, 50.000 eurotik gorako balio unitarioa badute eta, erregelamendu bidez zehazten den unean, atzerrian badaude edo egon badira.

Letra honetan ezarritakoaren ondorioetarako, bakoitzaren balioa, merkatuan duen ohiko balioa izango da.

- e) Titular diren ondasun higigarriei edo horien eskubideei buruzko informazioa, atzerriar herrietan matrikulatuta edo herri horietako erregistroan agertzen badira.
- f) (47) f) Atzerrian dauzkaten kriptoaaktiboei buruzko informazioa, hain zuzen ere, titular edo onuradun izanik edo xedatzeko ahalmena edukita, hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak gordetzeko eta kriptoaaktiboak mantentzeko, biltegitratzeko eta transferitzeko zerbitzuak ematen dituzten pertsonak edo erakundeek zaintzen dituzten kriptoaaktiboei buruzkoa. Informazioa eman beharreko kriptoaaktiboak erregelamendu bidez zehaztuko dira. Kriptoaaktiboa zer den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 31ko 2023/1114 (EB) Erregelamenduaren 3.1.5) artikuluan zehazten da (2023/1114 (EB) Erregelamendua, kriptoaaktiboen merkatuei buruzkoa eta honako hauek aldatzen dituenak: 1093/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak eta 2013/36/EB eta 2019/1937 (EB) zuzentarauak).

(47) Xedapen gehigarri honetan ezartzen diren betebeharrak honako hauek ere bete beharko dituzte: Kapitalak zurtzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legeak 4. artikulua 2. apartatua ezartzen duenaren arabera benetako titularrak direnak.

Hogeigarrena. (23) Ondarea ikertzeko eskumenak Herri Ogasunaren kontrako delituen prozesuetan.

Herri Ogasunaren kontrako delituen prozesuetan, jarduketak egiten dituzten organoek eskumena edukiko dute delituari lotutako diru kopuruak ordaintzeko erabil daitekeen ondarea ikertzeko agintaritza judizialaren gain ikuspenarekin. Honek ez ditu eragotziko Polizia Judizialaren unitateen ahalmenak.

(44) Hori dela eta, organo horiek foru arau honetako 90., 91. eta 166. artikuluetan ezarritako ahalmenak erabili ahal izango dituzte, delituekin zerikusia duten pertsonen ondareari buruzko txostenak egin ahal izango dituzte eta foru arau honetako 78. artikuluko 8. apartatua arautzen diren kautelazko neurriak aplikatu ahal izango dituzte.

Jarduketen berri emango diote zigor epaileari (gorabeherak eta emaitzak), eta gero hark kautelazko neurriei buruzko ebazpena emango du: berretsi, aldatu edo kendu.

Jarduketei foru arau honetan eta berau garatzen duten arauetan ezarritakoa aplikatuko zaie; nolanahi ere, epaileak jarduketa gehiago egitea erabaki dezake, Prozedura Kriminalaren Legeko 989. artikuluan ezarritakoaren itzalpean.

Hogeita batgarrena. (239) Elkarren arteko laguntzaren eremuan kudeatutako kredituen izaera juridikoa.

1. Foru arau honetako 1. artikuluko 2. idatz zatian aipatutako elkarren arteko laguntzaren ondorioetarako, eta foru arau honetako 77 bis artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, beste estatu edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakunde batzuen kreditu oro Ogasun Publikoaren eskubide publikotzat joko da baldin eta Zerga Administrazioak laguntza, lankidetzat, elkarlana eta antzeko ekintzaren bat egiten badu kreditu horri buruz, elkarren arteko laguntza horren eremuan.
2. Elkarren arteko laguntzarako ekintza horiei dagokienez, halako eskubideek euren jatorrizko izaera juridikoari eutsiko diote, eta Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko Foru Arauan eta honako foru arau honetan ezarritako araubide juridikoa aplikatuko zaie.

Hogeita bigarrena. (28) Elkarren laguntzaren esparruko finantza kontuei lotutako informazioaren eta eginbide egokiaren betebeharrak.

1. (47) Finantza erakundeek finantza kontu jakinen titulartasuna edo kontrola gain duten pertsonen inguruko arreta egokiari buruzko arauak aplikatu beharko dituzte eta Zerga Administrazioari kontu horiei buruzko informazioa eman beharko diote, honako hauei jarraikiz: Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentaraua, 2011ko otsailaren 15ekoa, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzkoa (hau hauen bidez aldatu da: Kontseiluaren 2014/107/EB Zuzentaraua, 2014ko abenduaren 9koa, fiskalitatearen esparruan informazioaren truke automatikoaren derrigortasunari buruzkoa; Kontseiluaren 2023/2226 (EB) Zuzentaraua, 2023ko urriaren 17koa, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011ko otsailaren 15eko Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena); finantza kontuei lotutako informazioaren truke automatikoari buruzko agintaritza eskudunen arteko akordio multilateralak eta horren adenda.

Halaber, finantza kontuen titulartasuna edo kontrola daukaten pertsonak arreta egokiari buruzko arauak identifikazioaz eta zerga egoitzaz ezartzen dituzten betebeharrak bete beharko dituzte kontu horiek irekita dauden finantza erakundeen aurrean.

Arreta egokiari buruzko arauak araudian garatuko dira, eta modu berean garatuko dira finantza erakundeek zabalduko finantza kontuen titulartasuna edo kontrola daukaten pertsonen buruzko informazioa emateko betebeharrak ere.

2. Xedapen gehigarri honen 1. idatz zatian jasotako informazioa emateko betebeharra ez konpliztearen ziozko arau haustea eta zigorrak foru arau honen IV. tituluan ezarritakoa kontuan hartuta arautuko dira.
3. (47) Zergen arloko arau haustea da arreta egokiari buruzko arauetan ezartzen diren betebeharrak ez betetzea edo gaizki betetzea:
 - a) Pertsona fisikoek informazioa eman beharreko finantza kontuak identifikatu beharra.
 - b) Erakundeek informazioa eman beharreko finantza kontuak identifikatu beharra.

Apartatu honetan ezartzen den zergen arloko arau haustearen zehapena hauxe izango da: 200,00 euroko isun finkoa betebeharra betetzen ez den pertsona bakoitzeko.

Finantza erakunde batek kanpoko zerbitzu emaile bat erabiltzen badu informazioa eman beharra eta arreta egokiaren inguruko betebeharrak betetzeko, hala ere horien gaineko erantzukizuna berarena izango da.

4. (47) Zergen arloko arau hastea da finantza kontuen titulartasuna edo kontrola daukaten pertsonak finantza erakundeari datu faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak ematea aurreko apartatuan aipatzen diren arreta egokiari buruzko arauen ondoriozko betebeharrak betetzean.

Apartatu honetan arautzen den arau haustearen zehapena 300,00 euroko diru isun finkoa izango da.

5. (47) 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera irekitako finantza kontuen titulartasuna edo kontrola daukaten pertsonak kontua irekitzen denean aurkeztu beharko dituzte xedapen gehigarri honen ondorioetarako identifikazioari eta zerga egoitzari buruzko adierazpenak. Gauza bera egin beharko dute 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera irekitako finantza kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola daukaten pertsonak, hain zuzen ere Kontseiluaren urriaren 17ko 2023/2226 (EB) Zuzentarauak egindako aldaketan eraginez finantza kontutzat jotzen direnen titulartasuna edo kontrola daukaten pertsonak. Finantza erakundeari ez bazaizkio aurkezten adierazpen horiek kontua irekitzeko eskatzen denetik 90 egun igaro baino lehen, hark ez du bertan kargurik, ordainketarik ez bestelako eragiketak egingo harik eta adierazpenak aurkeztu arte.
6. (42) Frogagiriak, finantza kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonak eska dakizkiekeen adierazpenak eta xedapen gehigarri honetan aipatzen diren informazioaren eta eginbide egokiaren betebeharrak betetzeko erabiltzen den gainontzeko informazioa Zerga Administrazioaren eskura egon beharko dira finantza kontuei buruzko informazioa eman behar den urtearen ondoko bosgarren urtea amaitu arte.
7. (43) Xedapen honetan xedatutakoaren arabera informazioa jakinaraztera behartuta dagoen finantza erakunde orok informazioa komunikatzeko betebeharra duen pertsona fisiko bakoitzari jakinarazi beharko dio berari buruzko informazioa, jakinarazteko betebeharrak hori duena, Zerga Administrazioari jakinaraziko zaiola eta dagokion estatu kideari transferituko zaiola, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren eta xedapen honetan adierazitako nazioarteko akordioaren arabera. Kontua informazio komunikazioari lotutako kontua den lehenengo urtearen hurrengo urte naturalaren urtarrilaren 31 baino lehen egin behar da jakinarazpen hori. Era berean, finantza erakundeak behar besteko aurrerapenaz emango dio pertsona fisikoari hark jasotzeko eskubidea duen informazio guztia, hark bere datu pertsonalak babesteko eskubidea baliatu ahal izan dezan, eta, nolana ere, hark bildutako informazioa Zerga Administrazioari eman aurretik.
8. Halaber, aurreko 5. eta 6. idatz zatietan xedatutakoa aplikatuko egingo da finantza kontuei lotutako informazioaren eta eginbide egokiaren betebeharrei dagokionez, Ameriketako Estatu Batuen eta Espainiaren arteko akordioan ezarritakoarekin bat etorritik nazioarteko zerga betetzea hobe dadin eta Foreign Account Tax Compliance Act-FATCA izenekoak ezar dadin.

Horrez gain, 2015ean zehar zabaldu diren eta horien inguruko adierazpenak, aurreko 5. idatz zatiak hizpide dituenak, 2016ko urtarrilaren 1ean aurkeztu ez diren kasuetan, finantza erakundeari 60 eguneko epean (aipatu datatik zenbatzen hasita) ez aurkezteak karguak eta ordainketak ez egitea ekarriko du, baita horiek aurkeztu arte bertan beste edozein eragiketa ez egitea ere.

Hogeita hirugarrena. (29) Bertan behera uztea, adiskidetasunezko prozedurak izapidetzen direnean.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauaren laugarren xedapen gehigarriaren 1. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz, baldin eta nazioarteko hitzarmen edo itunetan aurreikusitako zuzeneko egozpenaren alorrean adiskidetasunezko prozedura bat eta foru arau honetako V. Tituluan araututako berrikuspen prozeduretako bat aldi berean egiten badira, azken hori bertan behera utziko da, harik eta adiskidetasunezko prozedura amaitu arte.

Hogeita laugarrena. (34) Zerga plangintzarako zenbait mekanismo jakinarazteko beharra.

1. (37) (43) Betebehar honen ondorioetarako bitartekari edo zergapeko interesdun diren pertsonak edo entitateak, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren (fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentaru indargabetzen duena) 3. artikuluen 21. eta 22. apartatuen arabera, informazioa komunikatzeko estandar komuna eta lurraldez kanpoko egitura opakuak saihesteko mekanismoei buruzko informazioa automatikoki trukatzeari buruzko Agintari Eskudunen Alde Anitzeko Akordioaren arabera, eta informazioa komunikatzeko estandar komuna eta lurraldez kanpoko egitura opakuak saihesteko mekanismoei ekiteko nahitaez jakinarazi beharreko arau tipoen arabera, eta helburu berarekin sinatutako nazioarteko beste akordio batzuen arabera, honako informazio hau eman beharko diote Zerga Administrazioari, foru arau honen 29., 29 bis, 80 bis eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera, arauz finkatzen diren epe eta baldintzen arabera:
 - a) Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren 3. artikuluen 18. apartatuan definitutako mugaz gaindiko mekanismoak, non parte hartzen duten edo esku hartzen duten zuzentaru horren IV. eranskinean zehaztutako ezaugarri bereizgarrietako bat gertatzen denean.
 - b) Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren 3. artikuluen 24. apartatuan aipatzen diren mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarrien eguneratze informazioa.
 - c) Aurreko a) eta b) letretan aipatzen diren zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismoen erabilerari buruzko informazioa.
 - d) Informazioa komunikatzeko estandar komuneko eta lurraldez kanpoko egitura opakuetako informazio truke automatikoari buruzko Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztunean eta helburu berarekin sinatutako nazioarteko beste akordio batzuetan definitutako mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa.

Informatzeko betebeharraren ondorioetarako, ez dira zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismo aitortu beharrekotzat hartuko jakinarazitako eta Europako Batzordearen erabaki batek berariaz baimendutako zerga araubideetan oinarritutako akordio, negozio juridiko, eskema edo mugaz gaindiko eragiketak.

2. [\(37\)](#) [\(43\)](#) 2. Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB zuzentarauko 8 bis artikulua 5. atalean eta aipatutako arau tipoean jasotzen den sekretu profesionaleko betebeharraren titular izango dira bitartekariak direnak, edozein dela garatzen duen jardueran, mugaz gaindiko mekanismo bat gauzatzeko eta haren gauzatzea kudeatzeko, diseinu, komertzializazio, antolaketa edo eskura jartzeari buruzko aholkuak eman badituzte, mekanismo hori, aplikatzeko arautegiari egokitzen zaion ebaluatze helburu bakarrarekin, ezartzea saiatu edo ezartzen lagundu gabe.

Lanbide sekretupean dagoen bitartekaria hori egitetik salbuetsiko da zergapeko interesdunak modu frogagarrian jakinarazitako baimen bidez.

3. [\(43\)](#) Legeak eskatutako eran, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/UE Zuzentzauean eta aipatutako Akordio Eleaniztunean jasotzen diren zerga plangintzako mekanismoak jakinarazteko beharra interesdunek betetzeak ez du esan nahi kontratu edo arau bidez ezarritako informazioa zabaltzeko muga apurtzen dela, araubide juridiko aplikagarriaren arabera, eta, ondorioz, subjektu behartuek ez dute inolako erantzukizunik informazio horren zergapeko interesdun titularrekiko.

4. Arau haustean eta zehapenen araubidea.

Zergen arloko arau haustea da xedapen gehigarri honetan aipatzen diren aitorten informatiboak ezarritako epealdian ez aurkeztea, bai eta aitortenok osatu gabe, okerreko datuekin edo datu faltsuekin aurkeztea ere.

Zergen arloko arau haustea izango da haiek bide elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez ez aurkeztea, baldin eta bide horietatik aurkeztera behartuta badaude.

Aurreko arau hauste horiengatik 1.000 euroko isuna izango da aitorten berari dagokion datu edo datu multzo oker, osagabe edo aizuneko; gutxienez, 3.000 euro direla, eta, gehienez, jaso beharreko edo jasotako ordainsarien edo arau ezarritako eran kalkulaturako mugez gaindiko mekanismoen daren zerga balioaren berdina dela, arau haustea bitartekoa edo zergapeko interesduna den kontuan hartuta, hurrenez hurren. Gehieneko hori ez da aplikatuko isuna 3.000 euro baino gutxiago denean.

Aurrekoa gorabehera, arau ezarritakoaren arabera mugez gaindiko mekanismoak baliorik ez duenean eta arau haustea zergapeko interesduna denean, gehieneko muga bitartekoan jasotako edo jaso beharreko ordainsarien berdina izango da.

Ordainsaririk ez badago, muga bitarteko bihurtzen duen jardueraren merkatu balio izango da, zeina Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42.1 artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu den.

Aurreko gehieneko mugak aplikatzeari dagokionez, arau haustea arau haustea eginaren eta haren zenbatekoaren dudarik gabeko frogatik beharko du.

Isuna eta apartatu honetan xedatutako gutxieneko eta gehieneko mugak erdira ekarriko dira, baldin eta informazioa Zerga Administrazioak eskatu gabe epez kanpo aurkeztu bada.

Informazioa baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez aurkezteko beharra egon eta hala aurkezten ez bada, aitorpen bereko datu edo datu multzoko 250 euroko isuna jarriko da, gutxienez, 750 euro, eta, gehienez, 1.000 euro dela.

5. Xedapen gehigarri honetan arautzen diren arau haustea eta zehapenak ez dira bateragarriak Zerga Foru Arau Orokor honetako 202. eta 203. artikuluetan arautzen direnekin.
6. (43) Xedapen honetan xedatutakoaren arabera informazioa ematera behartuta dagoen bitartekari orok informazioa eman behar duen pertsona fisikoa den zergapeko interesdun bakoitzari jakinarazi beharko dio zergapeko horri buruz eskatzen den informazioa Zerga Administrazioari emango zaiola eta transferituko dela Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren eta xedapen honetan adierazitako nazioarteko akordioaren arabera. Era berean, bitartekariak behar besteko aurrerapenaz emango dio pertsona fisikoari hark jasotzeko eskubidea duen informazio guztia, hark bere datu pertsonalak babesteko eskubidea baliatu ahal izan dezan, eta, nolabehar ere, hark bildutako informazioa Zerga Administrazioari eman aurretik.

Hogeita bosgarrena. (34) Zerga plangintzako mugez gaindiko mekanismoen aitorpen beharrari darizkion partikularren arteko betebeharrak.

1. (43) Plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoen aitorpena aurkezteko sekretu profesionala gordetzeko betebeharratik salbuetsita dauden bitartekariak modu frogagarrian jakinarazi beharko diete salbuespen hori beren bezeroei, bai beste bitartekari batzuei, bai mekanismo horietan parte hartzen duten zergapeko interesdunei, erregelamenduz ezarritako epean eta baldintzetan.
2. Legez aitortzeko beharra izan eta aitorpena aurkeztu duten pertsona edo erakundeek dudarik gabe jakinarazi beharko diote aipatutako zergapeko salbuespeni aurkezpen hori arauz ezarritako eran. Aurkezpen horretan zehaztuko dute gainerako bitartekoak edo mugez gaindiko mekanismoetan parte hartzen duten zergapeko interesdunak salbuetsita daudela.
3. (43) Zerga arloko arau haustea izango da xedapen gehigarri honen 1. apartatuan aipatzen den komunikazioa ezarritako epean ez egitea, edo komunikazioa datuak isilean utziz edo datu faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak emanez egitea.

Arau hauste horrek 600 euroko isun finkoa izango du.

Arau hauste horrekin batera, foru arau honen hogeita laugarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuaren a) letran aipatzen den plangintza fiskaleko mugaz haraindiko mekanismoa epe barruan deklaratzeko ez badu komunikazio hori egin izan balitz aitorpena aurkeztu behar zuen zergapekoak, aipatutako aitorpena epe barruan ez aurkeztearen ondoriozko arau haustearen modu berean zehaztuko da, aipatutako xedapen gehigarriaren 4. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Hogeita seigarrena. (42) Zerga paradisuen eta informazio truke eraginkorrik ez dagoen herrialdeen eta lurraldeen aipamenak arautegian, eta tributaziorik ez dagoen edo tributazioa baxua den herrialde eta lurraldeena.

1. Arautegian zerga paradisuak, informazio truke eraginkorrik ez dagoen herrialdeak edo lurraldeak, edo tributaziorik ez dagoen edo tributazioa baxua den herrialdeak edo lurraldeak aipatzen direnean, ulertuko da foru arau honen hamabosgarren xedapen gehigarrian arautzen diren jurisdikzio ez-kooperatiboaren definizioa aipatzen dela.
2. Foru arau honen hamabosgarren xedapen gehigarriaren 2., 3. eta 4. apartatuen aipamenak ezabatutzat joko dira (2023ko urtarrilaren 1era arte indarrean egon den testua).
3. Zergen arloko informazio truke eraginkorra duten estatuei egindako arau aipamenak zergen arloko informazioa trukatzeko elkarrekiko laguntzari buruzko araudia duten estatuei egindakotzat hartuko dira, foru arau honetan ezartzen denarekin bat etorritik betiere.

Hogeita zazpigarrena. (43) Informazio betebeharrak eta ardura egokikoak, elkarlaguntzaren eremuan behartuta dauden plataforma operadoreen informazio deklarazioari dagokionez.

1. Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren (fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentzaria indargabetzen duena) 8 bis quater artikuluan eta V. eranskinean, plataforma digitalen bidez lortutako errentari buruzko informazioa automatikoki trukatzeko Agintaritza eskudunen arteko alde anitzeko akordioan, eta plataformetako operadoreek saltzaileei buruz informazioa komunikatzeko arauen ereduaren, elkarlaneko ekonomiaren eta noizbehinkako lan ekonomiaren esparruan, eta helburu berarekin sinatutako nazioarteko beste akordio batzuetan xedatutakoaren arabera, ardura egokiko arauak eta prozedurak aplikatu beharko dituzte, eta aipatutako araudiaren arabera bete beharko dituzte informazioa erregistratu eta hornitzeko betebeharrak "informazioa jakinaraztera behartuta dauden plataforma operadoretzat" hartzen diren entitateek.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako araudiaren arabera 'saltzaileetat' jotzen diren pertsonak edo erakundeak ardura egokiari buruzko arauak eta prozedurak aplikatzetik eratorritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Erregelamendu bidez garatuko dira ardura egokiari buruzko arauak eta prozedurak, bai eta apartatu honetan aipatzen diren informazioa erregistratzeko eta emateko betebeharrak ere.

Xedapen gehigarri honetan eta berau garatzeko araudian erabilitako terminoek arauz ezarritako esanahia izango dute, besterik ezarri ezean.

2. Xedapen gehigarri honen 1. apartatuan jasotako informazioa erregistratzeko eta emateko betebeharrak ez betetzearen ondoriozko arau haustea eta zehapenak foru arau honen IV. tituluaren xedatutakoaren arabera arautuko dira, xedapen honetan ezarritako espezialitateekin.

3. Zerga arloko arau haustea da 1. apartatuan aipatzen diren ardura egokiari buruzko arauak eta prozedurak ez betetzea "informazioa jakinaraztera behartuta dauden plataforma operadoreek".

Zehazki, apartatu honen ondorioetarako arau haustetzat hartuko da ardura egokiko prozeduretatik eratorritako betebeharrak ez betetzea edo oker edo epez kanpo betetzea, honako hauei dagokienez:

- a) Berrikusi behar ez diren saltzaileak zehaztea.
- b) "Saltzaileari" buruzko informazioa biltzea.
- c) "Saltzaileari" buruzko informazioa egiaztatzea.
- d) "Saltzailea" zein estatutan bizi den zehaztea.
- e) Alokaturako ondasun higieziinei buruzko informazioa biltzea.

Apartatu honetan aurreikusitako zerga arloko arau haustea 200 euroko diruzko isun finko batez zehatuko da "saltzaile" bakoitzeko, baldin eta ardura egokiari buruzko arauak eta prozedurak aplikatuzetik eratorritako betebeharrak bete ez baziren.

"Informazioa ematera behartuta dagoen plataforma operadore" bat kanpoko zerbitzu emaila batez baliatzen denean ardura egokiari buruzko betebeharrak betetzeko, horiek operadore horren erantzukizuna izaten jarraituko dute.

4. Zerga arloko arau haustea da nahitaezko informazioa epean ez jakinaraztea edo informazio faltsua, osatugabea edo zehaztugabea jakinaraztea "saltzaileek" informazioa jakinaraztera behartuta dauden plataforma operadoreei, aurreko apartatuan aipatzen diren ardura egokiko prozedurak operadoreak aplikatuzetik eratorritako betebeharrak betez.

Apartatu honetan aurreikusitako zerga arloko arau haustea 300 euroko diruzko isun finkoarekin zehatuko da.

5. "Saltzaile" batek "informazioa jakinarazteko betebeharra duen plataforma operadoreari" ardura egokiko arau eta prozeduren arabera eskatutako informazioa ematen ez dionean, operadorearen hasierako eskaerari buruzko bi oroitgarri jaso ondoren eta hasierako eskaera egin zenetik 60 egun naturaleko epea igaro ondoren, operadore horrek "saltzailearen" kontua itxiko du eta plataforman berriz erregistratzea eragotziko du edo "kontraprestazioaren" ordainketa atxikiko dio eskatu zitzaion informazioa eman arte.

6. Zergapekoei eska dakizkiekeen deklarazioak, dokumentu frogak, erregistroak eta ardura egokiaren prozedurak aplikatzeko eta xedapen gehigarri honetan aipatzen diren informazioa erregistratzeko eta emateko betebeharrak betetzeko erabiltzen den edozein informazio gorde egin beharko dira, eta Zerga Administrazioaren eskura eduki, informazioa ematea dagokion erreferentzia aldia amaitu eta hurrengo 10 urteetan.

Foru arau honen arau orokorren arabera xedapen gehigarri honetan informazioa erregistratzeko eta emateko aipatzen diren betebeharrak egiaztatzeko eta ikertzeko ahalmenak alde batera utzi gabe, Zerga Administrazioak egiaztatu eta ikertu ahal izango

du ea betetzen diren "informazioa komunikatzeko betebeharra duten plataforma operadoreek" aplikatu beharreko ardua egokiari buruzko arauak eta prozedurak.

7. Informazioa jakinaraztera behartuta dagoen plataforma operadore orok informaziopeko "saltzaile" pertsona fisiko bakoitzari jakinarazi beharko dio xedapen honetan horri buruz aipatzen den informazioa Zerga Administrazioari emango zaiola eta dagokion estatuari transferitu, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren eta xedapen honetan adierazitako nazioarteko akordioen arabera. Era berean, operadoreak behar besteko aurrerapenaz emango dio pertsona fisikoari hark jasotzeko eskubidea duen informazio guztia, hark bere datu pertsonalak babesteko eskubidea baliatu ahal izan dezan, eta, nolanahi ere, hark bildutako informazioa Zerga Administrazioari eman aurretik.

[\(46\)](#) Aurreko paragrafoaren azken esaldian xedatutakoa gorabehera, "informazioa eman behar duen plataforma eragile" orok "informazioa eman behar den saltzaile" bakoitza informatu beharko du dagokion estatuari transferitutako "kontraprestazioaz", 2011/16/EB Zuzentarauaren eta xedapen honetan adierazitako nazioarteko erabakien arabera.

Hogeita zortzigarrena. [\(43\)](#) [\(47\)](#) Izatezko bikoteak.

Arabako Lurralde Historikoko foru erakundeek araugintzarako gaitasuna duten zergetan, ezkontideei buruzko xedapen orokorrak, bai eskubideak jasotzen dituztenak, bai betebeharrak arautzen dituztenak, berdin aplikatuko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan edo Espainiako estatuko, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetako edo hirugarren herrialdeetako beste administrazio publiko batzuek ezarritako antzeko erregistroetan inskribatuta dauden izatezko bikoteetako kideei.

Xedapen horietan izatezko bikoteak aipatzen direnean, aurreko paragrafoan definitutakoez ari direla ulertuko da.

Hogeita bederatzigarrena. [\(44\)](#)

Foru arau bidez besterik ezarri ezean, ezingo zaio zerga kenkari edo pizgarri bera pertsona, erakunde edo zergapeko bati baino gehiagori aplikatu gastu edo inbertsio beragatik, eta ezingo zaio zerga kenkari edo pizgarri bat baino gehiago aplikatu pertsona, entitate edo zergapeko berari gastu edo inbertsio beragatik.

Hogeita hamargarren. [\(47\)](#) Elkarrekiko laguntzaren eremuan, "informatu beharra duten kriptoahtiboen zerbitzuen emaileen" informazioa eman beharra eta arreta egokiaren inguruko betebeharrak.

1. "Informatu beharra duten kriptoahtiboen zerbitzuen emaileak" diren pertsonak eta erakundeak arreta egokiaren arauak aplikatu beharko dituzte eta informazioa emateko eta, behar denean, erregistratzeko betebeharrak bete beharko dituzte, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis quinquies artikuluan eta VI. eranskinean xedatutakoaren arabera (zuzentarau hori fiskalitatearen arloko lankidetzaren administrazioari buruzkoa da, eta Kontseiluaren urriaren 17ko 2023/2226/EB Zuzentarauaren bidez aldatutako 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen du) eta informazio truke automatikoari buruzko agintaritzaren eskudunen arteko akordio multilateralean eta kriptoahtiboei buruzko informazioa trukatzeko esparruarekin bat etorritik eta helburu berarekin sinatutako nazioarteko beste akordio batzuetan xedatutakoari

jarraikiz, xedapen gehigarri honen arabera eta erregelamenduz zehazten denarekin bat etorriz.

Era berean, “kriptoaktiboen erabiltzaileak” diren pertsonak eta erakundeak (eta, erakundeen kasuan, erabiltzaile horien “kontrola duten pertsonak” ere bai) arreta egokiari buruzko arauen ondoriozko betebeharrak edukiko dituzte identifikazioari eta zerga egoitzari dagokienez, aurreko paragrafoan aipatzen den araudiari jarraikiz.

Arreta egokiari buruzko arauak araudian garatuko dira, eta modu berean garatuko dira apartatu honetako informazioa eman beharra eta erregistratu beharra ere.

Xedapen gehigarri honetan eta bera garatzen duen araudian erabiltzen diren terminoek arauz ezarritako esanahia edukiko dute, besterik ezarri ezean.

2. Xedapen gehigarri honetan ezartzen denaren ondorioetarako, «informatu beharreko erabiltzailea” eta “informatu beharreko pertsona” terminoak Espainiako egoiliarrei edo egoiliar ez direnei dagozkie, erregelamenduz ezartzen diren salbuespenekin

3. 1. apartatuan aipatzen diren informazioa eman beharra (eta, behar denean, erregistratu beharra) ez betetzearen ondoriozko arau hausteak eta horien zehapenak IV. tituluan arautzen dira, xedapen gehigarri honetan ezarritako berezitasunekin.

4. Zergen arloko arau haustea da arreta egokiari buruzko arauetan ezartzen diren betebeharrak ez betetzea edo epea kanpo betetzea:

a) “Kriptoaktiboak erabiltzen dituen pertsona fisikoa” “informatu beharreko erabiltzailea” den ala ez zehaztea.

b) Zehaztea “kriptoaktiboak erabiltzen dituen erakundea” “informatu beharreko erabiltzailea” den edo “salbuetsitako pertsona” edo “erakunde aktiboa” ez den “erakundea”, non “kontrola egiten duten pertsona” bat edo gehiago “informatu beharreko pertsonak” diren.

Apartatu honetan arautzen den zergen arloko arau haustearen zehapena 200,00 euroko diru isun finkoa izango da arreta egokiari buruzko arauen ondoriozko betebeharrak betetzen ez diren pertsona bakoitzeko.

“Informatu beharra daukan kriptoaktiboen zerbitzuen emailak” batek kanpoko zerbitzu emailak bat erabiltzen badu arreta egokiaren inguruko betebeharrak betetzeko, hala ere, horien erantzukizuna berak edukiko du.

5. Zergen arloko arau haustea da informazio faltsua, osatugabea edo zehaztugabea ematea “kriptoaktiboen erabiltzaileak” edo erabiltzaile horien “kontrola egiten duten pertsonak” “informatu beharra duten kriptoaktiboen zerbitzuen emailak”, emailak aurreko apartatuan aipatzen diren arreta egokiaren arauen ondoriozko betebeharrak aplikatuz.

Apartatu honetan arautzen den arau haustearen zehapena 300,00 euroko diru isun finkoa izango da.

6. “Kriptoaktiboen erabiltzaile” batek edo, erakundeen kasuan, erabiltzaile horren “kontrola duten pertsona” batek arreta egokiaren arauak jarraikiz eman beharreko informazioa ematen ez badiu “informatu beharra daukan kriptoaktiboen zerbitzuen emailak”, emailaren hasierako eskaeraren ondoren bi oroitza jaso eta hasierako eskaeratik 60

egun natural igarota, emailak “kriptoaktiboen erabiltzaileari” eragotziko dio “informatu beharreko eragiketak” egitea.

7. Bi errekerimenduren ondoren “informatu beharra daukan kriptoaktiboen hornitzailea” den “kriptoaktiboen operadore” batek ez badu betetzen 1. apartatuan aipatzen den informatu beharra, Zerga Administrazioak erabakiko du kautelazko baja ematea errola egokian. Bigarren errekerimendutik 90 egun natural igaro baino lehen emango zaio baja, baina inolaz ere ez 30 egun natural igaro baino lehen.

Baja erabaki ondoren, operadoreak alta berriro egiteko aukera izango du, baldin eta Zerga Administrazioari berme egokiak ematen badizkio informazioa eman beharra betetzeko konpromisoa hartzeko, bete gabe dauden informazio hornidurak barne. Horretarako, Zerga Administrazioak berme egokitzen jo ahal izango du erantzukizunpeko adierazpena edo zergen araudian ezartzen den beste edozein berme. Zerga Administrazioak berme horiek egokitzea erabaki ahal izango du, errola egoera 3/2011 Foru Dekretuaren 21. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren errola egiaztapeneko jarduketak eta prozedurak eginez (Diputatuen Kontseiluaren 3/2011 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, zergadunen errola eta errola betebeharrak arautzen dituen).

8. “Kriptoaktiboen erabiltzaileei” eta, erakundeen kasuan, erabiltzaile horien “kontrola egiten duten pertsonak” eskatu ahal zaizkien adierazpenak, arreta egokiaren arauak aplikatzeko eta informazioa emateko eta, behar denean, erregistratu beharra betetzeko erabilitako frogagiriak, erregistroak eta informazioak gorde egin beharko dira Zerga Administrazioaren esku ipini beharko dira erabiltzaile horien “informatu beharreko eragiketei” buruzko informazioa eman behar den urtearen ondoko bosgarren urtea amaitu arte.

Foru arau honen arau orokorreari jarraikiz xedapen gehigarri honetan aipatzen den informazioa eman beharra eta, behar denean, erregistratu beharra egiaztatzeko eta ikertzeko ahalmenak gorabehera, Zerga Administrazioak egiaztatu eta ikertu ahal izango du “informatu beharra duten kriptoaktiboen zerbitzuen emailak” aplikatu beharreko arreta egokiaren arauak betetzen dituzten ala ez.

9. “Informatu beharra duten kriptoaktiboen zerbitzuen emailak” guztiek informazioa eman behar den pertsona fisiko bakoitzari azaldu beharko dio berari buruzko informazioa, xedapen honetan aipatzen dena, emango zaiola Zerga Administrazioari eta behar den estatura bidaliko dela, 2011/16/EB Zuzentarauaren eta xedapen gehigarri honetan adierazitako nazioarteko akordioaren arabera. Era berean, “informatu beharra duen kriptoaktiboen zerbitzuen emailak” jasotzeko eskubidea duen informazio guztia emango dio pertsona fisikoari, bere datu pertsonalak babesteko eskubidea baliatu ahal izan dezan, behar besteko aurrerapenarekin, eta nahitaez bildutako informazioa Zerga Administrazioari eman aurretik.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Beteazpen-aldiko errekaruak, berandutza-interesak, eta kontrata eta azpikontratetako erantzukizuna.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 28. artikuluan xedatutakoa Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarritakoan beteazpen-aldian sartzen diren zerga-zorrei aplikatuko zaie.

2. Berandutza-interesei buruz Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarritakoan hasten edo aurkezten diren prozedurei, idazkiei eta eskaerei aplikatuko zaie.
3. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 43. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letran azaltzen den erantzukizun kasua ez zaie aplikatuko kontrataturiko edo azpikontrataturiko obra eta zerbitzuei, baldin eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarri aurretik hasitakoak badira.

Bigarrena.- Zerga-prozedurak.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jartzen den eguna baino lehen hasitako zerga-prozeduretan, egun horretara arte indarrean egondako arauak beteko dira harik eta prozedura amaitu arte, hurrengo idatz-zatian xedatutakoaren kalterik gabe.
2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei artikulua hauek aplikatuko zaizkie:
 - a) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 61. artikuluko 2. idatz-zatia, borondatez ordaintzeko aldiei buruzkoa, Administrazioaren likidazioa Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarri ondoren jakinarazten bada.
 - b) Foru Arau honetako 78. artikulua, kautelazko neurriei buruzkoa, Foru Araua indarrean jartzen denean hartzen direnean.
 - c) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 108. artikuluko 2. idatz-zatia, interesduna bertaratuta egiten diren jakinarazpenei buruzkoa, argitalpenak Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarri ondoren egiten badira.
 - d) Foru Araua honetako 173. artikulua, ondasun eta eskubideen enbargoa egiteari buruzkoa, enbargatzeko diziiplina ematen dutenean Foru Arau hau indarrean sartzen denetik.
 - e) Foru Arauaren 176. artikulua, enbargatutako ondasun eta zerbitzuak besterentzeari buruzkoa, besterentzeko akordioa Foru Araua indarrean jarri ondoren hartzen dutenean.
 - f) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 218. artikuluko 2. idatz-zatia, zehapenen aurka errekurtsio edo erreklamazioak jartzearen ondorioei buruzkoa.
 - g) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 230. artikuluko 1. idatz-zatia, berraztertze errekurtsioa jartzeko epeari buruzkoa, errekurritzen den egintza edo ebazpena Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarritakoan jakinarazten bada.
3. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 14. eta 163. artikulua aplikatuko dira, itzurpenaren aurkako klausulari buruzkoak alegia, baldin eta txostenaren xede diren egintzak edo negozioak Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarri ondoren eginak badira. Lehenago egindako egintzei eta negozioei Arabako Lurralde

Historikoko Zergei buruzko 1981eko maiatzaren 31ko Foru Arau Orokorreko 24. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hirugarrena.- Zergen arloko arau-haustek eta zehapenak.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarri baino lehen egindako zergen arloko arau-hausteei berau aplikatuko zaie, baldin eta arau-hauslearen mesederako bada eta ezarritako zehapena irmo bihurtu ez bada.

Irmo ez diren zehapenen berrikuspena eta arautegi berriaren aplikazioa erreklamazio eta errekursoak ebazten ari diren administrazio eta jurisdikzio organoen eginkizunak izango dira, behin interesduna entzun eta gero.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarri aurretik hasitako zergen arloko zehapen-prozedurak 2005eko abenduaren 31rako amaitu beharko dira.

Laugarrena.- Administrazioarekiko diru-erreklamazioak.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarri ondoren aurkezten diren erreklamazioei eta errekursoei berton xedatutakoa aplikatuko zaie. Lehenago aurkeztutakoei aurreko arautegia aplikatuko zaie, amaitu arte.
2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 240. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako epea, administrazioarekiko diru-erreklamazioak jartzeko epea hain zuzen, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarritakoan jakinarazten diren egintza edo ebazpenen aurkako erreklamazioei aplikatuko zaie.
3. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 245. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean jarri eta handik urtebete igarotakoan aurkezten diren administrazioarekiko diru-erreklamazioei aplikatuko zaie.

Bosgarrena.- (42) Jurisdikzio ez-kooperatiboaren kontsiderazioaren aplikazio iragankorra.

Foru agindu bidez jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialdeak edo lurraldeak zehazten ez diren bitartean, halakotzat hartuko dira Arabako Lurralde Historikoko zerga arautegian xedatutakoaren ondorioetarako paradisu fiskaltzat hartu behar diren herri eta lurraldeak zehazten dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 7ko 435/1992 Foru Dekretuan ezartzen diren herrialdeak eta lurraldeak.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

1. Foru arau honetako xedapen iragankorretan xedatutakoaren kalterik gabe, honako foru araua indarrean jartzen denean indargabetu egingo dira bertan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak; besteak beste, Arabako Zergei buruzko 1981eko maiatzaren 31ko Foru Arau Orokorra, eta martxoaren 23ko 114/1993 Foru Dekretua, herritarrek Zerga Administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak ezarri dituenak.

2. Aurreko idatz-zatian esandako moduan indargabetuko diren testuen garapenerako emandako arauak indarrean iraungo dute, bai eta administrazioarekiko diru-erreklamazioak arautzen dituzten xedapenek ere, foru arau honetan ezarritakoaren aurka ez doazen heinean, harik eta foru arau hau garatzeko arau berriak indarrean jarri arte.
3. Indarrean dauden arauetan foru arau honen bidez berariaz indargabetu diren xedapenei buruz ageri diren aipamenak foru arau honetan gai berberei buruz emandako xedapenei dagozkiela ulertu behar da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren aldaketa.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauan honako manu hauek aldatu dira:

Bat. 11. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Sozietate zibilen (nortasun juridikoa izan zein ez), jaraunspen banatu gabeen, ondasun erkidegoen eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako gainerako erakundeen errentak bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei eratzikiko zaizkie, hurrenez hurren, foru arau honetako IV. tituluko VI. kapituluko 2. atalean ezarritakoaren arabera.”

Bi. 50 quinquies artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Aurreko idatz-zatian aipatutako informazio-betebeharra errenta-eratzikipenaren erregimeneko erakundearen ordezkariatzat jotzen den pertsonak bete beharko du, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 45. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, edo honako zerga honen zioz zergadun diren kideek edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo direnek, atzerrian eratutako erakundeen kasuan.”

Hiru. 89. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Hauek izango dira zerga-zorren osagaiak: zerga-kuota, eta, bidezkoa bada, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 57. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan bildutako gainerako kontzeptuak.”

Lau. 92. artikuluko 4. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“4. Baterako zerga-ordainketarako aitorpena famili unitateko adin nagusiko kideek sinatu eta aurkeztuko dute, eta hauek famili unitateko adingabeen ordezkari gisa jardungo dute, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 45. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen denaren arabera.”

Bost. 95. artikuluko 5. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“5. Kausatzailearen ondorengoek zerga honen aitorpena aurkeztu eta sinatzeko burutu gabeko betebeharrak bete beharko dituzte, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 39. artikulua arabera.”

Sei. 97. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatiak aldatu dira eta honela geratu dira:

“3. Salbuespeneko kasuetan, Foru Aldundiak, berak egokiesten dituen txostenak egin eta gero, zerga-zorra zeinahi ondasun edo eskubide emanez ordaintzea onartu ahal izango du.

Aurreko paragrafoan adierazi bezala ondasun edo eskubideak ordainetan ematen direnean, horrek agerian jartzen dituen errentak ez dira zerga-oinarrian sartuko.

4. Kausatzailearen ondorengoek zerga honen aitorpen, autolikidazio eta ordainketako burutu gabeko zerga-betebeharrak, zehapenak izan ezik, bete beharko dituzte, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 39. artikulua arabera.”

Zazpi. 104. artikuluko 4. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“4. Itzulketa egiteko epea igarotakoan, itzulketarako ordainketa-agindua eman gabe badago eta horren arrazoiak Zerga Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, itzuli beharreko kopuruari, epea amaitzen den egunetik ordainketa agintzen den egunera arte, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluan aipatzen diren berandutza-interesak aplikatuko zaizkio, zergadunak hala eskatu beharrik izan gabe.”

Zortzi. 110. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“110. artikulua.- Arau-haustek eta zehapenak.

Zerga honi dagozkion arau-haustek Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera zehapena izango dute.”

Bigarrena.- Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 23/1991 Foru Arauaren aldaketa.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 23/1991 Foru Arauan honako manu hauek aldatu dira:

Bat. 6. artikuluko Bi eta Hiru idatz-zatiak aldatu dira eta honela geratu dira:

“Bi. Bat idatz-zatian aipatutako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da eta 150,25 - 6.010,12 euro bitarteko isunarekin zehatuko da.

Hiru. Edonola ere, aurreko 5. artikuluko Bat idatz-zatiko b) letran aipatzen diren ez-egoiliarren ondasun edo eskubideen gordailuzainak edo kudeatzaileak, bere gordailu edo kudeaketaren pean dituen ondasun edo eskubideen zioz, Zerga honi dagokion zerga-zorra eta, halakorik badago, zehapenak ordaintzearen erantzukizun solidarioa izango du, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako eran.”

Bi. 26. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“26. artikulua.- Zerga-oinarria zehaztea.

Oro har, zerga-oinarria zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztuko da.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 52. artikuluan azaltzen diren inguruabarrak gertatzen direnean, zeharkako zenbatespenaren erregimena aplikatu ahal izango da zerga-oinarria zehazteko.”

Hiru. 27. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“27. artikulua.- Peritu-tasazioa.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 129. artikuluan aipatzen den peritu-tasazio kontrajarria foru arau honetako 18, 19 eta 24. artikuluetan aipatzen diren ondasun eta eskubideei bakarrik aplikatu ahal izango zaie, salbu eta foru arau honetako 18. artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako aukera baliatzen denean.”

Lau. 35. artikuluko Bi idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

"Bi. Salbuespeneko kasuetan, Foru Aldundiak, berak egokiesten dituen txostenak egin eta gero, zerga-zorra eta, halakorik egonez gero, zehapenak zeinahi ondasun edo eskubide emanaz ordaintzea onartu ahal izango du.

Bost. 38. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“38. artikulua.- Arau-hausteak eta zehapenak.

Foru arau honetan dauden arau berezien kalterik gabe, zerga honi dagozkion arau-hausteak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera zehatuko dira.”

Hirugarrena.- Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren aldaketa.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauan honako manu hauek aldatu dira:

Bat. 6. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Sozietate zibilek (nortasun juridikoa izan zein ez), jaraunspen banatugabeek, ondasun erkidegoek eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako gainerako erakundeek izandako errentak, bai eta jasandako atxikipen eta konturako sarrerak ere, bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei eratxikiko zaizkie, hurrenez hurren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauko IV. tituluko VI. kapituluko 2. atalean ezarritakoaren arabera.”

Bi. 10. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Zerga-oinarria zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztuko da, edo zenbatespen objektiboaren bidez, foru arau honek hori aplikatzeko agintzen duenean, eta, sorospidez, zuzeneko zenbatespenaren bidez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 52. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hiru. 14. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra aldatu da eta honela geratu da:

“c) Isunak, zehapen penalak eta administrazio-zehapenak, betearazpen-aldiko errekaruak eta aurretiazko errekerimendurik gabe epea kanpo aurkeztutako aitorpenengatiko errekaruak.”

Lau. 70. artikuluko 2. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Betebehar hori ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da, eta 3.000,00 - 6.000,00 euro bitarteko isuna ezarri ahal izango da ez-betetze hori gertatzen den zergaldi bakoitzeko.

Arau-hauste honen erantzule subsidiarioak izango dira sozietatearen administratzaileak, aurreko idatz-zatian ezarritakoa behar bezala betetzeko neurriak berariaz proposatzen dituztenak salbu, nahiz eta gainontzeko administratzaileek onartu ez.”

Bost. 77. artikuluko 4. idatz-zatia honelaxe geratu da:

“4. Artikulu honetako 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako akordioak egon ezean, ezin izango da aplikatu zerga-baterakuntzaren erregimena.

Aurrerantzean zerga-taldean sartu beharko diren sozietateei dagozkien akordioak egin gabe izatea erakunde nagusiaren zergen arloko arau-haustea izango da, 300 eta 6.000 euro bitarteko isunarekin zehatuko da, eta ez du eragotziko ukitutako sozietateak taldean eraginkortasunez sar daitezen. Zerga-baterakuntzaren erregimena ezin izango da aplikatu baldin eta, zerga-baterakuntzaren erregimenean zerga ordaindu behar duten lehenengo zergaldia amaitzen den egunetik aurrera, artikulu honetan aipatutako akordioak oraindik ere egin gabe badaude.”

Sei. 87. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Zerga-baterakuntzaren erregimena galdu egingo da honakoetako bat gertatzen denean:

a) Zerga-taldeko sozietateren batek Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 52. artikuluan ezarritakoaren arabera zeharkako zenbatespenaren erregimena aplikatzea dakarten inguruabarretariko baten bat izatea.

b) Informazio-betebeharra, aurreko artikuluko 1. idatz-zatian azaldutakoak, ez betetzea.”

Zazpi. 100. artikuluko 4. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“4. Aurreko idatz-zatietan ezarritako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da eta eman gabe utzitako datu bakoitzeko 150,25 eta 6.010,12 euro bitarteko isuna jarri ahal izango da; isunaren gehieneko zenbatekoa, betiere, erakunde eskuratzailerak, eskualdatutako ondasun eta eskubideak direla eta, bere kontabilitatean adierazitako balioaren %5 izango da.

Zortzi. 128. artikuluko 2. idatz-zatia honelaxe geratu da:

“2. Aurreko idatz-zatian ezarritako betebeharra ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da.

Arau-hauste hori behin bakarrik zehatuko da eta birbalorazio-zenbatekoaren %5eko isuna ezarriko da. Ordainketak ez du ekarriko diru kopuru hori Zergari dagokionez birbalorizatutako ondare-elementuaren balioari gehitzea.

Bederatzi. 134. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“134. artikulua.- Subjektu pasiboen betebeharrak zerga-egoitzari dagokionez.

Subjektu pasiboek Zerga Administrazioa jakinean jarri beharko dute zerga-egoitza aldatzen dutenean, eta Zerga Administrazioak, bere aldetik, zerga-egoitzaren aldaketa eragin ahal izango du, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera.”

Laugarrena.- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauaren aldaketa.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauko manu hauek aldatu dira:

Bat. 8. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“3. Zerga honen ziozko zergadunek, establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe, sortutako etekinen ordaintzaileari dagokionez, Zerga Administrazioaren jarduketak erantzulearekin zuzenean bideratu ahal izango dira eta zerga-zorra berari eskatu, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutako erantzukizunaren ondoriozko aurretiazko administrazio egintzaren beharrik gabe.

Establezimendu iraunkor bati lotuta ez dauden ondasun edo eskubideen gordailuzain edo kudeatzaileen kasuan, sorospidezko erantzukizuna Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritako eran eskatuko da.”

Bi. 9. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“3. Aurreko 1. idatz-zatian aipatutako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da eta 600 - 6.000 euro bitarteko isunarekin zehatuko da.”

Hiru. 34. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“34. artikulua.- Zerga-zorraren oinordetza.

Zergaduna hiltzen bada, kausatzailearen oinordekoek, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 39. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, zergadunak, zerga hau dela eta, burutu gabe utzi zituen zerga-betebeharrak bete beharko dituzte, zehapenak izan ezik.”

Lau. 36. artikulua honelaxe geratu da:

“36. artikulua.- Arau-haustea eta zehapenak.

Zerga honi dagozkion arau-hausteei Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera zehapena izango dute.”

Bost. 38. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Zergak kudeatzen dituzten organoek behin-behineko likidazioa igorri ahal izango dute, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera.”

Bosgarrena.- Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren aldaketa.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauko manu hauek aldatu dira:

Bat. 34. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Kasu berezietan, emakidaren izaeraren ondorioz zerga-oinarria aurreko idatz-zatiko arauen bitartez finkatzerik ez dagoenean, honako arauen bitartez zehaztuko da:

a) Kasuan kasuko ustiapenak, erabilerak edo aprobetxamenduak lotuta dituen aktibo finkoen balioari %2ko portzentajea aplikatuko zaio emakidak dirauen urte bakoitzeko; betiere %10 aplikatuko zaio gutxienez, eta gehieneko zenbatekoa ez da izango aktiboen balioa baino handiagoa.

b) Horrelako balioespenik ezean, kasuan kasuko Herri Administrazioak adierazitako balioespena hartuko da aintzat.

c) Aurreko bi arauetatik bat ere aplikatzerik ez dagoenean, interesdunek aitortutako balioa hartuko da aintzat. Beti ere Administrazioak eskubidea izango du balioa egiaztatzeko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan adierazitako bideetatik.”

Bi. 71. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Egiaztapena Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan ezarritako baliabideak erabiliz egingo da:

a) Lurrei Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren ondoreetarako esleitutako balioak.

b) Kasuan kasuko eskuraketaren xede diren ondasunek azken aldiz besterendu zirenean izan zuten salmenta-prezioa, edo inguru nahiz barruti bereko beste ondasun batzuek, izaeraz eta egoeraz aurrekoen antzekoek, azken aldiz besterendu zirenean izan zuten salmenta-prezioa.

c) Aseguru-kontratuetan ondasunei esleitutako kapitala.

d) Hipoteka duten finkak eskuratzen direnean, hipotekaren ondoreetarako adierazitako balioa, hau da, maileguaren printzipala, salbu eta interesdunak frogatzen duenean printzipala ez dela oso-osorik erabili ondasuna edo eskubidea eskuratzeko.

e) Administrazioak bere esku dituen balantze, datu eta balioespenak, baldin eta zergadunak beste zerga batzuen ondoreetarako onartu baditu. Betiere, Likidazio Bulegoak ahalmena izango du aktiboaren osagaiak biderik egokienetatik egiaztatzeko.”

Hiru. 72. artikulua 3. idatz zatia honela geratu da:

“3. Ondasun edo eskubideen balioa dela-eta perituak ados ez daudenean, Administrazioko perituak egindako tasazioak ez badu %10etik gorako aldeaz gainditzen interesdunak egindakoa, eta 120.202,42 euro baino gehiagokoa ez bada, bera hartuko da oinarritzat likidazioa egiteko. Administrazioko perituak egindako tasazioak aurrean adierazitako mugaren gainetik gainditzen badu interesdunak egindakoa, Likidazio Bulegoak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera jardungo du. Hirugarren perituak egindako balioespenari ezin izango zaio inolako errekurtsorik jarri.”

Lau. 75. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Preskripzioa, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa salbu, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 65. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera arautuko da.”

Bost. 83. artikuluko 1. idatz-zatia honelaxe geratu da:

“1. Baldin eta, epailearen edo Administrazioaren ebazpen irmoaren bidez, egintza nahiz kontratua deuseztatu, desegin edo suntsiarazi dela adierazten edo onartzen bada, zergadunak Zergaren kuotaren zioz ordaindu duen kopuruaren itzulketarako eskubidea izango du, egintzak edo kontratuak irabazizko ondorioz ekarri ez badio. Gainera, itzulketa hori eskatu beharko du Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 65. artikuluan ezarritako preskripzio-epearen barruan, ebazpena irmo bihurtzen denetik hasita zenbatuta.”

Sei. 84. artikulua honelaxe geratu da:

“84. artikulua.- Zergen arloko arau-hauste eta zehapenak.

Foru arau honek arautzen duen Zergari dagozkion arau-hausteei Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera zehapena izango dute.”

Seigarrena.- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailearen aldaketa.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailean xedapen batzuk aldatu dira eta honelaxe geratu dira:

Bat. 89. artikuluko Bost idatz-zatiko lehenengo paragrafoa honela geratu da:

“Bost. Kuoten zuzenketak hasieran jasanarazitako kuoten gehikuntza eragiten badu eta subjektu pasiboari aurretiaz errekerimendurik egiten ez bazaio, subjektu pasiboak aitorpen-likidazio zuzentzailea aurkeztu beharko du, eta bidezkoak diren errenergua eta berandutza-interesak aplikatuko zaizkio aitorpen horri, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoarekin bat.”

Bi. 114. artikuluko 2. zenbakia honelaxe geratu da:

“2. Hasieran egindako kenkariaren kuotak gutxitzen badira zuzenketaren ondorioz, subjektu pasiboak aitorpen-likidazio zuzentzailea aurkeztu beharko du, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera bidezkoak diren errenergua eta berandutza-interesak aplikatuko zaizkio aitorpen horri.

Hala eta guztiz ere, zuzenketa Zuzenbideko akatsen baten ondorioz edo arau honetako 80. artikuluan ezarritako zioen baten ondorioz egiten denean, hori subjektu pasiboak kenketa-eskubidearen ziurtagiria jasotzen duen zergaldiari dagokion aitorpen-likidazioan egin beharko da, eta ziurtagiri horretan hasieran jasandako kuotak zuzenduko dira.

Hiru. 115. artikuluko Hiru idatz-zatia honelaxe geratu da idatzita:

“Hiru. Artikulu honetan eta hurrengoan aipatutako kasuetan, Administrazioak, egoki denean, behin-behineko likidazioa egingo du, zergaren itzulketa eskatzen den aitorpen-likidazioa aurkezteko ezarritako epea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan. Hala ere, aitorpen-likidazioa aurkezpen-epe horretatik kanpo aurkeztzen bada, aurkeztzen denetik hasita zenbatuko dira sei hilabeteak.

Aitorpen-likidaziotik edo, hala denean, behin-behineko likidaziotik itzultzeko kopurua ateratzen denean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du kopuru hori. Hala ere, gero egin ahal izango dira bidezko diren likidazioak, behin-behinekoak edo behin-betikoak.

Behin-behineko likidazioa idatz-zati honetako lehenengo paragrafoan ezarritako epean egin ezean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du eskatutako kopuruaren zenbateko osoa. Hala ere, gero egin ahal izango dira bidezko gertatzen diren likidazioak, behin-behinekoak edo behin-betikoak.

Idatz-zati honetako lehenengo paragrafoan ezarritako epean Zerga Administrazioari egotzi ahal zaion kausarengatik itzultzeko ordainketa agindurik ez badago, itzultzeko dagoen kopuruari aplikatuko zaio Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aipatutako

berandutza- interesa, epe hori bukatzen den egunaren biharamunetik hasi eta ordainketa agindu arte, subjektu pasiboak horrela eskatu beharrik gabe.

Arauz zehaztuko dira idatz-zati honetan aipatutako ofiziozko itzulketako ordainketaren prozedura eta era.”

Lau. 167 bis artikulua honela geratu da idatzita:

“167 bis artikulua.- Behin-behineko likidazioa.

Zergak kudeatzen dituzten organoek bidezkoa den behin-behineko likidazioa igorri ahal izango dute, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoari jarraituz, baita hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuetan ere.”

Bost. 170. artikulua honela geratu da:

“170. artikulua.- Arau hausteak.

Bat. Titulu honetan aurreikusitako xedapen berezien kalterik gabe, zerga honi dagozkion arau-hausteak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta aplikatu beharreko gainerako arau orokorretan ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

Bi. Zergen arloko arau-hausteak izango dira:

1. Baliokidetasun-errekarguko erregimen berezian dauden subjektu pasiboek ondasunak eskuratzea fakturretan baliokidetasun-errekargua berariaz agertu gabe; horretatik salbu daude horren guztiaren berri Administrazioari arauz ezarrita dagoen bezala ematen dioten eskuratzailerak.

2. Erruzko edo doluzko ekintza edo omisio baten bidez Zerga oker jasanaraztea lortzea, baldin eta haren jasotzaileak ez badu jasandako kuotak oso-osorik kentzeko eskubidea.

Arau-haustea izango dira aipatutako eragiketen jasotzaile diren pertsona zein erakundeak, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako ekintza edo omisioen erantzuleak badira.

3. Zergaren subjektu pasibo ez diren pertsonak sartu gabeko zerga-kuotak fakturan bidegabe jasanaraztea.

4. Zergaldi bateko autolikidazioan ez kontsignatzea eragiketen jasotzailea subjektu pasibo izan deneko kopuruak, foru arau honetako 84. artikuluko edo 85. artikuluko Bat idatz-zatiko 2gn eta 3gn zenbakietan ezarritakoaren arabera.”

Sei. 171. artikulua honelaxe geratu da:

“171. artikulua.- Zehapenak.

Bat. Aurreko artikuluko Bi idatz-zatiko arau-hausteak ondoko arauen arabera zehatuko dira:

1. Bigarren idatz-zatiko 1. zenbakian aipatutako arau-hausteengatik, jasanarazi behar zen baliokidetasun-errekarguaren %50eko isun proportzionala ezarriko da; isuna 30 eurokoa izango da, gutxienez, baliokidetasun-errekargua jasanarazi gabe egindako eskuraketa bakoitzeko.

2. Bigarren idatz-zatiko 2. zenbakian ezarritakoengatik, bidegabe lortutako mozkinaren %50eko isun proportzionala ezarriko da.

3. Bigarren idatz-zatiko 3. zenbakian ezarritakoengatik, bidegabe jasanarazitako kuoten %100eko isun proportzionala ezarriko da; gutxieneko zenbatekoa 300 euro izango da arau-haustea gertatzen den faktura edo ordezeko agiri bakoitzeko.

4. Bigarren idatz-zatiko 4. zenbakian ezarritakoengatik, autolikidazioan kontsignatu ez diren eragiketen kuotaren %10eko isun proportzionala ezarriko da.

Bi. Artikulu honetako Bat idatz-zatiko 4. arauari jarraituz ezartzen diren zehapenak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan xedatutakoaren arabera murriztuko dira.

Hiru. Zerga-onurak lortzeko eskubidearen galera dakarren zehapena ez zaie aplikatuko arau honetan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko gainontzeko arauetan ezarritako salbuespenei.”

Zazpigarrena.- Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga-presako Dekretu Arauemailearen aldaketa.

Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga-presako Dekretu Arauemailean honako manu hauek aldatu dira eta honela geratu dira idatzita:

Bat. 12. artikuluko 2. idatz-zatia honela geratu da:

“2. Zerga-oinarrien zeharkako zenbatespena Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean adierazitako kasuetan eta moduan aplikatu ahal izango da.”

Bi. 14. artikuluko 4. idatz-zatia honela geratu da:

“4. Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien subjektu pasiboek, dagozkien zerga-kuotak ordainduz gero, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 75 eta 77. artikuluetan Herri Ogasunari ematen zaizkion eskubide eta berme berberak izango dituzte zerga-kuota horien jasanarazpena pairatu beharra dutenekiko, eta mugaeguneratutako baina jasanarazpena pairatu beharra dutenek ordaindu gabeko kredituetan sartutako zenbatekoari dagokionez.”

Hiru. 19. artikulua honelaxe geratu da:

“19. artikulua.- Arau-haustek eta zehapenak.

1. Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien arloko arau-hausteen eta zehapenen erregimenean aginduzko izango dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean

xedatutakoa, zerga-presako dekretu arauemaile honetan zerga bakoitzari buruz ezarritako arau bereziak, eta hurrengo idatz-zatietan dauden arauak.

Bereziki, zerga-presako dekretu arauemaile honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenak norbaiten zerga-egoeraren erregularizazioaren ondorio direnean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan aipatzen den murrizketa aplikatu ahal izango da.

2. Hauexek dira zerga berezien arloko arau-hausteak:

a) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko objektuak fabrikatzea eta inportatzea zerga-presako dekretu arauemaile honetan eta haren araudian ezarritako baldintzak eta betekizunak bete gabe.

b) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko produktuak merkataritzako helburuetarako edukitzea eta zirkulazioan jartzea 15. artikuluko 7. idatz-zatian ezarritakoa bete gabe.

3. Aurreko idatz-zatian aipatutako arau-hausteengatik produktuen kopuruari dagokion kuotaren %100eko isuna ezarriko da; kuotak kalkulatzeko, arau-haustea agerian geratzen denean indarrean dagoen tasa aplikatuko da.

Zergen arloko arau-hausteak behin eta berriro errepikatzen badira, zehapenen zenbatekoari %25 gehituko zaio. Arau-haustea errepikatzea izango da aurreko idatz-zatian ezarritako debekuetako bat hausteagatik administrazio-bidean irmoa den ebazpen bidez zehapena ezarri eta hurrengo bi urteetan beste bat egitea.

Era berean, kontrol-arauren bat hausten bada, zehapenaren zenbatekoari %25 gehituko zaio.

4. Gainera, ondoko zehapen hauek ezarri ahal izango dira zergen arloko arau-hausteengatik:

a) Arau-hausleak titular diren establezimenduak aldi baterako, sei hilabeterako, ixtea (Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak erabaki behar du) edo behin betiko ixtea (erabaki hau Foru Aldundiak hartu behar du). Establezimendu bat behin betiko ixtea erabaki daiteke aurreko bi urteetan arau-hausleari establezimendua aldi baterako ixtea ekarri duen zehapena ezarri bazaio administrazio-bideko ebazpen irmo bidez, izaera bereko arau-hauste batengatik.

b) Arau-haustea salmenta automatikorako aparatuen bidez egiten bada, haiek sei hilabetez prezintatzea edota behin betiko inkautatzea. Salmenta automatikorako aparatu bat behin betiko inkautatzea erabaki daiteke aurreko bi urteetan arau-hausleari hura prezintatzea ekarri duen zehapena ezarri bazaio administrazio-bideko ebazpen irmo bidez, aparatu horrekin izaera bereko arau-hauste bat egiteagatik.

Letra honetan aipatutako zehapenak ezartzeko, arau-hausletzat hartuko dira bai salmenta automatikorako aparatuen titularra bai hura jarrita dagoen establezimenduaren titularra.

Ondoko c) letran ezarritako kasuetan salbu, zehapen hauek zehapen nagusia jartzeko eskumena izan duen organo berak ezarriko ditu.

c) Hala ere, b) letrako zehapenak aurreko a) letran ezarritakoei pilatzen zaizkienean, salmenta automatikorako aparatua behin betiko inkautatuko da, baldin eta establezimendua behin betiko ixtea erabakitzen bada. Pilaketa hau gertatzen den kasuetan, a) letran aipatutako organoek ezarriko dituzte zehapenak.

5. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapean dauden produktuak arau bidez ezarritako agiriak falta direla zirkulazioan jartzeagatik, aurrekoa aplikagarria ez bada, zergen arloko arau-hausteagatiko zehapena ezarriko da, hain zuzen ere zirkulazioan dauden produktuen balioaren %10eko isuna (600 euro gutxienez).

6. Zerga-markarik edo ezagutzeko markarik ez duten tabako-lanak merkataritzako helburuekin edukitzea, arau bidez marka horiek eduki beharra ezarri bada, honela zehatuko da:

a) 75 euroko isuna, arau-hausleak merkataritza helburuekin dituen markarik gabeko 1.000 zigarretako; gutxienez 600 euroko isuna arau-hauste bakoitzeko.

b) 600 euroko isuna gainontzeko tabako-lanen inguruan egindako arau-hauste bakoitzeko.

Honelako arau-hausteak behin eta berriro eginez gero, aurreko a) eta b) letretan ezarritako zehapenen zenbatekoari %50 gehituko zaio. Arau-haustea errepikatzea izango da idatz-zati honetan ezarritako arau-hausteetako bat egiteagatik administrazio-bidean irmoa den ebazpen bidez zehapena ezarri eta hurrengo bi urteetan beste bat egitea.”

Lau. 35. artikulua honelaxe geratu da:

“35. artikulua.- Arau-hausteak eta zehapenak.

Zergen arloko arau-hausteak izango dira:

a) Tarteko produktuen fabriketako ardoen edo hartzitutako edarien edo haietan erabilitako produktuen bolumeneko alkohol-gradua behar baino handiagoa izatea.

Zehapena isuna izango da; hain zuzen ere, diferentziari, hektolitro alkohol purutan emanda, dagokion kuotaren %100eko isuna. Alkoholaren eta Edari Ertorrien gaineko Zergarako ezarritako zerga-tasa aplikatuko da.

b) Fabrikazio-prozesuan dauden tarteko produktuek, fabrikako izakinek edo handik irtendako produktuek hartutako bolumeneko alkohol-gradua behar baino txikiagoa izatea.

Zehapena isuna izango da; hain zuzen ere, diferentziari, hektolitro alkohol purutan emanda, dagokion kuotaren %100eko isuna. Alkoholaren eta Edari Ertorrien gaineko Zergarako ezarritako zerga-tasa aplikatuko da.

c) Tarteko produktuen fabriketan, alkohola zein eratorritako edariak ez beste lehengaietan arauz ezarritako alkohol-portzentajeak gainditzea.

Zehapena isuna izango da; hain zuzen ere, lehengaiekin egingo ziren tarteko produktuei dagokien kuotaren %100eko isuna. Kontrakoa frogatu ezean, uste izango da lehengaiekin egingo ziren tarteko produktuen hartutako bolumeneko alkohol-gradua %15 baino gehiago izango zela.”

Bost. 40. artikuluko 5. idatz-zatia honelaxe geratu da:

“5. Arau-haustek eta zehapenak:

a) Destilazioan erabiltzen diren lehengaien alkohol-gradua destilatzeko baimenaren eskabidean adierazitakoa baino handiagoa izatea zergen arloko arau-haustetzat joko da. Arau-hauste horrengatik isuna ezarriko da. Horren zenbatekoa zehazteko 35. artikuluko a) letran ezarritako prozedura erabiliko da.

b) Behin eta berriro egiten badira zergen arloko arau-hauste berdintsuak edo dekretu arauemaile honetako 45. artikuluan aipatutako zehapen bereziak dituzten arau-haustek, honako zehapen hau ezarri ahal izango da, gainera: artisau-destilazioaren erregimena izateko debekua, aldi baterako edo behin betiko.”

Sei. 45. artikulua honela geratu da:

“45. artikulua.- Arau-haustek eta zehapenak.

1. Ondoren azalduko direnak zergen arloko arau-haustek izango dira eta bakoitzari berariazko zehapena ezarriko zaio:

a) Arau bidez ezarritako izapideak bete gabe edo aitortutako lan-aldia bukatuta alkohola produzitzen duten aparatuak abian jartzea; arau-hauste honengatik isun hau ezarriko da: arau-haustea agerian geratzen den unean indarrean dagoen zerga-oinarria azken lan-aitorpena iraungi denetik aurkikuntza egin arte (3 hilabete gehienez) eten gabe lan eginez produzi daitekeen bolumenari (20 °C-tan dagoen hektolitro alkohol purutan adierazita) aplikatzearen emaitzako kuotaren %150eko isuna.

b) Alkohola sortzeko aparatu baten prezintua apurtzea, abian jartzeko, edo biltegiko prezintua apurtzea alkohola ateratzeko. Arau-hauste honengatik aurreko idatz-zatiaren arabera kalkulaturako kuotaren %100eko isuna ezarriko da aparatuaren prezintua apurtzen bada eta biltegiaren guztirako edukierari dagokion kuotaren %100eko isuna biltegiaren prezintua apurtzen bada. Horretatik salbu daude Administrazioari aurkikuntza egin aurretik prezintu-apurtzearen berri jakinarazten zaion kasuak.

c) Alkohol-fabriketan, lehengaiak arauz ezarritako alkohol-portzentajeak gainditzea; arau-hauste honen zehapena lehengai horiez fabrika daitekeen alkohol puruaren kopuruari dagokion kuotaren %100eko isuna izango da.

d) Edari eratorriak botilaratzeko baimena duten establezimenduetan botilen 1.000ko 0,5 baino gehiagotan zerga-markarik edo ezagutzeko markarik ez egotea; arau-

hauste honengatik isun hau ezarriko da: marka horiekin merkaturatuko ziren edarien alkohol puruaren bolumenari arau-haustea agerian geratzen denean indarrean dagoen zerga-tasa aplikatzearen emaitzako kuoten %150eko isuna. Kalkuluak egiteko, edarien bolumeneko alkohol-gradua %40 dela suposatuko da eta baliagarri dauden ontzikirik handienak erabili direla.

2. Erabat edota partzialki desnaturalizatutako alkohola birsortzea arau-haustea da; arau-hauste honengatik isun hau ezarriko da, zerga-kuota eskatzea eragotzi gabe: birsortu den alkohol bolumenari (20 °C-tan dagoen hektolitro alkohol purutan adierazita) arau-haustea agerian geratzen denean indarrean dagoen zerga-tasa aplikatzearen emaitzako halako hiru den zenbatekoa. Gainera, zerga-presako dekretu arauemaile honetako 19. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, alkohola birsortu den establezimendua itxi ahal izango da. Erabat edota partzialki desnaturalizatutako alkohola birsortu dela uste izango da beraren erabilera edo destinoa frogatzen ez denean.”

Zazpi. 55. artikuluko 1, 4 eta 5. idatz-zatiak honela geratu dira:

“1. Zerga-presako dekretu arauemaile honetako 54. artikuluan ezarritako debekuak eta erabilera-mugak ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da. Arau-hauste horien zehapenak artikuluko honetan xedatutakoaren arabera ezarriko dira; hori gorabehera, zergen arloko beste arau-hauste batzuegatik ere ezarri ahal izango dira zehapenak, zerga-presako dekretu arauemaile honetako 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.”

“4. Arau-hausleei zehapen hauek ezarriko zaizkie:

a) Arau-haustea gauzatu duen ibilgailuaren, artefaktuaren edo ontziaren motorrak 10 CV arteko potentzia badu, batetik diru-zehapena, 600 euroko isun finkoa hain zuzen, eta bestetik diruz besteko zehapena, hain zuzen ere ibilgailua, artefaktua edo ontzia hilabete prezintatuta egotea. Prezintua jarri eta ibilgetzea herritar guztien intereserako oso kaltegarria bada, zehapen hori ez da ezarriko eta 1.200 euroko isun finkoa izango da zehapena.

b) 10 CV-tik 25 CV-ra bitarteko motorretan, diru-zehapena 1.800 euroko isun finkoa izango da eta ibilgailua, artefaktua edo ontzia bi hilabete egongo da prezintatuta eta ibilgetuta. Prezintua jarri eta ibilgetzea herritar guztien intereserako oso kaltegarria bada, diru-zehapena baizik ez da ezarriko, hain zuzen ere 3.600 euroko isun finkoa.

c) 25 CV-tik 50 CV-ra bitarteko motorretan, diru-zehapena 3.600 euroko isun finkoa izango da eta ibilgailua, artefaktua edo ontzia hiru hilabete egongo da prezintatuta eta ibilgetuta. Prezintua jarri eta ibilgetzea herritar guztien intereserako oso kaltegarria bada, diru-zehapena baizik ez da ezarriko, hain zuzen ere 7.200 euroko isun finkoa.

d) 50 CV-tik gorako motorretan, diru-zehapena 6.000 euroko isun finkoa izango da eta ibilgailua, artefaktua edo ontzia lau hilabete egongo da prezintatuta eta ibilgetuta. Prezintua jarri eta ibilgetzea herritar guztien intereserako oso kaltegarria bada, diru-zehapena baizik ez da ezarriko, hain zuzen ere 12.000 euroko isun finkoa.

e) Aurreko 2. idatz-zatiko a) letran aipatutako kasuetan, zehapena 600 euroko isun finkoa izango da.”

“5. Arau-hauste hauek behin eta berriro errepikatuz gero, zehapenen zenbatekoak eta aldiak aurreko idatz-zatikoak halako bi izango dira.

Arau-haustea errepikatzea izango da aurreko artikuluan ezarritako debekuetako bat hausteagatik administrazio-bidean irmoa den ebazpen bidez zehapena ezarri eta hurrengo bi urteetan beste bat egitea.

Zortzigarrena.- Hidrokarburo Batzuen Txikizkako Salmentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 4ko 3/2002 Zerga-presako Dekretu Arauemailearen aldaketa.

Hidrokarburo Batzuen Txikizkako Salmentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 4ko 3/2002 Zerga-presako Dekretu Arauemailean honako manu hauek aldatu dira:

Bat. 9. artikuluko Hiru idatz-zatia honelaxe geratu da:

“Hiru. Zerga-oinarriaren zeharkako zenbatespena Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean adierazitako kasuetan eta moduan aplikatu ahal izango da.”

Bi. 13. artikulua honelaxe geratu da:

“13. artikulua.- Arau-haustea eta zehapenak.

Zerga honi dagozkion arau-haustea Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera zehatu dira. Hori gorabehera, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 16ko 1/1999 Zerga-presako Dekretu Arauemaileko 55. artikuluan xedatutakoaren arabera bidezkoak diren zehapenak ezarri ahal izango dira.”

Bederatzigarrena.- Toki Ogasunei buruzko uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren aldaketa.

Toki Ogasunei buruzko uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan honako manu hauek aldatu dira:

Bat. 1. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“1. artikulua.

1. Honako foru araua, Arabako Lurralde Osoan, udal entitateei, udalaz gaindiko entitateei eta udalak baino lurralde-eremu txikiagoa duten gainerako entitateei aplikatuko zaie, nazioarteko tratatu eta hitzarmenen kalterik gabe.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako entitateei Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatu ahal izango zaie, foru arau honetan dauden berezitasunekin.”

Bi. 7. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“7. artikulua.

1. Arabako Lurralde Historikoko udalen eginkizunak izango dira, foru arau honek ezarritako esparruan, euren zergak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea. Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta hura garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritakoari jarraituz egingo dituzte lan horiek. Betiere, udal zergei buruzko foru arauetan eta horiek garatzeko ematen diren xedapenetan ezartzen diren berezitasunei loturik jardungo dute.

2. Arabako Lurralde Historikoko udalek, zerga-ordenantzen bitartez, aurreko idatz-zatian aipatutako arautegia euren antolaketarako eta funtzionamendurako barne-erregimenera moldatu ahal izango dute, baina moldaketa horrek ezin izango dio aurka egin arautegiaren eduki materialari.”

Hiru. 10. artikuluko lehenengo paragrafoa honela geratu da:

“Udal zergetako berandutza-interesak eta errekarquak eskatzeko eta zehazteko kasuak, modua eta zenbatekoa Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean adierazitakoak berak izango dira.”

Lau. 11. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“11. artikulua.

Udal zergen arloan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak eta hura osatu eta garatzeko xedapenek arautzen duten erregimena aplikatuko zaie arau-hauste eta zehapenei, baina honako foru arau honetatik edo udal zergei buruzko foru arauetatik sortzen diren berezitasunak erantsiko dira, bai eta foru arau horien babespean ematen diren udal ordenantzetako berezitasunak ere, halakorik egonez gero.”

Bost. 12. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“12. artikulua.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko II. tituluko I. kapituluko 2. atalean zergapekoei ezartzen zaizkien informazio- eta laguntza-betebeharrak, udal zergen kudeaketari, likidazioari, ikuskapenari eta bilketari dagokienez, eginkizun horietan aritzeko eskumena duen entitateari egotziko zaizkio.”

Sei. 14. artikuluko 1, 2, 3, 4 eta 5. idatz-zatiak aldatu dira eta honela geratu dira:

“1. Udalari dagokio zergak aplikatzeko egintzak berrikustea eta erabat deusezak direla adieraztea, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko V. tituluari adierazitako kasuetan eta bertan ezarritako prozedurari jarraituz, eta ezertan eragotzi gabe hurrengo idatz-zatietan xedatutakoa.

2. Oker materialen zuzenketa eta zor ez ziren sarreren itzulketa, udal zergen eremuan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 227 eta 228. artikuluetan xedatutakoari lotuko zaizkio.

3. Ezin izango dira inola ere berrikusi epai judizial irmoaren bidez berretsitako administrazio-egintzak.

4. Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean adierazitako kasuetan izan ezik, udalek ezin izango dituzte euren egintzak deuseztatu eskubideren bat deklaratzeko egintzak badira. Horrelako egintzak deusezta daitezela lortu ahal izateko, udalek lehenengo eta behin herriarentzat kaltegarriak direla deklaratu beharko dute eta gero administrazioarekiko auzibidean inpugnatu beharko dituzte, jurisdikzio horri buruzko legearen arabera.

5. Udal entitateek euren zergen aplikazioari eta eraginkortasunari buruz ematen dituzten egintzen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio udal organo emaileari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, edo, berariaz jakinarazten ez bada, zergadunen erroldak nahiz matrikulak jendaurrean jarri eta biharamunetik hasita.”

Zazpi. 23. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Tasen subjektu pasibo izango dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeak, baldin eta:

a) Udal jabari publikoa euren onurarako gozatu, erabili edo bereziki aprobetxatzen badute, foru arau honetako 20.2 artikuluan azaltzen diren moduetan.

b) Udalek egiten dituzten zerbitzu edo jarduerak eskatzen badituzte edota horien onura nahiz eragina jasotzen badute, foru arau honetako 20.3 artikuluan azaltzen diren moduetan.”

Zortzi. 31. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Kontribuzio berezien subjektu pasibo izango dira pertsona fisikoak zein juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeak, zerga ordaindu beharra sortzen duten obretatik edo zerbitzuen ezarpen eta zabalkuntzatik onura berezia ateratzen badute.”

Bederatzi. Lehenengo xedapen gehigarria aldatu da eta honela geratu da:

“Lehenengoa.-

Zerbitzu edo jardueraren bat egiteagatik aldian aldiko prezio publikoa ordaintzeko eskatzen ari bada eta, zerbitzuaren edo jardueraren inguruabarrak aldatu egin direlako, horren ordeztasa ordaintzeko eskatu beharra badago, ez da beharrezkoa izango Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 98. artikuluan aipatzen den banakako jakinarazpena egitea, baldin eta tasaren subjektu pasiboa eta kuota, hurrenez hurren, prezio publikoa ordaindu izan duena eta prezio publikoaren zenbatekoa badira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikagarria izango da baita tasaren kuota prezio publikoaren zenbatekoa baino handiagoa denean ere, baldin eta gehikuntza hori eguneratze orokor baten arabera bada.”

Hamargarrena.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren aldaketa.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauan honako manu hauek aldatu dira:

Bat. 5. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra aldatu da eta honela geratu da:

“c) Eragiketen bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena establezimendu iraunkorrean dihardutenek soilik aplika dezakete, baldin eta eragiketen bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa bada.

Nolanahi ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez edukitzea %25etik gorako partaidetza emanda letra honetan eragiketa-bolumenari buruz ezarritako betekizuna betetzen ez duten enpresei, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, aipatzen diren arrisku kapitaleko funts edo sozietateak edo enpresen sustapenerako sozietateak direnean, eta partaidetza sozietate horien xedearen betekizunaren ondorio denean.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko arau hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketa-bolumena Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 2. artikuluko 7. idatz-zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboaren kasuan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ziozko zergadunen kasuan, eragiketa-bolumena haxe izango da: honako Zerga honen sortzapen-urtearen aurrekoan zerga horien aitorpenak aurkezteko epea amaitu zaion zergaldikoa.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako sozietate zibilen eta erakundeen eragiketen bolumena zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa izango da.

Zergaldi hori urtebete baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko, hark egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Erakundea, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluen arabera, sozietate talde bateko kidea bada, lehenago aipatu magnitudeak talde horretako erakundeen multzoari egokituko zaizkio. Era berean erabiliko da irizpide hau baldin eta pertsona fisiko batek, berak bakarrik edota bigarren gradura arte, hau ere barne, zuzeneko edo alboko ahaidetasun, odol-ahaidetasun edota ezkontahaidetasun lokarriez bat egindako beste pertsona fisikoekin batera, kide den beste erakunde batzuekin

harremanak baditu Merkataritzako Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuetariko batean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluko kasuak abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuak onetsitako urteko kontu bateratuak formulatzeko arauetako lehenengo kapituluko 1. atalean ezarritakoak direla ulertuko da.

4. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapekoen eragiketen bolumena Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkor guztiei egotzi ahal zaiena izango da.”

Bi. 6. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“6. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisikoak eta juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeak, baldin eta zerga-egitatea sortzen duten jardueretariko bat Arabako Lurralde Historikoan egiten badute.”

Hiru. 15. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“15. artikulua.

Jarduerak sailkatzeko eta kuotak ezartzeko egintzen aurkako errekurso eta erreklamazioak direla-eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 229. eta 246. bitarteko artikuluetan xedatutakoa beteko da. Arabako Foru Aldundia izango da horrelako errekurso eta erreklamazioak ebazteko organo eskuduna. Horrelako erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.”

Lau. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifak eta horiek aplikatzeko jarraibidea onetsi dituen uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu Arauemailearen II. eranskineko bigarren kapituluko 3. erregelako 3. idatz-zatia aldatu da. Honela geratu da:

“3. erregela. Lanbide-jardueratzat joko dira tarifen bigarren atalean sailkatu direnak, pertsona fisikoek egiten badituzte. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako pertsona juridiko edo erakunde batek tarifen bigarren atalean sailkatutako jarduera egiten duenean, tarifen lehenengo ataleko jarduera korrelatibo edo kidekoari dagokion matrikula egingo du eta jarduera horri dagokion zerga ordainduko du.”

Hamaikagarrena.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren aldaketa.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauan honako manu hauek aldatu dira:

Bat. 5. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Zerga honen subjektu pasiboak izango dira, zergadun gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako pertsona natural eta juridikoak, baldin eta kasu bakoitzean zerga honen zerga-egitatea den eskubidearen titularrak badira.

Bi. 17. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeetako partaideek edo titularkideek solidarioki ordainduko dute zerga honen kuota, bakoitzak bere partaidetzari dagokiona, Higiezinaren Katastroan hala ageri badira. Katastroan inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko da, hala ere.”

Hiru. 18. artikuluko 2. idatz-zatiko azken paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“Idatz-zati honetan aipatutako aitortpenak ez aurkeztea edo ezarritako epeetatik kanpo aurkeztea zergen arloko arau-haustea izango da.”

Lau. 20. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“20. artikulua.

Balio-ponentziak onesteko egintzen aurka eta katastroko balioen aurka foru arau honetako 11. eta 12. artikuluetan xedatutakoari jarraituz jartzen diren errekurso eta erreklamazioei dagokienez, arauzkoa izango da Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko eta 246. bitarteko artikuluetan xedatutakoa, eta Arabako Foru Aldundiak izango du eskumena berraztertzeke errekursoa ebazteko. Horrelako errekurso edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.”

Hamabigarrena.- Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauaren aldaketa.

Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauko 3. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“3. artikulua.

1. Zergaren subjektu pasiboak izango dira, zergadun gisa:

a) Irabazteko xedearekin lurak eskualdatzen direnean edo, jabaria mugaturik, ondasunak edukitzeko eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen direnean, lurra eskuratzen duena edo eskubide erreala eratzen nahiz eskualdatzen zaiona, dela pertsona fisiko edo juridikoa, dela Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeetarikoa.

b) Kostu bidez lurak eskualdatu edo, jabaria mugaturik, ondasunak edukitzeko eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen direnean, lurak eskualdatzen dituen edo eskubide erreala eratzen nahiz eskualdatzen duena, dela pertsona fisikoa edo

juridikoa, dela Zergei buruzko Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeetarikoa.

2. Aurreko idatz-zatiko b) letrak aipatzen dituen kasuetan, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa bada, zergadunaren ordezkotako subjektu pasibotzat joko da lurralde eskuratzen dituen edo eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaiona, dela pertsona fisikoa edo juridikoa, dela Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeetarikoa.

Hamahirugarrena.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 45/1989 Foru Arauaren aldaketa.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 45/1989 Foru Arauko 2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Hauek dira, zergadun gisa, zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeak, baldin eta higiezin batean egiten den eraikuntza, instalazio edo obraren jabe badira, higiezinaren jabe izan zein ez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari dagokionez, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea hura egiteko gastuak edo kostuak jasaten dituen da.”

Hamalauugarrena.- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren aldaketa.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauko 3. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“3. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko nahiz juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren erakundeak, zirkulazio-baimenean ibilgailua beraien izenean agertuz gero.”

Hamabosgarrena.- Ganbera-baliabide iraunkorra deritzona ezarri eta arautu duen maiatzaren 18ko 3/1993 Zerga-presako Dekretu Arauemailearen aldaketa.

Ganbera-baliabide iraunkorra deritzona ezarri eta arautu duen maiatzaren 18ko 3/1993 Zerga-presako Dekretu Arauemaileko 2. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“2. artikulua.- Ordaindu beharra.

Pertsonak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeek aurreko artikuluan ezarritako ganbera-baliabide iraunkorra ordaindu beharra izango dute baldin eta, ekitaldi ekonomiko oso batean nahiz zati batean, martxoaren 22ko 3/1993 Legeko 6. artikuluan aipatutako jarduerak egin eta, horregatik, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kargapean geratzen badira.”

Hamaseigarrena.- Tasa eta Prezio Publikoei buruzko azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauaren aldaketa.

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauko 6. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“6. artikulua.- Kontzeptua.

Tasak tributuak dira eta beraien zerga-egitateak hauexek dira: herri jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egitea eta zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea Zuzenbide Publikoko erregimenean, hain zuzen ere zergapekoei dagozkienak, haiek ukitzen dituztenak edo haiei onura ekartzen dietenak, baldin eta zerbitzu edo jarduera hauek ez badituzte zergapekoek eskatzen edo ez badituzte euren borondatez jasotzen eta ez badituzte egiten sektore pribatukoek.

Zerbitzuak edo jarduerak Zuzenbide Publikoko erregimenean eman edo egin direla ulertuko da administrazio-legerian zerbitzu publikoa kudeatzeko ezarritako moduetako baten bidez burutzen direnean eta horien titularra ente publikoa denean.”

Hamazazpigarrena.- Nekazaritzarekin zerikusia duten zerga-neurriei buruzko ekainaren 9ko 17/1997 Foru Arauaren aldaketa.

Nekazaritzarekin zerikusia duten zerga-neurriei buruzko ekainaren 9ko 17/1997 Foru Arauko 15. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“15. artikulua.- Zehatzeko erregimena.

Foru arau honetan ezarritako zerga-onurei dagokienez, aplikagarriak izango dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean bildutako arau-haustek eta zehapenak.”

Hamazortzigarrena.- Araugintzarako gaikuntza.

Foru Aldundiak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emango ditu.

Hemeretzigarrena.- Baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bidezko jarduketa eta prozedurak eta kautotze-bideei dagozkienak arau bidez garatzea.

Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez egiten diren zergen arloko jarduketa eta prozedurei aplikatu beharreko garapen-arauak eman ahal izango ditu, bai eta Zerga Administrazioak erabiltzen dituen egiaztapen-bideei buruzkoak ere.

Hogeigarrena.- Indarrean jartzea.

Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean, Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 2. atala izan ezik, indarrean sartuko baita Arabako ALDIZKARI OFIZIALean Foru Araua argitaratu eta hurrengo egunean.

OHARRAK

- (1)
- (2)
- (3) 1/2007 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 20koa.
(ALHAO, 30. zk., 07-3-12koa).
- (4) Ikus otsailaren 20ko 1/2007 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko hirugarren xedapen gehigarria.
(ALHAO, 30. zk., 07-3-12koa).
- (5) Ikus otsailaren 5eko 1/2008 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko xedapen gehigarri bakarra.
(ALHAO, 20. zk., 08-2-15ekoa).
- (6) 14/2008 Foru Araua, uztailaren 3koa.
(ALHAO, 79. zk., 08-7-11koa, gehigarria).
- (7) 21/2008 Foru Araua, abenduaren 18koa.
(ALHAO, 149. zk., 08-12-29koa, gehigarria; ALHAO, 7. zk., 09-1-16koa, gehigarria).
- (8) Ikus urtarrilaren 20ko 1/2009 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko xedapen gehigarri bakarra.
(ALHAO, 13. zk., 09-1-30ekoa).
- (9) Ikus apirilaren 7ko 2/2009 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko artikulua bakarra.
(ALHAO, 43. zk., 09-4-15ekoa).
- (10) 14/2009 Foru Araua, abenduaren 17koa.
(ALHAO, 149. zk., 09-12-30ekoa, gehigarria; ALHAO, 20. zk., 10-2-19koa, gehigarria).
- (11) Ikus urtarrilaren 26ko 1/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko 5. artikulua.
(ALHAO, 13. zk., 10-2-3koa).
- (12) 15/2010 Foru Araua, abenduaren 20koa.
(ALHAO, 147. zk., 10-12-29koa, gehigarria).
- (13) 1/2011 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 8koa.
(ALHAO, 21. zk., 11-2-18koa).

- (14) 6/2011 Foru Araua, otsailaren 21ekoa.
(ALHAO, 23. zk., 11-2-23koa, gehigarria).
- (15) 2/2011 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 20koa.
(ALHAO, 114. zk., 11-9-28koa).
- (16) 18/2011 Foru Araua, abenduaren 22koa.
(ALHAO, 153. zk., 11-12-30ekoa, gehigarria).
- (17) 8/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 31koa.
(ALHAO, 90. zk., 12-8-6koa).
- (18) 20/2012 Foru Araua, azaroaren 19koa.
(ALHAO, 140. zk., 12-12-5ekoa, gehigarria).
- (19) 4/2013 Foru Araua, urtarrilaren 28koa.
(ALHAO, 16. zk., 13-2-6koa, gehigarria).
- (20) 8/2013 Foru Araua, martxoaren 11koa.
(ALHAO, 34. zk., 13-3-20koa, gehigarria).
- (21) 1/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 19koa.
(ALHAO, 41. zk., 13-4-10ekoa).
- (22) 13/2013 Foru Araua, apirilaren 15ekoa.
(ALHAO, 48. zk., 13-4-26koa, gehigarria).
- (23) 18/2013 Foru Araua, ekainaren 3koa.
(ALHAO, 69. zk., 13-6-17koa, gehigarria).
- (24) 4/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 17koa.
(ALHAO, 110. zk., 13-9-25ekoa, gehigarria).
- (25) 1/2014 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 4koa.
(ALHAO, 20. zk., 14-2-19koa).
- (26) 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 10ekoa.
(ALHAO, 36. zk., 15-3-25ekoa).
- (27) 22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa.
(ALHAO, 152. zk., 15-12-30ekoa).
- (28) 3/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 19koa.
(ALHAO, 87. zk., 16-08-3koa).
- (29) 19/2016 Foru Araua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 147. zk., 16-12-30ekoa).
- (30) 5/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 3koa.
(ALHAO, 96. zk., 17-08-23koa).
- (31) 18/2017 Foru Araua, irailaren 20koa.

(ALHAO, 112. zk., 17-9-29koa).

(32) 2/2018 Foru Araua, martxoaren 7koa.
(ALHAO, 32. zk., 18-3-16koa).

(33) 3/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 23koa.
(ALHAO, 125. zk., 18-10-31koa).

(34) 22/2019 Foru Arua, abenduaren 13koa.
(ALHAO, 149. zk., 19-12-30ekoa).

(35) 25/2019 Foru Arua, abenduaren 20koa.
(ALHAO, 149. zk., 19-12-30ekoa).

(36) 8/2020 Premia Fiskaleko Araugintzako Dekretua, ekainaren 23koa.
(ALHAO, 73. zk., 20-07-01ekoa).

(37) 9/2020 Premia Fiskaleko Araugintzako Dekretua, uztailaren 14koa.
(ALHAO, 82. zk., 20-07-22koa).

(38) 10/2020 Premia Fiskaleko Araugintzako Dekretua, irailaren 8koa.
(ALHAO, 105. zk., 20-09-16koa).

(39) 13/2021 Foru Arua, apirilaren 21ekoa.
(ALHAO, 46. zk., 21-04-30ekoa).

(40) 34/2021 Foru Arua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 146. zk., 21-12-29koa).

(41) 2/2022 Premia Fiskaleko Araugintzako Dekretua, otsailaren 22koa.
(ALHAO, 26. zk., 22-03-2koa).

(42) 24/2022 Foru Arua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 150. zk., 22-12-30ekoa).

(43) 24/2023 Foru Arua, abenduaren 15ekoa.
(ALHAO, 150. zk., 23-12-29koa).

(44) 26/2023 Foru Arua, abenduaren 22koa.
(ALHAO, 150. zk., 23-12-29koa).

(45) 19/2024 Foru Arua, abenduaren 20koa.
(ALHAO, 147. zk., 24-12-30ekoa).

(46) 3/2025 Foru Arua, apirilaren 9koa.
(ALHAO, 44. zk., 25-4-16koa).

(47) 21/2025 Foru Arua, abenduaren 19koa.
(ALHAO, 147. zk., 25-12-29koa).

(47.1) 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den idazketa: 7. artikulua.